# BlackBerry Bold Series

## BlackBerry Bold 9900/9930 Smartphones

### Erabiltzailearen gida

Bertsioa: 7.0

Erabiltzailearen gida berrienak aurkitzeko, bisitatu www.blackberry.com/docs/smartphones helbidea.

BlackBerry®

# Edukiak

Laguntza azkarra.............................................................. 6
Lehen urratsak: Zure telefonoa.............................................................. 6
Nola: Top 10.............................................................. 21
Aholkuak: Top 10.............................................................. 24
Pertsonalizazioa: Top 10.............................................................. 33
Arazoak: Top 10.............................................................. 36

Aholkuak eta lasterbideak.............................................................. 41
Aholkuak: gauzak azkar egitea.............................................................. 41
Aholkuak: bateriaren bizitza luzatzea.............................................................. 42
Aholkuak: aplikazioak aurkitzea.............................................................. 43
Aholkuak: memorian lekua egitea eta mantentzea.............................................................. 43
Aholkuak: softwarea eguneratzea.............................................................. 45
Aholkuak: zure informazioa seguru gordetzea.............................................................. 45
Aholkuak: adierazleak kudeatzea.............................................................. 46
Telefonoaren lasterbideak.............................................................. 47
Mezuen lasterbideak.............................................................. 47
Fitxategien eta eranskinen lasterbideak.............................................................. 49
Idazketa lasterbideak.............................................................. 49
Multimedia lasterbideak.............................................................. 50
Arakatzailearen lasterbideak.............................................................. 51
Egutegiaren lasterbideak.............................................................. 53
Lasterbideak bilatu.............................................................. 53
Mapetako lasterbideak.............................................................. 54
Arazoak: lasterbideak.............................................................. 54

Telefonoa.............................................................. 55
Nola: Telefonoa.............................................................. 55
Arazoak: Telefonoa.............................................................. 72

Ahots komandoak.............................................................. 75
Nola: Ahots-komandoak.............................................................. 75
Arazoak: Ahots-komandoak.............................................................. 77

Mezuak.............................................................. 78
Nola: Mezuak.............................................................. 78
Posta elektronikoa.............................................................. 83
Testu mezuak.............................................................. 102
PIN mezuak.............................................................. 110
Eranskinak.............................................................. 113

Mezuentzako segurtasun aukerak........ 116

Fitxategiak eta eranskinak........ 131
Nola: Fitxategiak........ 131
Arazoak: Fitxategia........ 137

Multimedia........ 138
Nola: Multimedia........ 138
Musika........ 143
Bideoak........ 146
Bideokamera........ 148
Kamera........ 152
Argazkiak........ 156
Ahots oharrak........ 160

Dei-tonuak, soinuak eta alertak........ 163
Nola: Dei-tonuak, soinuak eta alertak........ 163
Arazoak: Dei-tonuak, soinuak eta alertak........ 166

Arakatzailea........ 167
Nola: Arakatzailea........ 167
Arazoak: arakatzailea........ 179

Egutegia........ 181
Nola: Egutegia........ 181
Arazoak: egutegia........ 189

Kontaktuak........ 191
Nola: Kontaktuak........ 191
Arazoak: kontaktuak........ 199

Erlojua........ 200
Nola: Erlojua........ 200
Arazoak: erlojua........ 203

Egitekoak eta memorandumak........ 204
Egitekoak edo memorandumak sortu........ 204
Egitekoak edo memorandumak bidali........ 204
Egiteko edo memoradum bat aldatu edo ezabatu........ 204
Egiteko baten egoera aldatu........ 204
Osatutako egitekoak ezkutatu........ 205
Egitekoak egutegian erakutsi........ 205

Egitekoak eta memorandumak sinkronizatzea.......... 205
Kategoriei buruz.......... 207
Kontaktuei, egitekoei edo memorandumei kategoria ezarri.......... 207
Kontaktuen, egitekoen eta memorandumen kategoriak sortu.......... 208
Elementuak ezabatu baino lehen agertzen den gonbipena desaktibatu.......... 208

Idazketa.......... 209
Nola: Idaztea.......... 209
Arazoak: idazketa.......... 214

Teklatua.......... 216
Nola: Teklatua.......... 216
Arazoak: Teklatua.......... 217

Hizkuntza.......... 218
Nola: Hizkuntza.......... 218
Arazoak: Hizkuntza.......... 219

Pantaila bistaratzea.......... 220
Nola: Pantailaren bistaratzea.......... 220
Arazoak: Pantailaren bistaratzea.......... 223

GPS teknologia.......... 225
Nola: GPS teknologia.......... 225
Arazoak: GPS teknologia.......... 226

Iparrorratza.......... 228
Nola: Iparrorratza.......... 228
Arazoak: Iparrorratza.......... 229

Mapak.......... 230
Nola: Mapak.......... 230
Arazoak: Mapak.......... 234

Aplikazioak.......... 236
Nola: Aplikazioak.......... 236
Arazoak: aplikazioak.......... 238

BlackBerry gailuen softwarea.......... 243
Nola: BlackBerry Device Software softwarea.......... 243
Arazoa: BlackBerry Device Software.......... 246

Kudeatu konexioak.......... 248

Sare mugikorra.... 248
Wi-Fi teknologia.... 254

Bluetooth teknologia.... 264
Nola: Bluetooth teknologia.... 264
Arazoak: Bluetooth-a teknologia.... 271

NFC teknologia.... 273
Nola: NFC teknologia.... 273
Arazoak: NFC teknologia.... 275

Osagarri adimendunak.... 277
Smart Accessories aplikazioari buruz.... 277
Portu adimendunak konfiguratu.... 277
Protuaren profila aldatu.... 277
Gordetako portuaren profila ezabatu.... 278

Energia eta bateria.... 279
Nola: Energia eta bateria.... 279

Biltegiratze lekua eta memoria-txartelak.... 282
Nola: Biltegiratze lekua eta multimedia-txartelak.... 282
Aholkuak: Biltegiratze lekua eta memoria-txartelak.... 285
Arazoak: biltegiratze lekua eta memoria-txartelak.... 287

Bilatu.... 288
Nola: Bilaketa.... 288
Arazoak: Bilaketa.... 291

SIM txartela.... 292
Nola: SIM txartela.... 292

Segurtasuna.... 295
Nola: Segurtasuna.... 295
Arazoak: segurtasuna.... 328

Zerbitzu-liburuak eta diagnostiko-txostenak.... 330
Zerbitzu-liburu bat onartu, ezabatu edo berrezarri.... 330
Diagnostiko-txosten bat exekutatu.... 330
Diagnostiko-txosten bat ikusi, bidali edo ezabatu.... 330
Diagnostiko-txostenen hartzaile lehenetsia ezarri.... 331
Ezin dut diagnostiko-txostenik exekutatu edo bidali.... 331
Telefonoaren modelo-zenbakia eta BlackBerry Device Software softwarearen bertsioa bilatu.... 331

Sinkronizazioa ........ 333
Nola: Sinkronizazioa ........ 333
Arazoak: sinkronizazioa ........ 336

Erabilerraztasun aukerak ........ 338
Nola: Irisgarritasuna ........ 338

Kalkulagailua ........ 343
Kalkulagailua erabili ........ 343
Neurri bat bihurtu ........ 343

Glosarioa ........ 344

Lege oharra ........ 349

# Laguntza azkarra

## Lehen urratsak: Zure telefonoa

Jakin ezazu aplikazioei eta adierazleei buruz; baita teklek zer egiten duten ere BlackBerry® telefonoan.

### BlackBerry telefonoa begirada batean




### Bertsio honetako berrikuntzak

Bertsio honetan eginbide eta zerbitzua zirraragarri ugari gehitu dira. Halaber, hobekuntza batzuk egin zaizkie orain arteko zenbait eginbideri.

**BlackBerry IDa**
BlackBerry® IDk sarbide egokia ematen dizu hainbat BlackBerry produktu eta zerbitzutara. BlackBerry ID sortu ostean, helbide elektroniko eta pasahitz bakarra erabil ditzakezu edozein BlackBerry ID onartzen duen edozein BlackBerry zerbitzutan saioa hasteko. BlackBerry IDarekin, BlackBerry App World™ erakusleihotik deskargatutako aplikazioak kudeatu eta telefonoz aldatzen duzunean aplikazio horiek mantendu ditzakezu. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry IDri buruz, 7.

**Ahotsa gaitutako bilaketa**
Zerbaiten bila zabiltza? Zure ahotsa erabil dezakezu laguntza, kontaktuak, dokumentuak, argazkiak, bideoak eta askoz gehiago bilatzeko BlackBerry telefonoan eta Interneten. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Ahotsa gaitutako bilaketa erabiliz elementuak bilatu, 288.

**Hasierako pantaila pertsonalizatzea**

Pertsonalizatu are gehiago Hasierako pantaila normalean erabiltzen ez dituzun panelak ezkutatuta eta ikonoak panel zehatz batzuetan edo panel guztietan ezkutatuta. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Hasierako pantailako panela erakutsi edo gorde, 17 eta Aplikazio-ikono bat erakutsi, ezkutatu edo bilatu, 17.

**Iparrorratza aplikazioa**
Zehaztu erraz zure norabidea zein den Lurraren polo magnetikoarekiko edo benetako iparraldearekiko. Kokapenean oinarritutako aplikazioekin (Mapak aplikazioa, esaterako) ere erabil dezakezu iparrorratza, koordinatuetan oinarrituta jarraibideak aurkitzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Iparrorratza, 0 .

**NFC teknologia**
NFC teknologiarekin, azkar truka dezakezu informazioa telefonoaren eta osagarri adimenduen, ordainketa-terminal adimenduen, sarbide-puntu adimenduen eta etiketa adimenduen artean. Telefonoaren NFC etiketa adimenduen irakurgailua etiketa adimendunaren kontra kolpatzen duzunean, zenbait informazio ikus dezakezu, hala nola web-helbideak, kupoiak, grafikoak, multimedia-fitxategiak eta gertaeren xehetasunak. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi NFC teknologia, 273.

**Ukitu gabe deiak erantzutea**
Bluetooth® gaitutako aurikularrak edo ohiko aurikularrak erabiltzen ari zarenean, ez duzu eskurik erabili behar deiak erantzuteko! Orain, 5 segundo igarotakoan, deiak automatikoki erantzun daitezen zehatz dezakezu telefonoa. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Entzungailuekin deiak nola erantzun aldatu, 69.

**Bluetooth hobekuntzak**
Aldi berean hainbat argazki bidal ditzakezu Bluetooth-a teknologia erabiliz. Xehetasunak ikusteko, ikusi Fitxategiak bidali, 114.

Bidali eta jaso egokiro bisita-txartelak (vCard® gisa ere ezagutzen direnak) Bluetooth-a teknologia erabiliz eta gorde jasotako bisita-txartelak telefonoaren kontaktuen zerrendan. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Bluetooth teknologia erabiliz kontaktu-txartelak bidali eta jaso, 267.

**Bideo hobekuntzak**
Grabatu eta erreproduzitu bideoa HD (720 x 1280) formatuan. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Bideo tamaina eta formatua aldatu, 150.

**Argazki hobekuntzak**
JPEG eta PNG argazkiak biratzen dituzunean, argazkiak biratutako ikuspegian gordeko dira automatikoki.

Aargazkiak berrienetik zaharrenera edo zaharrenetik berrienera ordenatzea. Argazkiak ateratako ordenean ikus ditzakezu argazkiak diapositiba-aurkezpen batean.

Orain, argazkiak diapositiba-aurkezpen batean ikus ditzakezu irristatze, zoom egite eta panoramika ateratze trantsizioak erabiliz. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Aldatu diapositiba-aurkezpen aukerak, 157.

# BlackBerry IDri buruz

BlackBerry® IDk sarbide egokia ematen dizu hainbat BlackBerry produktu eta zerbitzutara. BlackBerry ID sortu ostean, helbide elektroniko eta pasahitz bakarra erabil ditzakezu edozein BlackBerry ID onartzen duen edozein BlackBerry zerbitzutan saioa hasteko. BlackBerry IDarekin, BlackBerry App World™ erakusleihotik deskargatutako aplikazioak kudeatu eta telefonoz aldatzen duzunean aplikazio horiek mantendu ditzakezu.

BlackBerry telefonoa konfiguratzen duzunean, baliteke BlackBerry IDa sortzea eskatzea. BlackBerry ID bat erabiltzen duen aplikazio baten bidez edo www.blackberry.com/blackberryid hebidea bisitatuta ere sor dezakezu BlackBerry IDa

BlackBerry® ID onartzen duten zenbait zerbitzu eta aplikaziok saio-hasierako informazioa berriro sartzea eskatuko dute sarrera kopuru bat egindakoan, aktiboki ez bazara aplikazio erabiltzen. Halaber, baliteke BlackBerry IDaren saio-hasierako informazioa sartu behar izatea, BlackBerry ID informazioren bat aldatzen baduzu, telefonoko datu guztiak ezabatzen badituzu edo telefonoko BlackBerry® Device Software eguneratzen baduzu.

**Lotutako informazioa**
BlackBerry ID bat sortu, 236
BlackBerry ID informazioa aldatu, 236

# Konfigurazioa aplikazioa bisitatu

Konfigurazio aplikazioak nabigazioa eta idazketari buruz gehiago jakiten, zure BlackBerry® smartphone-a pertsonalizatzen, eta sarearen konexioak konfiguratzen lagunduko dizu, hala nola Bluetooth® konexioak. Helbide elektronikoak eta sare sozialak ere konfiguratu ditzakezu. Smartphone-a lehenengo aldiz pizten duzunean konfigurazio morroia automatikoki agertuko da.

1. Ongietorri pantaila ez bada automatikoki agertzen, hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Konfigurazio** ikonoa.
2. Klikatu sekzio batean aukerak aldatzeko edo aukerak konfiguratzen lagunduko duten galdera gutxi batzuk osatzen.

# Tekla garrantzitsuak

## Aurrealdeko teklak

| Tekla | Izena | Ekintzak |
|---|---|---|
|  | **Gurpila** | • Irristatu hatza pantailan mugitzeko.<br>• Sakatu elementu bat hautatzeko.<br>• Eduki sakatuta pop-up menu bat irekitzeko. |
|  | **Menua** | • Ireki menu bat.<br>• Hautatu menuko elementu nabarmendu bat.<br>• Eduki sakatuta aplikazio batetik bestera azkar aldatzeko. |
|  | **Ihes** | • Itzuli aurreko pantailara.<br>• Itxi menua. |
|  | **Bidali** | • Deitu.<br>• Erantzun dei bati. |
|  | **Amaitu/piztu-itzali** | • Amaitu dei bat.<br>• Itzuli Hasierako pantailara. |

| Tekla | Izena | Ekintzak |
|---|---|---|
| | | • Eduki sakatuta BlackBerry®telefonoa pizteko edo itzaltzeko. |

**Tekla erabilienak**

| Tekla | Izena | Ekintzak |
|---|---|---|
| | **Blokeatu** | Blokeatu edo desblokeatu pantaila eta teklatua. |

**Alboko teklak**

| Tekla | Izena | Ekintzak |
|---|---|---|
| | **Bolumena/Mutua** | • Sakatu gora eta behera teklak bolumena aldatzeko.<br>• Eduki sakatuta gora eta tekla hurrengo edo aurreko multimedia-fitxategia erreproduzitzeko.<br>• Argazki bat atera edo bideo bat grabatu aurretik, sakatu gora edo behera botoia handiagotu edo txikiagotzeko.<br>• Sakatu erdiko tekla dei bat mututu edo bolumena mututzeko. |
| | **Egokitasun-tekla** | • Kamera baduzu, hura ireki.<br>• Ahal badu, argazkia atera.<br>• Tekla hau pertsonaliza dezakezu. |

**Teklatua**

| Tekla | Izena | Ekintzak |
|---|---|---|
| ⇧aA | **Maius** | Idatzi hizkiak maiuskulaz. |
| alt | **Alt** | Idatzi beste karakterea tekla batean. |
| sym | **Ikurra** | Ireki ikurren zerrenda. |
| del | **Atzera/ezabatu** | Ezabatu aurreko karakterea edo hautatutako elementu bat. |
| | **Sartu** | Hautatu elementu bat. |
| | **Bozgorailua** | Aktibatu edo desaktibatu bozgorailua deia abian dela. |

# LED keinukaria

BlackBerry® smartphone-aren goiko aldeko LED argiak dirdira egin dezake hainbat koloretan egoera desberdinak adierazteko.

| LED kolore keinukaria | Deskribapena |
|---|---|
| Berdea | Hari gabeko sare baten estaldurapean zaude. Jakinarazpena aktibatu edo desaktibatu dezakezu. |
| Urdina | Smartphone-a Bluetooth® gaituta duen gailu batera konektatuta dago. Jakinarazpena aktibatu edo desaktibatu dezakezu. |
| Gorria | Mezu berria jaso duzu eta hautatu duzun profila LED argi keinukaria erabiliz jakinarazteko ezarrita dago. Zure smartphone-a txartel adimendu batekin erabiltzen ari bazara, zure smartphone-a txartel adimenduko datuetan sartzen ari da. |
| Anbar | Smartphone-ak bateria gutxi du edo desaktibatuta dago eta kargatzen ari da. Ezin duzu bateria gutxi dagoela adierazten duen jakinarazlea desaktibatu. Smartphone-a pizten duzunean kargatze-jakinarazpena desaktibatzen da. |

**Lotutako informazioa**
Bluetooth-a konexioen jakinarazpenak deskonektatu, 270
Hari gabeko estalduraren LED jakinarazpena aktibatu, 222

# Ikonoak

## Aplikazio ikonoak

Zure aplikazioetara joan zaitezke Hasierako pantailako ikonoak eta karpetak sakatuz. Hasierako pantailaren lehenengo ikustean eskuragarri dauden aplikazio batzuetarako ikonoak daude. Aplikazio ikono gehiago Hasierako pantailan ikusteko, sakatu **Guztiak**.

BlackBerry® telefonoaren modeloaren, administratzailearen eta hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke aplikazio batzuk erabilgarri ez egotea. Baliteke aplikazio batzuk BlackBerry App World™ erakustokitik deskargatzeko gai izatea.

Ikonoen gida osoa ikusteko, joan ww.blackberry.com/docs/smartphones helbidera. Sakatu telefonoaren modeloa eta, ondoren, sakatu *Ikonoen gida*,

**Konfigurazioa**

| | | | |
|---|---|---|---|
|  | Konfigurazioa |  | Enpresa aktibazioa |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | Email lan kontu bat aktibatu BlackBerry® Enterprise Server erabiliz. |
| | Aukerak | | |

**Aktibatu eta blokeatu**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Pasahitzaren blokeoa | | Energia deskonektatu |

**Mezuak**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Mezuak | | Gordetako mezuak |
| | Erantsitako email helbidea | | Erantsitako lan email helbidea |
| | Testu-mezuak | | |

**Berehalako mezularitza**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Instant Messaging-eko paper-zorroa<br><br>Baliteke aplikazio batzuk paper-zorro honetan agertzea deskargatu dituzun aplikazioak barne | | BBM™ |
| | BlackBerry® telefonoentzako Windows Live™ Messenger | | BlackBerry® telefonoentzako AOL® Instant Messenger™ Service |
| | BlackBerry® telefonoentzako Google Talk™ | | BlackBerry® telefonoentzako Yahoo!® Messenger |

**Aplikazioak**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Arakatzailea | | Kudeatu konexioak |
| | Mapak | | Laguntza |
| | Pasahitz biltzailea | | Ahots bidezko markatzea |
| | Aplikazio paper-zorroa | | |

Baliteke aplikazio batzuk paper-zorro honetan agertzea deskargatu dituzun aplikazioak barne

### Multimedia

| | |
|---|---|
| Multimedia paper-zorroa | Bideoak |
| Argazkiak | Musika |
| Dei-tonuak | Ahots oharrak |
| Kamera | Bideokamera |
| Ahots ohar. grabagailua | Podcast-ak |

### Antolatzaile pertsonala

| | |
|---|---|
| Kontaktuak | Egutegia |
| Egitekoak | MemoPad |
| Erlojua | Kalkulagailua |

### Fitxategiak

| | |
|---|---|
| Documents To Go® | Fitxategiak |

### Sare sozialak eta erosketa mugikorra

| | |
|---|---|
| BlackBerry App World™ | Iturri sozialak |
| BlackBerry® telefonoentzako Facebook® | BlackBerry® telefonoentzako Twitter® |

### BlackBerry Device Software eguneratzea

| | | | |
|---|---|---|---|
| | BlackBerry® Device Software softwarearen eguneratzea eskuragarri dago. | | BlackBerry Device Software softwarearen eguneratzea deskargatzen ari da. |
| | BlackBerry Device Software softwarearen eguneratzea instalatzeko prest dago. | | BlackBerry Device Software softwarearen eguneratzea gelditu da. |

**Soinuak eta alertak**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Profil Arrunta | | Telefono Deiak Bakarrik |
| | Profil Altua | | Pertsonalizatutako profila |
| | Profil Ertaina | | Profil Isila |
| | Dardara Bakarrik profila | | Alerta Guztiak Kenduta profila |

**Jokoak**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Jokoak paper-zorroa<br><br>Baliteke aplikazio batzuk paper-zorro honetan agertzea deskargatu dituzun aplikazioak barne | | BrickBreaker |
| | Word Mole | | |

## Hasierako pantailako ikonoak

Ikono hauek hasierako pantailaren goialdean agertzen diren egoera adierazleak dira.

Zure BlackBerry® smartphone-aren modeloa eta haririk gabeko zerbitzuaren hornitzailearen arabera, baliteke ikono batzuk ez agertzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Elementu berria<br><br>Adierazle hori garbitzeko, adierazle hori duten elementu guztiak ireki. | | Eguneratzea eskuragarri dago BlackBerry App World™ erakustokian |
| | Datuak bidaltzen | | Elementu berria Iturri Sozialak aplikazioan |
| | Datuak jasotzen | | Sistema lanpetuta dago |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | BBM™ elementu berria<br>Adierazle hori garbitzeko, adierazle hori duten elkarrizketa guztiak ireki. | | BBM Groups elementu berria |
| | Ibiltaritza | | Irakurri gabeko mezuen zenbaketa |
| | Alarma konfiguratuta dago | | Dei galduen zenbaketa |
| | Egutegiko gogorarazleen zenbaketa | | Bluetooth® teknologia aktibatuta dago |
| | Wi-Fi® teknologia aktibatuta dago | | NFC teknologia aktibatuta dago |

## Mezuen sarrera-ontziko ikonoak

Ikono hauek zure sarrera erretiluko mezu bakoitzaren egoera mota adierazten dute.

Zure BlackBerry® smartphone-aren modeloa eta haririk gabeko zerbitzuaren hornitzailearen arabera, baliteke ikono batzuk ez agertzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Irakurri gabeko mezua | | BBM™ elementu berria<br>Adierazle hori garbitzeko, adierazle hori duten elementu guztiak ireki. |
| | Irakurritako mezua | | BBM berriketa irekita dago |
| | Zirriborro-mezua | | BBM Groups elementu berria |
| | Artxibatutako mezua | | RSS elementu berria |
| | Eranskindun mezuak | | Mezua bidaltzen ari da |
| | Lehentasun handiko mezua da | | Mezua ez da bidali |
| | Eranskindun testu-mezua | | Mezua bidali da |
| | Testu-mezua | | Mezua bidali da |
| | Mezua irakurri da | | |

## Bateria mailaren ikonoak

Ikono hauek Hasiera pantailaren goialdean eta aplikazio batzuetan pantailaren goialdean agertzen dira.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Bateria beteta | | Bateria kargatzen ari da |
| | Bateria gutxi | | |

## Idazketako ikonoak

Ikono hauek goialdean eskuineko bazterrean agertzen dira idaztean.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Blok Maius (maiuskulak blokeatzeko) | | Multipultsazio modua |
| | ZENB blok (zenbakia blokeatu) | | Oraingo sarrera hizkuntza |
| | Alt modua | | |

## Telefonoko ikonoak

Ikono hauek Hasierako pantailaren goialdean eta Telefono aplikazioan agertzen dira.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Dei galdua | | Jasotako deia |
| | Egindako deia | | Ahots-postako mezuak |

## Egutegiko ikonoak

Ikono hauek pantailaren behealdean agertzen dira egutegiaren sarrera bat nabarmentzen denean.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Gertaera gogorarazlea | | Errepikatutako hitzordua |
| | Hitzordu gogorarazlea | | Errepikatutako hitzorduaren salbuespena |
| | Oharrak | | |

## Kamerako ikonoak

Ikono hauek pantailaren behealdean agertzen dira kameran. Ikono hauek sakatu ditzakezu.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Irudiak ikusi | | Aurkitze geografikoa aktibatuta dago |
| | Aurkitze geografikoa desaktibatuta dago | | Beste irudi bat atera |
| | Flasha aktibatuta dago | | Flasha desaktibatuta dago |
| | Flash automatikoa modua | | Eszena-modua |

## Bideokamera

Ikono hauek pantailaren behealdean agertzen dira bideokameran. Ikono hauek sakatu ditzakezu.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Grabatzen hasi | | Grabatzen gelditu |
| | Bideoa bidali | | Bideoa berrizendatu |
| | Bideoa ezabatu | | |

# Hasierako pantaila

## Hasierako pantaila begirada batean




## Argazki bat erabili telefonoaren horma-paper gisa

1. Hasierako pantailan, sakatu **Multimedia** ikonoa > **Argazkiak** ikonoa.
2. Joan argazki batera.

3. Sakatu tekla > **Ezarri horma-paper gisa**.

**Lotutako informazioa**
Pantaila aldatu da, 223

## Lasterbidea hasierako pantailan edo Gogokoak panelean gehitu

Lasterbidea gehi dezakezu elementuetara azkar sartzeko, hala nola maizen bisitatutako webguneetara, kontaktuetara, aplikazioetara, fitxategietara, podcast kateetara edo multimedia-kategorietara.

1. Joan webgune batera edo nabarmendu lasterbidea sortu nahi diozun elementua.
2. Sakatu tekla > **Gehitu Hasierako pantailan**.
    - Lasterbidearen izena aldatzeko, idatzi izen berri bat.
    - Lasterbidea agertzen den lekutik aldatzeko, aldatu **Kokapena** eremua.
    - Gogokoen panelean lasterbidea gehitzeko, hautatu **Markatu Gogoko gisa** kontrol-laukia.
3. Sakatu **Gehitu**.

## Hasierako pantailako panela erakutsi edo gorde

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla > **Kudeatu panelak**.
2. Hautatu edo garbitu panel bakoitzaren kontrol-laukia.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Aplikazio-ikono bat erakutsi, ezkutatu edo bilatu

Zure gaiaren arabera, agian ezingo dituzu hainbat aplikazioren ikonoak ezkutatu.

Hasierako pantailan edo karpeta batean, burutu ekintza hauetako bat:

- Aplikazio-ikono guztiak ikusteko, sakatu nabigazio-barrako **Guztiak**.
- Aplikazio ikono bat ezkutatzeko, nabarmendu ikonoa. Sakatu tekla > **Ezkutatu ikonoa**. Ikonoa beste panel batzuetan ere agertzen bada, panel guztietan edo uneko panelean ezkuta dezakezu ikonoa.
- Ezkutatutako aplikazio ikono guztiak erakusteko, sakatu tekla > **Erakutsi ikono guztiak.**
- Aplikazio ikono bat ezkutatzeari uzteko, nabarmendu ikonoa. Sakatu tekla > **Ezkutatu ikonoa**. Ezkutatu ikonoa eremuaren alboan ez luke hautamarkarik agertu behar.

**Lotutako informazioa**
Pantaila aldatu da, 223

## Mugitu aplikazio baten ikonoa

1. Hasierako pantailan edo aplikazio baten karpeta batean, nabarmendu aplikazio baten ikonoa.
2. Sakatu tekla.
    - Aplikazioaren ikonoa hasierako pantailako beste leku batera mugitzeko, klikatu **Mugitu**. Sakatu kokapen berria.
    - Aplikazioaren ikonoa aplikazio baten karpetara mugitzeko, sakatu **Mugitu karpetara** aukera. Sakatu aplikazioaren karpeta bat.

- Aplikazioaren ikonoa aplikazio baten karpetatik kanpora mugitzeko, sakatu **Mugitu karpetara** aukera Sakatu **Hasierako pantaila** edo aplikazio baten karpeta.

### Gaiak aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Bistaratzea** > **Pantaila bistaratzea**.
3. **Gaia** atalean, sakatu gai bat.
4. Sakatu **Aktibatu**.

Gai bat ezabatzeko, sakatu gaia. Sakatu **Ezabatu**.

**Lotutako informazioa**
Pantaila aldatu da, 223

### Hasierako pantailan agertuko diren ikonoen kopurua zehaztu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Erabilerraztasuna**.
3. Aldatu **Hasierako pantailako sareta-diseinua** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Hasierako pantailan idazten duzunean zer gertatzen den aldatu

Erabiltzen duzun idazteko sarrerako hizkuntzaren arabera, baliteke aplikazioak irekitzeko lasterbide teklak erabili ahal ez izatea.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla > **Aukerak**.
   - Hasierako pantailan idazten duzunean BlackBerry® smartphone-an bilatzeko edo Internetera sartzeko, hautatu **Abiarazi idaztean** eremuan **Bilaketa unibertsala**.
   - Lasterbide teklak sakatuz aplikazioak irekitzeko, hautatu **Abiarazi idaztean** eremuan **Aplikazioaren lasterbideak**.
2. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Telefonoa blokeatuta dagoenean agertzen den mezua gehitu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Bistaratu** > **Mezua pantaila blokeatzean**.
3. Idatzi telefonoa blokeatuta dagoenean pantailan agertzea nahi duzun testua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Eginbideen erabilgarritasuna

Elementu hauek BlackBerry® smartphone-ko eginbideen erabilgarritasunari eragiten diote. Aipatutako eginbideak adibide hutsak dira, beraz, baliteke aipatzen diren guztiak zure smartphone-an eraginik ez izatea, edo zure smartphone-an eragina izan dezaketen guztiak ez aipatzea.

| | |
|---|---|
| Smartphone modeloa | Smartphone modeloaren araberakoak dira zenbait eginbide, adibidez, GPSa, kamera eta bideokamera eta sare-konexioaren aukerak. Smartphone-aren modeloaren eginbideen zehaztapenak bilatzeko, bisitatu www.blackberry.com/go/devices. |
| Hari gabeko zerbitzu plana | Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen bidez erosi edo aldatu behar duzu hari gabeko zerbitzu-plana.<br><br>Ahotserako edo telefonorako hari gabeko zerbitzu plana behar da Telefonoa aplikazioa erabiltzeko eta testu mezuak bidaltzeko eta jasotzeko.<br><br>Hari gabeko datu plana behar da arakatzailearen zerbitzua eta istanteko mezularitza aplikazioa erabiltzeko eta mezu elektronikoak eta PIN mezuak bidaltzeko eta jasotzeko.<br><br>Zein aplikazio eta nola deskarga ditzakezun, hari gabeko zerbitzuaren planaren araberakoa da.<br><br>Mezularitza zerbitzu-plana aldatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin. |
| BlackBerry Internet Service eta BlackBerry Enterprise Server | Datu-plana baduzu, helbide elektronikoa eta istanteko mezularitzako kontua konfiguratu behar dituzu mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko, hirugarrenen istanteko mezularitzako aplikazioak erabiltzeko eta arakatzailearen aukera batzuk erabiltzeko.<br><br>Erabiltzaile partikularra bazara, helbide elektronikoa edo istanteko mezularitzako kontua konfiguratzen dituzunean, BlackBerry® Internet Service zerbitzuarekin asoziatzen dituzu.<br><br>Enpresa bateko erabiltzailea bazara, administratzaileak konfiguratzen du kontu elektronikoa BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari batekin asoziatuz. Baliteke administratzaileak smartphone-an erabilgarri dauden konfigurazio eta eginbideak zehazten dituzten aukerak ezartzea, baita aplikazio bat gehitu edo eguneratu dezakezun ere. Administratzaileak ezarritako IT politikak |

| | |
|---|---|
| | ikusteko, sakatu **Aukerak** ikonoa, Hasierako pantailan edo karpeta batean. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun egoeraren informazioa** > **Ikusi IT politika**. |
| Hari gabeko zerbitzu hornitzailea | Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen eskaintzen araberakoak dira zenbait eginbide, adibidez, testu-mezuak, kokapenean oinarritutako zerbitzuak eta beste eginbide batzuk. Baliteke webgune edo aplikazio batetik aplikazioak deskargatzeko aukera izatea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin. |
| Hari gabeko sarea | Smartphone-arekin konektatuta dagoen hari gabeko sareak zenbait eginbideren erabilgarritasunean eragin dezake. Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen eta ibiltaritza aukeren arabera, hari gabeko sare desberdinak egoten dira erabilgarri. Hari gabeko zenbait saretan ez dira hainbat eginbide onartzen, besteak beste, deiak blokeatzea, deiak desbideratzea edo irrati difusioa. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin. |
| Eskualdea | Eskualdearen arabera, BlackBerry App World™ erakusleihoa erabiliz, aplikazioak gehitzeko edo eguneratzeko aukera izan dezakezu. Baliteke webgune edo aplikazio batetik aplikazioak deskargatzeko aukera izatea. Aplikazo batzuen erabilgarritasuna eskualdearen araberakoa da. |

**Lotutako informazioa**
BlackBerry gailuen softwarea, 243
Telefonoa zein hari gabeko sareetara konektatzen den egiaztatu, 248
Informazio gehiago aurkitu, 20

# Informazio gehiago aurkitu

- **Zure smartphone-ari buruzko laguntza**: jarraibideak BlackBerry® smartphone-ko erabiltzailearen gidan aurkituko dituzu. Sakatu **Laguntza** hasierako pantailan edo aplikazio menu batean.
- www.discoverblackberry.com: zure smartphone-arentzako softwarea, aplikazioak eta osagarriak aurkituko dituzu.
- **Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen webgunea**: zure hari gabeko sareari eta hari gabeko zerbitzu-planari buruzko informazioa aurkituko duzu.
- www.blackberry.com/go/declarationofconformity: 1999/5/EC (HG nr. 88/2003) Zuzentarauaren arabera egindako Onespen Deklarazioa ikus dezakezu.

# Nola: Top 10

BlackBerry® smartphone-en erabiltzaileek hitza hartu dute! Hona hemen, smartphone-an nola egin jakin nahi duten Top 10 gauzak.

## Helbide elektroniko bat konfiguratu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Konfigurazioa** ikonoa.
2. **Konfigurazioa** atalean, sakatu **Kontu elektronikoak** ikonoa.
3. Jarraitu pantailak helbide elektronikoa konfiguratzeko. Helbide elektronikoa ondo konfiguratu denean, berrespen-mezu bat jasoko duzu. Zure mezu elektronikoak ikusi eta kudeatzeko, hasierako pantailan, klikatu **Mezuak** ikonoa.

**Oharra:** Zenbait kasutan, baliteke ondorengo aukerak ikustea. Hala bada, hautatu aukeretako bat.

- **Interneteko posta kontua**: erabili aukera hau BlackBerry® telefonoa dagoeneko sortutako kontu elektroniko batekin edo gehiagorekin (adibidez, Windows Live™ Hotmail®) asoziatzeko edo telefonorako helbide elektroniko berria sortzeko.
- **Enpresako kontua**: administratzaileak enpresako kontua aktibatzeko pasahitza eman badizu, erabili aukera hori, BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiliz, telefonoa laneko kontu elektronikoarekin asoziatzeko.

Interneteko kontu elektroniko bat (adibidez, Windows Live™ Hotmail® edo Google Mail™) edo telefonoarentzako helbide elektroniko berri bat konfiguratu nahian bazabiltza, eta ez baduzu aukera hori ikusten, jarri harremanetan administratzailearekin edo hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**Lotutako informazioa**

Posta kontu pertsonalaren aukerak aldatu, 95

## BlackBerry App World erakusleihoarekin aplikazioak deskargatzeari buruz

BlackBerry App World™ erakusleihoarekin jokoak, gaiak, sare sozialeko aplikazioak, produktibitate pertsonalerako aplikazioak eta beste hamaika gauza bilatu eta deskargatu ditzakezu. Dagoeneko sortutako PayPal® kontu bat erabilita, aplikazioak hari gabeko sarearen bitartez eros eta deskarga ditzakezu telefonora.

Oraindik ez baduzu BlackBerry App World telefonoan, www.blackberryappworld.com helbidean deskarga dezakezu. BlackBerry App World erabiliz aplikazioak kudeatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, sakatu **BlackBerry App World** ikonoa. Sakatu tekla > **Laguntza**.

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen eta eskualdearen arabera, BlackBerry App World™ erakusleihoa erabiliz, aplikazioak gehitzeko edo eguneratzeko aukera izan dezakezu. Baliteke aplikazioak web-orri batetik ere deskargatu ahal izatea (mobile.blackberry.com bisita dezakezu BlackBerry telefonotik) edo hari gabeko zerbitzu-hornitzailetik. Aplikazioak gehitzeagatik edo hari gabeko sarearen bidez erabiltzeagatik datu-kostuak aplika daitezke. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

# Fitxategi bat ordenagailutik telefonora transferitu, telefonoa USB memoria-unitate gisa erabiliz

BlackBerry® Desktop Software erabili behar duzu multimedia-fitxategiekin asoziatutako informazioa edo enkriptatzea kudeatzeko edo gordetzeko, fitxategiak BlackBerry telefonoaren eta ordenagailuaren artean transferitzen dituzunean.

1. Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable bat erabiliz.
2. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Fitxategi mota gehienak transferitu nahi badituzu, telefonoan agertzen den elkarrizketa-koadroan, hautatu USB aukera.
   - DRM bidez babestutako multimedia-fitxategiak transferitu nahi badituzu, telefonoan agertzen den elkarrizketa-koadroan, hautatu multimedia transferitzeko aukera.
3. Beharrezkoa bada, idatzi pasahitz bat. Telefonoa unitate gisa agertuko da ordenagiluan.
4. Arrastatu fitxategi bat ordenagailuko kokaleku batetik telefonoko karpeta batera.

Telefonora transferitutako fitxategia ikusteko, deskonektatu telefonoa ordenagailutik eta bilatu fitxategia.

**Lotutako informazioa**

Multimedia-fitxategi bat ordenagailutik gailura transferitu BlackBerry Desktop Softwareerabiliz:, 141

# Posta elektronikoa hari gabeko sarearen bidez sinkronizatu

Hari gabeko bateratzea aukera ezar diezaiokezu BlackBerry® telefonoarekin asoziatutako helbide elektroniko bakoitzari. Ondorioz, mezu elektronikoak, hari gabeko sarearen bidez sinkronizatuko dira.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta bat-egitea**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Hautatu **Hari gabeko bateratzea** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

# SIM txarteleko kontaktuak zure kontaktu zerrendan kopiatu

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea.

1. Kontaktuen zerrendan, sakatu tekla > **SIM txarteleko telefono liburua**.
2. Sakatu tekla > **Kopiatu guztia kontaktuetan**.

**Oharra:** Zure kontaktu zerrendan jada dagoen telefono bera duen SIM txarteleko kontaktu bat kopiatzen saiatzen bazara, zure BlackBerry® smartphone-ak ez du SIM kontaktua kopiatuko.

**Lotutako informazioa**

Kontaktuak gehitu, 191

# Testu mezu bat bidali

Testu mezu bat zenbat hartzaileri bidal diezaiekezun hari gabeko zerbitzu hornitzailearen araberakoa da.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Idatzi testu mezua**.
3. **Nori** eremuan, egin hauetariko bat:
   - Idatzi kontaktuaren izena.
   - Sakatu tekla > **Aukeratu kontaktua**. Sakatu kontaktu bat.
   - Idatzi testu mezuak jaso ditzakeen telefono zenbaki bat (herrialdeko nahiz area kodeekin). Latinezko karaktereak ez dituzten hizkuntzetan, sakatu **Alt** tekla zenbakiak idazteko. Sakatu teklatuko tekla.
   - BlackBerry® telefonoa CDMA sare batera konektatuta badago, helbide elektroniko bat idatz dezakezu.
4. Idatzi mezua.
5. Sakatu teklatuko tekla.

**Lotutako informazioa**

Banaketa zerrenda pertsonalak, 196
Ezin dut mezurik bidali, 38
Erantsi multimedia fitxategia, kontaktu-txartela, hitzordua edo kokapena testu-mezu batean, 103

# Kokapena mapa batean ikusi

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Bilatu kokapena**.
   - Leku interesgarri bat bilatzeko, adibidez, negozio edo mugarri bat, idatzi leku interesgarriaren informazioa, **Bilatu denda, kafetegia...** eremuan. Nabarmendu leku interesgarria.
   - Kokapen berri bat ikusteko, idatzi helbidea, **Bilatu helbidea** eremuan. Nabarmendu kokapena.
   - Kontaktu baten kokapena ikusteko, idatzi kontaktuaren izena **Bilatu denda, kafetegia...** eremuan. Nabarmendu kontaktuaren informazioa.
   - Kokapen gogoko bat ikusteko, nabarmendu kokapen bat **Gogokoak** atalean.
3. Sakatu tekla > **Ikusi mapan.**

Zure uneko kokapena ez den kokapen bat ikusten ari bazara, zauden lekutik kokapen horretarako jarraibideak lortzeko, sakatu tekla > **Hona nabigatu**. Egitekoa burutzeko, BlackBerry® telefonoa GPS hargailu integratu batekin edo Bluetooth® eginbidea gaituta duen GPS hargailu batekin parekatuta egon behar du.

# Telefonoa blokeatu edo desblokeatu

Nahi gabe tekla bat edo pantaila sakatzea edo deitzea sahiesteko teklatua eta pantaila blokea ditzakezu eta, BlackBerry® telefonoaren pasahitza ezarrita baduzu, telefonoa ere blokea dezakezu pasahitz batekin.

Zuk edo administratzaileak zehaztutako pasahitz-aukeren arabera, denbora-tarte batean telefonoa erabiltzen ez baduzu, baliteke telefonoa pasahitzarekin automatikoki blokeatzea.

Burutu ekintza hauetako bat:

- Teklatua eta pantaila blokeatzeko, sakatu tekla, telefonoaren goialdean.
- Teklatua eta pantaila desblokeatzeko, sakatu .
- Telefonoa pasahitz batekin blokeatzeko, sakatu Hasierako pantailako edo karpeta bateko ikonoa.
- Telefonoa desblokeatzeko, idatzi pasahitza. Sakatu teklatuko tekla.

**Lotutako informazioa**

Telefonoaren pasahitz bat zehaztu, 295

## Hegazkin-modua aktibatu edo desaktibatu

Zenbait tokitan sare-konexioak desaktibatuta mantendu behar dituzu, adibidez, hegazkinetan edo ospitaletan. Informazio gehiagorako, ikus *Segurtasun eta produktuaren informazioa* liburuxka, BlackBerry® telefonoarekin zetorrena.

Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.

- Hegazkin-modua aktibatzeko, sakatu **Desaktibatu guztiak**.
- Hegazkin-modua desaktibatzeko, sakatu **Berrezarri konexioak**.

**Lotutako informazioa**

Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249
Datu zerbitzuak aktibatu edo desaktibatu edo ibiltaritza aukerak konfiguratu, 250

## Hitz-ordezkapena desaktibatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera** > **Idazketa**.
3. Teklatuaren kasuan, sakatu **Estiloaren aukera aurreratuak**.
4. Garbitu **Ortografia** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Aholkuak: Top 10

Aurreztu denbora eta maximizatu zure eraginkortasuna aholku azkar hauekin.

# Aholkuak: aplikazioak aurkitzea

| | |
|---|---|
| Begiratu hasierako pantailako karpeta batean | Zenbait aplikazio Hasierako pantailako karpetetan daude. Sakatu karpeta zein aplikazioa dituen ikusteko. |
| Jarri ezkutatutako aplikazio guztiak ikusgai Hasierako pantailan | Hasierako pantailan, sakatu tekla > **Erakutsi ikono guztiak.** Aplikazio bat agerrarazteko, nabarmendu eta sakatu **Ezkutatu ikonoa** marka kentzeko. Ikonoa beste panel batzuetan ere ezkutatuta badago, uneko panelean edo panel guztietan agerraraz dezakezu ikonoa. **Erakutsi ikono guztiak** menuan agertzen ez bada, ez da aplikaziorik ezkutatu ikuspegian. |
| Bilatu aplikazio bat. | Hasierako pantailan, hasi aplikazioaren izena idazten. |
| Egiaztatu aplikazioak instalatuta dauden. | Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Aplikazioaren kudeaketa**. Aplikazioa zerrendan badago, BlackBerry® telefonoan instalatuta dago. |

# Aholkuak: adierazleak kudeatzea

Zerbait berria edo eguneratze bat dagoela jakinarazten dizute adierazleek, adibidez, mezu berri bat, ahots-mezu bat edo iturri bat dagoela; bestela, zerbaiten egoeraren berri ematen dizu, hala nola bateriarena edo sare-konexioarena. Sarri, aplikazioen ikonoetan, aplikazioen eduki berriaren artean eta Hasierako pantailaren goialdean agertzen dira adierazleak.

| | |
|---|---|
| Kendu elementu berriaren adierazlea , | Ireki adierazle hau duen elementu bakoitza. Adibidez, Mezuak ikonotik kentzeko, sakatu ikonoa. |
| Kendu ireki gabeko mezuen adierazlea , | Mezuak aplikazioan, egin ekintza hauetako bat edo gehiago:<br>• Ireki mezu guztiak gainean sakatuta. Sarrera ontzian irakurri gabeko mezu guztiak aurkitu ezin badituzu, begiratu mezuen karpetetan.<br>• Markatu mezu bat irakurrita gisa. Nabarmendu mezu bat. Sakatu tekla > **Markatu irakurrita**. |

| | |
|---|---|
| | • Markatu data baten aurreko mezu guztiak irakurrita gisa. Nabarmendu data eremu bat. Sakatu tekla > **Zaharragoak markatu irakurritakoak**. |
| Identifikatu adierazlea. | • Baliteke adierazleak adierazi nahi duen aplikazioaren ikonoa ikusita soilik adierazlea identifikatzeko gai ez izatea. BlackBerry® telefonoko aplikazioen eta beren ikonoen zerrenda osoa ikusteko, sakatu hasierako pantailako edo karpeta bateko **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Aplikazioaren kudeaketa**.<br>• BlackBerry® adierazleen zerrenda osoa eskuratzeko, bisitatu www.blackberry.com/docs/smartphones helbidea. Sakatu telefonoaren modeloa eta, ondoren, sakatu Ikonoak gida. |

# Aholkuak: softwarea eguneratzea

Aldian-aldian, BlackBerry® Device Software eta BlackBerry® Desktop Software eguneratuak ateratzen dira. Ordengailutik edo gailutik egunera dezakezu software hori. Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

| | |
|---|---|
| Begiratu saretik deskarga dezakezun BlackBerry Device Software eguneraturik badagoen. | Smartphone-aren modeloaren arabera, baliteke eginbide hau bateragarria ez izatea. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Softwarearen eguneratzeak**. |
| Eguneratu BlackBerry Device Software ordenagailutik. | Ordenagailutik bisitatu www.blackberry.com/update helbidea. Sakatu **Bilatu eguneratzeak**. Konektatu telefonoa ordenagailura. |
| Ezarri BlackBerry Desktop Software eguneratzeak automatikoki begira daitezen. | Argibide gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atala. |
| Eguneratu BlackBerry Desktop Software . | Bisitatu www.blackberry.com/desktopsoftware helbidea. |

**Lotutako informazioa**

BlackBerry gailuen softwarea, 243

# Aholkuak: gauzak azkar egitea

Jarraibide guztiak eskuratzeko, sakatu beheko **Lotutako informazioa** aukeraren azpiko estekak.

| | |
|---|---|
| Sartu aukera ezagunak, hala nola dei-tonuak aldatzea, alarma ezartzea, jakinarazpenak ikustea eta sareko konexioak aktibatzea edo desaktibatzea. | Nabarmendu eta sakatu Hasierako pantailaren goialdeko eremuak. |
| Ikusi Hasierako pantailako aplikazio eta karpeta guztiak, edo minimizatu panela eta ikusi horma-papera. | Nabigazio-barran, sakatu **Guztia**. |
| Aldatu beste aplikazio batera. | Eduki sakatuta tekla. Sakatu aplikazio bat.<br>**Oharra:** Baliteke beste aplikazioa oraindik abiarazita egotea atzeko planoan. |
| Ireki aplikazio bat sarbide azkarreko teklarekin | Sakatu telefonoaren alboko sarbide azkarreko tekla bat.<br>**Oharra:** Egokitasun-teklak zein aplikazio irekiko duen pertsonaliza dezakezu. |
| Erabili pop-up menuak. | Normalean erabilgarri dauden ekintzak ematen dizkizute pop-up menuek eta pantailaren erdialdean agertzen dira. Adibidez, mezu batean erabil dezakezu pop-up menua mezua gorde, birbidali edo erantzuteko. Pop-up menu bat irekitzeko, eduki ukituta pantaila eta eduki sakatuta nabigazio-tekla. Komando bat hautatzeko, kolpatu ikonoa edo sakatu nabigazio-tekla. |
| Aldatu **Gogokoak**, **Multimedia**, **Deskargak** eta **Ohikoak** panelen artean. | Hasierako pantailan, nabarmendu **Guztia** nabigazio-barran eta lerratu hatza eskuinera edo ezkerrera nabigazio-barran. |
| Gehitu aplikazio bat **Gogokoak** panelean. | Nabarmendu aplikazio bat Hasierako pantailan edo karpeta batean. Sakatu tekla > **Markatu gogoko gisa**. |
| Aldatu Hasierako pantailaren aukerak, hala nola horma-papera. | Hasierako pantailan, sakatu tekla > **Aukerak**. |

**Lotutako informazioa**

Hasierako pantailan idazten duzunean zer gertatzen den aldatu, 18
Egokitze-teklari aplikazioak esleitu, 35
Aplikazio bat exekutatzen utzi eta beste aplikazio batera aldatu, 237

# Aholkuak: bateriaren bizitza luzatzea

Jarraibide guztiak eskuratzeko, sakatu beheko **Lotutako informazioa** aukeraren azpiko estekak.

| | |
|---|---|
| Konfiguratu BlackBerry® telefonoa automatikoki piztu eta itzal dadin.<br><br>Telefonoa automatikoki piztea eta itzaltzea aukera dezakezu denbora luzez erabili behar ez baduzu; adibidez, lotan zaudenean. Telefonoa itzalita dagoela jasotako datuak automatikoki eguneratuko dira gailua piztutakoan. | Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Automatikoki konektatu/deskonektatu**. |
| Murriztu pantailako argiaren iraupena eta argitasun maila | Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Bistaratzea** > **Pantaila bistaratzea**. |
| Desaktibatu sare-konexioak erabiltzen ez dituzunean | Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa. Sakatu sareko konexioa bat kontrol-laukia garbitzeko. |
| Itxi aplikazioak, eurak erabiltzeaz amaitzen duzunean.<br><br>Aplikazio batetik bestera joaten zarenean, hainbat aplikazio, adibidez, Arakatzailea aplikazioa edo Musika aplikazioa, atzealdean abiaraziko dira eta, ondorioz, bateria gastatuko da. | Aplikazio batean, sakatu tekla > **Itxi**. |
| Ezarri soinu-jakinarazpenak edo LED jakinarazpenak bibrazio-jakinarazpenen ordez, jaitsi soinu-jakinarazpenen bolumenaren maila edo hautatu dei-tonu laburragoak. | Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak**. |
| Mezu baten erantzunean jatorrizko testua ezabatu | Mezu bati erantzuterakoan, sakatu tekla > **Ezabatu jatorrizko testua**. |
| Telefonoaren kamerak flasha badu, desaktibatu flasha | Hasierako pantailan, sakatu **Kamera** ikonoa. Sakatu pantailaren azpiko flasharen ikonoa **flasha desaktibatuta** adierazlea agertu arte. |
| Mantendu garbi bateriaren konektoreak.<br><br>Bateria garbi mantentzeak bateriak gehiago irautea dakar. | Hilabete gutxi batzuez behin, garbitu telefonoaren eta bateriaren konektoreak kotoia edo zapi lehor bat erabiliz. |

**Lotutako informazioa**

Mezu baten erantzunean jatorrizko testua ezabatu, 84
Dei-tonuak, jakinarazleak edo gogorarazleak aldatu, 33
Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249
Atzeko argiaren aukerak ezarri, 220
Telefonoa automatikoki pizteko eta itzaltzeko ezarri, 279

# Aholkuak: memorian lekua egitea eta mantentzea

Saiatu BlackBerry® telefonoko aplikazioen memorian, gutxienez, 400 KB erabilgarri izaten. Telefonoko prozesuak normalean baino mantsoagoak direla ikusten baduzu, saiatu lekua egiten behar ez dituzun fitxategiak ezabatuta. Mezu elektronikoen, egutegiko sarreren eta multimedia-fitxategien aukerak aldatuz gero, baliteke memoria mantentzea.

| | |
|---|---|
| Zenbat biltegiratze leku duzun libre. | Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Biltegiratzea**. |
| Itxi erabiltzen ari ez zaren aplikazio guztiak. | Aplikazio batean, sakatu tekla > **Itxi** edo sakatu tekla hasierako pantaila agertu arte. |
| Ezabatu behar ez dituzun fitxategiak. | Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Fitxategiak** ikonoa. Bilatu eta nabarmendu fitxategi bat. Sakatu tekla > **Ezabatu**. |
| Ezabatu arakatze-historia eta garbitu cache-a. | Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzailea** ikonoa. Sakatu tekla > **Aukerak**. Joan **Garbitu arakatze-datuak** atalera. |
| Murriztu smartphone-an mezu elektronikoak eta egutegiko sarrerak biltegiratzeko denbora-tartea. | Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa edo **Egutegia** ikonoa. Sakatu tekla > **Aukerak**. |
| Utzi bidalitako mezuak smartphone-an gordetzeari. | Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**. |
Telefono-zenbaki bati eten bat edo itxaron bat gehitzeko, 192
Ahots-komando erabilgarriak, 76
Blokeatutako pantailatik markartzea aktibatu edo desaktibatu, 68
Telefonoaren pantailako telefono-zenbakiak edo kontaktuak ordenatu, 68
Ezin dut deirik egin eta jaso, 36

## Deiari erantzun edo deia amaitu

Sakatu tekla.

Dei bat amaitzeko, sakatu tekla.

**Lotutako informazioa**

Dei-tonuak, jakinarazleak edo gogorarazleak aldatu, 33
Ezin dut deirik egin eta jaso, 36

## Bigarren dei bati erantzun

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea.

Dei batean zaudela, sakatu tekla.

- Deiari erantzuteko eta uneko deia zain uzteko, sakatu **Erantzun - Unekoa zain jarri**.
- Deiari erantzuteko eta uneko deia amaitzeko, sakatu **Erantzun - Unekoa txandakatu**.

Lehenengo deira itzultzeko, sakatu tekla > **Trukatu** edo **Flasha**.

## Dei-tonuak, jakinarazleak edo gogorarazleak aldatu

Tonua aldatzeaz gainera, deian zehar agertuko diren jakinarazpenen, bolumenaren, LEDen eta dardararen aukerak ere alda ditzakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa.
2. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak** > **Hautatutako profilarentzako soinuak**.
   - Dei-tonua aldatzeko, sakatu **Telefonoa**.
   - Jakinarazpenak edo gogorarazleak aldatzeko, sakatu atal bat hedatzeko. Sakatu aukera bat.
3. **Dei-tonua**, **Jakinarazpen-tonua** edo **Gogorarazle-tonua** eremuan, burutu ekintza hauetako bat:
   - Sakatu tonu bat.
   - BlackBerry® smartphone-an edo memoria-txartelean dagoen abesti bat erabiltzeko, sakatu **Musika guztia**. Bilatu eta sakatu abesti bat.
   - Grabatu duzun ahots-ohar bat erabiltzeko, sakatu **Ahots-ohar guztiak**. Aurkitu eta sakatu ahots-ohar bat.
   - Aurrekargatutako alerta bat erabiltzeko, sakatu **Alerta guztiak**. Bilatu eta sakatu alerta bat.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Gehitu edo ezabatu profil pertsonalizatua, 164
Kontaktu-alerta gehitu edo ezabatu, 36
Ezin dut aldatu nire smartphone-ak jotzen duen tonu kopurua, 73

## Dei bat mututu

Deiak dirauen bitartean, sakatu **Mutua** tekla telefonoaren goialdean.

Mututzea desaktibatzeko, sakatu **Mutua** tekla berriro.

## Deiak zain utzi

BlackBerry® telefonoa CDMA sare batera konektatuta badago, ezin dituzu deiak zain utzi.

Dei batean zaudela, sakatu tekla > **Zain utzi**.

Dei bati berrekiteko, sakatu tekla > **Berrekin**.

## Bozgorailua aktibatu

Dei batean zaudela, sakatu tekla > **Aktibatu bozgorailua**.

Ez jarri BlackBerry® smartphone-a belarri ondoan bozgorailua erabiltzen duzunean. Entzumena kalte dezake. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi *Segurtasun eta produktuaren informazioa* telefonoaren liburuxka.
Bozgorailua desaktibatzeko, sakatu tekla > **Aktibatu telefonoa**.

## Luzapen bat markatu

1. Sakatu **X** tekla.
2. Idatzi luzapen-zenbakia.

## Zenbakiak edo letrak erabiliz markatu

Telefono zenbaki batean hizki bat idazten duzunean, zure BlackBerry® smartphone-ak mugikorren ohiko teklatuetan hizki horrekin lotuta dagoen zenbakia markatzen du.

- Zenbaki bat idazteko, sakatu zenbaki tekla bat.
- Letra bat idazteko, eduki sakatuta **Alt** tekla. Sakatu letra tekla.

## Aplikazio batetik bestera aldatu dei bat egiten ari zarela

Dei batean zaudela, sakatu tekla > **Aldatu aplikazioa**.

**Oharra:** Beste aplikazio batera aldatu bazara eta deia amaitu nahi baduzu, sakatu tekla.

## Aurikularrak erabili

Aukerako aurikularrak eros ditzakezu BlackBerry® smartphone-arekin erabiltzeko.

Aurikularrak erabiltzen badituzu, horien botoiak erabil ditzakezu deiak erantzuteko eta amaitzeko, edo dei batean zehar mututzeko aukera aktibatzeko eta desaktibatzeko. Smartphone-aren modeloaren arabera, aurikularretako botoi bat erabil dezakezu ahots komandoen bidez deiak egiteko.

Aurikularren arabera, horien botoi bat erabil dezakezu audio eta bideo fitxategiak saltatzeko, pausatzeko, haiei berrekiteko edo haien bolumena doitzeko.

Aurikularrak erabiltzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus aurikularrekin jasotako dokumentazioa.

# Larrialdi-deiak

## Larrialdi-deiei eta larrialdi-atzeradei moduari buruz

Hari gabeko estaldura-eremutik kanpo bazaude eta pantailaren goialdean SOS adierazlea agertzen bada, larrialde-zenbakietara dei dezakezu. BlackBerry® smartphone-a blokeatuta dagoenean ere larrialdi deiak egin ahal izateko diseinatuta dago. Smartphone-aren modeloaren eta smartphone-a konektatuta dagoen hari gabeko sarearen arabera, SIM txartela sartuta ez dagoenean ere larrialdi-deiak egiteko diseinatuta dago. Larrialdi-dei bat egin duzunean hari gabeko sarerako konexioa desaktibatuta badago, hari gabeko sarera automatikoki konektatzeko diseinatuta dago smartphone-a. Larrialdi-zenbaki ofizialak (adibidez, 092 edo 112) markatuz soilik egin ditzakezu larrialdi-deiak.

**Oharra:** Ez zenuke hari gabeko smartphone-en menpe egon behar oinarrizko komunikazioetarako, ezta osasun-larrialdietarako ere. Baliteke kokapenaren arabera larrialdi-deiak aldatzea eta baliteke sareek, inguruneak edo interferentzia-arazoek larrialdi-deiak blokeatzea edo eragoztea.

Smartphone-a CDMA sare batera konektatuta badago, larrialdi-deia amaitzen duzunean, Larrialdi-atzeradei modua aktibatzen da smartphone-an. Operadoreak zu deitzea edo zure gutxi gorabeherako kokapena zehaztea ahalbidetzen du modu honek. Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, Larrialdi-atzeradei modua 5 minututan edo larrialdi-deia ez den beste dei bat egiten arte egongo da aktibo. Larrialdi-atzeradei moduan, ezin dituzu mezuak jaso edo bidali, ezta web-orriak arakatu ere.

Smartphone-akGPSa onartzen badu eta larrialdi-dei bat egiten baduzu, larrialdietako operadoreak GPS teknologia erabil dezake zure kokapena kalkulatzeko.

**Lotutako informazioa**

GPS teknologiari buruz, 0

## Larrialdi-deiak egin

Egin ekintza hauetako bat:

- Teklatua edo BlackBerry® telefonoa desblokeatuta badago, sakatu Hasierako pantailako tekla. Idatzi larrialdi-zenbakia. Sakatu tekla.
- Teklatua pasahitz batekin blokeatuta badago, sakatu tekla > **Larrialdia**. Sakatu tekla.
- Teklatua blokeatuta badago, sakatu telefonoaren goialdean dagoen **Blokeatu** tekla. Sakatu tekla. Idatzi larrialdi-zenbakia. Sakatu tekla.

# Bolumena

## Bolumena doitu

- Bolumena igotzeko, sakatu BlackBerry® smartphone-aren eskuinaldean dagoen **bolumena igotzeko** tekla.
- Bolumena jaisteko, sakatu zure smartphone-aren eskuinean dagoen **bolumena jaisteko** tekla.
- Bolumena isiltzeko, sakatu smartphone-aren eskuinaldeko **Isilik** tekla. Mututzea desaktibatzeko, sakatu **Mututu** tekla berriro. Dei batean zaudela **Mututu** tekla sakatzen baduzu, zure smartphone-ak deia mututuko du. Hortaz, deian daudenak entzun ahal izango dituzu, baina haiek ezingo zaituzte zu entzun.

**Lotutako informazioa**

Dei bat mututu, 57
Bolumena areagotu audioa areagotzeko eginbidea erabiliz, 138
Multimedia fitxategien soinuaren kalitatea hobetu, 139

## Deien bolumen lehenetsia aldatu

Deien bolumen lehenetsia igo edo jaitsi dezakezu. Bolumenaren ehunekoa zenbat eta altuago, hainbat eta altuagoa izango da bolumena.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Sarrerako deien ezarpenak**.
3. Aldatu **Deiaren bolumen lehenetsia** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Dei batean zaudela soinuaren kalitatea hobetu

Soinuaren kalitatea ezin da aldatu Bluetooth® gaitutako aurikular bat erabiltzen ari zarenean.

1. Dei batean zaudela, sakatu tekla > **Deiaren audio hobetua**.
2. Hautatu Boost Bass edo Boost Treble aukera bat.

### Dei guztien soinu kalitatea hobetu

Soinuaren kalitatea ezin da aldatu Bluetooth® gaitutako aurikular bat erabiltzen ari zarenean.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Sarrerako deien ezarpenak**.
3. Aldatu **Telefono deiaren audioa** edo **Aurikular deiaren audioa** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Markatze bizkorra

### Konfiguratu markatze bizkorra kontaktu bati

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Ikusi** > **Markatze bizkorraren zerrenda**.
3. **Markatze bizkorreko zenbakiak** zerrendan, sakatu esleitu gabeko tekla bat.
4. Sakatu kontaktu bat.
5. Beharrezkoa bada, sakatu kontaktuarentzako telefono zenbaki bat.

Markatze bizkorra erabiliz dei bat egiteko, Telefonoa aplikazioko hasierako pantailan, mezu batean edo mezu zerrenda batean zaudela, eduki sakatuta kontaktuari esleitu diozun tekla.

### Markatze bizkorreko tekla bati esleitutako kontaktua aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Ikusi** > **Markatze bizkorraren zerrenda**.
3. Nabarmendu kontaktu bat edo telefono zenbaki bat.
4. Sakatu tekla.
   - Markatze bizkorreko tekla bati esleitutako kontaktua aldatzeko, sakatu **Editatu**. Sakatu kontaktu berri bat.
   - Kontaktua markatze bizkorreko beste tekla bati esleitzeko, sakatu **Mugitu**. **Markatze bizkorreko zenbakien** zerrendan, sakatu markatze bizkorreko beste tekla bat.
   - Kontaktua **Markatze bizkorreko zenbakien** zerrendatik ezabatzeko, sakatu **Ezabatu**.

# Deia zain, dei-desbideraketa eta deia blokeatzea

## Itxaron deia aktibatzea edo desaktibatzea

Egitekoa burutzeko, hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak zerbitzu horretarako konfiguratu behar du SIM txartela edo BlackBerry® telefonoa.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Itxaron deia**.
3. Hautatu edo garbitu **Gaituta** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Dei desbideratzeari buruz

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke jada hainbat dei-desbideratze telefono eskuragarri egotea SIM txartelean edo BlackBerry® smartphone-an. Baliteke telefono hauek aldatzeko edo ezabatzeko eta berriak gehitzeko gai ez izatea.

Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

## Deiak desbideratu edo desbiratzeari utzi

Zeregin hau egiteko, hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak zerbitzu horretarako konfiguratu behar du SIM txartela edo BlackBerry® smartphone-a.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Deiak desbideratzea**.
   - Dei guztiak deiak desbideratzeko zenbaki batera bidaltzeko, **Deiak desbideratu** eremuan hautatu **Beti**. **Dei guztiak desbideratu** eremuan hautatu deiak desbideratzeko zenbaki bat.
   - Erantzun gabeko deiak soilik desbideratzeko, **Deiak desbideratu** eremuan hautatu **Baldintzatuta**. **Okupatuta badago**, **Erantzuten ez badu**, eta **Lokalizatu ezin bada** eremuetan hautatu deiak desbideratzeko zenbaki bat.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

Deiak desbideratzeko ezarpenak ondorengo sarrerako dei guztiei aplikatzen zaizkie, ezarpenak berriro aldatzen dituzun arte.

Deiak desbideratzeari uzteko, **Deiak desbideratu** eremuan hautatu **Inoiz ez**.

## Deia desbideratzeko zenbakia gehitu, aldatu edo ezabatu

Zeregin hau egiteko, hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak zerbitzu horretarako konfiguratu behar du SIM txartela edo BlackBerry® smartphone-a.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.

2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Deiak desbideratzea**.
3. Sakatu tekla.
   - Deia desbideratzeko zenbakia gehitzeko, sakatu **Zenbaki berria**. Idatzi telefono zenbaki bat. Sakatu teklatuko tekla.
   - Deia desbideratzeko zenbakia aldatzeko, sakatu **Editatu zenbakiak**. Nabarmendu telefono zenbaki bat. Sakatu tekla > **Editatu**. Aldatu telefono zenbakia. Sakatu teklatuko tekla.
   - Deia desbideratzeko zenbakia ezabatzeko, sakatu **Editatu zenbakiak**. Sakatu telefono zenbaki bat. Sakatu **Ezabatu**.
4. Sakatu tekla > **Itxi**.

## Deiak blokeatzeari buruz

Blokeatutako deiak ezaugarriaren bidez, sarrerako dei guztiak blokeatu ditzakezu beti edo ibiltaritzan zaudenean bakarrik. Irteerako dei guztiak eta irteerako nazioarteko dei guztiak ere blokeatu ditzakezu, beti edo ibiltaritzan bakarrik.

Blokeatutako deia ezaugarria erabiltzeko, zure BlackBerry® smartphone-ak SIM txartela izan behar du eta zure kablerik gabeko zerbitzu hornitzaileak zure SIM txartela zerbitzu horretarako konfiguratu eta deiak blokeatzeko pasahitz bat eman behar dizu. Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea.

## Blokeo-deiak blokeatu edo gelditu

Egiteko hau burutzeko, zure BlackBerry® smartphone-ak SIM txartela erabili behar du eta hari gabeko zerbitzu hornitzaileak zure SIM txartela konfiguratu behar du zerbitzu honetarako eta deiak blokeatzeko pasahitza eman behar dizu.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Deien debekua**.
3. Nabarmendu deiak blokeatzeko aukera bat.
4. Sakatu tekla > **Gaitu**.
5. Idatzi deiak blokeatzeko pasahitza.

Deiak blokeatzeari uzteko, nabarmendu deiak blokeatzeko aukera bat. Sakatu tekla > **Desgaitu**.

## Deiak blokeatzeko pasahitza aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Deien debekua**.
3. Sakatu tekla > **Aldatu pasahitza**.

# Markatze finkoa eta markatze adimenduna

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea.

## Markatze finkoari buruz

Markatze finkoa gaitzen baduzu, zure markatze finkoko kontaktuei eta larrialdi zenbaki ofizialetara (adibidez, 092 edo 112) soilik deitu ahal izango duzu.

Hari gabeko zerbitzu-planak testu-mezularitza barne badu, markatze finkoko zerrendan agertzen diren kontaktuei testu-mezuak ere bidal diezazkiekezu.

Markatze finkoa erabiltzeko, zure hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak zure SIM txartela zerbitzu honetarako ezarri eta SIM txartelaren PIN2 kode bat eman behar dizu. Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea.

## Markatze finkoa aktibatu

Egitekoa burutzeko, BlackBerry® telefonoak SIM txartela erabili behar du eta hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak SIM txartela konfiguratu behar du zerbitzu honetarako eta SIM txartelerako PIN2 kodea eman behar dizu.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **FDN telefonoen zerrenda**.
3. Sakatu tekla > **Gaitu FDN modua**.
4. Idatzi zure PIN2 kodea.
5. Sakatu teklatuko tekla.

Markatze finkoa desaktibatzeko, sakatu tekla > **Desgaitu FDN modua**.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut deirik egin eta jaso, 36

## Markatze finkoko zerrendan kontaktua gehitu, kendu edo ezabatu

Zeregin hau burutzeko, hari gabeko zerbitzu hornitzaileak zerbitzu horretarako konfiguratu behar du zure SIM txartela eta SIM txartelerako PIN2 kodea eman behar dizu.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **FDN telefonoen zerrenda**.
   - Kontaktu bat gehitzeko, sakatu tekla > **Berria**. Idatzi zure PIN2 kodea. Sakatu tekla. Idatzi izen bat eta telefono-zenbaki bat.
   - Kontaktu bat aldatzeko, sakatu tekla > **Editatu**. Aldatu kontaktuaren informazioa.
   - Kontaktu bat ezabatzeko, nabarmendu kontaktu bat. Sakatu tekla > **Ezabatu**.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Markatze adimendunari buruz

Markatze adimendunaren eginbidearekin, telefono-zenbakien estatu-kodea eta aurrezenbakia lehenetsi ditzakezu dei bat egiten duzun bakoitzean kode horiek idatzi behar ez izateko, markatzen duzun zenbakiaren estatu-kodea edo aurrezenbakia lehenetsitakoaren bera ez bada behinik behin. Markatze adimendunaren eginbideak ez ditu zenbait estatu-kode onartzen.

Era berean, markatze adimendunaren aukeretan, maiz erabiltzen duzun enpresa baten telefono-zenbaki nagusia zehatz dezakezu, enpresa horretako kontaktu bati deitzen diozun bakoitzean haren luzapena bakarrik markatu behar izan dezazun. Enpresa horretako kontaktuak kontaktuen zerrendan gehitzerakoan, haien luzapena bakarrik idatz dezakezu, enpresaren telefono-zenbaki nagusia idatzi ordez.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut deirik egin eta jaso, 36

### Luzapenen aukerak ezarri

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Markatze adimenduna**.
3. **Zenbakia** eremuan, idatzi erakunde baten telefono zenbaki nagusia.
4. **Itxaron** eremuan, ezarri BlackBerry® telefonoak zenbat itxaron behar duen luzapen bat markatu baino lehenago.
5. **Luzapenaren luzera** eremuan, ezarri luzapenentzako luzera lehenetsia.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Herrialde kode eta eremu kode lehenetsiak ezarri

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Markatze adimenduna**.
3. Ezarri **Herrialde kodea** eta **Eremu kodea** eremuak
4. Beharrezkoa bada, ezarri **Herrialde kode lokala** eta **Atzerritik markatzeko zenbakiak** eremuak.
5. **Telefono zenbaki nazionalen luzera** eremuan, ezarri zure herrialderako telefono zenbakien luzera lehenetsia.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Oharra:** Telefono zenbakien luzera lehenetsia zehazterakoan, kontuan hartu zure eremu kodea eta tokiko zenbakia, baina sartu zure herrialde kodea eta markatze zuzenerako aurrezenbakia.

## Konferentzia deiak

### Konferentzia deiei buruz

Bi motatako konferentzia deiak egin ditzakezu BlackBerry® smartphone-arekin. Zure enpresak edo konferentzia zerbitzu batek konferentzia deirako zenbakia eman badizu, konferentzia dei bidezko bilerak sor ditzakezu zure smartphone-ko edo ordenagailuko egutegian. Konferentzia-deietan BlackBerry telefonoa duten partaideak sakatze

bakarreko Bat egin orain aukerarekin sar daitezke konferentzia-dei bidezko bilerara, telefonoak eginbide hori onartzen badu. Horrela, ez dute konferentzia-deiaren zenbakirik eta koderik markatu behar. Konferentzia-deiaren zubi-zenbakirik ez baduzu, konferentzia-deia sortzeko kontaktuei dei egin diezaiekezu eta, ondoren, deiak elkartu.

**Lotutako informazioa**

Konferentzia dei bilerak, 187

## Egin konferentzia dei bat

Zure hari gabeko zerbitzu hornitzailearen edo hari gabeko zerbitzu planaren arabera, baliteke eginbide hau ez onartzea.

BlackBerry® smartphone-a CDMA sare batera konektatuta badago, ezin izango duzu bi kontaktu baino gehiago sartu konferentzia dei batean.

1. Dei batean zaudela, sakatu tekla > **Gehitu parte hartzailea**.
2. Idatzi telefono zenbaki bat edo nabarmendu kontaktu bat.
3. Sakatu tekla.
4. Deia berria egiten ari zarela, sakatu tekla zure lehen kontaktua konferentzia deira sartzeko.
5. Deira beste kontaktu bat sartzeko, errepikatu 1etik 4rako pausoak.

**Lotutako informazioa**

Deiak zain utzi, 57

## Konferentzia dei baterako telefono zenbaki esteka bat sortu

1. Idatzi konferentzia dei zubiarentzako telefono zenbakia.
2. Idatzi **X** eta sarrera kodea.

## Konferentzia dei batean zaudela kontaktu batekin pribatuan hitz egin

Dei desberdinak elkartuz konferentzia dei bat egiten duzunean baino ezingo duzu egiteko hori bideratu eta ezingo duzu egin konferentzia dei baterako hitzordua sortzen baduzu egutegian.

1. Konferentzia-dei bat abian dela, sakatu tekla > **Dei pribatua**.
2. Sakatu kontaktu bat.

Konferentzia deira itzultzeko, sakatu tekla > **Parte hartu konferentzian**.

## Kontaktu bat konferentzia dei batetik deskonektatu

Dei desberdinak elkartuz konferentzia dei bat egiten duzunean baino ezingo duzu egiteko hori bideratu eta ezingo duzu egin konferentzia dei baterako hitzordua sortzen baduzu egutegian.

1. Konferentzia dei batean zaudela, sakatu tekla > **Deia txandakatzea**.
2. Sakatu kontaktu bat.

### Konferentzia deiak utzi

Dei desberdinak elkartuz konferentzia dei bat egiten duzunean baino ezingo duzu egiteko hori bideratu eta ezingo duzu egin konferentzia dei baterako hitzordua sortzen baduzu egutegian.

Konferentzia dei bat egiten duzunean, konferentzia deia utz dezakezu eta deiak aurrera jarraituko du zu gabe. Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

Konferentzia-dei bat abian dela, sakatu tekla > **Transferentzia** edo **Flasha.**

## Dei erregistroak

### Deien erregistroei buruz

Telefonoa aplikazioan agertzen dira Deien erregistroak eta dei berrien egoerak erakusten dituzte dei galdu baten adierazlearekin, egindako dei baten adierazlearekin edo jasotako dei baten adierazlearekin. Deien erregistroak deiaren data, telefono zenbakia eta deiaren iraupena barne hartzen ditu. Dei baten iraupen zehatzari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin.

Telefonoa aplikazioan deien erregistroak nola agertuko diren hautatzen laguntzen du telefono-zerrenden ikuspegi aukerak. Deien erregistroa konfiguratu duzun moduaren arabera, Mezuak aplikazioan ere ikus ditzakezu deien erregistroak. Gaiaren arabera, dei bat galtzen duzunean, dei galdu baten adierazle bat hasierako pantailaren goialdean ere ager daiteke.

Deien erregistroetan oharrak gehi ditzakezu ere edo deien erregistroak mezu elektroniko gisa bidal ditzakezu. Deien erregistro bat ezabatzen ez baduzu, 30 egunez gordetzen da BlackBerry® smartphone-an.

### Dei erregistro bat bidali

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Nabarmendu deien erregistroren bat.
3. Sakatu tekla > **Ikus**i > **Historia**.
4. Nabarmendu deien erregistroren bat.
5. Sakatu tekla > **Birbidali**.

### Dei erregistroak ezabatu

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Dei-erregistro bakarra ezabatzeko, nabarmendu dei-erregistroa.
   - Dei-erregistro ugari ezabatzeko, nabarmendu dei baten erregistroa. Eduki sakatuta **MAIUS** tekla. Nabigazio-teklan, irristatu hatza gora edo behera. Askatu **MAIUS** tekla.
3. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

### Deien erregistroko oharrak gehitu, aldatu edo ezabatu

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Nabarmendu deien erregistroren bat.
3. Sakatu tekla > **Ikus**i > **Historia**.
4. Sakatu deien erregistro bat.
5. Sakatu tekla.
    - Oharrak gehitzeko, sakatu **Gehitu oharrak**. Idatzi dei oharrak.
    - Oharrak aldatzeko, sakatu **Editatu oharrak**. Aldatu dei oharrak.
    - Oharrak ezabatzeko, sakatu **Editatu oharrak**. Sakatu tekla > **Garbitu eremua**.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Mezuak aplikazioan deien erregistroak ikusi edo ezkutatu

BlackBerry® telefonoak, Mezuak aplikazioan, deien erregistroak erakuts ditzan ezar dezakezu, baita dei galduak ere.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Deien erregistroak eta zerrendak**.
    - Duela gutxi egindako deiak eta dei galduak mezuen aplikazioan ikusteko, hautatu **Dei guztiak** aukera.
    - Mezuen aplikazioan deien erregistroak ezkutatzeko, hautatu **Bat ere ez** aukera.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Telefono zenbaki anitzak

### Telefono zenbaki anitzei buruz

BlackBerry® gailuarekin telefono bat baino gehiago asoziatuta badituzu, telefono zenbaki aktibo gisa erabiltzen ari zaren zenbakia alda dezakezu. Telefonoarekin asoziatuta zenbaki bat baino gehiago dituzu, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- Telefonoak SIM txartela badarabil eta SIM txartelak telefono-zenbaki bat baino gehiago onartzen baditu.
- Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak telefonoa telefono-zenbaki bat baino gehiago onartzeko konfiguratu badu.
- Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak telefono-zenbaki bat eman badizu eta enpresak BlackBerry® MVS Client bezeroaren telefono-zenbaki bat eman badizu.

Zure SIM txartelak telefono zenbaki bat baino gehiago onartzen baditu, zure telefono zenbaki aktiboa erabiliz soilik egin ditzakezu telefono deiak, baina zure telefono zenbaki guztietara egindako deiak jasoko dituzu. Dei bat abian baduzu, telefono-zenbaki aktibora egindako deiak soilik jasoko dituzu, eta gainerako telefono-zenbakietara egindako deiek okupatuta zaudenaren seinalea jasoko dute edo ahots-postontzira desbideratuko dira.

Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak telefonoa telefono-zenbaki bat baino gehiago onartzeko konfiguratu badu, telefono-zenbaki aktiboaren bidez soilik egin eta jaso ditzakezu deiak. Zure gainerako telefono zenbakietara egindako deiek okupatuta zaudenaren seinalea jasoko dute edo ahots postontzira desbideratuko dira.

Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak telefono-zenbaki bat eman badizu eta enpresak BlackBerry MVS Client bezeroaren telefono zenbaki bat eman badizu, telefono-zenbaki aktiboa erabiliz soilik egin ditzakezu telefono deiak, baina telefono-zenbaki guztietara egindako deiak jasoko dituzu. Dagoeneko dei batean bazaude, telefono-zenbaki guztietan jaso ditzakezu deiak.

Hari gabeko zerbitzu planak testu-mezularitza onartzen badu, Telefonoa aplikazioaren goialdean kokatutako goitibeherako zerrendan agertzen den lehen telefono-zenbakia erabiliko duzu testu-mezuak bidaltzeko eta jasotzeko.

Telefonoarekin asoziatutako telefono-zenbaki bakoitzaren itxaron deien, dei-desbideratzeen eta ahots-postontziaren aukerak alda ditzakezu.

### Telefono zenbaki aktiboa aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu pantailaren goialdean agertzen den zure telefono-zenbakia.
3. Sakatu telefono-zenbaki aktibo gisa ezarri nahi duzun telefono-zenbakia.

**Lotutako informazioa**

Nire telefono zenbakia ezezagun gisa ageri da Telefonoa aplikazioan, 74
Ezin dut deirik egin eta jaso, 36

## Telefonoaren aukerak

### Blokeatutako pantailatik markartzea aktibatu edo desaktibatu

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Pasahitza**.
3. Hautatu edo garbitu **Baimendu irteerako deiak blokeatuta dagoenean** kontrol laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Telefonoaren pantailako telefono-zenbakiak edo kontaktuak ordenatu

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Deien erregistroak eta zerrendak**.
   - Telefono zenbakiak edo kontaktuak erabilpenaren maiztasunaren arabera ordenatzeko, aldatu **Telefonoen zerrendaren ikuspegia** eremua **Erabiliena** jarri dezan.
   - Kontaktuak izenaren arabera alfabetikoki ordenatzeko, aldatu **Telefonoen zerrendaren ikuspegia** eremua **Izena** jarri dezan.
   - Telefono zenbakiak edo kontaktuak erabilpenaren berritasunaren arabera ordenatzeko, aldatu **Telefonoen zerrendaren ikuspegia** eremua **Berriena** jarri dezan.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Blokeatutako pantailatik markartzea aktibatu edo desaktibatu, 68

## Deiak egiterakoan zure telefono zenbakia erakutsi edo ezkutatu

Hari gabeko sareak zuk aukeratutako aukera gainidatz dezake.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Sarrerako deien ezarpenak**.
   - Deiak egiterakoan zure telefono zenbakia ezkutatzeko, hautatu **Murriztu nire identitatea** eremuan **Beti**.
   - Deiak egiterakoan zure telefono zenbakia erakusteko, hautatu **Murriztu nire identitatea** eremuan **Inoiz ez**.
   - Hari gabeko sareak telefono zenbakia erakutsi edo ezkutatu behar duen erabakitzea baimentzeko, **Murriztu nire identitatea** eremuan hautatu **Sareak zehaztua**.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Elementuak ezabatu baino lehen agertzen den gonbipena desaktibatu

Mezuak, dei erregistroak, kontaktuak, egutegiko sarrerak, egitekoak, memorandumak edo pasahitzak ezabatzen dituzunean agertzen den gonbidapena desaktiba dezakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu elementuak ezabatzen dituzunean agertzen den onbitaren aplikazioaren ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. Beharrezkoa bada, sakatu **Aukera orokorrak**.
4. Garbitu **Berretsi ezabatzea** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Zorroarekin deiak erantzuteko edo amaitzeko modua aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Sarrerako deien ezarpenak**.
   - BlackBerry® smartphone-a zorrotik ateratzean deiak automatikoki erantzuteko, hautatu **Zorrotik kanpoErantzun automatikoki deiak** eremuan.
   - Smartphone-a zorrotik ateratzean deiak automatikoki erantzuteari uzteko, hautatu **Erantzun automatikoki deiak** eremuan **Inoiz ez**.
   - Zure smartphone-a zorroan sartzen duzunean deiak automatikoki amaitzeko, hautatu **Amaitu automatikoki deiak** eremuan **Zorroan**.
   - Smartphone-a zorroan sartzerakoan deiak automatikoki amaitzeari uzteko, hautatu **Amaitu automatikoki deiak** eremuan **Inoiz ez**.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Entzungailuekin deiak nola erantzun aldatu

BlackBerry® smartphone-a Bluetooth® gaitutako entzungailu batekin parekatuta badago edo entzungailuak smartphone-ra entxufatuta badituzu, 5 segundoren ostean smartphone-ak deia automatikoki erantzun dezan ezar dezakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Sarrerako deien ezarpenak**.

- 5 segundoren buruan deiak automatikoki erantzuteko, hautatu **5 s eta gero (Bluetootha/Aurikularrak soilik)** aukera **Erantzun automatikoki deiak** eremuan.
- 5 segundoren buruan deiak automatikoki erantzuteari uzteko, hautatu **Inoiz ezErantzun automatikoki deiak** eremuan.

3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Deien kontagailu bat berrezarri

Deien kontagailuak deien gutxi gorabeherako iraupena kalkulatzen du. Dei baten iraupen zehatzari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Egoera** > **Azkeneko deia** edo **Deiak guztira** > **Garbitu kontagailua**.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Audifono moduari buruz

Audifono moduan, BlackBerry® telefonoaren seinale magnetikoa maila aproposera aldatzen du audifonoa duten entzumen-gailuek seinalea jaso dezaten.

## Aktibatu audifono modua

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Audifono modua**.
3. Hautatu **Modua gaituta** eremuan **Audifonoa**.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Audifonoaren adierazlea hasierako pantailaren goialdean agertzen da.

**Lotutako informazioa**

Audifono moduari buruz, 70

## TTY laguntzari buruz

TTY laguntza aktibatzen duzunean eta BlackBerry® smartphone-a segunduko 45,45 biteko abiaduran dabilen TTY gailu batekin konektatzen denean, TTY gailuen deiak jaso eta horiei deitu diezaiekezu. Jasotako deiak TTY gailuan irakurtzeko moduko testu bihurtzeko diseinatu da telefonoa.

TTY gailua 2,5 milimetroko konektorearekin erabiltzeko diseinatu bada, moldagailu bat erabili beharko duzu TTY gailua telefonora konektatzeko. Research In Motion®-ek telefonoarekin erabiltzeko onetsi duen moldagailua eskuratu nahi baduzu, bisitatu www.shopblackberry.com helbidea.

## TTY laguntza aktibatu edo desaktibatu

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **TTY**.
3. Aldatu **TTY** eremua.

4. Sakatu tekla > **Gorde**.

TTY adierazlea agertuko da konexioen eremuan, hasierako pantailaren goialdean.

**Lotutako informazioa**
TTY laguntzari buruz, 70
Telefonoaren aukerak, 68

# Ahots posta

## Zure ahots postaren agurrari eta ahots postaren pasahitzari buruz

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, zure ahots postaren agurra edo pasahitza aldatzeko metodoa ezberdina izan daiteke. Zure ahots postaren agurra edo pasahitza aldatzeko eta ahots posta entzuteko aukeretara sartzeko gai izan beharko zenuke. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

## Egiaztatu ahots-posta

Zure gaiaren arabera, baliteke hasierako pantailatik ahots posta egiaztatu ahal izatea.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Deitu ahots postontzira**.

**Lotutako informazioa**
Ezin naiz ahots postara sartu, 73

## Ahots-postara sartzeko zenbakia eta pasahitza aldatu

Oraindik ez bada BlackBerry® smartphone-n ahots-postarako sarbide zenbakirik ezarri, sarbide-zenbakia idatzi dezakezu ahots-postako beste sistema desberdin baterako.

**Oharra:** Smartphone-an ahots-postaren pasahitza aldatzen baduzu, ahots-postaren sistemara ere deitu behar duzu, han ere pasahitza aldatzeko. Bestela, ahots-postaren pasahitza ez da eguneratuko ahots-postaren sisteman. Ahots-postaren pasahitza ahazten baduzu, deitu hari gabeko zerbitzu-hornitzailea pasahitz berri bat lortzeko.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Ahots posta**.
3. Idatzi ahots postarako sarbide zenbaki bat eta pasahitz bat.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**
Ezin naiz ahots postara sartu, 73

### Deia ahots-postara joan aurretik smartphone-ak zenbat aldiz joko duen zehaztu

Deia ahots-postara desbideratu aurretik, BlackBerry® smartphone-ak zenbat aldiz joko duen aldatzeko, hari gabeko zerbitzu-hornitzailaren ahots-postaren sistemara deitu behar duzu. Bere ahots-postaren sistema du hari gabeko zerbitzu-hornitzaile bakoitzak. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut aldatu nire smartphone-ak jotzen duen tonu kopurua, 73

# Arazoak: Telefonoa

## Zenbait eginbide ez daude erabilgarri nire telefonoan

Telefonoaren modeloak edo hari gabeko zerbitzu-planak eragina izan dezake BlackBerry® telefonoko eginbide batzuen erabilgarritasunean.

Mezularitza zerbitzu-planaren arabera, baliteke zenbait eginbide edo aukera erabilgarri ez egotea Mezu elektronikoen lehentasunak pantailako mezuen aukeretan.

Posta-kontuak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, baliteke enpresaren eginbide batzuk konfiguratu ez izana edo eginbide nahiz aukera batzuk zuretzat desgaitu izana. Administratzaileak aukera bat ezarri badu zuretzat, blokeo-adierazle bat agertuko da aukeraren eremuaren ondoan.

Telefonoan erabilgarri diren eginbideei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo bisitatu www.blackberry.com/go/devices helbidea.

**Lotutako informazioa**

Eginbideen erabilgarritasuna, 18

## Ezin dut deirik egin eta jaso

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Ziurtatu zure hari gabeko zerbitzu planean telefono eta ahots deiak sartzen direla.
- Deirik egin ezin baduzu eta markatze finkoa aktibatuta badago, egiaztatu kontaktuaren telefono-zenbakia markatze finkoaren zerrendan agertzen dela edo desaktibatu markatze finkoa.
- Atzerrira bidaiatu baduzu eta markatze adimendunaren aukerak aldatu ez badituzu, markatu kontaktuaren telefono-zenbaki osoa, estatu-kodea eta aurrezenbakia barne.
- Deirik jasotzen ez baduzu, egiaztatu deien blokeoa eta desbideratzea desaktibatuta daudela.
- Zure smartphone-ak edo SIM txartelak telefono zenbaki bat baino gehiago onar ditzake, zuk telefono zenbaki bakarra izan arren. Ziurtatu zure telefono zenbakia telefono zenbaki aktibo gisa ezarrita dagoela.

- Telefono zenbaki bat baino gehiago badituzu zure smartphone-ari asoziatuta, egiaztatu deiak egiteko eta jasotzeko erabili nahi duzun telefono zenbakia telefono zenbaki aktibo gisa ezarrita dagoela.
- BlackBerry® MVS Client telefono-zenbakia erabiltzen ari bazara, BlackBerry MVS Client aktibatuta dagoela.
- BlackBerry MVS Client telefono-zenbakia erabiltzen ari bazara, egiaztatu smartphone-a BlackBerry® Mobile Voice System sisteman erregistratuta dagoela. Hasierako pantailan, sakatu tekla. Sakatu tekla. Sakatu **Aukerak**. Sakatu **BlackBerry MVS Client**. Sakatu tekla. Sakatu **Erregistratu orain**. Menuko Erregistratu orain elementua agertzen ez bada, edo erregistratzeak huts egiten badu, jarri administratzailearekin harremanetan. Erregistratzea osatzen ez bada, itxaron pixka bat, eta saiatu berriro.
- Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak emandako telefono-zenbakiko deiak desbideratu badituzu, BlackBerry MVS Client telefono-zenbakira egindako deiak ere desbideratu egingo dira. BlackBerry MVS Client telefono-zenbakian deiak jasotzeko, egiaztatu deien desbideratzeak aktibatua daudela.

**Lotutako informazioa**
Markatze finkoa eta markatze adimenduna, 63
Deia zain, dei-desbideraketa eta deia blokeatzea, 61
Telefono zenbaki aktiboa aldatu, 68

# Ezin naiz ahots postara sartu

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Telefono-zenbaki bat baino gehiago badituzu BlackBerry® smartphone-arekin asoziatuta eta ahots postontzira lasterbide tekla bat erabiliz sartzen saiatzen ari bazara, smartphone-ak telefono-zenbaki aktiboaren ahots postontzira deituko du. Egiaztatu zure beste telefono zenbakiaren ahots postontzia.
- Ahots postontzia egiaztatu ahal izateko ahots postontzirako atzipen zenbaki bat behar duzu. Ahots postontzirako atzipen zenbaki bat lortzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin edo administratzailearekin.

**Lotutako informazioa**
Telefono zenbaki aktiboa aldatu, 68

# Ezin du deirik blokeatu

- Baliteke hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak dei blokeatuen eginbidea ez onartzea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.
- BlackBerry smartphone-an BlackBerry® MVS Client instalatuta badago, nahi ez dituzun deitzaileen deiak blokea ditzakezu. Informazio gehiagorako, ikus *BlackBerry MVS Client softwarearen erabiltzaile-gida*,

# Ezin dut aldatu nire smartphone-ak jotzen duen tonu kopurua

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, agian ezingo duzu aukeratu deia ahots-postontzira desbideratu aurretik BlackBerry® smartphone-ak tonua zenbat aldiz jotzen duen. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

## Nire telefono zenbakia ezezagun gisa ageri da Telefonoa aplikazioan

BlackBerry® telefonoak SIM txartela badarabil, saiatu SIM txarteleko telefono-zenbakia aldatzen telefono-zenbakia Telefonoa aplikazioan nola agertuko den aldatzeko.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **SIM txartela**.
3. Nabarmendu telefono zenbakia.
4. Sakatu tekla > **Editatu SIM txarteleko telefono zenbakia**.
5. Idatzi zure telefono zenbakia.
6. Sakatu **Ados**.

## Ezin dut deirik egin ahots komandoak erabiliz

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Bluetooth® gaitasuneko gailua erabiltzen ari bazara, hala nola, autoko kit eskulibre bat edo hari gabeko aurikular bat, egiaztatu Bluetooth-a gaitasuneko gailuak eginbide hau onartzen duela eta Bluetooth-a gaitasuneko gailua zure BlackBerry smartphone-arekin parekatuta dagoela.
- Egiaztatu teklatua desblokeatuta dagoela.
- Egiaztatu ahots-komandoak esateko erabiltzen duzun hizkuntza hizkuntzen aukeretan ahots bidezko markatzearen hizkuntza gisa zehaztu duzun hizkuntza bera dela. Agian hizkuntza batzuk ez dira onartzen.

**Lotutako informazioa**

Zure ahots komandoen hizkuntza aldatu, 76
Bluetooth teknologia, 264

## Deiak aurikularrek egiten dituzte, eta ez smartphone-ak

BlackBerry® telefonoa Bluetooth® gaitutako aurikularrera konektatuta badago, baliteke telefonoak automatikoki deiak egitea Bluetooth gaitutako aurikularretan.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Deskonektatu Bluetooth gaitutako aurrikularrak BlackBerry telefonotik.
- Dei batean zaudela, sakatu tekla, sakatu **Aktibatu telefonoa**.

# Ahots komandoak

## Nola: Ahots-komandoak

### Ahots-komandoak erabiliz ekintzak burutu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Ahots bidezko markatzea** ikonoa.
2. Bip soinuaren ondoren, esan ahots-komandoa.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut deirik egin ahots komandoak erabiliz, 74

### Ahots bidezko abisuen aukerak aldatu

Ahots komando bat esan eta gero, ahots bidezko abisu batek informazio gehiago edo zerbait argitzeko eskatuko dizu edo pantailan agertzen diren argibideak irakur ditzake.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Klikatu **Deien kudeaketa** > **Ahotsa Markatzea**.
    - Ahots bidezko abisuak desaktibatzeko, ezarri **Audio abisuak** eremua **Abisurik ez** gisa.
    - Ahots bidezko abisuak aktibatzeko, ezarri **Audio abisuak** eremua **Oinarrizko abisuak** gisa.
    - Ahots bidezko abisuak aktibatzeko eta pantailan agertzen diren argibideak irakurtzeko, ezarri **Audio abisua** eremua **Abisu xeheak** gisa.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Ahots hautematea hobetu

Ahotsaren hautematea hobe dezakezu zenbaki eta hitz zehatz batzuk errepikatzeko eskatzen dizuten galdera gutxi batzuk erantzunda.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Klikatu **Deien kudeaketa** > **Ahotsa Markatzea**.
3. **Ahotsa egokitzea** atalean, sakatu **Hasi**.
4. Jarraitu pantailako jarraibideei.

# Ahots-komando erabilgarriak

| Ahots-komandoa | Deskribapena |
|---|---|
| "Deitu <*kontaktuaren izena edo telefono zenbakia*>" | Esan ahots-komando hau edo dei bat egin. Egiteko hori Bluetooth® gaitutako gailu batekin egiteko, esaterako, autorako eskulibrekoarekin edo hari gabeko entzungailuekin, Bluetooth-a gaitutako gailu parekatuak ezaugarri hori onartu behar du eta Bluetooth-a teknologia aktibatu behar duzu. Ezin duzu larrialdi deirik egin ahots komandoak erabiliz. |
| "Deitu <*kontaktuaren izena*> <*telefono zenbaki mota*>" | Esan ahots-komando hau telefono zenbaki edo kontaktuen zerrendan dagoen kontaktu zehatz bati deitzeko. Adibidez, kontaktuak laneko telefono bat eta telefono mugikor bat baditu, "deitu*kontaktuaren izena*> lana" laneko zenbakira deitzeko. |
| "Deitu luzapenera <*luzapen zenbakia*>" | Esan ahots-komando hau luzapen bat markatzeko. Egiteko hori burutzeko, luzapenak markatzeko aukerak ezarri behar dituzu. Zure enpresako luzapenak bakarrik marka ditzakezu. |
| "Egiaztatu nire telefono-zenbakia" | BlackBerry® smartphone-arekin telefono anitz lotuta badituzu, esan ahots-komandoa telefono-zenbaki aktiboa egiaztatzeko. |
| "Egiaztatu seinalearen indarra" | Esan ahots-komando hori hari gabeko estaldura maila begiratzeko. |
| "Egiaztatu sarea" | Esan ahots-komando hau smartphone-a konektatuta dagoen hari gabeko sarea egiaztatzeko. |
| "Egiaztatu bateria" | Esan ahots-komando hori bateriaren karga maila begiratzeko. |
| "Errepikatu" | Esan ahots-komando hau azkeneko ahots gonbita errepikatzeko. |
| "Utzi" | Esan ahots-komando hau ahots markatze aplikazioa ixteko. |

**Lotutako informazioa**

Luzapenen aukerak ezarri, 64

# Zure ahots komandoen hizkuntza aldatu

Ahots komandoen hizkuntza aldatzen duzunean, ahots bidezko galderen hizkuntza eta ahots komando bat sortzeko erabiltzen duzun hizkuntza alda dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Hizkuntza eta metodoa**.
3. Aldatu **Ahots markatzearen hizkuntza** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Nire smartphone-ak ez ditu ahots-komandoetako izenak edo zenbakiak hautematen, 77

## Ahots-komandoetarako aukera zerrendak desaktibatu

BlackBerry® smartphone-ak ahots-komando baterako pareko bat baino gehiago detektatzen baditu, smartphone-ak pareko posibleen zerrenda edo aukera zerrenda erakutsiko dizu. Aukera zerrendak deskonektatu ditzakezu zure smartphone-ak parekorik onena hautatu eta telefono zenbakia automatikoki markatu dezan.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Klikatu **Deien kudeaketa** > **Ahotsa Markatzea**.
3. Ezarri **Aukera zerrendak** eremua **Beti deskonektatua** jarri dezan.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Arazoak: Ahots-komandoak

## Ezin dut deirik egin ahots komandoak erabiliz

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Bluetooth® gaitasuneko gailua erabiltzen ari bazara, hala nola, autoko kit eskulibre bat edo hari gabeko aurikular bat, egiaztatu Bluetooth-a gaitasuneko gailuak eginbide hau onartzen duela eta Bluetooth-a gaitasuneko gailua zure BlackBerry smartphone-arekin parekatuta dagoela.
- Egiaztatu teklatua desblokeatuta dagoela.
- Egiaztatu ahots-komandoak esateko erabiltzen duzun hizkuntza hizkuntzen aukeretan ahots bidezko markatzearen hizkuntza gisa zehaztu duzun hizkuntza bera dela. Agian hizkuntza batzuk ez dira onartzen.

**Lotutako informazioa**

Zure ahots komandoen hizkuntza aldatu, 76
Bluetooth teknologia, 264

## Nire smartphone-ak ez ditu ahots-komandoetako izenak edo zenbakiak hautematen

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Esan kontaktuaren izena eta abizena
- Hobetu zenbakien ahots bidezko hautematea.

# Mezuak

## Nola: Mezuak

### Mezuak begirada batean




### Mezu elektroniko bat bidali

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Idatzi mezu elektronikoa**.
3. **Nori** eremuan, idatzi helbide elektroniko bat edo kontaktu baten izena.
4. Idatzi mezua.
5. Sakatu tekla > **Bidali**.

**Lotutako informazioa**

Kontaktuak bilatu, 192
Banaketa zerrenda pertsonalak, 196
Ezin dut mezurik bidali, 38
Mezu elektronikoetan fitxategiak erantsi, 83

# Testu mezu bat bidali

Testu mezu bat zenbat hartzaileri bidal diezaiekezun hari gabeko zerbitzu hornitzailearen araberakoa da.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Idatzi testu mezua**.
3. **Nori** eremuan, egin hauetariko bat:
   - Idatzi kontaktuaren izena.
   - Sakatu tekla > **Aukeratu kontaktua**. Sakatu kontaktu bat.
   - Idatzi testu mezuak jaso ditzakeen telefono zenbaki bat (herrialdeko nahiz area kodeekin). Latinezko karaktereak ez dituzten hizkuntzetan, sakatu **Alt** tekla zenbakiak idazteko. Sakatu teklatuko tekla.
   - BlackBerry® telefonoa CDMA sare batera konektatuta badago, helbide elektroniko bat idatz dezakezu.
4. Idatzi mezua.
5. Sakatu teklatuko tekla.

**Lotutako informazioa**

Banaketa zerrenda pertsonalak, 196
Ezin dut mezurik bidali, 38
Erantsi multimedia fitxategia, kontaktu-txartela, hitzordua edo kokapena testu-mezu batean, 103

# Mezu bat birbidali

Ezin duzu testu mezu bat aldatu birbidali aurretik.

Bidalitako mezu batean, sakatu tekla.

- Mezua aldatzeko, sakatu **Editatu**. Aldatu mezua. Sakatu tekla > **Bidali**.
- Hartzaileak aldatzeko, sakatu **Editatu**. Nabarmendu kontaktu bat. Sakatu > **Aldatu helbidea**. Sakatu kontaktu berri bat. Sakatu tekla > **Bidali**.
- Mezua aldatu gabe birbidaltzeko, sakatu **Birbidali**.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut mezurik bidali, 38

# Ortografia zuzendu

Ortografia zuzen dezakezu sortzen dituzun mezuetan, egutegi sarreretan, egitekoetan edo memorandumetan.

1. Sakatu tekla > **Zuzendu ortografia**.
2. Egin hauetako bat:
   - Proposatutako hitza onartzeko, sakatu agertzen den zerrendako hitz bat.
   - Proposatutako hitza ezikusteko, sakatu tekla.
   - Proposamen guztiak ezikusteko, sakatu tekla > **Ezikusi guztiak**.
   - Hitz berria hiztegi pertsonalizatuan gehitzeko, sakatu tekla > **Gehitu hiztegian**.
   - Ortografia zuzentzeari uzteko, sakatu tekla > **Utzi ortografia zuzentzailea**.

# Mezu baten zirriborroa gorde

Mezu bat idazterakoan, sakatu tekla > **Gorde zirriborroa**.

# Mezu bat ezabatu

Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.

- Mezu bat ezabatzeko, nabarmendu mezua. Sakatu tekla > **Ezabatu**.
- Gordetako mezuak ezabatzeko, sakatu tekla > **Ikusi gordetako mezuak**. Nabarmendu mezua. Sakatu tekla > **Ezabatu**. Beharrezkoa bada, ezabatu mezua mezuen sarrera-ontzitik ere
- Mezu sorta ezabatzeko, nabarmendu mezu bat. Eduki sakatuta **MAIUS** tekla. Nabigazio-teklan, arrastatu hatza gora edo behera. Askatu **MAIUS** tekla. Sakatu tekla > **Ezabatu mezuak**.
- Data zehatz bat baino lehenagoko mezu guztiak ezabatzeko, nabarmendu data eremu bat. Sakatu tekla > **Ezabatu zaharragoak** > **Ezabatu**.

**Oharra:** Menuko Ezabatu zaharragoak elementua erabiliz ezabatzen dituzun mezu elektronikoak ez dira ordenagailuko posta elektronikoaren aplikaziotik ezabatuko posta elektronikoa bateratzerakoan.

# Mezuei kontaktu-txartel bat erantsi

Kontaktu-txartelak erants ditzakezu mezu elektronikoetan, PIN mezuetan edo testu-mezuetan.

1. Mezu bat idazterakoan, sakatu tekla > **Erantsi** > **Kontaktua**.
2. Kontaktu bat bilatu eta nabarmendu.
3. Sakatu tekla > **Jarraitu**.

**Lotutako informazioa**

Ezin ditut eranskinak testu-mezuetan gehitu, 110

# Kontaktuak ezkutuko kopia gisa gehitu

Kontaktu bat ezkutuko kopia gisa gehi dezakezu mezu elektroniko edo PIN mezu batean.

Mezu elektroniko edo PIN mezu bat idazterakoan, sakatu tekla > **Gehitu Bcc**.

# Testua mezu batean, fitxategi batean edo web orri batean bilatu

Aurkezpen batean testua bilatzeko, aurkezpena Ikusi testua moduan edo Ikusi testua eta diaporama moduan ikusi behar duzu.

1. Mezu, fitxategi, eranskin edo web orrialde batean, sakatu tekla > **Bilatu** edo **Bilatu orrialdean**.
2. Idatzi testua.
3. Sakatu teklatuko tekla.

Hurrengo bat-etortzea bilatzeko, sakatu tekla > **Bilatu hurrengoa** edo **Bilatu orrialdeko hurrengoa**.

# Mezu elektroniko edo PIN mezu bat erantzun edo birbidali

Mezu batean, sakatu tekla.

- Mezu bati erantzuteko, sakatu **Erantzun** edo **Erantzun guztiei**.
- Mezu bat birbidaltzeko, sakatu **Birbidali** edo **Birbidali honela**.

**Lotutako informazioa**
Ezin dut mezurik bidali, 38

# Helbidea ikusi bistaratzeko izenaren ordez

Mezu batean, sakatu tekla > **Erakutsi helbidea**.

Bistaratzeko izena berriro ikusteko, sakatu tekla > **Erakutsi izena**.

# Mezu bat gorde

Gordetako mezuak ez dira ezabatuko, ezta BlackBerry® telefonoari denbora-tarte bat pasatakoan mezuak ezabatzeko zehaztu bazaio ere.

Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.

- Mezu elektroniko bat edo PIN mezu bat gordetzeko, nabarmendu mezu elektroniko bat edo PIN mezu bat. Sakatu tekla > **Gorde**.
- Testu-mezu bat gordetzeko, ireki elkarrizketa bat eta narbarmendu testu-mezu bat. Sakatu tekla > **Gorde mezua**.

**Lotutako informazioa**
Gordetako mezuak ikusi, 81

# Gordetako mezuak ikusi

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Ikusi gordetako mezuak**.

# Bidalitako mezuak ezkutatu sarrerako ontzian

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.
3. Hautatu **Ezkutatu bidalitako mezuak** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Artxibatutako mezuak ikusi

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Ikusi karpeta**.
3. Sakatu karpeta bat.

# Telefonoa mezuak zenbat denboraz gordeko dituen ezarri

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.
3. Aldatu **Mezuak gordetzeko egun kopurua** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Mezu batzuk ez dira nire telefonoan agertzen, 99

# Telefonoan zorrotik ateratzen duzunean mezu berriak automatikoki ireki

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.
3. Aldatu **Ireki automatikoki mezu berriena gailua zorrotik atera ondoren** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Elementuak ezabatu baino lehen agertzen den gonbita desaktibatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.
3. Garbitu **Berretsi ezabatzea** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Ezkutatu mezu berrien edo irakurri gabekoen adierazlea

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.
   - Mezu berrien adierazlea ezkutatzeko, garbitu **Bistaratu mezu berriaren adierazlea** kontrol-laukia.
   - Irakurri gabeko mezuen adierazlea ezkutatzeko, **Bistaratu mezu kopurua** eremuan hautatu **Bat ere ez**.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Mezuak irakurritako gisa markatzen dituzunean agertzen den abisua desaktibatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.
3. Garbitu **Berretsi markatu aurretik irakurrita** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Posta elektronikoa

## Nola: Posta elektronikoa

### Mezu elektronikoa idaztea eta bidaltzea

### Mezu elektroniko bat bidali

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Idatzi mezu elektronikoa**.
3. **Nori** eremuan, idatzi helbide elektroniko bat edo kontaktu baten izena.
4. Idatzi mezua.
5. Sakatu tekla > **Bidali**.

**Lotutako informazioa**
Kontaktuak bilatu, 192
Banaketa zerrenda pertsonalak, 196
Ezin dut mezurik bidali, 38
Mezu elektronikoetan fitxategiak erantsi, 83

### Mezu elektronikoetan fitxategiak erantsi

Zure erakundearen sarean gordetako fitxategi bat eransteko, zure posta elektronikoko kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabili behar du. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

Mezu elektroniko bat sortzen ari zarenean, sakatu tekla > **Erantsi** > **Fitxategia**.

- BlackBerry smartphone-an edo memoria txartelean gordetako fitxategi bat eransteko, bilatu eta sakatu fitxategia.
- Zure erakundearen sarean gordetako fitxategi bat eransteko, sakatu tekla > **Joan**. Bilatu eta sakatu fitxategia. Beharrezkoa bada, idatzi zure erakundearen sarera konektatzeko erabiltzen dituzun kredentzialak.

## Mezuak edo bilerarako gonbidapenak bidaltzeko erabiltzen duzun helbide elektronikoa aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Zerbitzu lehenetsiak**.
3. Aldatu **Mezularitza (CMIME)** eremua edo **Egutegia (CICAL)** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Mezu elektroniko baten ezespena ezabatu

Zure kontu elektronikoak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabiltzen badu, baliteke BlackBerry Enterprise Server zerbitzariak ezespen bat gehitzea mezu elektronikoari zuk bidali ostean.

Mezu elektroniko bat sortzen ari zarenean, sakatu tekla > **Kendu ezezpena**.

Ezezpena berriro gehitzeko, sakatu tekla > **Gehitu ezezpena**.

## Mezu baten erantzunean jatorrizko testua ezabatu

Mezu bati erantzuterakoan, sakatu tekla > **Ezabatu jatorrizko testua**.

## Bidaltzen dituzun mezu elektronikoen eta PIN mezuen garrantzia maila zehaztu

Mezu elektroniko edo PIN mezu baten garrantzia-maila aldatzen baduzu, lehentasun handiaren adierazlea edo lehentasun txikiaren adierazlea agertzen da BlackBerry® telefonoko mezuaren alboan. Hartzailearen mezularitza-aplikazioak mezuen garrantzia-maila onartzen badu, garrantziaren maila ere adieraziko zaio hartzaileari.

1. Mezu elektroniko edo PIN mezu bat idazterakoan, sakatu tekla > **Aukerak**.
2. Aldatu **Garrantzia** eremua.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Mezu bat bidaltzea eragotzi

Erloju baten ikonoa mezuaren ondoan agertzen denean baino ezingo duzu eragotzi mezua bidaltzea.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Nabarmendu mezua.
3. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

## Posta elektronikoaren iragazkiak

## Posta elektronikoaren iragazkiei buruz

Posta elektronikoaren iragazkiak sor ditzakezu zure BlackBerry® smartphone-ra birbidaltzen diren eta ordenagailuko posta elektronikoan geratzen diren mezuak zehazteko.

Zure posta elektronikoaren iragazkien zerrendan agertzen diren ordenan aplikatzen dira posta elektronikoaren iragazkiak. Posta elektroniko berari aplika dakiokeen posta elektroniko anitzen iragazki bat sortzen baduzu, lehenengo zein aplikatzen den erabaki behar duzu iragazkia zerrendako goialdean kokatuz.

## Posta elektronikoaren iragazki bat sortu

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

BlackBerry telefonoan duzun posta-kontu pertsonal batean (adibidez, Google Mail™ edo Windows Live™ Hotmail®) egiteko hau nola bete jakiteko, bisitatu www.blackberry.com/docs/smartphones helbidea eta sakatu **Posta elektronikoaren konfigurazioa**.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren iragazkiak**.
3. Sakatu tekla > **Berria**.
4. Idatzi posta elektronikoaren iragazkiaren izena.
5. Ezarri posta elektronikoaren iragazkiaren aukerak.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Kontaktu edo gai batean oinarriturik posta elektronikoaren iragazki bat sortu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Nabarmendu posta elektroniko bat.
3. Sakatu tekla > **Iragazi honela** > **Igorlea** edo **Gaia**.
4. Idatzi posta elektronikoaren iragazkiaren izena.
5. Ezarri posta elektronikoaren iragazkiaren aukerak.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Posta elektronikoaren iragazkien aukerak

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| Nork | Zehaztu posta elektronikoaren iragazkiak zure mezu elektronikoaren Igorlea eremuan bilatu behar dituen kontaktu baten edo gehiagoren helbide elektronikoak. Bereizi kontaktuak edo helbide elektronikoak puntu eta koma (;) bidez. Posta elektronikoaren iragazkiak testu jakin bat duten kontaktu edo helbide elektroniko guztiak bilatu beharko lituzkeela zehazteko, idatzi testua eta erabili izartxoa (*) komodin gisa gainerako kontaktuak edo helbide elektronikoak adierazteko. |

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| Honi bidalia | Zehaztu iragazkiak Honi bidalia eremuan bilatu behar dituen kontaktu baten edo gehiagoren helbide elektronikoak. Bereizi kontaktuak edo helbide elektronikoak puntu eta koma (;) bidez. Posta elektronikoaren iragazkiak testu jakin bat duten kontaktu edo helbide elektroniko guztiak bilatu beharko lituzkeela zehazteko, idatzi testua eta erabili izartxoa (*) komodin gisa gainerako kontaktuak edo helbide elektronikoak adierazteko. |
| Gaia | Zehaztu mezu elektronikoaren Gaia eremuan posta elektronikoaren iragazkiak bilatu beharreko testua. |
| Mezua | Zehaztu mezu elektronikoaren gorputzean posta elektronikoaren iragazkiak bilatu beharreko testua. |
| Bidali zuzenean niri | Zehaztu Nori eremuan zure helbide elektronikoa duten mezu guztiei posta elektronikoaren iragazkia aplikatu behar zaien. |
| Cc niri | Zehaztu Cc eremuan zure helbide elektronikoa duten mezu guztiei posta elektronikoaren iragazkia aplikatu behar zaien. |
| Bcc niri | Zehaztu Bcc eremuan zure helbide elektronikoa duten mezu guztiei posta elektronikoaren iragazkia aplikatu behar zaien. |
| Garrantzia | Zehaztu posta elektronikoaren iragazkia aplikatzen zaien mezu elektronikoen garrantzi maila. |
| Sentsibilitatea | Zehaztu posta elektronikoaren iragazkia aplikatzen zaien mezu elektronikoen sentikortasun maila. |
| Ekintza | Zehaztu posta elektronikoaren iragazkia aplikatzen zaien mezu elektronikoak BlackBerry® smartphone-ra birbidali behar diren. Mezu elektronikoak birbidaltzen badira, zehaztu garrantzi maila altuarekin edo goiburuarekin soilik birbidaltzen diren. |

## Posta elektronikoaren iragazki bat aktibatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren iragazkiak**.

3. Hautatu posta elektronikoaren iragazkiaren ondoan dagoen kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Posta elektronikoaren iragazki bat aldatu, lehenetsi edo ezabatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren iragazkiak**.
3. Nabarmendu posta elektronikoaren iragazki bat.
4. Sakatu tekla.
   - Posta elektronikoaren iragazki bat aldatzeko, sakatu **Editatu**. Aldatu posta elektronikoaren iragazkien aukerak. Sakatu tekla > **Gorde**.
   - Posta elektronikoaren iragazki bat lehenesteko, sakatu **Mugitu**. Sakatu kokapen berria.
   - Posta elektronikoaren iragazki bat ezabatzeko, sakatu **Ezabatu**.

## Mezu elektronikoak sinkronizatzea

## Sinkronizazioari eta bateratzeari buruz

Antolatzaileko datuak (kontaktuak, egutegiko sarrerak, egitekoak eta memorandumak) BlackBerry® telefonoaren eta ordenagailuko posta aplikazioa hari gabeko sarearen bidez sinkronizatzeko diseinatuta dago datuak hari gabe sinkronizatzeko eginbidea.

Mezu elektronikoak telefonoaren eta ordenagailuko posta aplikazioaren artean hari gabeko sarearen bidez sinkronizatzeko diseinatuta dago posta elektronikoaren hari gabeko bateratzearen eginbidea. Telefonoko mezu elektronikoak artxibatzen edo ezabatzen dituzunean, mezu horiek posta elektronikoko aplikazioan ere artxibatu edo ezabatu beharko lirateke. Halaber, ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioan mezu elektronikoei egindako aldaketak ere gailuan agertu beharko lukete.

Kasu bakanetan, telefonoak kontaktu, egutegiko sarrera edo kontu elektroniko baten eremuak ezagutzen ez baditu, datu edo mezu elektroniko batzuk ezin dira ez sinkronizatu ez bateratu.

Hari gabeko datu-sinkronizazio ez dago erabilgarri zure telefonoan edo, eginbide hau desaktibatuta baduzu, BlackBerry® Desktop Software erabil dezakezu antolatzaileko datuak sinkronizatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza hemen.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

## Posta elektronikoa hari gabeko sarearen bidez sinkronizatu

Hari gabeko bateratzea aukera ezar diezaiokezu BlackBerry® telefonoarekin asoziatutako helbide elektroniko bakoitzari. Ondorioz, mezu elektronikoak, hari gabeko sarearen bidez sinkronizatuko dira.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta bat-egitea**.

3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Hautatu **Hari gabeko bateratzea** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Zure smartphone-ko eta ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioan posta elektroniko ezabatu

Ezabatzea aktibatuta aukera ezar dezakezu BlackBerry® smartphone-arekin asoziatuta dagoen helbide elektroniko bakoitzean.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta bat-egitea**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. **Ezabatzea aktibatuta** eremuan hautatu **Postontzia eta eskukoa**.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

Posta elektronikoak denbora tarte labur bat behar izaten du hari gabeko sarearen bidez ezabatzeko.

**Lotutako informazioa**

Mezu bat ezabatu, 80

## Ordenagailuko ezabatutako elementuen karpeta telefonotik hustu

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta bat-egitea**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Sakatu tekla > **Ezabatu elementuak betiko**.

## Sinkronizazio gatazkei buruz

Mezu elektronikoko edo antolatzaileko datu bera BlackBerry® telefonoan eta ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioan aldatzen duzunean gertatzen dira sinkronizazio gatazkak.

Mezu elektronikoak bateratzeko posta elektronikoaren hari gabeko bateratzea erabiltzen baduzu, bateratze gatazkak gertatzen direnean, lehentasuna gailuak ala ordenagailuak izango duen zehatz dezakezu telefonoan.

Antolatzaileko datuak sinkronizatzeko hari gabeko datu sinkronizazioa erabiltzen baduzu, ordenagailuko antolatzaileko datuek telefonoko datuek baino lehentasun handiagoa izango dute sinkronizazio gatazkak gertatzen direnean.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

**Lotutako informazioa**

Egutegiko sarreretako zenbait karaktere ez dira zuzen agertzen sinkronizatu eta gero, 189
Antolatzailearen datuak kablerik gabeko sare baten bidez sinkronizatu, 182

## Mezu elektronikoaren bateratzearen gatazkak kudeatu

Gatazkak aukera ezar diezaiokezu BlackBerry® telefonoarekin asoziatutako helbide elektroniko bakoitzari.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta bat-egitea**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Aldatu **Gatazkak** eremua.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Mezu elektronikoak telefonora bidaltzeari utzi

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Garbitu **Bidali mezu elektroniko bat telefonora** kontrol-laukia
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

Berriro ere mezu elektronikoak BlackBerry telefonora birbidaltzeko, hautatu **Bidali mezu elektroniko bat telefonora** kontrol-laukia.

# Mezu elektronikoak ikustea eta erantzutea

## Kontu elektronikoen ikonoei buruz

Hari gabeko zerbitzu-planaren edo administratzailearen arabera, baliteke BlackBerry® telefonoa laneko posta-kontuekin edo posta-kontu pertsonalekin asoziatzeko gai izatea. Telefonoa posta-kontu bat baino gehiagorekin asoziatzen baduzu, baliteke posta-kontuaren ikono ugari agertzea telefonoan, Mezuak ikono nagusiaz gain. Telefonoa posta-kontu batekin edo gehiagorekin asoziatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu www.blackberry.com/docs/smartphones helbidea eta sakatu **Posta elektronikoaren konfigurazioa** atalaren azpiko esteka.

Zure gaiaren arabera, beste ikono bat ager daiteke testu mezuetarako.

## Taldekatutako mezu elektroniko gehiago aurreikusi

Talde bateko mezu bakoitzaren lerro gehiago bistaratzeko, BlackBerry® telefonoak mezu elektronikoak gaiaren arabera taldeka ditzan ezarri behar duzu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.

3. Aldatu **Aurrebistaren luzera** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Posta elektronikoa testu arrunt formatuan ikusi

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Garbitu **Gaitu HTML emaila** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Posta-kontuaren sarrera-ontzia antolatzea

## Banderei buruz

Erabiltzen duzun mezu-zerbitzuaren arabera, banderak gehi diezazkiekezu jasotzen edo bidaltzen dituzun mezu elektronikoei, zuk edo hartzaileak mezuak jarraitu behar dituzuela gogorarazteko. Koloretako banderak erabili, jarraipen-oharrak gehitu eta mezu elektronikoak erantzuteko BlackBerry® telefonoak gogoraraziko dizkizun datak ezar ditzakezu.

Posta elektronikoaren hari gabeko bateratzea gaituta badago eta posta-kontuak banderak onartzen dituen BlackBerry® Enterprise Server erabiltzen badu, telefonoan banderetan egiten dituzun aldaketak ordenagailuko posta-kontuaren aplikazioan agertuko dira. Era berean, ordenagailuko posta-kontuaren aplikazioan egiten dituzun aldaketak telefonoan agertuko dira.

Posta elektronikoaren hari gabeko bateratzea desaktibatuta badago, telefonoko mezu elektronikoen jarraipen-banderak kudeatzen jarrai ditzakezu.

## Bandera bat gehitu, aldatu edo kendu

Bidali duzun mezu elektroniko baten banderan aldaketak egiten badituzu, aldaketak zure BlackBerry® smartphone-an soilik ikusiko dira eta ez zaizkio hartzaileari bidaliko. Erabiltzen ari zaren mezu-zerbitzuaren arabera, baliteke egiteko hau ezin burutzea.

Mezu elektroniko bat idazten edo ikusten ari zarenean, sakatu tekla.

- Bandera bat gehitzeko, sakatu **Jarraipen-bandera**. Zehaztu banderaren ezaugarriak. Sakatu tekla > **Gorde**.
- Bandera bat aldatzeko, sakatu **Banderaren ezaugarriak**. Aldatu banderaren ezaugarriak. Sakatu tekla > **Gorde**.
- Bandera bat kentzeko, sakatu **Garbitu bandera**.

## Mezu elektronikoak taldekatzeko modua aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla> **Bistaratze estiloa** > **Taldekatu gaiaren arabera** edo **Banako mezuak**.

## Mezuen aplikazio nagusitik mezuak ezkutatu

Kontu elektroniko jakinetako mezuak mezuen aplikazio nagusian agertzea eragotz dezakezu. Hasierako pantailan testu mezuentzako ikono bana ere ezar dezakezu. Zure gaiaren arabera, beste ikono bat lehenespenez ager daiteke.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Sarrerako ontziaren kudeaketa**.
    - Kontu elektroniko jakinetako mezuak ezkutatzeko, **Kontu elektronikoak** atalean, kendu marka kontu elektroniko baten edo gehiagoren alboko kontrol-laukiari.
    - Testu mezuak ezkutatzeko, **Bestelako mezu motak** sekzioan, garbitu **Testu mezuak** kontrol-laukia.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Mezuen sarrera-ontziak mezuak nola erakusten dituen aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.
    - Gai lerroaren eta igorlearen ordena aldatzeko, aldatu **Bistaratzeko ordena** eremua.
    - Mezuak nola bereizten diren aldatzeko, aldatu **Bereizleak** eremua.
    - Pantailan zenbat mezu sar daitezkeen aldatzeko, aldatu **Erakutsi mezuen goiburua hemen** eremua.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Laneko mezuak beste mezuetatik desberdintzeko kolorea erabili

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Klikatu **Bistaratu** > **Mezuen sailkapena**.
3. **Mezuaren atzeko planoaren koloreak** eremuan, egin hauetako bat:
    - BlackBerry telefonora BlackBerry Enterprise Server baten bitartez bidaltzen diren mezu elektronikoen kolore eskema ezartzeko, aldatu **Enpresa mezuak** eremua.
    - Zure beste mezuen kolore eskema ezartzeko, aldatu **Beste mezu batzuk** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Oharra:** PIN mezuek laneko posta elektronikorako ezarri duzun eskema kolorea erabil dezakete. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

## Markatu mezu bat irakurrita edo irakurri gabe

Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.

- Mezu bat irakurritako ala irakurri gabeko gisa markatzeko, nabarmendu mezua. Sakatu tekla > **Markatu irakurrita** edo **Markatu irakurri gabe**.

- Data jakin baten aurretik jasotako mezu guztiak irakurritako mezu gisa markatzeko, nabarmendu data eremu bat. Sakatu tekla > **Markatu aurretik irakurrita**.

# Posta kontua gordetzea eta betetzea

## Posta elektronikoko karpeten sinkronizazioari buruz

Bai ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioan bai BlackBerry® telefonoko Mezuak aplikazioan, posta-karpetak gehitu, aldatu edo ezabatu ditzakezu

Posta elektronikoaren hari gabeko bateratzea aktibatuta badago eta posta elektronikoak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabiltzen badu, posta elektronikoko karpetei egiten dizkiezun aldaketak hari gabeko sarearen bitartez sinkronizatzen dira.

**Lotutako informazioa**

Posta elektronikoa hari gabeko sarearen bidez sinkronizatu, 22

## Mezu elektroniko bat fitxategian gorde

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Nabarmendu posta elektroniko bat.
3. Sakatu tekla > **Fitxategia**.
4. Nabarmendu karpeta bat.
5. Sakatu tekla > **Fitxategia**.

**Lotutako informazioa**

Posta elektronikoa hari gabeko sarearen bidez sinkronizatu, 22

## Posta karpetan gehitu, mugitu, berrizendatu edo ezabatu

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Ikusi karpeta**.
3. Nabarmendu karpeta bat.
4. Sakatu tekla.
   - Karpeta bat gehitzeko, sakatu **Gehitu karpeta**.
   - Karpeta bat eramateko, sakatu **Eraman karpeta**. Sakatu kokapen berria.
   - Karpeta bat berrizendatzeko, sakatu **Berrizendatu karpeta**.
   - Karpeta bat ezabatzeko, sakatu **Ezabatu karpeta**.

## Posta elektronikoko karpeta jakin bateko mezuak zure smartphone-ra birbidali

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Sakatu tekla > **Birbideratu karpetak**.
5. Hautatu posta elektronikoko karpeta baten ondoko kontrol laukia.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Oharra: Hautatu guztiak** menuko elementua sakatzen baduzu, mezu elektroniko guztiak agertuko dira BlackBerry smartphone-an, ordenagailuko posta elektronikoaren bidalitako elementuak karpetan agertzen direnak barne.

**Lotutako informazioa**
Ez gorde telefonoan ordenagailutik bidalitako mezu gehiagorik, 93

## Artxibatutako mezu elektronikoak ezkutatu sarrerako ontzian

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.
3. Hautatu **Ezkutatu fitxategian gordetako mezuak** kontrol laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Ez gorde telefonoan ordenagailutik bidalitako mezu gehiagorik

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Sakatu tekla > **Birbideratu karpetak**.
5. Garbitu **Bidalitako elementuak** karpetaren alboan dagoen kontrol-laukia.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Ez gorde ordenagailuan telefonotik bidalitako mezu gehiagorik

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.

4. Garbitu **Gorde kopia bidalitakoen karpetan** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Posta elektronikoaren aukerak

### Sinadura gehitu edo aldatu

Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke eginbide hori ez onartzea.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
   - Laneko posta kontu batean, sakatu **Posta kontuaren lehentasunak**. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, ezarri eremu honetan kontu elektroniko egokia. **Erabili sinadura automatikoa** kontrol-laukia hautatu gabe badago, hautatu. Agertzen den eremuan, jarri kurtsorea.
   - Posta kontu pertsonal batean, sakatu **Posta kontuaren kudeaketa**. Sakatu posta-kontu bat. Sakatu **Editatu**.
3. Idatzi sinadura.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Zure sinadura mezu elektronikoei gehituko zaie horiek bidali ondoren.

### Mezu elektroniko luzeen lehen zatia soilik jaso

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.
3. Garbitu **Automatikoki gehiago** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Posta elektroniko baten eduki gehiago deskargatzeko, sakatu tekla > **Gehiago** edo **Gehiago guztiak**.

### Mezuak aplikazioan deien erregistroak ikusi edo ezkutatu

BlackBerry® telefonoak, Mezuak aplikazioan, deien erregistroak erakuts ditzan ezar dezakezu, baita dei galduak ere.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Deien erregistroak eta zerrendak**.
   - Duela gutxi egindako deiak eta dei galduak mezuen aplikazioan ikusteko, hautatu **Dei guztiak** aukera.
   - Mezuen aplikazioan deien erregistroak ezkutatzeko, hautatu **Bat ere ez** aukera.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Bulegotik kanpo zaudeneko erantzuna bidali

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.

2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Hautatu **Erabili bulegotik kanpoko erantzuna** kontrol-laukia.
5. Agertzen den eremuan, idatzi erantzun bat.
6. IBM® Lotus Notes® erabiltzen baduzu, **Noiz arte** eremuan, ezarri zein egunetan desaktibatu behar den Bulegotik kanpoko erantzuna.
7. Sakatu tekla > **Gorde**.

Bulegotik kanpoko erantzuna desaktibatzeko, garbitu **Erabili bulegotik kanpoko erantzuna** kontrol-laukia.

## Posta kontu pertsonalaren aukerak aldatu

Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke posta kontu pertsonaleko aukera batzuk aldatzeko gai ez izatea.

BlackBerry® telefonora gehitu duzun posta-kontu pertsonal bakoitzaren aukerak alda ditzakezu. Posta kontuen iragazkiak sortu, kontaktuak sinkronizatu, pasahitza aldatu edo bistaratze-izena aldatu eta askoz gehiago egin dezakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta kontuen kudeaketa**.
3. Sakatu aukerak aldatu nahi dizkiozun posta kontua.

Posta-kontu pertsonalei buruz informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu www.blackberry.com/docs/smartphones eta sakatu **Posta-kontuen konfigurazioa** atalaren azpiko esteka.

## Irakurragiriak aktibatu edo desaktibatu

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen edo administratzailearen arabera, baliteke egitekoa burutzeko gai ez izatea edo zenbait aukera ez agertzea.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Igorleak eskatutakoan, BlackBerry® telefonoak irakurragiria edo bidalagiria bidaltzen duen zehazteko, aldatu **Bidali irakurragiriak** eremua.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Ez deskargatu irudi gehiagorik HTML mezu elektronikoetan

Besterik adierazi ezean, BlackBerry® telefonoak automatikoki deskargatzen eta bistaratzen ditu HTML mezu elektronikoetan txertatutako irudiak.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Garbitu **Deskargatu irudiak automatikoki** kontrol-laukia.

5. Sakatu tekla > **Gorde**.

HTML mezu elektroniko batean irudiak ikusteko, sakatu tekla > **Hartu irudiak**.

## HTML mezu elektronikoetan kanpoko irudiak deskargatu baino lehen agertzen den gonbita desaktibatu

HTML mezu elektroniko batzuk Interneteko kanpo irudietarako estekak dituzte. Besterik adierazi ezean, BlackBerry® telefonoak kanpoko irudiak deskargatu baino lehen galdetzen dizu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Garbitu **Berretsi kanpoko irudiaren deskarga** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Helbide elektronikoen eremuetan azken kontaktuak bistaratzeari utzi

Besterik adierazi ezean, kontaktu edo helbide elektroniko baten lehenengo karaktereak idazten dituzunean Nori, Cc edo Bcc eremuetan, BlackBerry® telefonoak kontaktuen zerrendan ez dauden azken kontaktuen helbide elektronikoak bistaratuko ditu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**.
3. Garbitu **Erakutsi azken kontaktuak mezu elektronikoa idazterakoan** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Google Mail

## Telefonoko Google Mail aplikazioari buruz

Hari gabeko zerbitzu-planaren eta administratzailearen arabera, Google Mail™ kontu bat (Gmail® kontu gisa ere ezagutzen dena) gehi dezakezu BlackBerry® telefonoan. Ordenagailuko arakatzaile bat erabiliz sar zaitezkeen webeko Google Mail aplikazioaren antzekoa da eta antzeko mezuak elkarrizketa bakar batean taldekatzen dira. Mezuen sarrerako ontzia antolatzen laguntzeko, zeure etiketa pertsonalizatuak sor ditzakezu, spama sala dezakezu, mezuak artxibatu ditzakezu eta garrantzitsua zer den nabarmentzeko izarrak gehi ditzakezu.

Google Mail aplikazioari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu www.googlemail.com helbidea.

## Google Mail mezu edo elkarrizketa bati izar bat gehitu edo kendu

Izar batekin marka dezakezu Google Mail™ mezu edo elkarrizketa bat.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Nabarmendu Google Mail mezu edo elkarrizketa bat.
3. Sakatu tekla.

- Izar bat gehitzeko, sakatu **Gehitu izarra**.
- Izar bat kentzeko, sakatu **Kendu izarra**.

## Google Mail mezu edo elkarrizketa bati etiketa bat aplikatu edo kendu

Etiketa bat edo gehiago aplika diezazkiokezu Google Mail™ mezu edo elkarrizketa bati, zure sarrera-ontziko mezuak antolatzen laguntzeko. Elkarrizketako mezu bakar bati etiketa bat aplikatzen badiozu, elkarrizketako mezu guztiei aplikatuko zaie etiketa.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Nabarmendu Google Mail mezu edo elkarrizketa bat.
3. Sakatu tekla> **Etiketa**.
4. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Etiketa bat aplikatzeko, hautatu etiketaren alboko kontrol-laukia.
   - Etiketa bat kentzeko, garbitu etiketaren alboko kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Etiketa jakin bat duten Google Mail mezuak ikusi

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Ikusi karpeta**.
3. Sakatu etiketa bat.

## Google Mail etiketa bat sortu edo ezabatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Etiketak**.
   - Etiketa berri bat sortzeko, sakatu **Etiketa berria**. Idatzi etiketaren izena. Sakatu **Gorde**.
   - Etiketa bat ezabatzeko, nabarmendu etiketa bat. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

## Google Mail mezu bat edo elkarrizketa bat artxibatu

Elkarrizketa bateko parte den Google Mail™ mezu bat artxibatzen baduzu, Artxiboa etiketa aplikatuko zaie elkarrizketako mezu guztiei.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Nabarmendu Google Mail mezu edo elkarrizketa bat.
3. Sakatu tekla > **Artxibatu** > **Bai**.

**Oharra:** Mezuak gordetzeko BlackBerry® smartphone-a konfiguratuta dagoen moduaren arabera, baliteke artxibatutako mezuak automatikoki ezabatzea smartphone-tik denbora-tarte bat igaro ostean.

## Artxibatutako Google Mail mezu edo elkarrizketa bat zure mezuen sarrera-ontzira mugitu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu **Ikusi karpeta** > **Artxibatu**.

3. Nabarmendu mezu edo elkarrizketa bat.
4. Sakatu tekla > **Mugitu sarrera-ontzira**.

### Google Mail kontura bidalitako spam mezuak salatu

Google Mail™ mezu bat spam mezua dela diozunean, BlackBerry® telefonotik ezabatuko da. Spam mezua diozun hori elkarrizketa bateko parte bada, elkarrizketako mezu guztiak ere spam mezutzat hartuko dira.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Nabarmendu Google Mail mezu edo elkarrizketa bat.
3. Sakatu tekla > **Salatu spama**.
4. Behar izanez gero, sakatu **Bai**.

## Arazoak: Posta elektronikoa

### Ezin dut mezurik bidali

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Mezua bidaltzeko menuko elementua agertzen ez bada, egiaztatu kontaktuari helbide elektroniko bat, PIN zenbaki bat edo telefono-zenbaki bat gehitu diozula.
- Konfigurazioa aplikazioan, posta elektronikoa konfiguratzeko pantaila erabiliz, helbide elektroniko bat sortu edo dagoeneko sortutako helbide elektroniko bat gehitu baduzu, egiaztatu aktibazio-mezua jaso duzula BlackBerry® Internet Service zerbitzaritik smartphone-an. Ez baduzu aktibazio-mezurik jaso (denbora pixka bat igaro daiteke hura jaso baino lehen), konfigurazio morroian, ireki helbide elektronikoa konfiguratzeko pantaila smartphone-ra zerbitzu-liburu bat bidaltzeko.
- Ez baduzu hari gabeko sarearen eskutik erregistratzeko mezua jaso, erregistratu smartphone-a. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Ostalariaren bideratze-taula**. Sakatu tekla > **Erregistratu orain**.
- Sortu enkriptatze gako bat.
- Ziurtatu datu zerbitzua aktibatuta dagoela.
- Bidali mezua berriro.

**Lotutako informazioa**

Enkriptatze gakoak sortu, 301
Hari gabeko estalduraren adierazleak, 253
Kontaktu bat aldatu edo ezabatu, 192
Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249
Datu zerbitzuak aktibatu edo desaktibatu edo ibiltaritza aukerak konfiguratu, 250
Posta elektronikoaren iragazkien aukerak, 85
Mezu bat birbidali, 79
Mezu bat birbidali, 79

## Ez dut mezurik jasotzen

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela. Hari gabeko sareen estalduratik kanpo bazaude, hari gabeko sareen estaldura eremura itzulitakoan jasoko dituzu mezuak.
- Berrezarri smartphone-a. Konektatu sarera eta saiatu berriro.
- Konfigurazioa aplikazioan, posta elektronikoa konfiguratzeko pantaila erabiliz, helbide elektroniko bat sortu edo dagoeneko sortutako helbide elektroniko bat gehitu baduzu, egiaztatu aktibazio-mezua jaso duzula BlackBerry® Internet Service zerbitzaritik smartphone-an. Ez baduzu aktibazio-mezurik jaso (denbora pixka bat igaro daiteke hura jaso baino lehen), konfigurazio morroian, ireki helbide elektronikoa konfiguratzeko pantaila smartphone-ra zerbitzu-liburu bat bidaltzeko.
- Ez baduzu hari gabeko sarearen eskutik erregistratzeko mezua jaso, erregistratu smartphone-a. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Ostalariaren bideratze-taula**. Sakatu tekla > **Erregistratu orain**.
- Ziurtatu datu zerbitzua aktibatuta dagoela.
- Posta-iragazkiak erabiltzen badituzu, ziurtatu posta-iragazkien ezarpenak behar bezala zehaztuta daudela.
- Ziurtatu posta birbidaltzea aktibatuta dagoela eta mezuak jaso dituzun posta-karpeta guztiak hautatu dituzula, baita sarrerako ontziko karpetak ere.
- Ziurtatu smartphone-a ez dela mezuak blokeatzen ari. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

**Lotutako informazioa**

Posta elektronikoaren iragazki bat aldatu, lehenetsi edo ezabatu, 87
Posta elektronikoko karpeta jakin bateko mezuak zure smartphone-ra birbidali, 93

## Mezu elektronikoak ez dira bateratzen hari gabeko sareraren bidez

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Ziurtatu hari gabeko posta elektronikoaren bateratzea aktibatuta dagoela.
- Bateratu mezu elektronikoak eskuz.

## Mezu batzuk ez dira nire telefonoan agertzen

BlackBerry® telefonoko aplikazioaren memoria beterik badago edo 65.000 mezu elektroniko, PIN mezu eta testu-mezu baino gehiago badituzu, telefonoak mezurik zaharrenak ezabatuko ditu mezuen zerrendatik. Telefonoak ez du gordetako mezurik ezabatuko.

Mezuen hari gabeko bateratzea aktibatuta badago eta mezuen aukeretako **Ezabatze-data** eremuan **Postontzia eta telefonoa** aukera hautatu bada, ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioan ezabatzen dituzun mezu elektronikoak telefonotik ere ezabatuko dira.

## Mezu, eranskin edo Google Mail elkarrizketa bat moztu da edo ez da agertzen

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Itxaron pixka bat. Zure BlackBerry® smartphone-ak mezu eta eranskin luzeak zatika jasotzen ditu.
- "Erabilgarri dauden gehiago" mezua edo eranskinaren amaieran agertzen bada, sakatu tekla > **Gehiago** edo **Guztiak gehiago**.
- Google Mail™ elkarrizketaren zati bat agertzen ez bada, sakatu tekla > **Elkarrizketa gehiago**.
- Eranskin bat deskargatzen ari bazara, utzi deskarga bertan behera eta itxaron pixka bat. Saiatu eranskina berriz deskargatzen.

**Lotutako informazioa**

Mezu elektroniko luzeen lehen zatia soilik jaso, 94
Mezu elektroniko luzeen lehen zatia soilik jaso, 94

## HTML mezu elektronikoak ez dira ondo agertzen

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Itxaron pixka bat. Zure BlackBerry® smartphone-ak mezu eta eranskin luzeak zatika jasotzen ditu.
- Saiatu kanpoko irudiak deskargatzen. Sakatu tekla > **Eskuratu irudiak**.
- Saiatu mezu testu arrunt gisa ikusten. Sakatu tekla > **Hartu testu arrunta**.

**Lotutako informazioa**

Posta elektronikoa testu arrunt formatuan ikusi, 90

## Posta elektronikoko karpeta batzuk lausotuta agertzen dira

Ezin baduzu posta-karpeta batetik mezu elektronikorik birbidali, karpetaren ondoko kontrol-laukia lausotuta agertuko da.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Itxaron segundo batzuez. Baliteke posta elektronikoko karpetak erabilgarri egotea tarte labur bat igarota.
- Desaktibatu mezu elektronikoen hari gabeko bateratzea eta, ondoren, aktibatu berriz.

**Lotutako informazioa**

Posta elektronikoa hari gabeko sarearen bidez sinkronizatu, 22

## Posta elektronikoen iragazkiak ez dute ondo funtzionatzen

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu posta elektronikoaren iragazkiak aktibatuta daudela.
- Ziurtatu posta elektronikoaren iragazkiak BlackBerry® smartphone-ak mezu elektronikoei aplikatzea nahi duzun hurrenkeran agertzen direla.

**Lotutako informazioa**

Posta elektronikoaren iragazkiak, 84

## Mezu berrien edo irakurri gabeko mezuen kopurua ez da nik uste nuena

Mezu berrien edo irakurri gabeko mezuen kopuruan gordetako mezuak nahiz fitxategietan sartutakoak zenbatu dira.

BlackBerry® telefonoa artxibatutako mezuak ezkutatzeko ezarri baduzu eta ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioaren sarrerako ontzian ez beste posta elektronikoaren karpeta batean mezu berriak jasoz gero, telefonoak mezuok artxibatuko du.

**Lotutako informazioa**

Artxibatutako mezuak ikusi, 82
Mezuen aplikazio nagusitik mezuak ezkutatu, 91
Artxibatutako mezu elektronikoak ezkutatu sarrerako ontzian, 93

## Ezin dut lasterbide bat erabili mezuen sarrera-ontzi bateko mezu mota bat ikusteko

BlackBerry® telefonoz aldatzen baduzu eta telefono zaharreko datuak telefono berrian berrezartzen badituzu, telefono zaharreko sarrera-ontziko mezuen lasterbideek telefono berriaren sarrera-ontziko mezuen lasterbideak ordeztuko dituzte.

Sarrera ontzi bateko mezu mota bat ikusteko lasterbideak ikusi nahi badituzu, ikusi gordetako zure bilaketen zerrenda.

## Zenbait eginbide ez daude erabilgarri nire telefonoan

Telefonoaren modeloak edo hari gabeko zerbitzu-planak eragina izan dezake BlackBerry® telefonoko eginbide batzuen erabilgarritasunean.

Mezularitza zerbitzu-planaren arabera, baliteke zenbait eginbide edo aukera erabilgarri ez egotea Mezu elektronikoen lehentasunak pantailako mezuen aukeretan.

Posta-kontuak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, baliteke enpresaren eginbide batzuk konfiguratu ez izana edo eginbide nahiz aukera batzuk zuretzat desgaitu izana. Administratzaileak aukera bat ezarri badu zuretzat, blokeo-adierazle bat agertuko da aukeraren eremuaren ondoan.

Telefonoan erabilgarri diren eginbideei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo bisitatu www.blackberry.com/go/devices helbidea.

**Lotutako informazioa**

Eginbideen erabilgarritasuna, 18

# Testu mezuak

## Nola: Testu-mezuak

### Testu mezuei buruz

Testu mezuak jaso eta bidaltzeko, zure haririk gabeko zerbitzu hornitzaileak zure hari gabeko zerbitzu plana testu mezularitzarako konfiguratu behar du. Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke ezaugarri hori ez onartzea.

Testu mezuak idazteko erabiltzen duzun idazteko sarrerako hizkuntzaren arabera, hartzaileek zuk espero ez bezala bistara ditzakete mezuak.

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke testu mezuetan ondoko multimedia fitxategiak bidali edo jaso ahal izatea: .jpg, .gif, .wbmp, .midi, .vcf (vCard®), .ics (iCalendar), .avi, .mpg, edo .mov.

BlackBerry® telefonoari asoziatutako telefono-zenbaki bat baino gehiago badituzu, Telefonoa aplikazioko Nire zenbakia eremuan agertzen den lehen telefono-zenbakia erabiliko du telefonoak testu-mezuak bidaltzeko.

### Mezuen sarrera-ontziko ikonoak

Ikono hauek zure sarrera erretiluko mezu bakoitzaren egoera mota adierazten dute.

Zure BlackBerry® smartphone-aren modeloa eta haririk gabeko zerbitzuaren hornitzailearen arabera, baliteke ikono batzuk ez agertzea.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Irakurri gabeko mezua | | BBM™ elementu berria<br><br>Adierazle hori garbitzeko, adierazle hori duten elementu guztiak ireki. |
| | Irakurritako mezua | | BBM berriketa irekita dago |
| | Zirriborro-mezua | | BBM Groups elementu berria |
| | Artxibatutako mezua | | RSS elementu berria |
| | Eranskindun mezuak | | Mezua bidaltzen ari da |
| | Lehentasun handiko mezua da | | Mezua ez da bidali |
| | Eranskindun testu-mezua | | Mezua bidali da |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Testu-mezua | | Mezua bidali da |
| | Mezua irakurri da | | |

## Testu mezuak idaztea eta bidaltzea

### Testu mezu bat bidali

Testu mezu bat zenbat hartzaileri bidal diezaiekezun hari gabeko zerbitzu hornitzailearen araberakoa da.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Idatzi testu mezua**.
3. **Nori** eremuan, egin hauetariko bat:
   - Idatzi kontaktuaren izena.
   - Sakatu tekla > **Aukeratu kontaktua**. Sakatu kontaktu bat.
   - Idatzi testu mezuak jaso ditzakeen telefono zenbaki bat (herrialdeko nahiz area kodeekin). Latinezko karaktereak ez dituzten hizkuntzetan, sakatu **Alt** tekla zenbakiak idazteko. Sakatu teklatuko tekla.
   - BlackBerry® telefonoa CDMA sare batera konektatuta badago, helbide elektroniko bat idatz dezakezu.
4. Idatzi mezua.
5. Sakatu teklatuko tekla.

**Lotutako informazioa**
Banaketa zerrenda pertsonalak, 196
Ezin dut mezurik bidali, 38
Erantsi multimedia fitxategia, kontaktu-txartela, hitzordua edo kokapena testu-mezu batean, 103

### Erantsi multimedia fitxategia, kontaktu-txartela, hitzordua edo kokapena testu-mezu batean

1. Mezu bat idazterakoan, sakatu tekla > **Erantsi**.
2. Sakatu menuko elementu hauetako bat:
   - **Irudia**
   - **Bideoa**
   - **Kokalekua**
   - **Audioa**
   - **Ahots oharra**
   - **Kontaktua**
   - **Hitzordua**
3. Sakatu dokumentua.

**Lotutako informazioa**
Ezin ditut eranskinak testu-mezuetan gehitu, 110

## Bidaltzen dituzun testu mezuen garrantzi maila ezarri.

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke **Lehentasuna** eremua erabilgarri ez egotea.

Testu-mezuan garrantzia maila aldatzen baduzu, lehentasun handiko adierazlea ! edo lehentasun txikiko adierazlea ↓ agertuko da BlackBerry® telefonoan bidali duzun mezu bakoitzaren alboko testu-mezua. Hartzailearen gailuaren modeloak eta mezularitza aplikazioak mezuen garrantzia maila onartzen badute, garrantziaren maila adieraziko zaio hartzaileari.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
   - Testu mezuen garrantzi maila ezartzeko, **SMS Testua** sekzioan, aldatu **Lehentasuna** eremua.
   - Eranskina duen testu mezuen garrantzia ezartzeko, **MMS** sekzioan, **Mezuen iragazketa** sekzioan, aldatu **Garrantzia** eremua.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Testu mezu batentzako banaketaren jakinarazpena eskatu edo jakinarazpena irakurri

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. **MMS** atalean, burutu hurrengo ekintzetako bat:
   - Mezua hartzaileari banatzen zaionean jakinarazpena jasotzeko, hautatu **Berretsi banaketa** kontrol-laukia.
   - Hartzaileak mezua irekitzen duenean jakinarazpena jasotzeko, hautatu **Berretsi irakurketa** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Sartu tekla ezarri testu mezuak bidaltzeko

Testu mezuak bidaltzeari utz diezaiokezu tekla sakatzen duzun bakoitzean. Horrela ez duzu nahi gabe mezurik bidaliko hainbat lerrotako testua idazteko asmoa baduzu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Testu-mezularitza**.
3. **Testu mezularitza aukera orokorrak** atalean, garbitu **Bidaltzeko, sakatu Sartu tekla** kontrol laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Testu-mezuak ikustea eta erantzutea

## Mezuei erantzun edo mezuak birbidali

Ezin duzu copyright bidez babestutako edukia duen testu mezurik birbidali.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Nabarmendu mezu bat.
   - Mezu bati erantzuteko, sakatu tekla > **Erantzun.**

- Mezu bat birbidaltzeko, sakatu tekla > **Birbidali**.

## Testu mezu batetik ateratako hitzorduak zure egutegiari gehitu

1. Testu mezu batean, nabarmendu iCalendar eranskin bat.
2. Sakatu tekla > **Ikusi hitzordua**.
3. Sakatu tekla > **Gehitu egutegira**.

## Testu mezuen historian izenak erakutsi

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. **Testu mezularitza aukera orokorrak** atalean, hautatu **Erakutsi izenak** kontrol-laukia.
4. Zure bistaratzeko izena aldatu nahi baduzu, **Bistaratzeko izena** eremuaren ondoan, idatzi izen bat. Izen hau zure testu mezuen historian agertuko da soilik, ez da zuk bidalitako mezuetan agertuko.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Testu-mezuen itxura aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. **Testu mezularitza aukera orokorrak** atalean, aldatu **Elkarrizketa mota** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Testu-mezuak antolatzea eta gordetzea

## Testu mezuak zure SIM txartelean gorde

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea.
BlackBerry® telefonoak SIM txartela erabiltzen badu eta testu-mezuak gordetzeko SIM txartela hautatzen baduzu, testu-mezuak Mezuak aplikazioan agertuko dira oraindik.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. Hautatu **Utzi mezuak SIM txartelean** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Testu-mezuak SIM txartelean gordetzeari uzteko, garbitu **Utzi mezuak SIM txartelean** eremua. Kontrol-laukia garbituz gero, testu-mezuak SIM txarteletik ezabatuko dira.

## Testu mezu baten historia ezabatu

Burutu ekintza hauetako bat:

- Historiatik mezu bakarra ezabatzeko, nabarmendu mezua. Sakatu tekla > **Ezabatu mezua**.
- Historiako mezu guztiak ezabatzeko eta berriketa irekita mantentzeko, mezu bati erantzuterakoan, sakatu tekla > **Garbitu elkarrizketa**.
- Historiako mezu guztiak ezabatzeko eta berriketa ixteko, SMS testu mezuen zerrendan, nabarmendu mezua. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

## Testu mezu bateko multimedia fitxategia gorde

1. Testu mezu batean, ireki eranskin bat.
2. Sakatu tekla.
3. Sakatu **Gorde <multimedia mota>**.
4. Sakatu **Gorde**.

## Mezu batetik kontaktu txartel bat gorde

Mezu batean kontaktu-txartel bat jasotzen baduzu, gorde egin dezakezu, kontaktuaren informazioa kontaktuen zerrendan gehi dadin.

1. Mezu batean, nabarmendu kontaktu-txartel bat.
2. Sakatu tekla > **ikusi eranskina**.
3. Sakatu tekla.
4. Sakatu elementu hauetako bat:
   - **Gehitu kontaktuetan**
   - **Eguneratu kontaktua**

## Testu mezuen aukerak

## Testu mezuak ibiltaritzan jasotzeari utzi

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. **MMS** atalean, hautatu **Multimedia mezuak jasotzea** eremuan eta **Berreskuratze automatikoa** eremuan **Etxekoa soilik**.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Testu mezuak blokeatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. **MMS** atalean, **Mezuen iragazketa** atalean, hautatu **Ezetsi mezu anonimoak** kontrol-laukia edo **Ezetsi iragarkiak** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Testu-mezuetan hitz-ordezkapena desaktibatzeko

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. **SMS testua** atalean, hautatu **Desgaitu hitz-ordezkapena** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Zerbitzu zentroak zenbat denboraz saiatu behar duen testu mezuak bidaltzen ezarri

Bidali duzun testu mezu bat ezin bada berehala banatu, zerbitzu zentroa Saiakerak eremuan jartzen duen epean saiatuko da testu mezua bidaltzen. Zure kablerik gabeko hornitzailearen arabera, baliteke aukera hori ez agertzea.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. **SMS testua** atalean, aldatu **Saiakerak** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Hari gabeko sare mota ezarri testu mezuak bidaltzeko

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. **SMS testua** atalean, burutu hurrengo ekintzetako bat:
   - Testu mezuak bidaltzeko sare mota bakarra erabiltzeko, hautatu **Bidali sare honen bidez** eremuan **Zirkuitua aldatu da** edo **Paketea aldatu da**.
   - Testu mezuak bidaltzeko edozein sare mota erabiltzeko, ibiltaritzan zaudenean erabilgarri izan daitekeena, hautatu **Bidali sare honen bidez** eremuan hautatu **Zirkuitua gogokoenetara aldatu da** edohautatu **Paketea gogokoenetara aldatu da**.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Irrati difusioa

## Irrati difusioari buruz

Irrati difusioa hari gabeko zerbitzu-hornitzaileek SMS testu mezularitza area geografiko zehatz bateko BlackBerry® smartphone guztiei aldi berean informazioa bidaltzea ahalbidetzeko diseinatuta dago. Informazio mota zehatz bat duten irrati difusioko mezuak jaso ditzakezu informazio hori hornitzen duen irrati difusioko kanal bati harpidetuz. Irrati difusioko kanal ezberdinek irrati difusioko mezu ezberdinak bidaltzen dituzte. Adibidez, irrati difusioko kanal batek eguraldi iragarpenak bidal ditzake, beste batek trafiko informazioa bidaltzen duen bitartean.

## Irrati difusioa gaitu

Egitekoa burutzeko, BlackBerry® telefonoa SIM txartel bat eduki behar du eta hari gabeko zerbitzu-hornitzailea SIM txartela irrati difusioko kanal bat batekin konfiguratu behar du edo irrati difusio baterako identifikazioa eman behar dizu.

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta telefonoa konektatuta dagoen hari gabeko sarearen arabera, baliteke eginbide hau bateragarria ez izatea.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Irrati difusioa**.
3. Hautatu **Gaitu irrati difusioa** kontrol-laukia.
   - Pantailan irrati difusioko kate bat baino gehiago agertzen badira, hautatu katearen alboko kontrol-laukia.
   - Irrati difusioko kanalik agertzen ez bada pantailan, nabarmendu **Hutsik** eremua. Sakatu tekla > **Gehitu kanala**. Idatzi kanalaren identifikazioa eta ezizen bat. Sakatu **Ados**.
4. Hautatu hizkuntzaren alboan dagoen kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

Irrati difusioa desaktibatzeko, garbitu **Gaitu irrati difusioa:** kontrol-laukia. Irrati difusioa desaktibatu aurretik, egiaztatu hari gabeko zerbitzu hornitzaileak ez duela irrati difusioa erabiltzen zerbitzuak kudeatzeko, hala nola, zure kokapenean oinarritutako lehenetsitako salneurriak.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut irrati-difusioa aktibatu, 110

## Irrati difusiorako kanal batetik mezuak jasotzeari utzi

Egiaztatu zure kablerik gabeko zerbitzu hornitzaileak ez duela mugikorraren irrati difusiorako kanala erabiltzen zure kokapenean oinarrituta zerbitzuak kudeatzeko, adibidez, tasa hobetsiak.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Irrati difusioa**.
3. **Kanalak** atalean, nabarmendu mugikorraren irrati difusiorako kanal bat.
4. Sakatu tekla.
   - Mugikorraren irrati difusiorako kanal batetik mezuak jasotzeari uzteko, klikatu **Desgaitu**.
   - Mugikorraren irrati difusiorako kanala ezabatzeko, klikatu **Ezabatu kanala**.

## Irrati difusio kanalen izenak aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Irrati difusioa**.
3. **Kanalak** atalean, nabarmendu mugikorraren irrati difusiorako kanal bat.
4. Sakatu tekla > **Ezarri ezizena**.
5. Idatzi irrati difusio kanalaren izena.
6. Sakatu **Ados**.
7. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Pertsonalizatu: Testu-mezuak

## Testu-mezuen itxura aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. **Testu mezularitza aukera orokorrak** atalean, aldatu **Elkarrizketa mota** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Sartu tekla ezarri testu mezuak bidaltzeko

Testu mezuak bidaltzeari utz diezaiokezu tekla sakatzen duzun bakoitzean. Horrela ez duzu nahi gabe mezurik bidaliko hainbat lerrotako testua idazteko asmoa baduzu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Testu-mezularitza**.
3. **Testu mezularitza aukera orokorrak** atalean, garbitu **Bidaltzeko, sakatu Sartu tekla** kontrol laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Arazoak: Testu-mezuak

## Ezin dut testu-mezurik bidali

Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke eginbide hori ez onartzea.

Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela. Ez bazaude hari gabeko estaldura eremuan, zure smartphone-ak hari gabeko estaldura eremura itzultzean bidali beharko lituzke mezuak. Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela. Ez bazaude hari gabeko estaldura eremuan, zure smartphone-ak hari gabeko estaldura eremura itzultzean bidali beharko lituzke mezuak.
- Ziurtatu markatze finkoa desaktibatuta dagoela.

**Lotutako informazioa**

Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249

## Ez dut testu-mezurik jasotzen

Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke eginbide hori ez onartzea.

Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela. Hari gabeko sareen estalduratik kanpo bazaude, hari gabeko sareen estaldura eremura itzulitakoan jasoko dituzu mezuak.

### Ezin dut irrati-difusioa aktibatu

BlackBerry® smartphone-ak SIM txartela erabiltzen badu, baliteke SIM txartelak mugikorraren irrati-difusio bidezko mezuetarako hautatu dituzun bistaratze hizkuntzak ez onartzea.

Garbitu zure SIM txartelak onartzen ez dituen hizkuntza guztien alboan dauden kontrol-laukiak.

**Lotutako informazioa**
Hizkuntza bat ezabatzea, 218

### Ezin ditut eranskinak testu-mezuetan gehitu

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, bideo bat gehitzen baduzu, baliteke beste eranskin bat ezin gehitzea edo aurkezpen bat ezin sortzea.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Ziurtatu fitxategiaren formatua .vcf (vCard®), .ics (iCalendar) edo multimedia-fitxategia dela (adibidez, .jpg, .gif, edo .midi).
- Egiaztatu fitxategia copyright-arekin babestu gabe dagoela.
- Txantiloiak erabilgarri badituzu, BlackBerry® smartphone-an, erabili txantiloi hutsak testu mezuak idazteko.

### Ezin dut lasterbide bat erabili mezuen sarrera-ontzi bateko mezu mota bat ikusteko

BlackBerry® telefonoz aldatzen baduzu eta telefono zaharreko datuak telefono berrian berrezartzen badituzu, telefono zaharreko sarrera-ontziko mezuen lasterbideek telefono berriaren sarrera-ontziko mezuen lasterbideak ordeztuko dituzte.

Sarrera ontzi bateko mezu mota bat ikusteko lasterbideak ikusi nahi badituzu, ikusi gordetako zure bilaketen zerrenda.

# PIN mezuak

## Nola: PIN mezuak

### PIN mezu bat idatzi eta bidali

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Idatzi beste bat** > **Idatzi PIN**.
3. **Nori** eremuan, egin hauetariko bat:
   - Idatzi PIN bat. Sakatu teklatuko tekla.

- Kontaktuen zerrendan dagoen kontaktu batentzako PINa gordeta baduzu, idatzi kontaktuaren izena. Sakatu teklatuko tekla.

4. Idatzi mezua.
5. Sakatu tekla > **Bidali**.

**Lotutako informazioa**

Banaketa zerrenda pertsonalak, 196
Ezin dut mezurik bidali, 38

### PIN baterako esteka bat sortu

PIN baterako esteka bat sor dezakezu mezu, egutegi sarrera, egiteko edo memorandum batean. Estekan klikatzen baduzu, PIN mezu bat bidal dezakezu.

Testua idazterakoan, idatzi **pin:** eta PINa.

## Arazoak: PIN mezuak

### Ezin dut mezurik bidali

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Mezua bidaltzeko menuko elementua agertzen ez bada, egiaztatu kontaktuari helbide elektroniko bat, PIN zenbaki bat edo telefono-zenbaki bat gehitu diozula.
- Konfigurazioa aplikazioan, posta elektronikoa konfiguratzeko pantaila erabiliz, helbide elektroniko bat sortu edo dagoeneko sortutako helbide elektroniko bat gehitu baduzu, egiaztatu aktibazio-mezua jaso duzula BlackBerry® Internet Service zerbitzaritik smartphone-an. Ez baduzu aktibazio-mezurik jaso (denbora pixka bat igaro daiteke hura jaso baino lehen), konfigurazio morroian, ireki helbide elektronikoa konfiguratzeko pantaila smartphone-ra zerbitzu-liburu bat bidaltzeko.
- Ez baduzu hari gabeko sarearen eskutik erregistratzeko mezua jaso, erregistratu smartphone-a. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Ostalariaren bideratze-taula**. Sakatu tekla > **Erregistratu orain**.
- Sortu enkriptatze gako bat.
- Ziurtatu datu zerbitzua aktibatuta dagoela.
- Bidali mezua berriro.

**Lotutako informazioa**

Enkriptatze gakoak sortu, 301
Hari gabeko estalduraren adierazleak, 253
Kontaktu bat aldatu edo ezabatu, 192
Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249
Datu zerbitzuak aktibatu edo desaktibatu edo ibiltaritza aukerak konfiguratu, 250
Posta elektronikoaren iragazkien aukerak, 85
Mezu bat birbidali, 79
Mezu bat birbidali, 79

## Ez dut mezurik jasotzen

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela. Hari gabeko sareen estalduratik kanpo bazaude, hari gabeko sareen estaldura eremura itzulitakoan jasoko dituzu mezuak.
- Berrezarri smartphone-a. Konektatu sarera eta saiatu berriro.
- Konfigurazioa aplikazioan, posta elektronikoa konfiguratzeko pantaila erabiliz, helbide elektroniko bat sortu edo dagoeneko sortutako helbide elektroniko bat gehitu baduzu, egiaztatu aktibazio-mezua jaso duzula BlackBerry® Internet Service zerbitzaritik smartphone-an. Ez baduzu aktibazio-mezurik jaso (denbora pixka bat igaro daiteke hura jaso baino lehen), konfigurazio morroian, ireki helbide elektronikoa konfiguratzeko pantaila smartphone-ra zerbitzu-liburu bat bidaltzeko.
- Ez baduzu hari gabeko sarearen eskutik erregistratzeko mezua jaso, erregistratu smartphone-a. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Ostalariaren bideratze-taula**. Sakatu tekla > **Erregistratu orain**.
- Ziurtatu datu zerbitzua aktibatuta dagoela.
- Posta-iragazkiak erabiltzen badituzu, ziurtatu posta-iragazkien ezarpenak behar bezala zehaztuta daudela.
- Ziurtatu posta birbidaltzea aktibatuta dagoela eta mezuak jaso dituzun posta-karpeta guztiak hautatu dituzula, baita sarrerako ontziko karpetak ere.
- Ziurtatu smartphone-a ez dela mezuak blokeatzen ari. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

**Lotutako informazioa**

Posta elektronikoaren iragazki bat aldatu, lehenetsi edo ezabatu, 87
Posta elektronikoko karpeta jakin bateko mezuak zure smartphone-ra birbidali, 93

## Mezu batzuk ez dira nire telefonoan agertzen

BlackBerry® telefonoko aplikazioaren memoria beterik badago edo 65.000 mezu elektroniko, PIN mezu eta testu-mezu baino gehiago badituzu, telefonoak mezurik zaharrenak ezabatuko ditu mezuen zerrendatik. Telefonoak ez du gordetako mezurik ezabatuko.

Mezuen hari gabeko bateratzea aktibatuta badago eta mezuen aukeretako **Ezabatze-data** eremuan **Postontzia eta telefonoa** aukera hautatu bada, ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioan ezabatzen dituzun mezu elektronikoak telefonotik ere ezabatuko dira.

## Mezu, eranskin edo Google Mail elkarrizketa bat moztu da edo ez da agertzen

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Itxaron pixka bat. Zure BlackBerry® smartphone-ak mezu eta eranskin luzeak zatika jasotzen ditu.
- "Erabilgarri dauden gehiago" mezua edo eranskinaren amaieran agertzen bada, sakatu tekla > **Gehiago** edo **Guztiak gehiago**.
- Google Mail™ elkarrizketaren zati bat agertzen ez bada, sakatu tekla > **Elkarrizketa gehiago**.

- Eranskin bat deskargatzen ari bazara, utzi deskarga bertan behera eta itxaron pixka bat. Saiatu eranskina berriz deskargatzen.

**Lotutako informazioa**
Mezu elektroniko luzeen lehen zatia soilik jaso, 94
Mezu elektroniko luzeen lehen zatia soilik jaso, 94

### Mezu berrien edo irakurri gabeko mezuen kopurua ez da nik uste nuena

Mezu berrien edo irakurri gabeko mezuen kopuruan gordetako mezuak nahiz fitxategietan sartutakoak zenbatu dira.

BlackBerry® telefonoa artxibatutako mezuak ezkutatzeko ezarri baduzu eta ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioaren sarrerako ontzian ez beste posta elektronikoaren karpeta batean mezu berriak jasoz gero, telefonoak mezuok artxibatuko du.

**Lotutako informazioa**
Artxibatutako mezuak ikusi, 82
Mezuen aplikazio nagusitik mezuak ezkutatu, 91
Artxibatutako mezu elektronikoak ezkutatu sarrerako ontzian, 93

# Eranskinak

## Nola: Eranskinak

### Fitxategiei eta eranskinei buruz

Eranskinak ikus eta deskarga ditzakezu eta baita BlackBerry® smartphone-an edo memoria txartelean gorde ere. Zure kontu elektronikoak enpresaren sareko fitxategietara sartzea onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server bat erabiltzen badu, enpresaren sareko fitxategiak aurreikusi eta hauek zure smartphone-an gorde edo zuzenean mezu elektronikoetan gehi ditzakezu deskargatzeko beharrik gabe. Fitxategien aplikazioa erabil dezakezu zure smartphone-an gordetako fitxategi guztien zerrenda bat ikusteko. Zure erakundeko sareko fitxategiak zure smartphone-tik mugi eta ezaba ditzakezu eta baita horien izena aldatu ere.

Deskargatzen dituzun eranskinak edo fitxategiak aldatzeko, BlackBerry smartphone-etan erabiltzeko diseinatu diren hirugarrenen editatzeko aplikazioak erabil ditzakezu, hala nola Documents To Go®.

**Lotutako informazioa**
Smartphone-an gordetako fitxategi bat bilatu, 132
Zure erakundearen sarean gordetako fitxategia bilatu, 132

### Fitxategiak edo eranskinak ireki

Ataza hori egiteko, zure posta elektronikoko kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Internet Service edo BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat eduki behar du. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri kontaktuan zure kablerik gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo administratzailearekin.

1. Mezu, bilerarako gonbidapen edo egutegiko sarrera batean, sakatu tekla.
2. Behar izanez gero, sakatu **Berreskuratu eranskinaren informazioa**.
3. Sakatu **Ireki eranskina**.
4. Behar izanez gero, **Eranskinak** pantailan, sakatu eranskin bat.
5. Behar izanez gero, elkarrizketa koadroan, hautatu aukera bat.

**Lotutako informazioa**
Ezin dut irrati-difusioa aktibatu, 110

## Fitxategi edo eranskin bat gorde

Ataza hori egiteko, zure posta elektronikoko kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Internet Service edo BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat eduki behar du. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri kontaktuan zure kablerik gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo administratzailearekin.

1. Mezu, egutegiko sarrera edo web orrialde batean, burutu ekintza hauetako bat:
   • Mezu edo egutegiko sarrera batean eranskin bakarra badago, sakatu tekla.
   • Mezuak edo egutegiko sarrerak hainbat eranskin baditu, nabarmendu eranskina. Sakatu tekla.
   • Web orrialde batetik fitxategi bat deskargatzen ari bazara, sakatu tekla.
2. Sakatu **Deskargatu eranskinak** edo **Deskargatu fitxategia**.
3. Sakatu fitxategia edo eranskina gordetzeko erabili nahi duzun karpeta.
4. Sakatu **Gorde**.

Mezu batean eranskin bat deskargatzeari uzteko, mezuan, nabarmendu deskargatzen ari zaren eranskin bat. Sakatu tekla > **Ezeztatu deskarga**.

## Fitxategiak bidali

Fitxategi bat bidaltzeko metodoa hainbat elementuren araberakoa da: bidaltzen saiatzen zaren fitxategi mota, erabiliko duzun posta elektronikoko kontua eta BlackBerry® smartphone-an dituzun aplikazioak. Aldi berean argazki-fitxategi ugari hautatu eta bidal daitzakezu. Zure smartphone-an gehitutako multimedia-fitxategiak baino ezin dituzu bidali. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Multimedia** ikonoa edo **Fitxategiak** ikonoa.
2. Bilatu eta nabarmendu fitxategi bat.
3. Sakatu tekla > **Bidali**.
4. Sakatu mezu mota bat.
5. Behar izanez gero, aktibatu Bluetooth® teknologia eta aukeratu gailu bat edo parekatu gailu batekin.

**Lotutako informazioa**
Ezin ditut eranskinak testu-mezuetan gehitu, 110

## Fitxategietako edo eranskinetako estekak ireki

Fitxategi batzuek kapsulatutako edukietarako (taulak, argazkiak, orri oinak, testu koadroak, oharrak...) estekak izan ditzakete.

1. Fitxategi batean, nabarmendu esteka.
2. Sakatu tekla > **Ireki esteka** edo **Berreskuratu**.

Fitxategira itzultzeko, sakatu tekla.

## Fitxategi edo eranskin bati letra tipoen aukerak ezarri

1. Fitxategi edo eranskin batean, sakatu tekla > **Aukerak**.
2. Aldatu letra tipoaren eremuak.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Fitxategi baten propietateak ikusi

Tamaina, egilea, argitalpen data eta fitxategi baten bestelako propietateak ikus ditzakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Multimedia** ikonoa edo **Fitxategiak** ikonoa.
2. Bilatu eta nabarmendu fitxategi bat.
3. Sakatu tekla > **Propietateak**.

**Lotutako informazioa**

Fitxategi edo karpeta bat ezkutatu, 134
Ezkutatutako fitxategiak edo karpetak ikusi, 134

# Kontaktu-txartelak

## Kontaktu-txartelei buruz

Kontaktu-txartel (batzuetan vCard® edo .vcf fitxategi deitzen zaie) batek kontaktu jakin bati buruzko informazioa du. Mezu elektronikoen, PIN mezuen, testu-mezuen edo BlackBerry® Messenger mezuen eranskin gisa bidal ditzakezu kontaktu-txartelak. Bluetooth® edo NFC teknologia erabiliz, Kontaktuak aplikazioaren bidez ere bidali ditzakezu kontaktu-txartelak.

## Mezuei kontaktu-txartel bat erantsi

Kontaktu-txartelak erants ditzakezu mezu elektronikoetan, PIN mezuetan edo testu-mezuetan.

1. Mezu bat idazterakoan, sakatu tekla > **Erantsi** > **Kontaktua**.
2. Kontaktu bat bilatu eta nabarmendu.
3. Sakatu tekla > **Jarraitu**.

**Lotutako informazioa**

Ezin ditut eranskinak testu-mezuetan gehitu, 110

### Mezu batetik kontaktu txartel bat gorde

Mezu batean kontaktu-txartel bat jasotzen baduzu, gorde egin dezakezu, kontaktuaren informazioa kontaktuen zerrendan gehi dadin.

1. Mezu batean, nabarmendu kontaktu-txartel bat.
2. Sakatu tekla > **ikusi eranskina**.
3. Sakatu tekla.
4. Sakatu elementu hauetako bat:
   - **Gehitu kontaktuetan**
   - **Eguneratu kontaktua**

## Arazoak: Eranskinak

### Saltatutako edukiaren barra bat agertzen da dokumentuan

Eduki gehiago dago BlackBerry® smartphone-ra deskargatzeko erabilgarri.

1. Edukia deskargatzeko, sakatu saltatutako edukiaren barra.
2. Sakatu **Gehiago**.

### Diapositiba batean galdera marka bat agertzen da

Zure BlackBerry® smartphone-ak diapositiba deskargatu ez badu diapositiba batean galdera marka bat agertzen da.

1. Diapositiba deskargatzeko, nabarmendu diapositiba.
2. Sakatu tekla > **Berreskuratu**.

# Mezuentzako segurtasun aukerak

## Sarrerako mezuak blokeatu

Posta kontuak BlackBerry® Enterprise Server erabiltzen badu, agian ezingo dituzu zure enpresako kontaktuen, enpresatik kanpokoen edo bien PIN mezuak blokeatu edo desblokeatu. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Suebakia**.
3. Hautatu mezu mota baten edo gehiagoren ondoko kontrol-laukia.

4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Oharra:** BlackBerry smartphone-an blokeatutako mezuak jaso ez arren, blokeatutako mezuek zure hari gabeko zerbitzu planean datuen erabilera suposa dezakete. Mezu elektronikoak zure smartphone-an jasotzeari uzteko, hari gabeko planean datuen erabilerarik ez suposatzeko, desaktibatu mezu elektronikoen birbidaltze aukera edo erabili mezu elektronikoen iragazkiak.

**Lotutako informazioa**
Posta elektronikoaren iragazki bat sortu, 85

# Zure kontaktuen zerrendako kontaktuen edo baimendutako igorleen zerrendako mezuak baimendu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Suebakia**.
3. Hautatu **Kontaktuak** kontrol-laukia edo **Helbide, telefono zenbaki edo PIN espezifikoak** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Kontaktu bat zure igorle baimenduen zerrendan gehitu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Suebakia**.
3. **Orokorra** atalean, **Gaitu** kontrol-laukia hautatuta ez badago, hautatu.
4. **Sarrerako mezuak blokeatu** atalean, hautatu mezu mota bat edo batzuk.
5. **Salbuespenak** atalean, hautatu **Helbide, telefono zenbaki edo PIN espezifikoak** kontrol-laukia.
6. Sakatu **Gehitu**.
7. Sakatu tekla.
8. Sakatu menuko elementu hauetako bat:
   - **Gehitu helbide elektronikoa**
   - **Gehitu telefono zenbakia**
   - **Gehitu PIN**
9. **Sartu salbuespen berria** elkarrizketa koadroan, idatzi kontaktuaren informazioa.
10. Sakatu teklatuko tekla.
11. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Blokeatutako mezu kontagailu bat berrezarri

Mezuak blokeatzen badituzu, BlackBerry® telefonoak zenbat mezu blokeatu dituen kontatzen du blokeatutako mezuen kontagailuak. Blokeatutako mezuen kontagailua berriro ere zeroan ezar dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Suebakia**.
3. Nabarmendu mezu mota bat.

4. Sakatu > **Berrezarri zenbaketa** edo **Berrezarri zenbaketa guztiak**.

# S/MIME bidez babestutako mezuak

## S/MIME-bidez babestutako mezuen oinarrizko ezagutzak

### Mezuak sinatzeari eta enkriptatzeari buruz

Posta-kontuak eginbide hori onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, mezuak digitalki sinatu eta enkripta ditzakezu BlackBerry telefonotik bidaltzen dituzun mezu elektronikoen eta PIN mezuen segurtasun maila areagotzeko. Hartzaileei zuk bidalitako mezuen egiazkotasuna eta segurtasuna egiztatzen laguntzeko diseinatuta daude sinadura digitalak. Gako pribatua erabiliz mezu bat sinatzen duzunean, hartzaileak gako publikoa erabiltzen du mezua zuk bidalitakoa dela eta aldaketarik jasan ez duela egiaztatzeko.

Enkriptatzea mezuen pribatutasuna babesteko diseinatuta dago. Mezu bat enkriptatzen duzunean, telefonoak hartzailearen gako publikoa erabiltzen du mezua enkriptatzeko. Hartzaileek euren gako pribatua erabiltzen dute mezua desenkriptatzeko.

Enkriptatutako PIN mezu bat bidaltzeko, kontaktuaren PIN helbidea eta helbide elektronikoa izan behar dituzu kontaktuen zerrendan. Telefonoak kontaktuen zerrendako helbide elektronikoa erabiltzen du kontaktuaren PGP® gakoa edo ziurtagiria bilatzeko.

### Mezu bat sinatu edo enkriptatu

Mezu elektronikoak eta PIN mezuak sina edo enkripta ditzakezu.

1. Mezu bat idazterakoan, aldatu **Kodeketa** eremua.
2. Beharrezkoa bada, aldatu **Sailkapena** eremua.

**Lotutako informazioa**

Zenbait sinatze- eta enkriptatze-aukera ez daude erabilgarri telefonoan, 124

### Mezuak pasaesaldi bidez enkriptatu

BlackBerry® smartphone-ak mezu elektronikoak eta PIN mezuak enkripta ditzake igorlearen eta hartzailearen artean partekatutako pasaesaldi baten bidez.

1. Bidali gabeko mezu batean, **Kodeketa** eremuan hautatu **Enkriptatu** edo **Sinatu eta enkriptatu**.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. Mezu sinatu behar baduzu, **Sinatzen** sekzioan, hautatu ziurtagiri bat.
4. **Enkriptatzea** atalean, markatu **Erabili pasahitzean oinarritutako enkriptatzea** kontrol-laukia.
5. **Baimendutako eduki zifratzeak** sekzioan, hautatu eduki-zifratze bat edo gehiagoren ondoko kontrol-laukiak.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.
7. Idatzi mezua.
8. Sakatu tekla > **Bidali**.
9. Idatzi mezua enkriptatzeko pasaesaldia.
10. Berretsi pasaesaldia.

11. Sakatu **Ados**.

Metodo seguru bat erabiliz, jakinarazi hartzaileari pasaesaldia zein den.

## Mezuei ziurtagiriak gehitu

Ziurtagiriak erants diezazkiekezu mezu elektronikoei eta PIN mezuei.

1. Mezu bat idazterakoan, sakatu  tekla > **Erantsi** > **Ziurtagiria**.
2. Nabarmendu ziurtagiri bat.
3. Sakatu  tekla > **Jarraitu**.

## Mezuak sinatzeko edo enkriptatzeko erabiltzen den ziurtagiria deskargatu

BlackBerry® ziurtagiria ez badator jasotako mezuan edo ez badago zure BlackBerry® smartphone-ko gakoen biltegian gordeta, PGP ziurtagiria deskarga dezakezu.

1. Mezu batean, nabarmendu enkriptatze adierazlea edo sinadura digital baten adierazlea.
2. Sakatu  tekla > **Eskuratu igorlearen ziurtagiria**.

## Mezu bateko ziurtagiri bat gehitu

1. Mezu batean, nabarmendu sinadura digitalaren adierazle bat.
2. Sakatu  tekla > **Inportatu igorlearen ziurtagiria**.

## Eranskin bateko ziurtagiri bat gehitu

1. Mezu batean, sakatu eranskinaren ziurtagiria mezuaren amaieran.
2. Sakatu **Berreskuratu ziurtagiria**.
3. Sakatu ziurtagiria.
4. Sakatu **Inportatu ziurtagiria**.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut mezu enkriptatuetako eranskinik ireki, 124

## S/MIME bidez babestutako mezuetako eranskinen adierazleak

| Adierazlea | Deskribapena |
|---|---|
|  | Mezuak ziurtagiri eranskin bat dauka. |
|  | Mezuak ziurtagiri eranskin anitzak ditu. |
|  | Mezuak ziurtagirien zerbitzariko eranskin bat dauka. |

## Mezu batetik ziurtagirien zerbitzari batentzako konexio informazioa gehitu

1. Mezu batean, nabarmendu ziurtagirien zerbitzariaren adierazlea.
2. Sakatu tekla > **Inportatu zerbitzaria**.

## Mezu bat sinatzeko edo enkriptatzeko erabilitako ziurtagiria ikusi

1. Mezu batean, nabarmendu enkriptatze egoeraren adierazlea edo sinadura digitalaren adierazlea.
2. Sakatu tekla > **Erakutsi igorlearen ziurtagiria** edo **Erakutsi enkriptatze ziurtagiria**.

## Enkriptatze ahula duen mezu baten enkriptatze informazioa ikusi

1. Enkriptatze ahula duen mezu batean, nabarmendu enkriptatze egoeraren adierazlea.
2. Sakatu tekla > **Enkriptatzearen xehetasunak**.

## S/MIME bidez babestutako mezuen egoera

## S/MIME bidez babestutako mezuen sinadura digitalen adierazleak

| Adierazlea | Deskribapena |
|---|---|
|  | BlackBerry® smartphone-ak sinadura digitala egiaztatu du. |
|  | Smartphone-ak ezin du sinadura digitala egiaztatu. |
|  | Zure smartphone-ak datu gehiago behar ditu sinadura digitala egiaztatzeko. |
|  | Zure smartphone-ak ziurtagiri-katea fidagarria dela uste du. |
|  | Igorlearen helbide elektronikoa ez dator bat ziurtagiriaren gaiaren helbide elektronikoarekin, edo igorlearen ziurtagiria errebokatuta dago, ez da fidagarria, ezin da egiaztatu, edo ez dago zure smartphone-an. |
|  | Ziurtagiria ahula da, ziurtagiriaren egoera ez da unekoa, edo zure smartphone-ak datu gehiago behar ditu ziurtagiriaren fidagarritasun egoera egiaztatzeko. |
|  | Igorlearen ziurtagiria iraungita dago. |

## Enkriptatze egoeraren adierazleak

Zure administratzaileak jasotzen dituzun mezuen enkriptatze maila indartsua ala ahula den zehazten du.

| Adierazlea | Deskribapena |
|---|---|
|  | Mezuaren enkriptatze maila indartsua da. |
|  | Mezuaren enkriptatze maila ahula da. |

## Ziurtagiri edo ziurtagiri kate baten egoera egiaztatu

Ziurtagiri bat jaso duzun mezu batean badator edo zure BlackBerry® gailuaren gakoen biltegian badago, igorlearen ziurtagiriaren egoera egiazta dezakezu edo igorlearen ziurtagiriaren eta kate osoaren ziurtagirien egoera egiazta dezakezu.

1. Mezu batean, nabarmendu sinadura digitalaren adierazle bat.
2. Sakatu **Menua** tekla.
3. Sakatu **Egiaztatu igorlearen ziurtagiria** edo **Egiaztatu igorlearen ziurt. katea.**

## S/MIME-bidez babestutako mezuen aukerak

## Zure sinatze eta enkriptatze ziurtagiria aldatu

Zure BlackBerry® smartphone-ak enkriptazio ziurtagiri bat erabiltzen du bidalitako elementuen karpetan dauden mezuak enkriptatzeko eta zure enkriptatze ziurtagiria gehitzen du bidaltzen dituzun mezuetan hartzaileek erantzunak enkriptatu ditzaten.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **S/MIME**.
3. **Sinatzen** atalean edo **Enkriptatzea** atalean, aldatu **Ziurtagiria** eremua.
4. Sakatu  tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Zenbait sinatze- eta enkriptatze-aukera ez daude erabilgarri telefonoan, 124

## Enkriptatutako mezuetako eranskinak deskargatzeko aukerak aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **S/MIME**.
    - Enkriptatutako mezuetako eranskinak automatikoki deskargatzeko, ezarri **Enkriptatutako eranskinaren informazioa** eremua **Automatikoa** gisa.
    - Enkriptatutako mezuetako eranskinak eskuz deskargatzeko, ezarri **Enkriptatutako eranskinaren informazioa** eremua **Ezkuzkoa** gisa.

   - Zure BlackBerry® smartphone-ak enkriptatutako mezuen eranskinak deskargatzea saihesteko, ezarri **Enkriptatutako eranskinaren informazioa** eremua **Bat ere ez** gisa.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Sinadura eta enkriptatze aukera lehenetsia aldatu

BlackBerry® telefonoa lehenago mezu bat bidali edo jaso ez duzun kontaktu bati mezu bat bidaltzerakoan sinadura eta enkriptatze aukera lehenetsia erabiltzeko diseinatuta dago. Bestela, telefonoak mezuen historia erabiltzen du sinadura eta enkriptatze-aukera bat iradokitzeko. Nahiago izanez gero, irteerako mezuetan sinadura eta enkriptatze aukera lehenetsiak erabiltzeko zehatz dezakezu telefonoa.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Zerbitzu lehenetsiak**.
3. Aldatu **Kodeketa lehenetsia** eremua.
   - Irteerako mezu guztientzako sinadura eta enkriptatze aukera lehenetsiak erabiltzeko, hautatu **Erabili kodetze lehenetsiaIrteerako mezuen kodetze-iradokizuna** eremuan.
   - Mezuen historian oinarritutako sinadura eta enkriptatze aukerak erabiltzeko, hautatu **Erabili mezuen historiaIrteerako mezuen kodetze-iradokizuna** eremuan.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Zenbait sinatze- eta enkriptatze-aukera ez daude erabilgarri telefonoan, 124

## Mezuen sailkapenari buruz

BlackBerry® telefonoa BlackBerry® Enterprise Servererabiltzen duen eta eginbide hori onartzen duen posta-kontu batekin asoziatuta badago eta administratzaileak mezuen sailkapena gaitzen badu, BlackBerry Enterprise Server zerbitzariak gutxieneko segurtasun-ekintza sorta aplikatzen die sortzen, birbidali edo erantzuten duzun mezu bakoitzari, mezuari esleitzen diozun sailkapenean oinarriturik. Zure administratzaileak zehazten du erabili ditzakezun mezu sailkapenak.

Mezu sailkapenak erabiltzen dituen mezu bat jasotzen baduzu, sailkapenaren laburdura ikus dezakezu mezuaren gaiaren lerroan eta sailkapenaren deskribapen osoa mezuaren gorputzean ikus dezakezu. Bidalitako mezu baten laburdura eta sailkapenaren deskribapen osoa ikus dezakezu Bidalitako elementuak karpetan.

## Mezuen sailkapen lehenetsia aldatu

Ekintza burutzeko, eginbidea onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabili behar du laneko kontu elektronikoak eta administratzaileak mezuen sailkapenak aktibatu behar ditu.

BlackBerry smartphone-a lehenago mezurik bidali ez diozun edo honen mezurik jaso ez duzun kontaktu bati mezu bat bidaltzen diozunean mezuen sailkapen lehenetsia erabiltzeko diseinatuta dago. Lehenago kontaktuaren mezuren bat jaso baduzu edo mezu bat bidali badiozu, smartphone-a azken mezuan erabili zen sailkapena erabiltzen saiatzen da.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Zerbitzu lehenetsiak**.
3. Aldatu **Sailkapen lehenetsia** eremua.

4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Mezuen S/MIME adierazleen tamaina aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **S/MIME**.
3. Aldatu **Mezu ikustailearen ikonoak** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## S/MIME bidez babestutako mezuen enkriptatze-algoritmoak aldatu

Mezu batek hartzaile ugari baditu, BlackBerry® smartphone-ak hartzaile guztiek onartzen duten zerrendako lehen enkriptatze-algoritmoa erabiliko du.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **S/MIME**.
3. Hautatu enkriptatze algoritmo baten edo gehiagoren ondoko kontrol-laukiak.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Sinatutako S/MIME bidez babestutako mezuetarako banaketaren jakinarazpena eskatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **S/MIME**.
3. Hautatu **Eskatu S/MIME agiriak** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## S/MIME bidez babestutako mezu bat mozten denean agertzen den abisua desaktibatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **S/MIME**.
3. **Orokorra** atalean, aldatu **Moztura-modua** eremua **Bidali dena den** edo **Denak eta Bidali gehiago** aukerara.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Gonbita berriro aktibatzeko, hautatu **Moztura-modua** eremuan **Erabiltzailea galdetu**.

## Erabiltzeko gomendatzen ez den S/MIME ziurtagiri bat erabiltzen duzunean agertzen den gonbita desaktibatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **S/MIME**.
3. Garbitu **Abisatu ziurtagiri arazoak daudenean** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Gonbita berriz aktibatzeko, hautatu **Abisatu ziurtagiri arazoak daudenean** kontrol-laukia.

### S/MIME bidez babestutako mezuen arazoak konpontzea

### Zenbait sinatze- eta enkriptatze-aukera ez daude erabilgarri telefonoan

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu erabiltzen ari zaren posta-kontuak sinatze- eta enkriptatze-aukera guztiak onartzen dituela.
- Mezu sailkapenak erabiltzen badituzu, egiaztatu mezu sailkapenak zuk nahi dituzun sinatze eta enkriptatze aukerak onartzen dituela. Saiatu mezu sailkapen desberdina erabiltzen.

### Ezin dut mezu enkriptatuetako eranskinik ireki

Baliteke enkriptatutako mezuen eranskin bat irekitzeko gai ez izatea arrazio hauengatik:

- Baliteke eranskinaren informazioa erabilgarri ez izateaBlackBerry® Enterprise Server zerbitzarian.
- Baliteke administratzaileak enkriptatutako mezuetako eranskinak ez irekitzeko aukerak zehaztea.
- Baliteke enkriptatutako mezuen eranskinak onartzen ez dituen kontu elektroniko batetik mezua jaso izana.
- Baliteke mezua onartzen ez den algoritmo batekin enkriptatu izana.
- BlackBerry gailuentzako PGP® Support Package erabiltzen ari bazara, ezin duzu PGP bidez babestutako eranskinik ireki, PGP® Desktop Professional softwarea edo PGP® Universal Server zerbitzaria darabilen IBM® Lotus Notes® bezeroa batekin Open PGP formatua erabiliz enkriptatu bada.

## IBM Lotus Notes softwarearen jatorrizko mezu enkriptatuak

### IBM Lotus Notes jatorriz enkriptatutako mezuei buruz

Posta-kontua eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server batekin asoziatuta badago, BlackBerry telefonoan irakur ditzakezu IBM® Lotus Notes® jatorrizko enkriptatzearekin bidalitako mezuak. IBM Lotus Notes jatorrizko mezu enkriptatuak bidali edo jasotzerakoan, baliteke IBM Lotus Notes ID pasahitza sartzeko gonbita jasotzea.

IBM Lotus Notes jatorrizko mezu enkriptatuak jaso edo bidali ahal baino lehen, IBM Lotus Notes ID fitxategia inportatu behar duzu Lotus® iNotes® (lehenago IBM® Lotus® Domino® web-sarbidea izenez ezaguna). Ordenagailuan IBM Lotus Notes 7.0 bertsioa edo berriagoa exekutatu behar duzu eta honen kontu elektronikoak IBM Lotus Domino zerbitzariaren 7.0 bertsioa edo berriagoa izan behar du.

### Mezuak enkriptatu IBM Lotus Notes aplikazioaren jatorrizko enkriptatzea erabiliz

1. Mezu bat idazterakoan, birbidaltzerakoan edo mezu bati erantzuterakoan, **Kodeketa** eremuan hautatu **Lotus Notes enkriptatzea**.
2. Galdetuz gero, idatzi IBM® Lotus Notes® IDaren pasahitza.

# PGP bidez babestutako mezuak

## PGP bidez babestutako mezuen oinarrizko ezagutzak

### Mezuak sinatzeari eta enkriptatzeari buruz

Posta-kontuak eginbide hori onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, mezuak digitalki sinatu eta enkripta ditzakezu BlackBerry telefonotik bidaltzen dituzun mezu elektronikoen eta PIN mezuen segurtasun maila areagotzeko. Hartzaileei zuk bidalitako mezuen egiazkotasuna eta segurtasuna egiztatzen laguntzeko diseinatuta daude sinadura digitalak. Gako pribatua erabiliz mezu bat sinatzen duzunean, hartzaileak gako publikoa erabiltzen du mezua zuk bidalitakoa dela eta aldaketarik jasan ez duela egiaztatzeko.

Enkriptatzea mezuen pribatutasuna babesteko diseinatuta dago. Mezu bat enkriptatzen duzunean, telefonoak hartzailearen gako publikoa erabiltzen du mezua enkriptatzeko. Hartzaileek euren gako pribatua erabiltzen dute mezua desenkriptatzeko.

Enkriptatutako PIN mezu bat bidaltzeko, kontaktuaren PIN helbidea eta helbide elektronikoa izan behar dituzu kontaktuen zerrendan. Telefonoak kontaktuen zerrendako helbide elektronikoa erabiltzen du kontaktuaren PGP® gakoa edo ziurtagiria bilatzeko.

### Mezu bat sinatu edo enkriptatu

Mezu elektronikoak eta PIN mezuak sina edo enkripta ditzakezu.

1. Mezu bat idazterakoan, aldatu **Kodeketa** eremua.
2. Beharrezkoa bada, aldatu **Sailkapena** eremua.

**Lotutako informazioa**

Zenbait sinatze- eta enkriptatze-aukera ez daude erabilgarri telefonoan, 124

### PGP bidez babestutako mezuak pasaesaldi bidez enkriptatu

Lehenespenez, zure BlackBerry® smartphone-ak zure PGP® gakoa erabiltzen du mezuak enkriptatzeko.

1. Mezu bat idazterakoan, **Kodeketa** eremuan hautatu enkriptatzea darabilen bat.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. Markatu **Erabili enkriptatze arrunta** kontro-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Metodo seguru bat erabiliz, jakinarazi hartzaileari pasaesaldia zein den.

### Mezuetan PGP gakoak erantsi

PGP® gakoak erants diezazkiekezu mezu elektronikoei eta PIN mezuei.

1. Mezu bat idazterakoan, sakatu tekla > **Erantsi** > **PGP gakoak**.
2. Nabarmendu PGP gakoren bat.
3. Sakatu tekla > **Jarraitu**.

## Mezuak sinatzeko edo enkriptatzeko erabiltzen den PGP gakoa deskargatu

PGP® gakoa ez badator jasotako mezuan edo ez badago zure BlackBerry® smartphone-ko gakoen biltegian gordeta, PGP gakoa deskarga dezakezu. PGP® Universal Server zerbitzaria erabiltzen baduzu, agian ezingo duzu igorlearen PGP gakoa deskargatu, edo smartphone-ak automatikoki deskarga dezake PGP gakoa PGP Universal Server zerbitzaritik.

1. Mezu batean, nabarmendu enkriptatze egoeraren adierazlea edo sinadura digitalaren adierazlea.
2. Sakatu tekla > **Eskuratu igorlearen PGP gakoa**.

## Mezu batetik PGP gako bat gehitu

PGP® Universal Server erabiltzen baduzu, baliteke mezuetako PGP gakoak gehitu ezin izatea.

1. Mezu batean, nabarmendu sinadura digitalaren adierazle bat.
2. Sakatu tekla > **Inportatu PGP gakoa**.

## PGP gako bat eranskin batetik gehitu

PGP® Universal Server erabiltzen baduzu, baliteke eranskinetako PGP gakoak gehitu ezin izatea.

1. Mezu batean, sakatu PGP gako eranskina.
2. Sakatu **Berreskuratu PGP Eranskina**.
3. Sakatu PGP gakoa.
4. Sakatu **Inportatu PGP Gakoa**.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut mezu enkriptatuetako eranskinik ireki, 124

## PGP bidez babestutako mezuetako eranskinen adierazleak

| Adierazlea | Deskribapena |
| --- | --- |
|  | Mezuak PGP® gako eranskin bat dauka. |
|  | Mezuak PGP gako anitzen eranskinak ditu. |
|  | Mezuak ziurtagirien zerbitzariko eranskin bat dauka. |

## Mezu batetik ziurtagirien zerbitzari batentzako konexio informazioa gehitu

1. Mezu batean, nabarmendu ziurtagirien zerbitzariaren adierazlea.
2. Sakatu tekla > **Inportatu zerbitzaria**.

## Mezu bat sinatzeko edo enkriptatzeko erabilitako PGP gakoa ikusi

1. Mezu batean, nabarmendu enkriptatze egoeraren adierazlea edo sinadura digitalaren adierazlea.

2. Sakatu  tekla > **Erakutsi igorlearen PGP gakoa** edo **Erakutsi enkriptatzeko PGP gakoa**.

## PGP bidez babestutako mezuen egoera

### Enkriptatze egoeraren adierazleak

Zure administratzaileak jasotzen dituzun mezuen enkriptatze maila indartsua ala ahula den zehazten du.

| Adierazlea | Deskribapena |
|---|---|
|  | Mezuaren enkriptatze maila indartsua da. |
|  | Mezuaren enkriptatze maila ahula da. |

### PGP bidez babestutako mezuen sinadura digitalen adierazleak

| Adierazlea | Deskribapena |
|---|---|
|  | BlackBerry® smartphone-ak sinadura digitala egiaztatu du. |
|  | Smartphone-ak ezin du sinadura digitala egiaztatu. |
|  | Zure smartphone-ak datu gehiago behar ditu sinadura digitala egiaztatzeko. |
|  | Smartphone-ak igorlearen PGP® gakoa fidagarria dela uste du. |
|  | Igorlearen helbide elektronikoa ez dator bat gakoko helbide elektronikoarekin, edo igorlearen PGP gakoa errebokatuta dago, ez da fidagarria, ezin da egiaztatu, edo ez dago zure smartphone-an. |
|  | Gakoaren egoera ez da unekoa, edo smartphone-ak datu gehiago behar ditu gakoaren fidagarritasun egoera egiaztatzeko. |
|  | Igorlearen PGP gakoa iraungita dago. |

# PGP bidez babestutako mezuen aukerak

## Zure sinatze eta enkriptatze gakoa aldatu

Zure BlackBerry® smartphone-ak PGP® gako bat erabiltzen du bidalitako elementuen karpetan dauden mezuak enkriptatzeko eta zure PGP gako publikoa gehitzen du bidaltzen dituzun mezuetan hartzaileek erantzunak enkripta ditzaten.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **PGP**.
3. Aldatu **Gako lehenetsia** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Zenbait sinatze- eta enkriptatze-aukera ez daude erabilgarri telefonoan, 124

## Enkriptatutako mezuetako eranskinak deskargatzeko aukerak aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **PGP**.
3. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Enkriptatutako mezuetako eranskinak automatikoki deskargatzeko, ezarri **Enkriptatutako eranskinaren informazioa** eremua **Automatikoa** gisa.
   - Enkriptatutako mezuetako eranskinak eskuz deskargatzeko, ezarri **Enkriptatutako eranskinaren informazioa** eremua **Ezkuzkoa** gisa.
   - Zure BlackBerry® smartphone-ak enkriptatutako mezuen eranskinak deskargatzea saihesteko, ezarri **Enkriptatutako eranskinaren informazioa** eremua **Inoiz ez** gisa.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Sinadura eta enkriptatze aukera lehenetsia aldatu

BlackBerry® telefonoa lehenago mezu bat bidali edo jaso ez duzun kontaktu bati mezu bat bidaltzerakoan sinadura eta enkriptatze aukera lehenetsia erabiltzeko diseinatuta dago. Bestela, telefonoak mezuen historia erabiltzen du sinadura eta enkriptatze-aukera bat iradokitzeko. Nahiago izanez gero, irteerako mezuetan sinadura eta enkriptatze aukera lehenetsiak erabiltzeko zehatz dezakezu telefonoa.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Zerbitzu lehenetsiak**.
3. Aldatu **Kodeketa lehenetsia** eremua.
   - Irteerako mezu guztientzako sinadura eta enkriptatze aukera lehenetsiak erabiltzeko, hautatu **Erabili kodetze lehenetsiaIrteerako mezuen kodetze-iradokizuna** eremuan.
   - Mezuen historian oinarritutako sinadura eta enkriptatze aukerak erabiltzeko, hautatu **Erabili mezuen historiaIrteerako mezuen kodetze-iradokizuna** eremuan.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Zenbait sinatze- eta enkriptatze-aukera ez daude erabilgarri telefonoan, 124

## Mezuen sailkapenari buruz

BlackBerry® telefonoa BlackBerry® Enterprise Servererabiltzen duen eta eginbide hori onartzen duen posta-kontu batekin asoziatuta badago eta administratzaileak mezuen sailkapena gaitzen badu, BlackBerry Enterprise Server zerbitzariak gutxieneko segurtasun-ekintza sorta aplikatzen die sortzen, birbidali edo erantzuten duzun mezu bakoitzari, mezuari esleitzen diozun sailkapenean oinarriturik. Zure administratzaileak zehazten du erabili ditzakezun mezu sailkapenak.

Mezu sailkapenak erabiltzen dituen mezu bat jasotzen baduzu, sailkapenaren laburdura ikus dezakezu mezuaren gaiaren lerroan eta sailkapenaren deskribapen osoa mezuaren gorputzean ikus dezakezu. Bidalitako mezu baten laburdura eta sailkapenaren deskribapen osoa ikus dezakezu Bidalitako elementuak karpetan.

## Mezuen sailkapen lehenetsia aldatu

Ekintza burutzeko, eginbidea onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabili behar du laneko kontu elektronikoak eta administratzaileak mezuen sailkapenak aktibatu behar ditu.

BlackBerry smartphone-a lehenago mezurik bidali ez diozun edo honen mezurik jaso ez duzun kontaktu bati mezu bat bidaltzen diozunean mezuen sailkapen lehenetsia erabiltzeko diseinatuta dago. Lehenago kontaktuaren mezuren bat jaso baduzu edo mezu bat bidali badiozu, smartphone-a azken mezuan erabili zen sailkapena erabiltzen saiatzen da.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **Zerbitzu lehenetsiak**.
3. Aldatu **Sailkapen lehenetsia** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Mezuen PGP adierazleen tamaina aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **PGP**.
3. Aldatu **Mezu ikustailearen ikonoak** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## PGP bidez babestutako mezuen enkriptatze algoritmoak aldatu

Mezu batek hartzaile bat baino gehiago baditu, hartzaile guztiek onartzen duten zerrendako lehen enkriptatze algoritmoa erabiliko du BlackBerry® telefonoak.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **PGP**.
3. Hautatu enkriptatze algoritmo baten edo gehiagoren alboko kontrol-laukiak.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## PGP bidez babestutako mezu bat trunkatuta dagoenean agertzen den gonbipena desaktibatzeko

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **PGP**.
3. Hautatu **Mezua mozteko modua** eremuan **Bidali dena den** edo **Denak eta bidali gehiago**.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Gonbita berriro aktibatzeko, hautatu **Mezua mozteko modua** eremuan **Erabiltzailea galdetu**.

## Erabiltzeko gomendatzen ez den PGP gako bat erabiltzen duzunean agertzen den gonbita desaktibatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **PGP**.
3. Garbitu **Abisatu PGP gakoen arazoei buruz** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

3. Hautatu **Hari gabeko sinkronizazioa** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

BlackBerry® Internet Service zerbitzua erabiltzen baduzu, BlackBerry® Desktop Software erabili behar duzu egutegiko datuak sinkronizatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atala.

**Lotutako informazioa**

Egutegiko sarreretako zenbait karaktere ez dira zuzen agertzen sinkronizatu eta gero, 189
Sinkronizazio gatazkei buruz, 88

# Telefonoko datuen babeskopiak egin eta berrezartzeari buruz

Ordenagailuan BlackBerry® Desktop Software instalatuta baduzu, BlackBerry telefonoko datu gehienen babeskopia egin eta datu horiek berrezarri ditzakezu BlackBerry Desktop Software aplikazioren babeskopia eta berrezartze tresna erabiliz. Besteak beste, mezuena, antolatzailearen datuena, letra-tipoena, gordetako bilaketena eta arakatzailearen laster-markena. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atala.

Memoria-txartelean ez baduzu ezer gorde, telefonoko datu gehienen babeskopia egin dezakezu eta datu horiek berrezarri ditzakezu memoria-txartelaren bidez.

Posta-kontuak BlackBerry® Enterprise Server erabiltzen badu, baliteke antolatzailearen datu sinkronizatuak hari gabeko sarean berrezartzeko gai izatea. Antolatzailearen datu sinkronizatuak haririk gabeko sarean zehar leheneratzeko, aktibazio pasahitz bat eduki behar duzu. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

# Sinkronizazio gatazkei buruz

Mezu elektronikoko edo antolatzaileko datu bera BlackBerry® telefonoan eta ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioan aldatzen duzunean gertatzen dira sinkronizazio gatazkak.

Mezu elektronikoak bateratzeko posta elektronikoaren hari gabeko bateratzea erabiltzen baduzu, bateratze gatazkak gertatzen direnean, lehentasuna gailuak ala ordenagailuak izango duen zehatz dezakezu telefonoan.

Antolatzaileko datuak sinkronizatzeko hari gabeko datu sinkronizazioa erabiltzen baduzu, ordenagailuko antolatzaileko datuek telefonoko datuek baino lehentasun handiagoa izango dute sinkronizazio gatazkak gertatzen direnean.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

**Lotutako informazioa**

Egutegiko sarreretako zenbait karaktere ez dira zuzen agertzen sinkronizatu eta gero, 189
Antolatzailearen datuak kablerik gabeko sare baten bidez sinkronizatu, 182

## Datu sinkronizazioaren gatazkak kudeatu

Antolatzaileko datuak sinkronizatzerakoan gertatzen diren gatazkak nola konpontzen diren aldatu dezakezu haririk gabeko datu sinkronizazioa desaktibatuz, gatazkak konpontzeko aukerak aldatuz eta datuak sinkronizatzeko BlackBerry® Desktop Software aplikazioaren sinkronizazio-tresna erabiliz . Antolatzaileko datuak sinkronizatzerakoan gertatzen diren gatazkei buruzko informazio gehiago lortzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atalean.

# Kategoriei buruz

Kategoriak zure kontaktuak, egitekoak eta memorandumak sailkatzeko sor ditzakezu. Agertzen diren kontaktuak, egitekoak eta memorandumak kategorietan oinarriturik murritz ditzakezu.

Kategorien izenek ez dituzte maiuskulak eta minuskulak bereizten. Kontaktu, egiteko edo memorandum bat kategoria bat baino gehiagotan egon daitezke. IBM® Lotus Notes® erabiltzen baduzu, BlackBerry® smartphone-an egiteko batean kategoria bat baino gehiago aplika ditzakezu, baina kategoria bakarra sinkronizatzen da Lotus Notes aplikazioko egitekoarekin.

Kategoriak kontaktuen zerrendak, egitekoen zerrendak eta memorandumen zerrendak partekatzen dituzte eta aplikazio batean egiten dituzun aldaketak aplikazio guztietan egiten dira.

# Kontaktuei, egitekoei edo memorandumei kategoria ezarri

1. Kontaktu, egiteko edo memorandum bat sortzerakoan edo aldatzerakoan, sakatu tekla > **Kategoriak**.
2. Hautatu kategoria baten ondoko kontrol-laukia.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

Kontaktu, egiteko edo memorandum batetik kategoria bat kentzeko, garbitu kategoriaren ondoko kontrol-laukia.

# Kontaktuen, egitekoen eta memorandumen kategoriak sortu

Kontaktuen aplikazioan, egitekoen aplikazioan eta MemoPad aplikazioan elementuak antolatzeko kategoriak sor ditzakezu.

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, sakatu **Kontaktuak** ikonoa, **Egitekoak** ikonoa edo **MemoPad** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Iragazkia**.
3. Sakatu tekla > **Berria**.
4. Idatzi kategoriaren izena.
5. Sakatu teklatuko tekla.

Kategoria bat ezabatzeko, nabarmendu kategoria. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

# Elementuak ezabatu baino lehen agertzen den gonbipena desaktibatu

Mezuak, dei erregistroak, kontaktuak, egutegiko sarrerak, egitekoak, memorandumak edo pasahitzak ezabatzen dituzunean agertzen den gonbidapena desaktiba dezakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu elementuak ezabatzen dituzunean agertzen den onbitaren aplikazioaren ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. Beharrezkoa bada, sakatu **Aukera orokorrak**.
4. Garbitu **Berretsi ezabatzea** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Idazketa

## Nola: Idaztea

### Idazketako ikonoak

Ikono hauek goialdean eskuineko bazterrean agertzen dira idaztean.

| | | | |
|---|---|---|---|
| aA | Blok Maius (maiuskulak blokeatzeko) | | Multipultsazio modua |
| 123 | ZENB blok (zenbakia blokeatu) | FR | Oraingo sarrera hizkuntza |
| alt | Alt modua | | |

### Idazketaren oinarrizko ezagutzak

#### Kopiatu eta itsatsi begirada batean




#### Testua nabarmendu, ebaki, kopiatu edo itsasi

1. Eduki sakatuta ⇧aA tekla.
   - Testua karakterez karaktere nabarmentzeko, mugitu hatza ezkerrera edo eskuinera nabigazio-teklan.
   - Testua lineaz linea nabarmentzeko, mugitu hatza gora edo behera nabigazio-teklan.
2. Sakatu tekla.
3. Sakatu **Ebaki** edo **Kopiatu**.

4. Sakatu tekla > **Itsatsi**.

## Idatzi ikur bat

Sakatu sym tekla. Sakatu ikurra.

## Azentu edo karaktere berezi bat idatzi

Eduki sakatuta teklatuko letra tekla bat eta, nabigazio-teklan, irristatu zure hatza ezkerrera edo eskuinera azentua edo karaktere berezia agertu arte.

## Eremu bateko testua garbitu

Testua idatzi duzun eremu batean, sakatu tekla > **Garbitu eremua**.

## Idazketa metodoei buruz

Erabiltzen duzun idazketa metodoak, idazteko modua zehaztuko du. BlackBerry®

Idazten ari zaren hizkuntzaren arabera, idazketa metodo desberdinak daude. Idazketa metodo anitz dituen hizkuntza batean idazten baduzu, metodoz alda zaitezke idazten duzun bitartean. Eremu batzuetan idazten ari zarenean, adibidez pasahitz eremuetan, baliteke telefonoak idazketa metodoa automatikoki aldatzea.

## Testua SureType teknologia erabiliz idatzi

1. Sakatu behin letrari dagokion tekla hitz bateko letrak idazteko.
2. Egin hauetako bat:
   - Idazten duzunean eta hitz berri bat idazten duzunean agertzen den zerrendako hitz bat hautatzeko, nabarmendu hitza. Sakatu teklatuko tekla.
   - Hitz berdina idazten duzunean eta idazten jarraitzen duzunean agertzen den zerrendako elementu bat hautatzeko, sakatu elementua.
   - Idazten ari zaren hitzaren letra bat aldatzeko, nabarmendu letra. Sakatu pantailan agertzen den ordezko letra.
   - Hitz bat idatzi eta gero letra bat aldatzeko, sakatu hitza. Nabarmendu letra. Sakatu pantailan agertzen den ordezko letra.

Adibidez, **run** idazteko, sakatu **R** tekla behin, **U** tekla bi aldiz eta abar **run** zerrendan agertu arte. Orduan, nabarmendu **run** eta sakatu tekla.

## Multi-tap erabiliz idatzi testua

Egin hauetako bat:

- Tekla baten lehenengo letra idazteko, behin sakatu tekla.
- Tekla baten bigarren letra idazteko, sakatu bitan tekla.

# Idazketa metodoak

## Sarrerako metodoen aukerak aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera** > **Idazketa**.
3. Teklatuaren kasuan, sakatu **Estiloaren aukera aurreratuak**.
4. Aldatu aukerak.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Idazteko estiloa aldatu

Idazteko estilo bat hautatuta alda dezakezu nola ezagutuko duen BlackBerry® smartphone-ak zuk idatzitakoa.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Idazketa**.
3. Teklatuarentzako, egin hauetako bat:
   - Idazketa laguntza guztiak desaktibatzeko, hautatu **ZuzenaEstiloa** eremuan.
   - Idatzi ahala smartphone-ak hitzak iradokitzeko, hautatu **IgarleaEstiloa** eremuan.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Testu iragarle metodoa erabiliz testua idatzi

Testua idazten ari zarenean, egin hurrengo ekintzetako bat:

- Nabarmendutako iradokizuna hautatzeko eta beste hitz bat idazten hasteko, sakatu tekla teklatuan.
- Nabarmendutako iradokizuna hautatzeko eta idazten jarraitzeko, sakatu hitza.
- Iradokizunak alde batera uzteko, idazten jarraitu.

## Beste hizkuntza batzuetan idazteari buruzko informazio gehiago bilatu

Beste hizkuntza batzuetan idazten ikas dezakezu, adibidez, txineraz edo thailandieraz, linean erabilgarri dauden Idazteko gidak irakurrita. Bisitatu www.blackberry.com/go/docs eta bilatu zure hizkuntzarako Idazteko gida.

# Hiztegi pertsonalizatua

## Hiztegi pertsonalaren inguruan

Hitz berriak sar ditzakezu hiztegi pertsonalean ortografia zuzentzerakoan BlackBerry® telefonoak hitz horiek ezagut ditzan. SureType® teknologiak hiztegi bera erabiltzen duenez, sarrera metodo arabiarra edo errusiarra erabiltzen ari bazara, idazterakoan agertzen den zerrendan bistaratuko dira hiztegi pertsonalean sartzen dituzun hitz berri guztiak.

### Ez hiztegiratu elementu gehiago automatikoki hiztegi pertsonalera

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera** > **Idazketa**.
3. Teklatuaren kasuan, sakatu **Estiloaren aukera aurreratuak**.
4. Garbitu **Idazketa** kontrol-laukia.
5. Hautau **Posta elektronikoa** eremuan **Desaktibatuta**.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Hiztegi pertsonalizatuan hitz bat gehitu, aldatu edo ezabatu

Hitz berriak sar ditzakezu hiztegi pertsonalean ortografia zuzentzerakoan BlackBerry® telefonoak hitz horiek ezagut ditzan. SureType® teknologiak hiztegi bera erabiltzen duenez, sarrera metodo arabiarra edo errusiarra erabiltzen ari bazara, idazterakoan agertzen den zerrendan bistaratuko dira hiztegi pertsonalean sartzen dituzun hitz berri guztiak.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Hiztegi pertsonalizatua**.
   - Hiztegi pertsonalizatura hitz bat gehitzeko, sakatu tekla > **Berria**. Idatzi hitz edo letra konbinazio bat. Sakatu teklatuko tekla.
   - Hiztegi pertsonalizatuko hitz bat aldatzeko, sakatu tekla > **Editatu**. Aldatu hitza. Sakatu teklatuko tekla.
   - Hiztegi pertsonalizatutik hitz bat ezabatzeko, nabarmendu hitza. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

## Hitz ordezkapena

### Hitz-ordezkapenari buruz

Idazten duzun testu jakin bat aurrekargatutako hitz-ordezkapeneko sarrerez ordezteko diseinatuta dago Hitz-ordezkapena. Hitz-ordezkapenarekin ordeztu daitekeen testua idazten baduzu, Zuriune tekla sakatu eta gero aldatuko da testua

BlackBerry® smartphone-ak integratuta ditu akats arruntenak zuzentzen ditu hitz-ordezkapenen sarrerak. Adibidez, in idatziz gero, ni hitzaz ordeztuko du hitz-ordezkapenak. Akats arruntentzako edo laburdurentzako sor ditzakezu hitz-ordezkapenaren sarrerak sor ditzakezu. Adibidez, hitz-ordezkapenaren sarrera bat sor dezakezu "ga" laburdura "gero arte" hitzekin ordezteko.

**Lotutako informazioa**

Hitz-ordezkapeneko sarrerak aldatu edo ezabatu, 213

### Hitz-ordezkapeneko aldaketak desegin

Hitz-ordezkapena eginbideak aldatzerik nahi ez duzun hitz bat aldatzen badu, aldaketa desegin dezakezu.

Idazten ari zarenean, sakatu del tekla birritan.

### Hitz-ordezkapena desaktibatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera** > **Idazketa**.
3. Teklatuaren kasuan, sakatu **Estiloaren aukera aurreratuak**.
4. Garbitu **Ortografia** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Hitz-ordezkapeneko sarrera bat sortu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Hitz ordezkapena**.
3. Sakatu tekla > **Berria**.
4. **Ordeztu** eremuan, idatzi ordeztu beharreko testua.
5. **Zerekin** eremuan, burutu hurrengo ekintzetako bat:
   - Idatzi ordezpen testua.
   - Makro bat txertatzeko (adibidez, uneko data edo ordua), sakatu tekla > **Txertatu makroa**.
6. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Sarrera zuk idatzi duzun bezala letra larriz jartzeko, hautatu **Erabiltzen** eremuan **Letra larria/xehea**.
   - Testuinguruaren arabera sarrera bat letra larriz jartzeko, hautatu **Erabiltzen** eremuan **SmartCase**.
7. **Hizkuntza** eremuan, aldatu hizkuntza.
8. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Hitz-ordezkapeneko sarrerak aldatu edo ezabatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Hitz ordezkapena**.
3. Nabarmendu hitz-ordezkapeneko sarrera bat.
4. Sakatu tekla.
   - Hitz-ordezkapeneko sarrera bat aldatzeko, sakatu **Editatu**. Aldatu sarrera. Sakatu tekla > **Gorde**.
   - Hitz-ordezkapaneko sarrera bat ezabatzeko, sakatu **Ezabatu**.

## Ortografia zuzentzailea

Ortografia zuzentzeko, hizkuntza hauetako bat ezarrita izan behar duzu: afrikaans, arabiera, katalana, txekiera, daniera, nederlandera, ingelesa, frantsesa, alemana, greziera, hungariera, italiera, norvegiera, portugesa, errusiera, espainiera, suediera edo turkiera.

### Ez erakutsi ortografia iradokizunik idazterakoan agertzen den zerrendan

Besterik adierazi ezean, BlackBerry® smartphone-ak ezagutzen ez duen letra konbinazio bat idazten hasten bazara, idazterakoan agertzen den zerrendan ortografia iradokizunak agertuko dira letra lodiz, erabilgarri dagoenean.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.

2. Sakatu **Idazketa eta sarrera** > **Idazketa**.
3. Teklatuaren kasuan, sakatu **Estiloaren aukera aurreratuak**.
4. Garbitu **Ortografia** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Ezin dut ortografia zuzendu

Zuk idatzitako testuaren ortografia soilik zuzen dezakezu. Hizkuntza hauetan zuzen dezakezu ortografia: ingelesa, afrikaansa, arabiera, katalana, txekiera, daniera, nederlandera, frantsesa, alemana, greziera, hebreera, hungariera, italiera, norvegiera, poloniera, portugesa, errusiera, gaztelania, suediera eta turkiera.

### Ortografia zuzentzeko aukerak aldatu

Ortografia zuzentzaileak egiaztatzen dituen hitzen mota eta luzera alda dezakezu. Adibidez, baliteke ortografia zuzentzaileak akronimoak edo letra bakarreko hitzak barne hartzea nahi ez izatea. Mezu elektroniko bat bidali aurretik zure BlackBerry® smartphone-ak ortografia automatikoki zuzendu dezan konfigura dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Ortografia zuzentzailea**.
3. Aldatu aukera bat edo gehiago.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Ortografia zuzendu

Ortografia zuzen dezakezu sortzen dituzun mezuetan, egutegi sarreretan, egitekoetan edo memorandumetan.

1. Sakatu tekla > **Zuzendu ortografia**.
2. Egin hauetako bat:
   - Proposatutako hitza onartzeko, sakatu agertzen den zerrendako hitz bat.
   - Proposatutako hitza ezikusteko, sakatu tekla.
   - Proposamen guztiak ezikusteko, sakatu tekla > **Ezikusi guztiak**.
   - Hitz berria hiztegi pertsonalizatuan gehitzeko, sakatu tekla > **Gehitu hiztegian**.
   - Ortografia zuzentzeari uzteko, sakatu tekla > **Utzi ortografia zuzentzailea**.

# Arazoak: idazketa

## Ezin dut ortografia zuzendu

Zuk idatzitako testuaren ortografia soilik zuzen dezakezu. Hizkuntza hauetan zuzen dezakezu ortografia: ingelesa, afrikaansa, arabiera, katalana, txekiera, daniera, nederlandera, frantsesa, alemana, greziera, hebreera, hungariera, italiera, norvegiera, poloniera, portugesa, errusiera, gaztelania, suediera eta turkiera.

# Ez daukat Estilo-aukera aurreraturik

Telefonoko idazketa estlioa gisa **Zuzena** hautatu baduzu, **Estilo-aukera aurreratua** ez da erabilgarri egongo.

Telefonoko idazketa-estiloa berriro ere **Zuzena** ez den beste estilo batera aldatzen baduzu, **Estilo-aukera aurreratuak** erabilgarri egongo da.

# Teklatua

## Nola: Teklatua

### Teklatua ezkutatzeko barra erakutsi edo ezkutatu

Besterik adierazi ezean, ukipen-pantailako teklatuaren goialdeko barrak ukipen-pantailako teklatua azkar gordetzen uzten dizu. Barra erakusteko edo ezkutatzeko aukerak alda ditzakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Teklatua**.
3. Hautatu edo garbitu **Gaitu teklatu birtuala ezkutatzeko barra** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Egokitze-teklari aplikazioak esleitu

BlackBerry® telefonoak egokitze-tekla bat du alboan. Zure gaiaren arabera, baliteke egokitze-teklari esleitutako aplikazioa aldatu ezin izatea.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Egokitze-teklak**.
3. Aldatu **Egokitze-teklarekin hau irekitzen da** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Moneta ikur lehenetsia aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Teklatua**.
3. Aldatu **Moneta** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Kurtsorearen abiadura ezarri

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Teklatua**.
3. Aldatu **Teklen abiadura** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Tekla tonuak gaitu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera** > **Teklatua**.

3. Hautatu **Tekla tonua** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Nabigazio-teklaren sentsibilitatea

Nabigazio-teklak zure ukituei nola erantzuten dien ezar dezakezu. Sentsibilitate maila altuarekin presio txikiagoa egin behar da sentsibilitate maila baxuarekin baino.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Nabigazio-teklaren sentsibilitatea**.
3. Aldatu **Sentsibilitate horizontala** eremua eta **Sentsibilitate bertikala** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Nabigazio teklaren soinua itzali

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Nabigazio-teklaren sentsibilitatea**.
3. Ezabatu **Entzun daitekeen gurpila** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Nabigazio-teklak berriro ere soinua izan dezan, hautatu **Entzun daitekeen gurpila** kontrol-laukia.

# Arazoak: Teklatua

## Ez da aplikaziorik irekitzen egokitzeko tekla bat sakatzen dudanean

Probatu hau:

- Oraindik hala egin ez baduzu, esleitu aplikazio bat teklari.
- Egiaztatu ez duzula tekla esleitu diozun aplikazioa ezabatu.

# Hizkuntza

## Nola: Hizkuntza

### Idazteko sarrerako hizkuntzei buruz

Idazteko sarrerako hizkuntza bat zehatz dezakezu idazten duzunean erabiltzeko. Idazteko sarrerako hizkuntzak ez du pantailako hizkuntza bera izan behar. Idazteko sarrerako hizkuntza bat zehazten duzunean, testu automatikoa eta beste idazketa aukera batzuk hautatutako hizkuntzara aldatzen dira. Adibidez, BlackBerry® smartphone-a frantsesez erabil dezakezu, baina mezuak ingelesez idatz ditzakezu.

### Hizkuntza aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera > Hizkuntza**.
   - Bistaratze hizkuntza aldatzeko, aldatu **Bistaratze hizkuntza** eremua.
   - Idazketa hizkuntza aldatzeko, aldatu **Idazketa hizkuntza** eremua.
   - Ahots-komandoen hizkuntza aldatzeko, aldatu **Ahots bidezko markatzearen hizkuntza** eremua.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Pantaila hizkuntza bat gehitu

BlackBerry® Desktop Software erabil dezakezu BlackBerry smartphone-ari bistaratze hizkuntza bat gehitzeko. BlackBerry Desktop Software ordenagailutik deskargatzeko, bisitatu www.blackberry.com/desktop helbidea eta hautatu ordenagailuarentzako aukera egokia.

Konektatu zure smartphone-a ordenagailura eta ireki BlackBerry Desktop Software.

Aplikazioak eta bistaratze-hizkuntzak gehitzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareako Laguntza atalean.

### Hizkuntza bat ezabatzea

Erabiltzen ez dituzun hizkuntzak ezaba ditzakezu leku gehiago erabilgarri egoteko.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Konfigurazioa** ikonoa.
2. Sakatu **Hizkuntzak** > **Kudeatu hizkuntzak**.
3. Hautatu mantendu nahi dituzun hizkuntzak.
4. Sakatu **Eguneratu**.

Hautatu ez dituzun hizkuntza guztiak zure BlackBerry® smartphone-tik ezabatuko dira.

# Arazoak: Hizkuntza

## Karaktere batzuk ez dira zuzen agertzen nire smartphone-an

Baliteke BlackBerry telefonoarekin asoziatutako BlackBerry® Enterprise Server zerbitzariak edo BlackBerry® Internet Service zerbitzuak karaktere horiek ez onartzea. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo administratzailearekin.

## Ezin dut bistaratzeko hizkuntzarik aurkitu nire smartphone-an

BlackBerry® Desktop Software erabil dezakezu BlackBerry smartphone-ari bistaratze hizkuntza bat gehitzeko. BlackBerry Desktop Software ordenagailutik deskargatzeko, bisitatu www.blackberry.com/desktop helbidea eta hautatu ordenagailuarentzako aukera egokia.

- Konektatu zure smartphone-a ordenagailura eta ireki BlackBerry Desktop Software.

Aplikazioak eta bistaratze-hizkuntzak gehitzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareako Laguntza atalean.

# Pantaila bistaratzea

## Nola: Pantailaren bistaratzea

### Argazki bat erabili telefonoaren horma-paper gisa

1. Hasierako pantailan, sakatu **Multimedia** ikonoa > **Argazkiak** ikonoa.
2. Joan argazki batera.
3. Sakatu tekla > **Ezarri horma-paper gisa**.

**Lotutako informazioa**

Pantaila aldatu da, 223

### Atzeko argiaren aukerak ezarri

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Bistaratzea** > **Pantaila bistaratzea**.
3. Egin hauetako bat:
   - Pantailaren atzeko argiaren distira aldatzeko, aldatu **Atzeko argiaren distira** eremua.
   - BlackBerry® telefonoa ukitzen ez duzunean atzeko argia piztuta egongo den denbora-tartea aldatzeko, aldatu **Atzeko argiaren denbora-muga** eremua.
   - Atzeko argia argi baldintzen arabera doitzeari uzteko, garbitu **Lausotu automatikoki atzeko argia** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Pantaila itzaltzen da, 39

### Pantailaren letra tipoa aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Bistaratzea** > **Pantaila bistaratzea**.
3. Aldatu letra tipoaren eremuak.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Pantailan grisen eskala edo alderantzizko kontrastea erabili, 222
Pantaila bistaratzea, 220

# Hasierako pantailako aplikazioak antolatzea

## Aplikazioen ikonoak antolatzeari buruz

Aplikazioen ikonoak hasierako pantailan edo hasierako pantailako karpetetan ager daitezke. Ezin badituzu aplikazioen ikono guztiak ikusi, baliteke horiek ezkutatuta egotea. Aplikazioen ikono guztiak ikusgai jar ditzakezu hasierako pantailan edo karpetetan. Horretarako, hasierako pantailako menuan, hautatu Erakutsi guztiak.

Aplikazioen ikonoen ordena alda dezakezu, gehien erabiltzen dituzun aplikazioen ikonoak hasierako pantailaren hasieran ager daitezen. Era berean, karpetak sor eta ezaba ditzakezu, sortzen dituzun karpeten ikonoen itxura alda dezakezu, eta aplikazioen ikonoak karpetetan sar edo karpetetatik atera ditzakezu.

## Aplikazio-ikono bat erakutsi, ezkutatu edo bilatu

Zure gaiaren arabera, agian ezingo dituzu hainbat aplikazioren ikonoak ezkutatu.

Hasierako pantailan edo karpeta batean, burutu ekintza hauetako bat:

- Aplikazio-ikono guztiak ikusteko, sakatu nabigazio-barrako **Guztiak**.
- Aplikazio ikono bat ezkutatzeko, nabarmendu ikonoa. Sakatu tekla > **Ezkutatu ikonoa**. Ikonoa beste panel batzuetan ere agertzen bada, panel guztietan edo uneko panelean ezkuta dezakezu ikonoa.
- Ezkutatutako aplikazio ikono guztiak erakusteko, sakatu tekla > **Erakutsi ikono guztiak.**
- Aplikazio ikono bat ezkutatzeari uzteko, nabarmendu ikonoa. Sakatu tekla > **Ezkutatu ikonoa**. Ezkutatu ikonoa eremuaren alboan ez luke hautamarkarik agertu behar.

**Lotutako informazioa**

Pantaila aldatu da, 223

## Mugitu aplikazio baten ikonoa

1. Hasierako pantailan edo aplikazio baten karpeta batean, nabarmendu aplikazio baten ikonoa.
2. Sakatu tekla.
   - Aplikazioaren ikonoa hasierako pantailako beste leku batera mugitzeko, klikatu **Mugitu**. Sakatu kokapen berria.
   - Aplikazioaren ikonoa aplikazio baten karpetara mugitzeko, sakatu **Mugitu karpetara** aukera. Sakatu aplikazioaren karpeta bat.
   - Aplikazioaren ikonoa aplikazio baten karpetatik kanpora mugitzeko, sakatu **Mugitu karpetara** aukera Sakatu **Hasierako pantaila** edo aplikazio baten karpeta.

## Hasierako pantailan karpetak gehitu, aldatu edo ezabatu

Hasierako pantailan, burutu ekintza hauetako bat:

- Karpeta bat gehitzeko, sakatu tekla > **Gehitu karpeta**. Idatzi karpetaren izen bat. Sakatu **Gehitu**.
- Karpeta bati izena aldatzeko, nabarmendu karpeta bat. Sakatu tekla > **Editatu karpeta**. Idatzi karpetaren izen bat. Sakatu **Gorde**.
- Karpeta bat ezabatzeko, nabarmendu karpeta bat. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

# Telefonoa blokeatuta dagoenean agertzen den mezua gehitu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Bistaratu** > **Mezua pantaila blokeatzean**.
3. Idatzi telefonoa blokeatuta dagoenean pantailan agertzea nahi duzun testua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Ukipen-pantailaren sentikortasuna zehaztu

Ukitutakoan ukipen-pantailak nolako sentikortasuna izango duen zehatz dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera** > **Ukipen-pantailaren sentsibilitatea**.
   - Kolpatzen duzunean, pantailak azkarrago erantzutea nahi baduzu, jarri **Kolpe-tartea** eremuan zenbaki baxuago bat.
   - Kolpatuta edukitzean pantailak azkarrago erantzutea nahi baduzu, adibidez, pop-up menu bat irekitzeko kolpatuta edukitzen duzunean, jarri **Nabarmentze-aldia** eremuan zenbaki baxuago bat.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Pop-up menuak desaktibatu

Pantailan hatza ukituta mantentzen duzunean pop-up menuak agertzea geldiarazi dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera** > **Ukipen-pantailaren sentsibilitatea**.
3. Garbitu **Ireki pop-up menua ukitu eta mantentzean** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Hari gabeko estalduraren LED jakinarazpena aktibatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Bistaratzea** > **Pantaila bistaratzea**.
3. Hautatu **LED estalduraren adierazlea** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

BlackBerry® telefonoa hari gabeko sare batera konektatuta dagoenean, LED argia distira berdea du.

Hari gabeko estalduraren jakinarazpena desaktibatzeko, garbitu **LED estalduraren adierazlea** kontrol-laukia.

# Pantailan grisen eskala edo alderantzizko kontrastea erabili

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Erabilerraztasuna**.
   - Grisen eskala erabiltzeko pantailarako, aldatu **Kolore-kontrastea** eremua ondorengora **Grisen eskala**.

- Pantailan alderantzizko kontrastea erabiltzeko, aldatu **Kolorearen kontrastea** eremua ondorengora **Alderantzizkatu kontrastea**.

3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Gaiak

### Gaiei buruz

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, BlackBerry® telefonorako gai bat ezar dezakezu eta gai horrek aplikazioen, adierazleen, hitzen eta ikonoen itxura aldatuko du. Baliteke gaiak telefonoak aurrekargatuta izatea. Halaber, BlackBerry App World™ erakusleihotik ere deskarga ditzakezu gaiak.

### Gaiak aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Bistaratzea** > **Pantaila bistaratzea**.
3. **Gaia** atalean, sakatu gai bat.
4. Sakatu **Aktibatu**.

Gai bat ezabatzeko, sakatu gaia. Sakatu **Ezabatu**.

**Lotutako informazioa**

Pantaila aldatu da, 223

# Arazoak: Pantailaren bistaratzea

## Pantaila aldatu da

Gaiaren, ikonoen eta letra tipoen bistaratze aukeren eta hasierako pantailaren atzeko planoaren arabera, pantaila aldatu egin daiteke gaiz aldatzen duzunean.

## Ez da aplikaziorik irekitzen egokitzeko tekla bat sakatzen dudanean

Probatu hau:

- Oraindik hala egin ez baduzu, esleitu aplikazio bat teklari.
- Egiaztatu ez duzula tekla esleitu diozun aplikazioa ezabatu.

# Pantaila itzaltzen da

BlackBerry® telefonoa denbora-tarte batean erabiltzen ez duzunean, pantaila itzali egiten da bateria aurrezteko. Telefonoa ukitzen ez duzuenean atzeko argia piztuta egoteko denbora-tartea alda dezakezu.

Pantaila pizteko, sakatu nabigazio-tekla edo sakatu tekla bat.

**Lotutako informazioa**
Atzeko argiaren aukerak ezarri, 220

# Pop-up menu bat agertzen da pantaila ukitzen dudanean

Pantailan hatza denbora-tarte batean ukituta mantentzen duzunean, pop-up menu bat agertuko da menuko ohiko elementuak azkar hautatzeko bide azkar bat emanaz.

Pop-up menuak desaktibatu edo ukipen-pantailaren sentsibilitate-aukerak alda ditzakezu, pop-up menuak agertu baino lehen pasa beharreko denbora-tartea handitzeko.

**Lotutako informazioa**
Pop-up menuak desaktibatu, 222
Ukipen-pantailaren sentikortasuna zehaztu, 222

# GPS teknologia

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

## Nola: GPS teknologia

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

### Kokapen-laguntza edo kokapen-datuak desaktibatu

Kokapen-laguntzak eta kokapen-datuek, BlackBerry® telefonoarentzako erabilgarri badaude, GPS teknologiaren errendimendua hobetzen du; baina eginbide horiek hari gabeko sarea erabiltzen dutenez, baliteke datu-zerbitzuen kostua igotzea. Kostu horiek ekiditeko, kokapen-laguntza edo kokapen-datuak desaktiba ditzakezu, baina baliteke telefonoak denbora gehiago behar izatea GPS kokapena lortzeko. Datu-zerbitzuen kostuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Kokapen ezarpenak**.
   - Kokapen-laguntza desaktibatzeko, **Kokapen-laguntza** atalean, hautatu **DesgaitutaEzarpenak** eremuan.
   - Kokapen-laguntza ibiltaritzan desaktibatzeko, **Kokapen-laguntza** atalean, hautatu **Ibiltaritzan desgaitutaEzarpenak** eremuan.
   - Kokapen-datuak desaktibatzeko, **Kokapen-datuak** atalean, hautatu **DesgaitutaEzarpenak** eremuan.
   - Kokapen-datuak ibiltaritzan desaktibatzeko, **Kokapen-datuak** atalean, hautatu **Ibiltaritzan desgaitutaEzarpenak** eremuan.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

### GPS teknologia aktibatu

Zure BlackBerry® smartphone-aren modeloaren eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke eginbide hau bateragarria ez izatea.

**Oharra:** Baliteke telefonoan agertzen diren GPS aukerak eta hemen agertzen diren berdin-berdinak ez izatea.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Kokapen ezarpenak**.
3. Hautatu **Kokapen zerbitzuak** eremuan **Kokapena aktibatuta**.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

GPS teknologia desaktibatzeko, hautatu **Kokapen zerbitzuak** eremuan **Kokapena desaktibatuta**.

## Erabiltzen duzun GPS hargailua zure mugimendua detekta dezan ezarri

Egitekoa burutzeko, GPS hargailu integraturik ez baduzu, BlackBerry® telefonoa Bluetooth® gaitutako GPS hargailu batekin parekatu behar duzu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Kokapen ezarpenak**.
3. Aldatu **GPS datu iturburua** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Besteek zure kokalekua ezagutzea eragotzi

Posta-kontuak BlackBerry® Enterprise Server badarabil, baliteke administratzailea BlackBerry telefonoaren kokapena ezagutzeko gai izatea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Kokapen ezarpenak**.
3. Hautatu **Kokapen zerbitzuak** eremuan **Kokapena desaktibatuta**.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Zure GPS kokapena lortu

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea. BlackBerry® smartphone-ak GPS hargailu integratu bat izan edo Bluetooth® gaitutako GPS hargailu batekin parekatuta egon behar du egitekoa burutzeko.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Kokapen ezarpenak**.
3. Sakatu tekla > **Freskatu kokapena**.

Zure uneko kokapenaren longitude eta latitude koordenatuak agertuko dira.

# Arazoak: GPS teknologia

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

## Ezin dut GPS teknologiarik erabili

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

Aire zabalean bazaude, urrundu eraikuntzetatik eta zuzendu BlackBerry® smartphone-a zerura. Eraikuntza baten barruan bazaude, hurbildu leiho batera.

Zure smartphone-a Bluetooth® gaitasuneko GPS hartzaile batekin parekatu baduzu, egiaztatu Bluetooth gaitasuneko GPS hartzailea aktibatuta dagoela. GPS teknologia lehen aldiz erabiltzen ari bazara, itxaron pixka bat smartphone-ak GPS kokapena eskuratu arte.

# Iparrorratza

## Nola: Iparrorratza

### Mapako kokapen bat iparrorratzetik ikusi

Aldi berean ikus ditzakezu iparrorratza eta kokapena mapa batean.

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, sakatu **Erlojua** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Mapako kokapena**.

Iparrorratza aplikaziora itzultzeko, sakatu tekla > **Itxi**.

### Helmuga batera nabigatu

Gidatzeko ibilbide batekin nabigatu beharrean norabidearen arabera nabigatzeko erabil dezakezu Iparrorratza aplikazioa, adibidez, errepiderik gabeko eremu batean bazaude edo oinez bazoaz helmugara.

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, sakatu **Erlojua** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Ezarri helmuga**.
   - Mapan helmuga aurkitzeko, kokatu kurtsorea mapan.
   - Kokapen jakin bat bilatzeko, idatzi helbidea edo latitudearen eta longitudearen koordenatuak **Bilatu** eremuan. Sakatu helmuga.
   - Leku interesgarri bat bilatzeko, adibidez, negozio bat edo mugarri bat, idatzi leku interesgarriaren informazioa **Bilatu** eremuan. Sakatu helmuga.
3. Sakatu tekla > **Hautatu kokapena**.

Helmugaren norabidea erakutsiko du iparrorratzak.

Iparrorratzetik helmuga garbitzeko, sakatu tekla > **Garbitu helmuga**.

### Iparrorratza eskuz kalibratu

Pantailaren behealdean "Kalibratu behar da" agertzen denean, iparrorratza eskuz kalibratu behar duzu iparrorratzak zehatzago irakurri dezan.

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, sakatu **Iparrorratza** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Kalibrazioa.**
3. Irauli eta okertu BlackBerry® telefonoa bribatzen duen arte.

# Arazoak: Iparrorratza

## Iparrorratza ez da zehatz irakurtzen ari

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Iparrorratzak ez badago iparrera begira, mugitu BlackBerry® telefonoa metaletatik edo imanetatik urruti.
- Pantailaren behealdean "Kalibratu behar da" agertzen bada, kalibratu iparrorratza eskuz.
- Metalek eta imanek iparrorratzean eraginik izan ez dezaten, itxi Iparrorratza aplikazioa ibilgailu batean sartu edo telefonoa zorroan sartu aurretik.

**Lotutako informazioa**

Iparrorratza eskuz kalibratu, 228

# Mapak

## Nola: Mapak

### Mapa baten panoramika hartu

Maparen panoramika lortzeko, BlackBerry® telefonoak modu panoramikoan egon behar du eta ez zoom moduan. Telefonoarenn modua maparen goialdean bistaratzen da.

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Telefonoa zoom moduan badago, sakatu nabigazio-tekla modu panoramikora aldatzeko.
3. Nabigazio-teklan, irristatu hatza edozein norabidetan.

### Mapak handiagotu edo txikiagotu

Mapa bat handitzeko edo txikitzeko, zoom moduan egon behar du BlackBerry® telofonoak eta ez, panoramika moduan. Telefonoaren modua maparen goialdean bistaratzen da.

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Telefonoa panoramika moduan badago, sakatu nabigazio-tekla zoom modura aldatzeko.
3. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Handiagotzeko, arrastatu hatza gora nabigazio-teklan.
   - Mapa bateko puntu bateraino handiagotu edo txikitzeko, sakatu tekla > **Zooma erabili puntu horretara arte**.
   - Txikiagotzeko, arrastatu hatza behera nabigazio-teklan.

### Kokapena mapa batean ikusi

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Bilatu kokapena**.
   - Leku interesgarri bat bilatzeko, adibidez, negozio edo mugarri bat, idatzi leku interesgarriaren informazioa, **Bilatu denda, kafetegia...** eremuan. Nabarmendu leku interesgarria.
   - Kokapen berri bat ikusteko, idatzi helbidea, **Bilatu helbidea** eremuan. Nabarmendu kokapena.
   - Kontaktu baten kokapena ikusteko, idatzi kontaktuaren izena **Bilatu denda, kafetegia...** eremuan. Nabarmendu kontaktuaren informazioa.
   - Kokapen gogoko bat ikusteko, nabarmendu kokapen bat **Gogokoak** atalean.
3. Sakatu tekla > **Ikusi mapan.**

Zure uneko kokapena ez den kokapen bat ikusten ari bazara, zauden lekutik kokapen horretarako jarraibideak lortzeko, sakatu tekla > **Hona nabigatu**. Egitekoa burutzeko, BlackBerry® telefonoa GPS hargailu integratu batekin edo Bluetooth® eginbidea gaituta duen GPS hargailu batekin parekatuta egon behar du.

# Helbide bat mapan ikusi esteka bat erabiliz

BlackBerry® telefonoak aplikazio zehatzetan helbideak ezagutzen dituenean, hala nola istanteko mezularitza aplikazioak eta MemoPad-a, telefonoak helbidea azpimarratzen du.

1. Nabarmendu azpimarratutako helbide bat.
2. Sakatu tekla > **Ikusi mapan.**

# Kokapen baten ondoko leku interesgarriak zerrenda batean ikusi

Leku interesgarriak, hala nola, enpresak edo erreferentzia puntuak bila ditzakezu. Adibidez, zure uneko kokapenetik gertu dauden kafetegiak bila ditzakezu.

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Bilatu kokapena**.
3. **Bilatu denda, kafetegia...** eremuan, idatzi leku interesgarria.
4. Sakatu teklatuko tekla.
5. Sakatu tekla > **Ikusi guztia mapan**.

# Kontaktu baten informazioa ikusi leku interesgarri bat bilatzeko

Kokapen-seinale gisa erakutsiko dira leku interesgarriak mapetan.

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Bilatu kokapena**.
3. **Bilatu denda, kafetegia...** eremuan, idatzi leku interesgarriaren informazioa.
4. Nabarmendu kokapena.
5. Sakatu tekla > **Bistaratu xehetasunak**.

# Gogokoen zerrendan kokapena gehitu

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Ikusi kokapena mapa batean.
3. Sakatu tekla > **Gehitu gogoko gisa** > **Ados**.

Gogoko kokapenen zerrenda ikusteko, sakatu > **Gogokoak**.

# Gogokoen zerrendako kokapen baten informazioa aldatu

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Sakatu > **Gogokoak**.
3. Nabarmendu kokapen bat.
4. Sakatu tekla > **Editatu gogokoa**.
5. Egin hauetako bat:

- **Etiketa** eremuan, idatzi kokapenarentzako izen berri bat.
- **Deskribapena** eremuan, idatzi kokapenaren deskribapen bat.

6. Sakatu **Ados**.

## Gogokoen zerrendatik kokapen bat ezabatu

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Sakatu > **Gogokoak**.
3. Nabarmendu kokapen bat.
4. Sakatu tekla> **Kendu gogokoetatik**.
5. Sakatu **Bai**.

## Eskuratu norabideak

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Eskuratu norabideak**.
3. Hasierako kokapena zehazteko, burutu ekintza hauetako bat:
   - Uneko kokapena zehazteko, zure BlackBerry® smartphone-ak barneko GPS hartzailea badu edo Bluetooth® gaitutako GPS hartzaile batekin parekatuta badago, hautatu **Hasi** eremuan **Nire kokapena**.
   - Une honetan mapan ikusten duzun kokapena zehazteko, hautatu **Hasi** eremuan **Erabili maparen erdialdea**. Gogoko kokapen bat ikusten ari bazara, sakatu helbidea.
   - Mapa batean kokapen berri bat zehazteko, hautatu **Hasi** eremuan **Hautatu mapatik**. Sakatu kokapena mapan.
   - Leku interesgarriak bilatzeko, hala nola, enpresak edo erreferentzia puntuak, hautatu **Hasi** eremuan **Aurkitu kokapena**. **Bilatu denda, kafetegia...** eremuan, idatzi leku interesgarriaren informazioa. Sakatu teklatuko tekla. Sakatu leku interesgarri bat.
   - Kontaktu baten helbidea zehazteko, hautatu **Hasi** eremuan **Aurkitu kokapena**. **Bilatu denda, kafetegia...** eremuan, idatzi leku interesgarriaren izena. Sakatu kontaktua.
   - Helbidea idatzita kokapen berria zehazteko, hautatu **Aurkitu kokapena** aukera **Hasi** eremuan. **Bilatu helbide bat** eremuan, idatzi helbidea. Sakatu teklatuko tekla. Sakatu kokapena.
   - Gogoko kokapen bat zehazteko, hautatu **Gogokoetatik** aukera **Hasi** eremuan. Zerrendan, sakatu gogoko kokapen bat.
4. Errepikatu 3. pausoa amaierako kokapena zehazteko.
5. Ibilbide aukerak aldatzeko, sakatu **Ibilbide aukerak**. Hautatu **Azkarrena** edo **Laburrena** aukera. Hautatu edo garbitu ibilbide aukera baten edo gehiagoren alboko kontrol-laukiak. Sakatu **Ados**.
6. Sakatu **Bilatu**.

## Kokapen bat bidali

Adibidez, kokapen bat mezu gisa bidal dezakezu, mezu elektroniko edo istanteko mezu batean. Bidaltzen duzun mezua kokapenari estekatzen zaio, hartzaileak kokapena mapa batean ikus dezan.

1. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Mapan ikusten ari zinen kokapena bidaltzeko, sakatu tekla.

- Zerrendan dagoen kokapena bidaltzeko, kokapen gogokoenen zerrenda esaterako, zoaz zerrendara. Nabarmendu kokapena. Sakatu tekla.

2. Sakatu **Bidali kokapena**.
3. Sakatu mezu mota bat.

## Kokapen bat kopiatu

1. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Mapa batean ikusten ari zaren kokapen bat kopiatzeko, sakatu tekla.
   - Zerrendako kokapen bat kopiatzeko, adibidez gogoko kokapenanen zerrenda bat, zoaz zerrendara. Nabarmendu kokapena. Sakatu tekla.
2. Sakatu **Kopiatu kokapena**.

Kokapena itsasteko, sakatu tekla > **Itsatsi**.

## Mapa garbitu

Mapa garbitzen duzunean, mapan agertzen den ibilbideari buruzko informazioa ez da agertuko.

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Mapa batean, sakatu > **Garbitu mapa**.

## Erabiltzen duzun GPS hargailua zure mugimendua detekta dezan ezarri

Egitekoa burutzeko, GPS hargailu integraturik ez baduzu, BlackBerry® telefonoa Bluetooth® gaitutako GPS hargailu batekin parekatu behar duzu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Kokapen ezarpenak**.
3. Aldatu **GPS datu iturburua** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Atzeko argia piztuta mantendu zure mugimendua detektatzen ari zarenean

Lehenespenez, argi kontra automatikoki itzaltzen da denbora muga batera iritsitakoan, bateria aurrezteko. Mapen aukerak alda ditzakezu mugimendua detektatzen ari zarenean atzeko argiak pizturik jarrai dezan, bateria maila ehuneko jakin batetik behera jaisten ez bada.

1. Hasierako pantailan, klikatu **Mapak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. Aldatu **Atzeko argiaren denbora-muga bateriaren maila hau denean** eremua.

4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**
Atzeko argiaren aukerak ezarri, 220

## Mapetako letra-tipoaren ezarpenak aldatu

Mapetako letra-tipoaren ezarpenak aldatzen dituzunean, gainerako aplikazioetako letra-tipoak ez dira aldatzen.

1. Mapa batean, sakatu tekla > **Aukerak**.
2. Sakatu **Mapa aukera orokorrak**.
3. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Aldatu **Letra-tipo lehenetsiaren familia** eremua.
   - Aldatu **Gutxieneko letra-tamaina** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Mapen neurketa-unitateak aldatu

1. Mapa batean, sakatu tekla > **Aukerak**.
2. Sakatu **Mapa aukera orokorrak**.
3. Aldatu **Neurketa-sistema** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Mapen bistaratze-hizkuntza aldatu

Mapen bistaratze-hizkuntza aldatzen baduzu, ez da gainerako aplikazioen hizkuntza-ezarpenik aldatuko.

1. Mapa batean, sakatu tekla > **Aukerak**.
2. Sakatu **Mapa aukera orokorrak**.
3. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Mapetako testua Ingelesez soilik ikusteko, hautatu **IngelesaMaparen bistaratze-hizkuntza** eremuan.
   - Mapetako testua ikusten ari zaren kokapeneko hizkuntzan ikusteko, hautatu **NazioartekoaMaparen bistaratze-hizkuntza** eremuan.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Arazoak: Mapak

## Zenbait eginbide ez daude erabilgarri nire telefonoan

Telefonoaren modeloak edo hari gabeko zerbitzu-planak eragina izan dezake BlackBerry® telefonoko eginbide batzuen erabilgarritasunean.

Mezularitza zerbitzu-planaren arabera, baliteke zenbait eginbide edo aukera erabilgarri ez egotea Mezu elektronikoen lehentasunak pantailako mezuen aukeretan.

Posta-kontuak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, baliteke enpresaren eginbide batzuk konfiguratu ez izana edo eginbide nahiz aukera batzuk zuretzat desgaitu izana. Administratzaileak aukera bat ezarri badu zuretzat, blokeo-adierazle bat agertuko da aukeraren eremuaren ondoan.

Telefonoan erabilgarri diren eginbideei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo bisitatu www.blackberry.com/go/devices helbidea.

**Lotutako informazioa**

Eginbideen erabilgarritasuna, 18

# Aplikazioak

## Nola: Aplikazioak

### Egiteko anitzei buruz

BlackBerry® telefonoak aldi bereko hainbat egiteko burutzea onartzen du, hots, aplikazio bat baino gehiago exekuta ditzake aldi berean. Adibidez, dei batean zehar egutegira sar zaitezke hitzorduak ikusteko edo Kontaktuak aplikaziora sar zaitezke kontaktu baten xehetasunak ikusteko. Edo, abesti bat erreproduzitzen ari zaren bitartean, Mezuak aplikaziora joan zaitezke mezu bati erantzuteko.

Aplikazio gehienek lasterbideak dituzte ohiko egitekoak azkar egin ahal izateko.

**Oharra:** Zenbat eta aplikazio gehiago izan abian aldi berean, orduan eta memoria eta bateria gehiago erabiliko ditu telefonoak. Telefonoaren errendimendua optimizatzeko, saiatu aplikazioak ixten erabiltzez amaitutakoan.

**Lotutako informazioa**

Aholkuak eta lasterbideak, 41
Aplikazio bat itxi atzean exekuta ez dadin, 237
Aplikazio bat exekutatzen utzi eta beste aplikazio batera aldatu, 237

### BlackBerry ID bat sortu

BlackBerry® ID bat sortzen duzunean, edozein helbide elektroniko erabil dezakezu BlackBerry IDarentzako; ez duzu zertan BlackBerry telefonoan gehitu duzun helbide elektronikorik erabili.

1. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Ordenagailuan, bisitatu www.blackberry.com/blackberryid. Sakatu **Erregistatu BlackBerry ID bat**.
   - Telefonoan eskatuz gero, sakatu **Sortu berria**.
2. Jarraitu pantailako jarraibideei.

### BlackBerry ID informazioa aldatu

Erabiltzaile-izena, pantailako izena, segurtasun-galdera eta erantzuna eta pasahitza alda ditzakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **BlackBerry ID**.
3. Aldatu eremuak.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Halaber, ordenagailutik ere alda dezakezu BlackBerry ID informazioa, www.blackberry.com/blackberryid helbidera joanda.

# Aplikazio bat exekutatzen utzi eta beste aplikazio batera aldatu

- Beste aplikazio batera aldatzeko, eduki sakatuta tekla aplikazio hautatzailea agertu arte. Sakatu aplikazio baten ikonoan. Zuk nahi duzun aplikazioaren ikonoa agertzen ez bada, sakatu **Hasiera** ikonoa eta nabigatu bilatzen ari zaren aplikazioaren ikonora.
- Dei bat egiten ari ez zarenean, hasierako pantailara itzultzeko, sakatu tekla.
- Dei bat egiten ari zarenean hasierako pantailara itzultzeko, eduki sakatuta tekla aplikazio hautatzailea agertu arte. Sakatu **Hasiera** ikonoa.

**Oharra:** Sakatzen baduzu tekla sakatzen baduzu deitzen ari zaren bitartean, deia amaituko duzu, nahiz eta aurretik beste aplikazio batera aldatu.

**Lotutako informazioa**

Aplikazio bat itxi atzean exekuta ez dadin, 237
Egiteko anitzei buruz, 236

# Aplikazio bat itxi atzean exekuta ez dadin

Zure BlackBerry® smartphone-aren errendimendua optimizatzeko, aplikazio bat erabiltzen amaitzen duzunean honakoa ixten saiatu.

Aplikazio batean, egin ekintza hauetariko bat:

- Sakatu tekla > **Itxi**.
- Sakatu tekla. Beharrezkoa bada, eduki sakatuta tekla hasierako pantaila agertu arte.

**Lotutako informazioa**

Aplikazio bat exekutatzen utzi eta beste aplikazio batera aldatu, 237
Egiteko anitzei buruz, 236

# Aplikazio bat gehitu aurretik zure smartphone-aren pasahitza eskatu

Zeregin hau burutzeko, BlackBerry® smartphone-aren pasahitza zehaztu behar duzu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Pasahitza**.
3. Markatu **Aplikazioaren instalazioaren abisua** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Aplikazio baten ezaugarrik ikusi

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Aplikazioaren kudeaketa**.
3. Sakatu aplikazio bat.

## Aplikazio bat ezabatu

Kontu elektronikoak BlackBerry® Enterprise Server erabiltzen badu, baliteke zure erakundeak zuri baimenik ez ematea aplikazio batzuk ezabatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, nabarmendu aplikazio baten ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

## Aplikazio bateko datu base baten tamaina ikusi

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Gailuaren eta egoeraren informazioa**.
3. Sakatu tekla > **Datu basearen tamainak**.

# Arazoak: aplikazioak

## Ezin dut aplikazio bat gehitu, eguneratu edo bere aurreko bertsiora itzuli

Zure kontu elektronikoak BlackBerry® Enterprise Server erabiltzen badu, baliteke zure erakundeak zuri baimenik ez ematea smartphone-ko aplikazioak gehitu edo eguneratzeko. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Ziurtatu telefonoak aplikazioa gehitzeko edo eguneratzeko behar adina memoria duela.

## Berriro nahi dudan aplikazioa ezabatu egin nuen

Deskargatu duzun aplikazio bat ezabatu baduzu, baliteke aplikazioa berrezartzea BlackBerry® telefonoan.

Saiatu ekintza hauetako bat:

- Aplikazioa BlackBerry App World™ erakusleihotik deskargatu bazenuen, sakatu hasierako pantailako **BlackBerry App World** ikonoa. Sakatu tekla > **Laguntza**.
- Aplikazioa BlackBerry® Desktop Software softwarearekin deskargatu bazenuen, aplikazioa berrezartzeko informazioa eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atala.
- Aplikazioa hari gabeko zerbitzu-hornitzailetik edo hirugarrenen enpresatik deskargatu bazenuen, aplikazioa berrezartzeko informazioa eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo hirugarren enpresarekin.

# Errore-mezuak: Telefonoa

**101 errorea**

Aplikazio-errore bat dagoenean agertzen da errorea.
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Berrezarri BlackBerry® telefonoa.
- Telefonoa berrezarrita ere erroreak agertzen jarraitzen badu, birkargatu BlackBerry® Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.

**102 errorea**

Aplikazio-errore bat dagoenean agertzen da errorea.
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Berrezarri telefonoa.
- Telefonoa berrezarrita ere erroreak agertzen jarraitzen badu, birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.

**200 errorea**

BlackBerry Device Software softwarearekin errore bat dagoenean agertzen da mezua
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Berrezarri telefonoa.
- Telefonoa berrezarrita ere erroreak agertzen jarraitzen badu, birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**205 errorea**

Telefonoaren segurtasun-zerbitzuak abiarazten ez direnean agertzen da mezua.
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**502 errorea**

Telefonoak abiarazteko prozesurik aurkitzen ez duenean agertzen da mezua.
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Berrezarri telefonoa.
- Telefonoa berrezarrita ere erroreak agertzen jarraitzen badu, birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.

**503 errorea**

Aplikazio-errore bat dagoenean agertzen da errorea.
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Berrezarri telefonoa.
- Telefonoa berrezarrita ere erroreak agertzen jarraitzen badu, birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.

**505 errorea**

BlackBerry Device Software eguneratzerakoan errore bat dagoenean agertzen da mezua
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**507 errorea**

Aplikazio-errore bat dagoenean agertzen da errorea.
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**513 errorea**

Telefonoa datuak ezabatzen ari dela telefonoa berrezartzen saiatzen zarenean agertzen da mezua. Telefonoak onartutako pasahitz-saiakera-kopurua gainditzen duzunean, telefonoak telefonoaren datuak ezabatzen ditu. Postak-kontuak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabiltzen badu, baliteke administratzaileak errore hau berriro agertzeko aukerak minimizatzeko aukerak aldatzeko gai izatea. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**517 errorea**

Telefonoaren hardwarearen eta softwarearen artean gatazka gertatzen denean agertzen da mezua. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**523 errorea**

BlackBerry Device Software softwarearekin errore bat dagoenean agertzen da mezua
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**529 errorea**

Sistema-errore bat dagoenean agertzen da errorea.
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**545 errorea**

Aplikazio-errore bat dagoenean agertzen da errorea.
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Berrezarri telefonoa.
- Telefonoa berrezarrita ere erroreak agertzen jarraitzen badu, birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**552 errorea**

Telefonoak aplikazio bat abiarazteko adina memoriarik ez duenean agertzen da mezua.
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**602 errorea**

Aplikazio-errore bat dagoenean agertzen da errorea.
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**603 errorea**

Aplikazio-errore bat dagoenean agertzen da errorea.

- Birkargatu BlackBerry Device Software. Birkargatzeko prozesuak telefonoko datuak ezabatzen ditu.
- BlackBerry Device Software birgakatuta ere erroreak agertzen jarraitzen badu, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

**Lotutako informazioa**

BlackBerry gailuen softwarea, 243
Segurtasunaren oinarrizko ezagutzak, 295
Berrezarri telefonoa, 279

## BlackBerry Device Software birkargatu BlackBerry Desktop Software erabiliz

BlackBerry® Device Software kargatu baino lehen, deskargatu eta instalatu BlackBerry® Desktop Software softwarearen bertsio berriena.

Baliteke BlackBerry Device Software birkargatu behar izatea, zenbait arazo tekniko konpontzeko. Ordubete arte iraun dezake BlackBerry Device Software birkargatzeak. Denbora horretan, ezin duzu BlackBerry telefonoa ordenagailutik deskonektatu.

**Oharra:** Baliteke telefonoko datuen babeskopia egiteko gai ez izatea, arazo teknikoak konpontzeko BlackBerry Device Software birkargatzen ari bazara, adibidez, aplikazio-errore bat.

1. Konektatu telefonoa ordenagailura.
2. Ireki BlackBerry Desktop Software.
3. BlackBerry Desktop Software softwarean, sakatu **Eguneratu**.
4. BlackBerry Device Software softwarearen bertsio berriena deskargatzeko, sakatu **Eskuratu eguneratzea**.
5. Egin hauetako bat:
    - Telefonoko datuen eta ezarpenen babeskopia gordetzeko, hautatu **Egin gailuko datuen babeskopia** kontrol-laukia. Softwareak birkargatzeaz amaitzen duenean, telefonoan gordeko da babeskopia. Datuen babeskopia egiten ez baduzu, softwarea birkargatzen duzunean ezabatu egingo dira telefonoko datuak, ezarpenak eta mezu elektronikoak.
    - Babeskopiaren datuak enkriptatzeko, sakatu **Enkriptatu babeskopia**.
    - BlackBerry Device Software bat bertsio eguneratua erabilgarri dagoenean mezu elektroniko bat jaso nahi baduzu, hautatu **Bidali mezu elektronikoa bertsio berriak erabilgarri daudenean** kontrol-laukia.
6. Sakatu **Instalatu eguneratzea**.

**Lotutako informazioa**

BlackBerry Device Software softwarea eguneratzeari buruz, 243

# BlackBerry gailuen softwarea

## Nola: BlackBerry Device Software softwarea

### BlackBerry Device Software softwarea eguneratzeari buruz

BlackBerry® Device Software softwarea eguneratu nahi izan dezakezu arrazoi hauetakoren batengatik:

- Aplikazio eta eginbide berrietara sartzeko
- Arazo teknikoak konpontzeko
- Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak BlackBerry Device Software eguneratzea eskatzen duelako.

Eguneratze prozesuaren iraupena 15 minutu eta 2 ordu artekoa izan daiteke, eguneratze motaren, smartphone-ko datuen kopuruaren, eta BlackBerry smartphone-ko aplikazioen kopuruaren arabera. Ezin duzu smartphone-a erabili edo larrialdi-deirik egin eguneratze prozesuan zehar. Ez kendu bateria eguneratzea abian den bitartean.

**Hari gabeko sarearen bitartez**
BlackBerry Device Software hari gabeko sarearen bitartez eguneratu dezakezu, zure smartphone-aren hasierako pantailan Software-eguneratzea ikonoa agertzen bada. Eguneratzeak eskuz ere bila ditzakezu smartphone-aren aukeretan. Erabilgarri dagoen eguneratzea software osoaren eguneratzea edo edo softwarearen zati baten eguneratzea izan daiteke. Erabilgarri dagoen eguneratzea software osoaren eguneratzea bada, zure smartphone-a datuen babeskopia gordetzen du smartphone-ak eta instalazio prozesuan zehar leheneratzen du. Baliteke zure hari gabeko zerbitzuaren hornitzaileak edo administratzaileak BlackBerry Device Software eguneratzen ez uztea hari gabeko sare baten bitartez edo sareko trafiko asko dagoenean. Zure hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, gastu gehigarriak aplika ditezke eguneratzea smartphone-ra deskargatzen duzunean.

**Webgune batetik**
BlackBerry Device Software eguneratu dezakezu smartphone-a ordenagailura konektatuz eta www.blackberry.com/update webgunea bisitatuz. Zure laneko posta elektronikoak BlackBerry® Enterprise Server erabiltzen badu, baliteke administratzaileak ez uztea BlackBerry Device Software webgune batetik eguneratzen.

**BlackBerry Desktop Software erabiliz**
BlackBerry Desktop Software softwarea ordenagailuan instalatu baduzu, BlackBerry Device Software ordenagailutik eguneratu dezakezu. BlackBerry Device Software ordenagailutik eguneratzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atala.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

# BlackBerry Device Software softwarea webgune batetik eguneratu

Kontu elektronikoak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, baliteke egiteko hau ezin burutzea. Egiaztatu administratzailearekin zein BlackBerry® Device Software eguneratze onartu diren zure enpresan erabiltzeko.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

1. Ordenagailutik bisitatu www.blackberry.com/update helbidea.
2. Sakatu **Bilatu eguneratzeak**.
3. Konektatu BlackBerry telefonoa ordenagailura.
4. Jarraitu pantailako jarraibideei.

**Lotutako informazioa**

Telefonoko datuen babeskopiak egin eta berrezartzeari buruz, 181
Nire telefonoak ez dauka BlackBerry Device Software eguneratzeko adina memoria, 247

# BlackBerry Desktop Software erabiliz BlackBerry Device Software softwarea eguneratu.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

Konektatu BlackBerry® telefonoa ordenagailura eta ireki BlackBerry® Desktop Software. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atala.

**Lotutako informazioa**

Telefonoko datuen babeskopiak egin eta berrezartzeari buruz, 181
Nire telefonoak ez dauka BlackBerry Device Software eguneratzeko adina memoria, 247

# BlackBerry Device Software hari gabeko sarean eguneratu

BlackBerry® smartphone-a erabil dezakezu BlackBerry® Device Software deskargatzen duzun bitartean, baina ez softwarea instalatzen duzun bitartean. Instalazio prozesuan zehar, telefonoa berrezarri daiteke edo pantaila zuri bat ager daiteke. Enkriptatzea aktibatuta badago, baliteke hainbat aldiz pasahitza sartu behar izatea instalazio prozesuan zehar.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

1. Hasierako pantailan, sakatu ikonoa. Ez baduzu ikonoa, hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Softwarearen eguneratzeak**.
2. Jarraitu pantailako jarraibideei.

**Lotutako informazioa**

Telefonoko datuen babeskopiak egin eta berrezartzeari buruz, 181
Ezin dut BlackBerry Device Software softwarea eguneratu hari gabeko sarearen bidez, 246
Nire telefonoak ez dauka BlackBerry Device Software eguneratzeko adina memoria, 247

# Bertsio beheratu edo itzuli BlackBerry Device Software softwarearen aurreko bertsiora, hari gabeko sarearen bidez

Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak edo administratzaileak ezarritako aukeren arabera, baliteke egiteko hau ezin burutzea.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Softwarearen eguneratzeak**.
   - Duela gutxi eguneratu baduzu BlackBerry® Device Software, softwarearen aurreko bertsiora itzultzeko, sakatu tekla > **Ikusi emaitza** > **Bertsio beheratu**.
   - Softwarearen bertsio zaharrago batera bertsio beheratzeko, mugitu ikonoa alboan duen softwarearen bertsiora. Sakatu **Burutu bertsio beheratzea**. Jarraitu pantailako argibideak.

# BlackBerry Device Software softwarearen aurreko bertsioa ezabatu

Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak edo administratzaileak ezarritako aukeren arabera, baliteke egiteko hau ezin burutzea.

Duela gutxi BlackBerry® Device Software hari gabeko sarearen bidez eguneratu baduzu, baliteke softwarearen aurreko bertsioa denbora-tarte baterako BlackBerry telefonoan gordeta geratzea. Telefonoaren aplikazio-memoria areagotu nahi baduzu, bertsio zaharra ezaba dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Softwarearen eguneratzeak**.
3. Sakatu tekla > **Ikusi emaitza**.
4. Sakatu tekla > **Ezabatu aurreko bertsioaren datuak**.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut BlackBerry Device Software softwarea eguneratu hari gabeko sarearen bidez, 246
Nire telefonoak ez dauka BlackBerry Device Software eguneratzeko adina memoria, 247

## Hautazko BlackBerry Device Software eguneratze bat ezkutatu edo erakutsi

Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak edo administratzaileak ezarritako aukeren arabera, baliteke egiteko hau ezin burutzea.

BlackBerry® Device Software-aren eguneratze bat hautazkoa bada, eguneratzea Software-eguneratzeak pantailan ezkutatu eta Software-eguneratzea ikonoa ezkuta dezakezu. Derrigorrezko eguneratzeak ezin dira ezkutatu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Softwarearen eguneratzeak**.
    - Hautazko eguneratze bat ezkutatzeko, nabarmendu software-bertsio bat. Sakatu tekla > **Ezkutatu**.
    - Ezkutatutako eguneratze guztiak erakusteko, sakatu tekla > **Erakutsi guztiak.**

**Lotutako informazioa**

Ezin dut BlackBerry Device Software softwarea eguneratu hari gabeko sarearen bidez, 246
Nire telefonoak ez dauka BlackBerry Device Software eguneratzeko adina memoria, 247

## Telefonoaren modelo-zenbakia eta BlackBerry Device Software softwarearen bertsioa bilatu

Burutu ekintza hauetako bat:

- Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Gailuaren bertsioei buruz**.
- Idazketa-hizkuntzak onartuz gero, idatzi **nirebertsioa** eta zuriune bat mezu edo memorandum batean.

# Arazoa: BlackBerry Device Software

## Ezin dut BlackBerry Device Software softwarea eguneratu hari gabeko sarearen bidez

Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak edo administratzaileak ezarritako aukeren arabera, baliteke zure BlackBerry® Device Software softwarea hari gabeko sarearen bidez eguneratu ezin izatea.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry telefonoa hari gabeko sare batera konektatuta dagoela.
- Egiaztatu telefonoak memorian leku nahikoa duela BlackBerry Device Software softwarea eguneratzeko.
- Egiaztatu ez zaudela hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen estalduratik kanpo ibiltaritzan zaudenean. Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke BlackBerry Device Software softwarea eguneratu ezin izatea ibiltaritzan zaudenean. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin.

- Saiatu geroago BlackBerry Device Software softwarea eguneratzen hari gabeko sarearen bidez. Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke BlackBerry Device Software softwarea ezin eguneratzea eguneko une batzuetan, sareko trafikoa handiagoa dagoenean.
- Saiatu hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen webgunea bisitatzen, beharbada handik zure BlackBerry Device Software eguneratu ahalko duzu eta.

## Nire telefonoak ez dauka BlackBerry Device Software eguneratzeko adina memoria

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Ezabatu erabiltzen ez dituzun pantailako hizkuntzak, gaiak edo hirugarrenen aplikazioak.
- Ezabatu behar ez dituzun mezuak eta egutegiko sarrerak.
- Ezabatu arakatze-informazioa.

# Kudeatu konexioak

## Sare mugikorra

### Nola: Sare mugikorra

#### Kudeatu konexioak begirada batean




#### Telefonoa zein hari gabeko sareetara konektatzen den egiaztatu

BlackBerry® telefonoa zein sare motara konektatzen den telefonoan bertan egiazta dezakezu edo www.blackberry.com/go/devices webgunea bisitatu dezakezu, telefonoaren modeloaren eginbideen xehetasunak ikusteko. Zerrendatutako sareen motak ez ditu sare-konexioak islatzen; telefonoaren modeloa sare horietara konekta daitekeela baizik.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Gailuaren bertsioei buruz**. Telefonoa konekta daitekeen sare motak parentesi artean azaltzen dira telefono-modeloaren ondoan.

Telefonoa konektatzen den hari gabeko sareei buruzko informazio gehiagorako, ikus *Segurtasun eta produktuaren informazioa* zure telefonoarentzako liburuxka.

**Lotutako informazioa**

Ezin zaiz GSM edo UMTS sare batera konektatu, 0

## Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu

Zenbait tokitan sare-konexioak desaktibatuta mantendu behar dituzu, adibidez, hegazkinetan edo ospitaletan. Informazio gehiagorako, ikus *Segurtasun eta produktuaren informazioa* liburuxka, BlackBerry® telefonoarekin zetorrena.

Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.

- Sare-konexioa aktibatzeko, hautatu konexio motaren alboko kontrol-laukia.
- Sare-konexioa desaktibatzeko, garbitu konexio mota baten alboko kontrol-laukia.
- Lehenago aktibatutako sare-konexioak aktibatzeko, sakatu **Berrezarri konexioak**.

**Lotutako informazioa**

Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu, 262
Ezin dut sare mugikorrera konektatu, 254
Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu, 262

## Hegazkin-modua aktibatu edo desaktibatu

Zenbait tokitan sare-konexioak desaktibatuta mantendu behar dituzu, adibidez, hegazkinetan edo ospitaletan. Informazio gehiagorako, ikus *Segurtasun eta produktuaren informazioa* liburuxka, BlackBerry® telefonoarekin zetorrena.

Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.

- Hegazkin-modua aktibatzeko, sakatu **Desaktibatu guztiak**.
- Hegazkin-modua desaktibatzeko, sakatu **Berrezarri konexioak**.

**Lotutako informazioa**

Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249
Datu zerbitzuak aktibatu edo desaktibatu edo ibiltaritza aukerak konfiguratu, 250

## Sare-konexioen eta -zerbitzuen egoera egiaztatu

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Zerbitzuen egoera**.

## Ibiltaritza

## Ibiltaritzari eta nazioarteko ibiltaritzari buruz

Kasu gehienetan, BlackBerry® telefonoa automatikoki konektatzen da hari gabeko sare egokira zerbitzu-hornitzailearen estaldura eremutik kanpora bidaiatzen duzunean. Zenbaitetan saio hasteko informazio eman behar izan dezakezu hari gabeko sare batera sartu ahal izateko. Ibiltaritzan zaudenean, hiruki formako ibiltaritza adierazlea agertzen da hasierako pantailaren goialdean.

Telefonoak SIM txartela behar badu, agian hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak SIM txartela konfiguratu beharko du ibiltaritzan erabili ahal izateko.

Telefonoa, normalean, CDMA sare batera konektatzen bada eta telefonoa nazioarteko ibiltaritza onartzen badu, agian nazioarteko ibiltaritza onartzen duen SIM txartel bat lortu beharko duzu hari gabeko zerbitzu-hornitzailearengandik. Zure telefono zenbakia ez da aldatzen atzerrira bidaiatzen duzunean.

Ibiltaritzari eta ibiltaritzako tarifei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri zure hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin harremanetan.

## Hari gabeko sareak eskuz aldatu

Egitekoa burutzeko, hari gabeko zerbitzu-planak zerbitzu hori barruan hartu behar du eta BlackBerry® telefonoa GSM® edo UMTS® sare batera konektatuta egon behar du.

Telefonoa bidaiatzen duzunean hari gabeko sare egoki batera konektatzeko diseinatu da.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Sare mugikorra**.
3. Aldatu **Sarea hautatzeko modua** eremua **Eskuzkoa** jarri dezan.
4. Sakatu hari gabeko sare bat.
5. Sakatu tekla > **Itxi**.

Zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen hari gabeko sarera berriro konektatzeko, ezarri **Sarea hautatzeko modua** eremua **Automatikoa** gisa.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut sare mugikorrera konektatu, 254

## Datu zerbitzuak aktibatu edo desaktibatu edo ibiltaritza aukerak konfiguratu

Haririk gabeko zerbitzu planaren arabera, baliteke gai izatea datu-zerbitzuak (mezu elektronikoak, PIN mezuak, eranskindun testu-mezuak eta arakatzaile-zerbitzua) BlackBerry® telefonoan desaktibatzeko. Modu horretan, telefonoa eta oinarrizko testu-mezularitza soilik egongo da erabilgarri. Halaber, ibiltaritzan datu zerbitzuak desaktiba ditzan ezar dezakezu telefonoa; horrek ibiltaritzagatiko kostu gehigarriak aplikatzea saihestuko du. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Sare mugikorra**.
3. Burutu ekintza hauetako bat:
   - Datu zerbitzuak aktibatzeko edo desaktibatzeko, aldatu **Datu zerbitzuak** eremua.
   - Ibiltaritzan zaudenean datu zerbitzuak aktibatzeko edo desaktibatzeko, aldatu **Ibiltaritzan** eremua.
   - Ibiltaritzan zaudenean datu zerbitzuak aktibatzea edo desaktibatzea baimentzen duen gonbit bat jasotzeko, ezarri **Ibiltaritzan** eremua **Abisatu** gisa
4. Sakatu tekla > **Itxi**.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut sare mugikorrera konektatu, 254
Datu-zerbitzua ez dago erabilgarri, 254

# Hari gabeko sare hobetsien zerrenda

## Kablerik gabeko sareen zerrenda hobetsiari buruz

Zure kablerik gabeko zerbitzu hornitzaileak akordioak izan ditzake kablerik gabeko beste hornitzaileekin, bidaiatzen duzunean zerbitzua erabiltzeko aukera izan dezazun. Kablerik gabeko sare hobetsien zerrenda erabili dezakezu zure BlackBerry® telefonoak kablerik gabeko beste sare horiek zein ordenatan erabiltzen dituen kontrolatzeko.

Telefonoa kablerik gabeko sareen zerrendako ordenaren arabera saiatzen da kablerik gabeko sareetara konektatzen. Bidaiatzen duzunean, telefonoak zerrendan dauden sareak eskaneatzen ditu lehenik. Zerrendako sarerik erabilgarri ez dagoenean, telefonoa erabilgarri dagoen kablerik gabeko beste sare batera automatikoki konektatzeko diseinatu da.

**Oharra:** Normalean, prezioak igotzen dira ibiltaritzan zudenean. Ibiltaritzako prezioei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure kablerik gabeko zerbitzu hornitzailearekin.

## Hari gabeko sare hobetsien zerrendan hari gabeko sare bat gehitu

Egitekoa burutzeko, BlackBerry® telefonoa GSM® edo UMTS® sare batera konektatuta egon behar du.

Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke eginbide hori ez onartzea.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Sare mugikorra**.
3. Sakatu tekla > **Nire sare hobetsien zerrenda**.
4. Sakatu tekla > **Gehitu sarea**.
    - Gehitzeko hari gabeko sare bat bilatzeko, sakatu **Hautatu erabilgarri dauden sareen artean**. Sakatu hari gabeko sare bat. Sakatu **Hautatu sarea**.
    - Telefonoak ezagutzen duen hari gabeko sare bat bilatzeko, sakatu **Hautatu sare ezagunen artean**. Sakatu hari gabeko sare bat. Sakatu **Hautatu sarea**.
    - Hari gabeko sare bat gehitzeko, sakatu **Eskuzko sarrera**. Ezarri hari gabeko sarearen lehentasuna. Idatzi MCCa eta MNCa.
5. Sakatu tekla > **Itxi**.

**Lotutako informazioa**

Ezin zaiz GSM edo UMTS sare batera konektatu, 0

## Hari gabeko sare hobetsien zerrendatik hari gabeko sareak ezabatu

Egitekoa burutzeko, BlackBerry® telefonoa GSM® edo UMTS® sare batera konektatuta egon behar du.

Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke eginbide hori ez onartzea.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Sare mugikorra**.
3. Sakatu tekla > **Nire sare hobetsien zerrenda**.
4. Nabarmendu hari gabeko sareren bat.

5. Sakatu tekla > **Ezabatu**.
6. Sakatu tekla > **Itxi**.

## Sare hobetsien ordena aldatu

Egitekoa burutzeko, BlackBerry® telefonoa GSM® edo UMTS® sare batera konektatuta egon behar du.

Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke eginbide hori ez onartzea. Hobetsitako sareen zerrendan agertzen den ordenaren arabera konektatzen da telefonoa sarera.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Sare mugikorra**.
3. Sakatu tekla > **Nire sare hobetsien zerrenda**.
4. Nabarmendu hari gabeko sareren bat.
5. Sakatu tekla > **Mugitu**.
6. Sakatu kokapen berria.
7. Sakatu tekla > **Itxi**.

## Kablerik gabeko sarearen konexio abiadura aldatu

Konexio abiadura igotzeak bateria-energia gehiago kontsumitzen du.
Zure kablerik gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke zure kablerik gabeko konexioaren abiadura ezin aldatzea.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Sare mugikorra**.
3. Aldatu **Sarearen modua** eremua.
4. Sakatu tekla > **Itxi**.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut sare mugikorrera konektatu, 254

## Hari gabeko estalduraren LED jakinarazpena aktibatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Bistaratzea** > **Pantaila bistaratzea**.
3. Hautatu **LED estalduraren adierazlea** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

BlackBerry® telefonoa hari gabeko sare batera konektatuta dagoenean, LED argia distira berdea du.

Hari gabeko estalduraren jakinarazpena desaktibatzeko, garbitu **LED estalduraren adierazlea** kontrol-laukia.

## Hari gabeko estalduraren adierazleak

Hasierako pantailan, goi-eskuinaldean agertzen diren adierazleek erakusten dute BlackBerry® telefonoa erabiltzen ari zaren eremuko hari gabeko estaldura maila. Hari gabeko estaldura eremuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

| Adierazlea | Deskribapena |
|---|---|
| | Hari gabeko seinalearen indarrari buruzko informazioa ematen du. Hiru barra edo gehiagok seinale indartsua erakusten dute. Seinale ahulak bateriaren kontsumoa areagotzea suposa dezake, telefonoa seinale ahulera konektatzen saiatzen bada. |
| 3G, 4G, H+, EDGE, GPRS, NXTL, MIKE edo NTWK | Sare mugikor batera konektatuta zaude eta hainbat eginbidetara sar zaitezke, hala nola mezularitza elektronikora eta Internet arakatzailera. Adierazletako bat ikusten baduzu, hari gabeko estaldura murriztuko eremu batean egon zaitezke eta baliteke, bertan, hainbat eginbide erabilgarri ez egotea (baliteke ezin telefono-dei bat egin ezin izatea edo SMS testu mezu bat bidaltzea). |
| SOS | Larrialdi-zenbakietara soilik dei dezakezu. |
| X | Ez zaude hari gabeko estaldura eremu batean. |
| OFF | Sare mugikorrerako konexioa desaktibatuta dago. |
| | Wi-Fi® sare batean konektatuta zaude eta zenbait BlackBerry zerbitzutara sar zaitezke, adibidez, mezularitza elektronikora eta Wi-Fi konexio bidez Internet bidez arakatzea. |
| | Wi-Fi konexioa aktibatuta dago, baina ez zaude Wi-Fi sare batera konektatuta; edo Wi-Fi sare batera konektatuta zaude, baina ezin duzu hainbat BlackBerry zerbitzutara sartu, adibidez, mezularitza elektronikora edo Wi-Fi konexio bidez Internet bidez arakatzea. |
| | Zure Bluetooth® konexioa aktibatuta dago eta Bluetooth-a gaitutako gailu batera konektatuta zaude. |
| | Zure Bluetooth-a konexioa aktibatuta dago, baina ez zaude Bluetooth-a gaitutako gailu batera konektatuta. |
| | NFC konexioa aktibatuta dago. |

**Lotutako informazioa**

Larrialdi-deiei eta larrialdi-atzeradei moduari buruz, 58

# Arazoak: sare mugikorra

## Ezin dut sare mugikorrera konektatu

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- BlackBerry® telefonoak SIM txartel bat badarabil, ziurtatu SIM txartela behar bezala sartu duzula telefonoan.
- Telefonoa, normalean, CDMA sarera konektatzen bada eta nazioarteko ibiltaritza onartzen badu, ziurtatu telefonoa ibiltaritza modu orokorrean dagoela eta SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Egiaztatu hari gabeko sarerako konexioa aktibatuta duzula.
- Egiaztatu hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen sarera konektatuta zaudela. Hari gabeko sareak eskuz aldatzen badituzu, telefonoak sare horretara konektatuta jarraituko du hari gabeko zertzitzu-hornitzailearen sarea berriro hautatzen duzun arte.
- Hari gabeko sareen konexioetarako abiadura jakin bat zehaztu baduzu, egiaztatu abiadura hura onartzen duen hari gabeko sare baten estaldurapean zaudela.

**Lotutako informazioa**

Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249
Hari gabeko sareak eskuz aldatu, 250
Datu zerbitzuak aktibatu edo desaktibatu edo ibiltaritza aukerak konfiguratu, 250
Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249

## Errore mezuak

## Datu-zerbitzua ez dago erabilgarri

**Deskribapena**
BlackBerry® telefonoko datu-zerbitzuetara sarbiderik ez duzunean agertzen da mezua.

**Balizko arazoak**
Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu hari gabeko sare baten estaldurapean zaudela.
- Egiaztatu telefonoko datu-zerbitzua aktibatuta dagoela.
- Ibiltaritzan bazaude, egiaztatu ibiltaritzan sar zaitezkeela datu-zerbitzuetara.

**Lotutako informazioa**

Datu zerbitzuak aktibatu edo desaktibatu edo ibiltaritza aukerak konfiguratu, 250

# Wi-Fi teknologia

BlackBerry® telefono-modeloaren arabera, baliteke Wi-Fi® eginbidea bateragarria ez izatea.

# Nola: Wi-Fi teknologia

## Telefonoa zein hari gabeko sareetara konektatzen den egiaztatu

BlackBerry® telefonoa zein sare motara konektatzen den telefonoan bertan egiazta dezakezu edo www.blackberry.com/go/devices webgunea bisitatu dezakezu, telefonoaren modeloaren eginbideen xehetasunak ikusteko. Zerrendatutako sareen motak ez ditu sare-konexioak islatzen; telefonoaren modeloa sare horietara konekta daitekeela baizik.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Gailuaren bertsioei buruz**. Telefonoa konekta daitekeen sare motak parentesi artean azaltzen dira telefono-modeloaren ondoan.

Telefonoa konektatzen den hari gabeko sareei buruzko informazio gehiagorako, ikus *Segurtasun eta produktuaren informazioa* zure telefonoarentzako liburuxka.

**Lotutako informazioa**

Ezin zaiz GSM edo UMTS sare batera konektatu, 0

## Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu

Zenbait tokitan sare-konexioak desaktibatuta mantendu behar dituzu, adibidez, hegazkinetan edo ospitaletan. Informazio gehiagorako, ikus *Segurtasun eta produktuaren informazioa* liburuxka, BlackBerry® telefonoarekin zetorrena.

Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.

- Sare-konexioa aktibatzeko, hautatu konexio motaren alboko kontrol-laukia.
- Sare-konexioa desaktibatzeko, garbitu konexio mota baten alboko kontrol-laukia.
- Lehenago aktibatutako sare-konexioak aktibatzeko, sakatu **Berrezarri konexioak**.

**Lotutako informazioa**

Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu, 262
Ezin dut sare mugikorrera konektatu, 254
Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu, 262

## Sare-konexioen eta -zerbitzuen egoera egiaztatu

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Zerbitzuen egoera**.

# Wi-Fi sare batera konektatu

## Wi-Fi sareetara konektatzeari buruz

Wi-Fi® teknologiarekin BlackBerry® telefonoak Interneterako sarbidea du hari gabeko bideratzaile edo hari gabeko sarbide puntu batera konektatzerakoan, etxean, lanean edo hotspot eremu batean. Telefonoak sare mugikorra erabili beharrean Wi-Fi sarea erabiltzen du web-orriak bisitatzeko, mezu elektronikoak bidali eta jasotzeko eta abarretarako. Internetera Wi-Fi sare baten bidez konektatzen zarenean, baliteke mugikorreko sarea erabiltzearen ondoriozko tarifa osagarriak ez aplikatzea eta, gehienetan, konexioaren abiadura azkarragoa da.

Hotspot-ak leku publiko askotan daude erabilgarri, hala nola, liburutegiak, aireportuak, hotelak, kafetegiak, etab. Hotspot batzuk doakoak dira, beste batzuetarako ordaindu behar da. Agian hari gabeko zerbitzu hornitzaileak aplikazio bat emango dizu telefonoa sare publikoetara konektatzeko. Telefonoan horrelako aplikaziorik ez baduzu, agian zerorrek konfiguratu beharko duzu kontua linean eta saioa eskuz hasi beharko duzu.

Wi-Fi Protected Setup™ onartzen duen sarbidea edo bideratzailea baduzu, bertara konekta zaitezke Wi-Fi Protected Setup erabiliz.

Wi-Fi sare batera konektatzen zarenean, telefonoak konexioaren informazioa gordeko du. Horrela, automatikoki konektatuko da sare horretara telefonoa sare horren estaldurapean dagoen hurrengo aldian.

## Wi-Fi sare batera konektatu

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi**.
3. Hotspot publiko edo autentifikaziorik behar ez duen Wi-Fi® sare batera konektatu nahi baduzu, hautatu **Erakutsi sare irekiak soilik** kontrol-laukia.
4. Sakatu konektatu nahi duzun Wi-Fi sarea.
5. Wi-Fi sareak autentifikazioa behar badu, idatzi sarearen pasahitza.

Wi-Fi sarearen izena hasierako pantailaren goialdean agertuko da.

**Lotutako informazioa**
Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu, 262

## Konektatu Wi-Fi sare batera Wi-Fi Protected Setup konfigurazioa erabiliz

Wi-Fi Protected Setup™ konfigurazioa duen bideratzaile edo hari gabeko sarbide puntu bat baduzu, Wi-Fi® sarera azkar konekta zaitezke pasahitz luzea sartu beharrik gabe.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi** > **Konektatzeko beste modu batzuk**.
    - Zure bideratzaileko edo sarbide puntuko Wi-Fi Protected Setup botoia erabiltzeko, sakatu **Sakatu bideratzaileko botoia**. Bideratzailean edo sarbide puntuan, sakatu Wi-Fi Protected Setup botoia. BlackBerry® telefonoan, sakatu **Hasi**.
    - PIN bat erabiltzeko, sakatu **Idatzi PIN zenbakia bideratzailean**. Telefonoan, sakatu **Hasi**. Telefonoak PIN bat emango dizu. Zure bideratzaileko edo sarbide puntuko administrazio pantailan, idatzi PINa.

## Wi-Fi sare batera eskuz konektatu

Konektatu nahi duzun Wi-Fi® sarearen izena badakizu, sarera eskuz konekta zaitezke.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi** > **Konektatzeko beste modu batzuk** > **Konektatu eskuz sarera**.
3. **SSID** eremuan, idatzi Wi-Fi sarearen izena.
4. Sakatu **Hurrengoa**.
5. **Segurtasun mota** eremuan, sakatu Wi-Fi sarearen segurtasun mota eta zehaztu eskatutako edozein informazio.
6. Sakatu **Gorde eta konektatu**.

**Lotutako informazioa**

Gordetako Wi-Fi sareentzako aukerak, 258
Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu, 262

## Gordetako Wi-Fi sareak

### Gordetako Wi-Fi sare bat aldatu, mugitu edo ezabatu

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi** > **Gordetako Wi-Fi sareak**.
3. Nabarmendu gordetako Wi-Fi® sare bat.
4. Sakatu tekla.
   - Gordetako sarearen aukerak aldatzeko, sakatu **Editatu**. Aldatu aukerak. Sakatu **Gorde**.
   - Gordetako sarea mugitzeko eta BlackBerry® telefonoak zuk gordetako sareetara konektatzeko jarraituko duen ordena aldatzeko, sakatu **Mugitu**. Sakatu kokaleku berri bat.
   - Gordetako sarea ezabatzeko, sakatu **Ezabatu**.

**Lotutako informazioa**

Gordetako Wi-Fi sareentzako aukerak, 258

### Telefonoa gordetako Wi-Fi sare batera konektatzea eragotzi

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Konfiguratu Wi-Fi** > **Gordetako Wi-Fi sareak**.
3. Nabarmendu gordetako Wi-Fi® sare bat.
4. Sakatu tekla > **Desgaitu**.

### Agertzen den hotspot-entzako galdera aktibatu edo desaktibatu

Besterik adierazi ezean, BlackBerry® telefonoak hotspot gunea izan daitekeen gordetako Wi-Fi® sarearen eskumenean zaudela abisatzen du. Gonbit hauek desaktibatzen badituzu, berriro aktiba ditzakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Wi-Fi sarea**.
3. Sakatu tekla > **Aukerak**.

- Agertzen den hotspot-entzako galdera aktibatzeko, hautatu **Galde nazazu gordetako hotspot bat inguruan aurkitzen denean** kontrol-laukia.
- Agertzen den hotspot-entzako galdera desaktibatzeko, garbitu **Galde nazazu gordetako hotspot bat inguruan aurkitzen denean** kontrol-laukia.

4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Gordetako Wi-Fi sareentzako aukerak

### Aukera arruntak

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| Izena | Idatzi Wi-Fi® sarearen bistaratzeko izena. |
| SSID | Idatzi Wi-Fi sarearen izena. |
| Segurtasun mota | Ezarri Wi-Fi sareak onartzen duen segurtasun mota. |
| Banda mota | Ezarri Wi-Fi sare mota. Sare mota zein den ez badakizu, ez aldatu eremu hau. |
| SSID igorri da | Zehaztu Wi-Fi sareak bere SSID igortzen duen ala ez. |
| Automatikoki lortu IP helbidea eta DNS-a | Zehaztu BlackBerry® telefonoak bideratzaile bidezko IP bat, azpisare maskara, DNS ezarpenak eta atebide helbide bideragarriak Wi-Fi saretik jasotzen dituen ala ez. |
| Baimendu interneterako sarbide puntua transferitzea | Zehaztu hari gabeko puntu batetik bestera aldatzen zarenean telefonoa Wi-Fi sarera konektatuta mantendu behar den ala ez. |
| VPN profila | Beharrezkoa bada, VPN profil bat ezarri gordetako Wi-Fi profila erabiltzeko. |
| IP helbidea | Idatzi telefonoaren IP helbide bat. |
| Azpisare maskara | Idatzi telefonoa konektatuko den hari gabeko sarbide puntuaren azpisare maskara. |
| Lehen mailako DNS | Idatzi telefonoa konektatuko den lehen mailako DNS. |
| Bigarren mailako DNS | Idatzi telefonoa konektatuko den bigarren mailako DNS. |
| Atebidearen helbide lehenetsia | Idatzi telefonoa konektatuko den lehenetsitako atebide IP helbidea. |
| Domeinuaren atzizkia | Idatzi telefonoak ostalarien izenak IP helbide bihurtzeko erabiltzen duen domeinua. |

### WEP aukerak

WEP segurtasun mota aukeratu baduzu agertuko dira aukera horiek.

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| Hautatu WEP gakoa | Ezarri Wi-Fi sarearen WEP gakoa. |
| WEP gakoa | Idatzi Wi-Fi sarearen WEP gakoa formatu hamaseitarrean. |

**WPA/WPA2 Pertsonala aukerak**
WPA/WPA2 Pertsonala segurtasun mota aukeratu baduzu agertuko dira aukera horiek.

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| Pasaesaldia | Beharrezkoa bada, idatzi WPA™ edo WPA2™-Personal pasaesaldi pertsonala Wi-Fi sarera konektatzeko. |

**WPA/WPA2 Enpresa aukerak**
WPA/WPA2 Enpresa segurtasun mota aukeratu baduzu agertuko dira aukera horiek.

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| Enpresa azpi-mota | Beharrezkoa bada, ezarri enpresa segurtasunerako metodoa Wi-Fi sarerako. |
| Erabiltzaile izena | Beharrezkoa bada, idatzi Wi-Fi sarera konektatzeko erabiltzen duzun erabiltzailearen izena. |
| Pasahitza | Beharrezkoa bada, idatzi Wi-Fi sarera konektatzeko erabiltzen duzun pasahitza. |
| CA ziurtagiria | Ezarri telefonoak erabili behar duen erro-ziurtagiria Wi-Fi sarera konektatzen ari dela egiaztatzeko. |
| Bezeroaren ziurtagiria | Ezarri telefonoak Wi-Fi sarera konektatzeko erabili behar duen autentifikazio ziurtagiria. |
| Barneko esteka segurtasuna | Beharrezkoa bada, ezarri Wi-Fi sareak onartzen duen segurtasun protokoloa bere barruko autentifikazio metodorako. |
| Token-a | Ezarri hardware token bat erabiltzen duzun Wi-Fi sarera konektatzeko. |
| Zerbitzariaren gaia | Beharrezkoa bada, idatzi telefonoak Wi-Fi sare zuzenera konektatzen ari dela egiaztatzeko erabili behar duen zerbitzariaren izena. |
| SAN zerbitzaria | Beharrezkoa bada, idatzi telefonoak Wi-Fi sare zuzenera konektatzen ari dela egiaztatzeko erabili behar duen SAN zerbitzaria. |

## Erroko ziurtagiriak telefonoan instalatu

Baliteke Wi-Fi® sare batzuk konektatu ahal ez izatea BlackBerry® telefonoan erroko ziurtagiria instalatzen duzun arte. Erroko ziurtagiria ondenagailuan instalatu eta, ondoren, BlackBerry® Desktop Software kudeatzailearen ziurtagiriak sinkronizatzeko tresna erabil dezakezu erroko ziurtagiria telefonoaren eta ordenagailuaren artean sinkronizatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwarearen Laguntza edo jarri harremanetan administratzailearekin.

## Wi-Fi diagnostiko txostenak

## Wi-Fi diagnostiko txostena bidali

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Wi-Fi sarea**.
3. Sakatu tekla > **Arazoak** > **Wi-Fi diagnostikoak**.
4. Sakatu tekla > **Posta elektronikoaren txostena** edo **PIN txostena**.

## Wi-Fiaren diagnostiko-txostenentzako aukerak ezarri

Wi-Fi®aren diagnostiko-txostenentzako aukerak ezartzen dituzunean, hartzaile lehenetsia ezartzen baduzu, Wi-Fiaren diagnostiko-txosten bat bidaltzen duzun bakoitzean, hartzaile hari bidaliko dio txostena BlackBerry® telefonoak. Txosten bat bidaltzen duzun bakoitzean hartzailea zehaztu nahi baduzu, ez ezarri hartzaile lehenetsirik.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Wi-Fi sarea**.
3. Sakatu tekla > **Arazoak** > **Wi-Fi diagnostikoak**.
4. Sakatu tekla > **Aukerak**.
   - Wi-Fiaren diagnostiko-txostenetan datu aurreratuak sartzeko, hautatu **Bistaratze modua** eremuan **Aurreratua**.
   - Wi-Fiaren diagnostiko-txostenentzako hartzaile lehenetsia zehazteko, idatzi kontaktuaren informazioa.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Konexio baimenak hirugarrenen aplikazioetarako

| Baimena | Deskribapena |
|---|---|
| USB | Ezarri hirugarrenen aplikazioek BlackBerry® telefonorako konfiguratu dituzun konexio fisikoak erabili ditzaketen ala ez, adibidez, USB kablea edo RS-232 kablea. |
| Bluetooth-a | Ezarri hirugarrenen aplikazioek Bluetooth® konexioak erabili ditzaketen ala ez. |
| Telefonoa | Ezarri hirugarrenen aplikazioek deiak egin edo deien erregistroetara sar daitezkeen ala ez. |

| Baimena | Deskribapena |
|---|---|
| Kokapen-datuak | Ezarri hirugarrenen aplikazioek zure GPS kokapenari buruzko informazioa erabil dezaketen ala ez. |
| Zerbitzariaren sarea | Ezarri hirugarrenen aplikazioek, enpresaren sarea erabiliz, Internetera edo enpresaren Intranetera sar daitezkeen ala ez. |
| Internet | Ezarri hirugarrenen aplikazioek, hari gabeko zerbitzu-hornitzailea erabiliz, Internetera sar daitezkeen ala ez (adibidez, Interneterako konexio zuzena edo WAP atebidea erabiliz). |
| Wi-Fi (onartzen bada) | Ezarri hirugarrenen aplikazioek Wi-Fi® konexioak erabili ditzaketen ala ez. |
| Neare Field Communication (Gertuko Eremu Komunikazioa) | Ezarri hirugarrenen aplikazioek NFC konexioak erabili ditzaketen ala ez. |

## VPN eta software tokenekin Wi-Fi erabiltzeari buruz

Wi-Fi® gaitutako BlackBerry® telefonoa baduzu eta zure enpresak VPN konexioa erabiltzen badu bere sarerako konexioa kontrolatzeko, VPN konexioan saioa hasteko eta enpresaren sarera konektatzeko gai izan zaitezke Wi-Fi sarea erabiliz. Wi-Fi® gaituta duen telefonoa baduzu, baliteke software token-ak behar izatea Wi-Fi konexio bidez zure enpresaren sarera konektatu ahal izateko.

## Hari gabeko estalduraren adierazleak

Hasierako pantailan, goi-eskuinaldean agertzen diren adierazleek erakusten dute BlackBerry® telefonoa erabiltzen ari zaren eremuko hari gabeko estaldura maila. Hari gabeko estaldura eremuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

| Adierazlea | Deskribapena |
|---|---|
|  | Hari gabeko seinalearen indarrari buruzko informazioa ematen du. Hiru barra edo gehiagok seinale indartsua erakusten dute. Seinale ahulak bateriaren kontsumoa areagotzea suposa dezake, telefonoa seinale ahulera konektatzen saiatzen bada. |
| 3G, 4G, H+, EDGE, GPRS, NXTL, MIKE edo NTWK | Sare mugikor batera konektatuta zaude eta hainbat eginbidetara sar zaitezke, hala nola mezularitza elektronikora eta Internet arakatzailera. Adierazletako bat ikusten baduzu, hari gabeko estaldura murriztuko eremu batean egon zaitezke eta baliteke, bertan, hainbat eginbide erabilgarri ez egotea (baliteke ezin telefono-dei bat egin ezin izatea edo SMS testu mezu bat bidaltzea). |

| Adierazlea | Deskribapena |
|---|---|
|  | Larrialdi-zenbakietara soilik dei dezakezu. |
|  | Ez zaude hari gabeko estaldura eremu batean. |
|  | Sare mugikorrerako konexioa desaktibatuta dago. |
|  | Wi-Fi® sare batean konektatuta zaude eta zenbait BlackBerry zerbitzutara sar zaitezke, adibidez, mezularitza elektronikora eta Wi-Fi konexio bidez Internet bidez arakatzea. |
|  | Wi-Fi konexioa aktibatuta dago, baina ez zaude Wi-Fi sare batera konektatuta; edo Wi-Fi sare batera konektatuta zaude, baina ezin duzu hainbat BlackBerry zerbitzutara sartu, adibidez, mezularitza elektronikora edo Wi-Fi konexio bidez Internet bidez arakatzea. |
|  | Zure Bluetooth® konexioa aktibatuta dago eta Bluetooth-a gaitutako gailu batera konektatuta zaude. |
|  | Zure Bluetooth-a konexioa aktibatuta dago, baina ez zaude Bluetooth-a gaitutako gailu batera konektatuta. |
|  | NFC konexioa aktibatuta dago. |

**Lotutako informazioa**
Larrialdi-deiei eta larrialdi-atzeradei moduari buruz, 58

# Arazoak: Wi-Fi teknologia

## Ezin naiz Wi-Fi sare batera konektatu

BlackBerry® telefono-modeloaren arabera, baliteke Wi-Fi® eginbidea bateragarria ez izatea.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Ziurtatu Wi-Fi sarerako konexioa aktibatuta duzula.
- Ziurtatu Wi-Fi sare baten estaldupean zaudela. Etxeko sare batera konektatzen ari bazara, ikusi hari gabeko beste gailu batzuk konektatzeko gai diren. Enpresako Wi-Fi sare edo hotspot batera konekatzen ari bazara, hitz egin administratzailearekin edo hotspoteko langilearekin.
- Ziurtatu telefonoko ordua sareko orduarekin sinkronizatuta dagoela. Ordua bera ez bada, baliteke arrazoi horrek telefonoa konektatzen ez uztea (adibidez, sare batera konektatzeko telefonoan ziurtagiri bat izan behar baduzu eta ziurtagiri horrek iraungitze-data badu).
- Wi-Fi sarea Konfiguratu Wi-Fi aplikazioan agertzen ez bada, baliteke ezkutatuta egotea. Sarearen izena badakizu, saiatu Wi-Fi sarera eskuz konektatzen.

- Konfiguratu Wi-Fi aplikazioan, egiaztatu Wi-Fi sarearentzako aukerak egokiak direla. Zein aukera erabili jakiteko, etxeko sareetan begiratu bideratzailearekin batera etorritako informazioa; enpresako Wi-Fi sareetan, hitz egin administratzailearekin; eta, hotspot publikoetan, begiratu hotspotak emandako edozein informazio edo hitz egin hotspoteko langile batekin, baliteke hark nola konektatu jakitea.
- Wi-Fi sareak eskuz aldatzen badituzu, aldatu beste Wi-Fi sare batera edo konfiguratu telefonoa Wi-Fi sare erabilgarriak bila ditzan.
- Posta-kontuak BlackBerry® Enterprise Server erabiltzen badu, baliteke telefonoak hari gabeko sarbide-puntu jakin batzuetarako konexioa eragoztea. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.
- Push botoiaren konfigurazioa metodoa erabiltzen ari bazara, ziurtatu Wi-Fi Protected Setup™ estandarrak gaitu duela sarearen sarbidea eta bere profila bidaltzeko zehaztu dela. Ziurtatu ez dagoela aldi berean sare berera konektatzen saiatzen ari den gailurik, eta estaldura eremuan modu hau darabilen sarbide bakarra dela. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi bideratzailearekin batera etorritako informazioa.
- PEAP, EAP-TLS, EAP-FAST, EAP-TTLS edo EAP-SIM protokoloetakoren bat erabiltzen baduzu Wi-Fi sarera konektatzeko, ziurtatu autentifikazio-zerbitzariarentzako ziurtagiria sortu zuen autoritate ziurtagiri-emailearen erroko ziurtagiria instalatuta duzula. Sarera konektatu baino lehenago transferitu behar da ziurtagiria telefonora. Informazio gehiago eskuratzeko, hitz egin administratzailearekin.
- Wi-Fi sarera konektatzeko EAP-TLS protokoloa erabiltzen baduzu, ziurtatu autentifikazio-ziurtagiria telefonoan gehituta duzula. Sarera konektatu baino lehenago transferitu behar da ziurtagiria telefonora. Informazio gehiago eskuratzeko, hitz egin administratzailearekin.

**Lotutako informazioa**

Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249
Wi-Fi sare batera konektatu, 256
Wi-Fi sare batera eskuz konektatu, 257
Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249

# Bluetooth teknologia

## Nola: Bluetooth teknologia

### Bluetooth-a-ari buruz

BlackBerry® telefonoa eta Bluetooth-a gaituta duen gailu baten artean hari gabeko konexioa ezartzeko diseinatuta dago Bluetooth® teknologia, hala nola, autorako esku librekoarekin edo hari gabeko entzungailu estereoarekin.

BlackBerry telefonoa Bluetooth-a gaitutako gailu batera konektatu aurretik, Bluetooth-a teknologia aktibatu behar duzu bi gailuetan eta, ondoren, bi gailuak parekatu behar dituzu. Parekatzean bi gailuen arteko erlazioa ezartzen da eta, normalean, behin egitea nahikoa izaten da.

Gailuak parekatu ondoren, elkarren artean konektatu ahal izango dituzu, baldin eta Bluetooth-a gaitutako gailu horiek BlackBerry telefonoaren estaldura eremuan badaude (estaldura eremua 10 metro ingurukoa izan ohi da). Emaitza hobeak lortzeko, mantendu BlackBerry telefonoa zuzenean Bluetooth-a gaitutako beste gailuari begira. Adibidez, BlackBerry telefonoa zure gorputzaren eskuinaldean badago, erabili Bluetooth-a gaitutako aurikularra eskuineko belarrian.

Bluetooth-a teknologia aktibatzen duzunean edo BlackBerry telefonoa Bluetooth-a gaitutako beste gailu batera konektatzen duzunean, Bluetooth-a egoera adierazleak agertzen dira hasierako pantailaren goialdean.

### Bluetooth teknologia aktibatu edo desaktibatu

Bluetooth® teknologia erabiliz ekintza bat egiten saiatzen ari bazara, baliteke Bluetooth teknologia aktibatzeko eskatzea. Zenbait kasutan, NFC teknologia erabiltzen duzunean esaterako, BlackBerry® telefonoak automatikoki aktibatuko du Bluetooth teknologia.

Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.

- Bluetooth teknologia aktibatzeko, hautatu Bluetooth kontrol-laukia.
- Bluetooth teknologia desaktibatzeko, garbitu Bluetooth kontrol-laukia.

### Bluetooth-a gaitutako gailu batekin parekatu

Zure BlackBerry® telefonoa Bluetooth® gaitutako gailuarekin parekatu behar duzu harekin konektatu ahal izateko. Bluetooth-a gaitutako gailua nola prestaturi buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Bluetooth-a gaitutako gailuarekin jasotako dokumentazioa.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak** > **Gehitu gailu berria** > **Bilatu**.
3. Sakatu Bluetooth-a gaitutako gailu bat.
4. Behar izanez gero, burutu ekintza hauek:

- Bluetooth-a gaitutako gailuak teklaturik ez badu (adibidez, hari gabeko aurikularra), zure BlackBerry gailuan, idatzi Bluetooth-a gaitutako gailuan agertzen den edo Bluetooth-a gaitutako gailuarekin jasotako dokumentazioan zehaztutako parekatzeko pasahitza. Pasakodea zenbakizkoa edo alfazenbakizko kode bat izan ohi da.
- Bluetooth-a gaitutako gailuak teklatua badu (adibidez, ordenagailu eramangarri bat), idatzi aukeratu duzun parekatzeko pasahitza bi gailuetan.

**Lotutako informazioa**

Bluetooth teknologia aktibatu edo desaktibatu, 264
Ezin dut nire gailua Bluetooth gaitutako gailu batekin parekatu, 40
Ez da nire parekatutako Bluetooth-a gailuen zerrenda agertzen, 272
Ezin dut kontakturik partekatu parekatuta dagoen Bluetooth-a gaitasuneko gailu batekin, 272

# Parekatutako Bluetooth gaitutako gailu batera konektatu edo horrelako gailu batetik deskonektatu

Egitekoa burutzeko, Bluetooth® teknologia gaituta egon behar du eta BlackBerry® telefonoa Bluetootha gaituta duen beste gailu batekin parekatuta egon behar du.

Baliteke BlackBerry telefonoa Bluetooth gaitutako gailura automatikoki konektatzen saiatzea, Bluetooth teknologia gaituta dagoenean eta gailuak bere estaldurapean daudenean. Normalean, BlackBerry telefonoa konektatuta egongo da parekatutako Bluetooth gaitutako gailu batera, hala nola autoko kitera edo entzungailura, gailuak deskonektatu arte.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Nabarmendu Bluetooth gaitutako gailu bat.
   - Bluetooth gaitutako gailu batera konektatzeko, sakatu tekla > **Konektatu**. Beharrezkoa bada, egiaztatu parekatutako bi gailuen elkarrizketa-koadroetan zenbaki bera agertzen dela.
   - Parekatutako Bluetooth gaitutako gailua batetik deskonektatzeko, nabarmendu gailua. Sakatu tekla > **Deskonektatu**.

**Lotutako informazioa**

Bluetooth teknologia aktibatu edo desaktibatu, 264
Ezin dut nire gailua Bluetooth gaitutako gailu batekin parekatu, 40

# Dei bat egiten ari zarela Bluetooth-a bidez parekatutako gailu batera aldatu

Ataza hori egiteko, Bluetooth® teknologia gaituta egon behar da.

Dei batean zaudela, sakatu tekla > **Aktibatu <Bluetooth gailua>**.

**Lotutako informazioa**

Bluetooth teknologia aktibatu edo desaktibatu, 264

# Partekatu kontaktuak parekatutako Bluetooth-a bidezko kotxerako esku librekoarekin

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Nabarmendu Bluetooth® bidezko kotxerako esku libreko bat.
4. Sakatu tekla > **Transferitu kontaktuak**.

**Lotutako informazioa**
Ezin dut kontakturik partekatu parekatuta dagoen Bluetooth-a gaitasuneko gailu batekin, 272
Bluetooth gaitutako autoko kitarekin nuen konexioa galdu dut, 272

# Bluetooth teknologia erabiliz multimediak-fitxategiak jaso

Ataza hori egiteko, Bluetooth® teknologia gaituta egon behar da.

Multimedia-fitxategi bat Bluetooth teknologia erabiliz BlackBerry® telefonora bidaltzen denean, elkarrizketa-koadro bat agertzen da pantailan.

1. **Onartu konexio-eskaera** elkarrizketa-koadroan, sakatu **Bai**.
2. **Sarrerako datuak jaso nahi dituzu** elkarrizketa-koadroan, sakatu **Bai**.

Jasotako fitxategi bakoitza fitxategi-motarekin bat datorren karpetan gordeko du telefonoak.

**Lotutako informazioa**
Bluetooth teknologia aktibatu edo desaktibatu, 264
Bluetooth teknologia aktibatu edo desaktibatu, 264

# Fitxategiak bidali

Fitxategi bat bidaltzeko metodoa hainbat elementuren araberakoa da: bidaltzen saiatzen zaren fitxategi mota, erabiliko duzun posta elektronikoko kontua eta BlackBerry® smartphone-an dituzun aplikazioak. Aldi berean argazki-fitxategi ugari hautatu eta bidal daitzakezu. Zure smartphone-an gehitutako multimedia-fitxategiak baino ezin dituzu bidali. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Multimedia** ikonoa edo **Fitxategiak** ikonoa.
2. Bilatu eta nabarmendu fitxategi bat.
3. Sakatu tekla > **Bidali**.
4. Sakatu mezu mota bat.
5. Behar izanez gero, aktibatu Bluetooth® teknologia eta aukeratu gailu bat edo parekatu gailu batekin.

**Lotutako informazioa**
Ezin ditut eranskinak testu-mezuetan gehitu, 110

# Bluetooth teknologia erabiliz kontaktu-txartelak bidali eta jaso

Bluetooth® teknologia erabiliz, Kontaktuak aplikazioaren bidez, zuzenean bidali eta jaso ditzakezu kontaktu-txartelak.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Kontaktuak** ikonoa.
2. Sakatu kontaktu bat.
3. Sakatu tekla > **Bidali kontaktu-txartela** > **Bidali Bluetooth erabiliz**.

Kontaktu-txartel bat jasotzeko, sakatu **Bai**, gailu hartzailearen pantailan agertuko den **Sarrerako datuak jaso nahi dituzu** elkarrizketa-koadroan.

# Bluetooth-a gaitutako gailu parekatu baten izena aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Nabarmendu Bluetooth®-a gaitutako gailu parekatu bat.
4. Sakatu tekla > **Gailuaren propietateak**.
5. **Gailuaren izena** eremuan, aldatu Bluetooth-a gaitutako gailuaren izena.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Bluetooth-a-a gaitutako gailu parekatuak ezabatu

Egiteko hau burutzeko, BlackBerry® telefonoa Bluetooth® gaitutako gailutik deskonektatu behar duzu.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Nabarmendu Bluetooth®-a gaitutako gailu parekatu bat.
4. Sakatu tekla > **Ezabatu gailua**.

# BlackBerry telefonoa ikusgai egin

Zure BlackBerry® telefonoa berreskuragarri egiten baduzu, Bluetooth® gaitutako beste smartphone-ek zure gailua detektatu ahal izango dute.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Aldatu **Aurkigarria** eremuan **2 minutu** aukerara.

2 minutu igarotakoan, **Berreskuragarria** eremuan **Ez** jarriko du automatikoki.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut nire gailua Bluetooth gaitutako gailu batekin parekatu, 40

# Bluetooth teknologiaren aukerak

## Bluetooth-a profilak

BlackBerry® telefono-modeloaren eta hari gabeko sarearen arabera, agian profil batzuk ez dira bateragarriak izango.

| Aukera | Deskribapena |
| --- | --- |
| Audio iturria (A2DP) | BlackBerry telefonoko audioa estereo audioa onartzen duten Bluetooth® gaitutako gailuetara eraman dezakezu profil honekin, aurikularretara, bozgorailuetara eta autoko kit estereoetara, adibidez. |
| A/V urruneko kontrola (AVRCP) | Profil honekin Bluetooth-a gaitutako aurikularren botoiekin ekintzak burutu ditzakezu, esaterako, bolumena doitu edo BlackBerry telefonoko aurreko edo hurrengo multimedia fitxategia erreproduzitu. |
| Datu transferentzia | Profil honekin BlackBerry telefonoa datuen transferentzia, adibidez, multimedia fitxategiena, onartzen duten Bluetooth-a gaitutako gailuetara konekta dezakezu. |
| Mahaigainaren konexutasuna | Zerbitzu honi esker BlackBerry telefonoa BlackBerry® Desktop Software softwarea darabilten Bluetooth-a gaitutako ordenagailuetara konekta dezakezu, antolatzaileko datuak sinkronizatu ahal izateko. |
| Telefonozko sareratzea (DUN) | Profil honekin BlackBerry telefonoa modem gisa erabil dezakezu, Bluetooth-a gaitutako ordenagailuetara konektatuta dagoenean. |
| Eskulibrea (HFP) | Profil honekin BlackBerry telefonoa Eskulibrea profila onartzen duten Bluetooth-a gaitutako eskulibreetara eta autoko kitetara konekta dezakezu. |
| Aurikularra (HSP) | Aurikularra profila onartzen duten Bluetooth-a gaitutako aurikularretara konekta dezakezu BlackBerry telefonoa profil honekin. |
| Mezura Sartzeko Profila (MAP) | Profil honek Bluetooth-a gaitutako autoko kitak erabiltzen utziko dizu BlackBerry telefonoarekin, honek mezu berriak jakinarazteko. Profil honek mezuak irakurtzen,ezabatzen, arakatzen, konposatzen, eta bidaltzen lagunduko dizu. |
| Serieko atakaren profila | Profil honekin BlackBerry telefonoa mahaigaineko konexutasuna, hari gabeko ingurabidea eta datu transferentzia onartzen dituzten Bluetooth-a gaitutako gailuetara konekta dezakezu. |
| SIM sarbidea | BlackBerry telefonoak SIM txartela badarabil, profil honekin Bluetooth-a gaitutako autoko kitak gailuko SIM txartela kontrola dezake BlackBerry telefonoak, autoko kita erabiliz deiak egin eta jaso ahal ditzazun. Eginbidea erabiltzen duzunean, datu-zerbitzuak (arakatzailearen zerbitzua, mezularitza elektronikoa, PIN mezularitza eta MMS mezularitza) ez dira erabilgarri egongo |

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| | telefonoan, eta telefonoaren zerbitzuetarako autoko kitaren bidez soilik sartu ahal izango duzu. Eginbidea erabili ahal izateko, baliteke autoko kitak sortutako 16 digituko alfazenbakizko kode bat sartu behar izatea BlackBerry telefonoan. |
| Hari gabeko zubia | Zerbitzu honi esker, BlackBerry Desktop Software softwarea darabilten Bluetooth-a gaitutako ordenagailuetara konekta dezakezu BlackBerry telefonoa, mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko eta, hari gabeko sarera konektatu gabe, antolatzaileko datuak sinkronizatu ahal izateko. Zerbitzua erabiltzeko, zure kontu elektronikoak BlackBerry® Enterprise Server erabili behar du. |

## Bluetooth-a profil bat deskonektatu

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu tekla > **Aukerak**.
4. **Zerbitzuak** atalean, garbitu Bluetooth® profil baten edo gehiagoren alboko kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**
Bluetooth-a profilak, 268

## Zure gailuak Bluetooth-a gaitutako beste gailuentzako kontaktuak erabilgarri bihurtzea eragotzi

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu tekla > **Aukerak**.
4. Aldatu **Kontaktuen transferentzia** eremua.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

BlackBerry® telefonoak Bluetooth® gaitutako beste gailu batzuentzako kontaktuak berriro erabilgarri bihur ditzan, hautatu **Guztiak Kontaktuen transferentzia** eremuan.

## Kanporanzko deiak murriztu

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu tekla > **Aukerak**.
4. Ezarri **Baimendu irteerako deiak** eremua **Inoiz ere ez** edo **Desblokeatuta badaude** jarri dezan.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Zure BlackBerry telefonoaren parekatze-izena aldatu

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu tekla > **Aukerak**.
4. **Gailuaren izena** eremuan, idatzi BlackBerry® telefonoaren izena.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Bluetooth-a konexioen jakinarazpenak deskonektatu

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu tekla > **Aukerak**.
4. Garbitu **LED konexioaren adierazlea** kontrol laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

Bluetooth® konexioen jakinarazpena berriz konektatzeko, hautatu **LED konexioaren adierazlea** kontrol-laukia.

## Konektatzerakoan edo parekatzerakoan agertzen den abisua ezgaitu

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Nabarmendu Bluetooth®-a gaitutako gailu parekatu bat.
4. Sakatu tekla > **Gailuaren propietateak**.
5. Hautatu **Fidagarria** eremuan **Bai**.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

Abisua berriro aktibatzeko, hautatu **Fidagarria** eremuan **Abisatu**.

## Zure Bluetooth-a gaitutako autoko kitak jakinaraziko dizkizun mezu motak ezarri

Zeregin hori egiteko, zure Bluetooth® gaitutako autoko kitak Mezura Sartzeko Profila (MAP) onartu behar du

Bluetooth-a teknologia autoan erabiltzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi autoarekin batera datorren dokumentazioa.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu tekla > **MAP aukerak**.
4. Hautatu mezu mota baten edo gehiagoren ondoko kontrol-laukia.

## Bluetooth-a teknologia erabiliz bidaltzen eta jasotzen dituzun datuak enkriptatu

Zeregin hau burutzeko, Bluetooth® gaitutako gailu parekatuak datu-enkriptatzea onartu behar du.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu tekla > **Aukerak**.
4. Hautatu **Enkriptatzea** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Bluetooth-a bidezko gailuetarako birkonexio automatikoa deskonektatu

Besterik adierazi ezean, BlackBerry® telefonoa pizten duzunean, erabili duzun Bluetooth® gaitutako azken gailura konektatzen saiatuko da telefonoa.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**.
3. Sakatu tekla > **Aukerak**.
4. Garbitu **Konektatu pizterakoan** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Arazoak: Bluetooth-a teknologia

## Ezin dut nire gailua Bluetooth gaitutako gailu batekin parekatu

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa Bluetooth® gaitutako gailuarekin bateragarria dela. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Bluetooth gaitutako gailuarekin jasotako dokumentazioa.
- Ez baduzu Bluetooth gaitutako gailuaren pasahitza ezagutzen, ikusi Bluetooth gaitutako gailuarekin jasotako dokumentazioa.
- Telefonoak ez badu parekatu nahi duzun Bluetooth gaitutako gailurik hautematen, saiatu telefonoa denbora-tarte labur baterako ikusgai egiten. Autoko kit askok telefonoa hauteman behar izaten dute, telefonoak autoko kita hauteman beharrean. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**. Sakatu **Gehitu gailu berria**. Sakatu **Entzun**. Bluetooth gaitutako gailuek telefonoa 2 minutuz hauteman dezakete.
- Desaktibatu Bluetooth konexioen enkriptatzea, telefonoa eta Bluetooth gaitutako gailua konektatzerakoan erabiltzeko. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Bluetooth konexioak**. Nabarmendu Bluetooth gaitutako gailu bat. Sakatu > **Gailuaren propietateak**. Garbitu **Enkriptatzea** kontrol-laukia. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

BlackBerry telefonoa ikusgai egin, 267

# Ez da nire parekatutako Bluetooth-a gailuen zerrenda agertzen

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu Bluetooth® teknologia aktibatuta dagoela.
- Egiaztatu Bluetooth-a gaitutako gailuak gehitu dituzula Bluetooth-a gaitutako gailu parekatuen zerrendan.

**Lotutako informazioa**
Bluetooth teknologia aktibatu edo desaktibatu, 264
Bluetooth-a gaitutako gailu batekin parekatu, 264

# Ezin dut pasahitza idatzi Bluetooth-a gaitutako gailu batean

Ezin baduzu pasahitza idatzi Bluetooth® gaitutako gailu batean, baliteke pasahitza aurretik definituta egotea.

BlackBerry® telefonoan, **Idatzi <gailuaren izena> gailuaren pasahitza** eremuan, saiatu **0000** idazten.

# Bluetooth gaitutako autoko kitarekin nuen konexioa galdu dut

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu autoko kita erabilgarri dagoen software bertsio berriena erabiltzen ari dela. Bluetooth® gaitutako autoko kitaren software bertsioari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi autoko kitarekin batera ekarritako dokumentazioa.
- Mugitu BlackBerry® telefonoa autoko beste kokapen batera edo jarri telefonoa beste norabide batera begira. BlackBerry telefonoaren Bluetooth antenaren kokapenak eta autoko kitaren Bluetooth antenaren kokapenak Bluetooth konexioan eragin dezake.

# Ezin dut kontakturik partekatu parekatuta dagoen Bluetooth-a gaitasuneko gailu batekin

Probatu hau:

- Egiaztatu Bluetooth® teknologia aktibatuta dagoela.
- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa Bluetooth-a gaitutako gailuaren parean dagoela.
- Egiaztatu Bluetooth-a aukeretan **Kontaktuen transferentzia** eremua ez dagoela **desgaitua**.
- Egiaztatu BlackBerry telefonoa Bluetooth-a gaitutako gailu bati konektatuta dagoela eta gailu horrek esku libreko profila edo Object Push profila onartzen dituela. Onartzen diren profilei buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus Bluetooth-a gaitutako gailuarekin batera zetorren dokumentazioa.

**Lotutako informazioa**
Bluetooth teknologia aktibatu edo desaktibatu, 264
Bluetooth-a gaitutako gailu batekin parekatu, 264
Partekatu kontaktuak parekatutako Bluetooth-a bidezko kotxerako esku librekoarekin, 266

# NFC teknologia

## Nola: NFC teknologia

### NFC teknologiari buruz

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori erabilgarri ez izatea.

BlackBerry® telefonoaren eta osagarri adimendunen, ordainketa-terminal adimendunen, sarbide puntu adimendunen eta etiketa adimendunen artean informazioa azkar trukatzea baimentzeko diseinatutako irismen laburreko, hari gabeko teknologia da NFC teknologia. Poster adimendunak gordetzeko, ikusteko, sortzeko edo aldatzeko ere erabil dezakezu NFC teknologia.

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen eta telefonoan dituzun aplikazioen arabera, baliteke telefonoa garraio-txartel gisa edo kreditu-txartel gisa ere erabili ahal izatea, telefonoaren atzealdeko etiketa adimendunaren irakurgailua sarbide adimendunaren edo ordainketa-terminal adimendunaren kontra kolpatuta. Zerbitzu hori, saltzaileak ezarritako baldintzen araberako izango da.

NFC teknologia telefonoan erabiltzeko, telefonoak informazioa trukatu nahi duzun ordainketa-terminal adimendunetik, osagarri adimendunetik edo etiketa adimendunetik 2,5 cm-ra egon behar du. Poster adimendunak ikusteko edo osagarri adimendunetara konektatzeko eta gisako funtzioetarako, NFC teknologiak aktibatuta eta telefonoaren atzealdeko argiak piztuta egon behar du. Ordainketa-transakzioak egiteko, telefonoko NFC teknologia erabil dezakezu, baita telefonoa blokeatuta dagoenean, atzealdeko argia itzalita dagoenean edo telefonoa itzalita dagoenean ere. NFC teknologia erabiliz ordainketa-transakzio bat egiten saiatzen zerenean, kreditu-txartelarekin edo ordainketa-aplikazioarekin asoziatutako pasahitza edo PINa idazteko eskatuko zaizu.

### NFC teknologia aktibatu edo desaktibatu

Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.

- NFC teknologia aktibatzeko, hautatu **NFC** kontrol-laukia.
- NFC teknologia desaktibatzeko, garbitu **NFC** kontrol-laukia.

**Lotutako informazioa**

Nire telefonoak ez dio NFC teknologiari erantzuten, 275

### Osagarri adimendun batera konektatu edo hura deskonektatu

Burutu ekintza hauetako bat:

- Osagarri adimendun batera konektatzeko, kolpatu BlackBerry® telefonoaren atzealdean dagoen etiketa adimendunaren irakurgailua, osagarri adimendunaren kontra. Beharrezkoa bada, sakatu **Parekatu Bluetooth bidez**. Beharrezkoa bada, idatzi pasahitz adimenduna.
- Osagarri adimendun batetik deskonektatzeko, kolpatu telefonoaren atzealdean dagoen etiketa adimendunaren irakurgailua, konektatutako osagarri adimendunaren kontra.

# Etiketa adimendunak eta poster adimendunak

## Etiketa adimendunei eta poster adimendunei buruz

Enpresek etiketa adimendunak gehi diezazkiete zenbait elementuri, hala nola posterrei, flyerrei edo kamisetei. BlackBerry® telefonoaren atzealdean dagoen etiketa adimendunaren irakurgailua etiketa adimendunaren kontra kolpatzen duzunean, telefonoak etiketa adimendunaren poster adimenduna ikusten du eta poster adimendun hori ikusteko edo ezabatzeko aukera aurkezten dizu. Poster adimendunek informazio ugari izan dezake: web-helbideak, kupoiak, grafikoak, multimedia fitxategiak, gertaeraren xehetasunak eta beste hamaika gauza.

## Poster adimendunak ikusi, gorde edo ezabatu

BlackBerry® telefonoaren atzealdeko etiketa adimendunaren irakurgailua etiketa adimendun baten kontra kolpatzen duzunean, telefonoak automatikoki gordetzen du etiketa adimendunaren poster adimenduna Etiketa adimendunak aplikazioan, data, ordua eta poster adimenduna gorde zenuen kokapenarekin batera.

Burutu ekintza hauetako bat:

- Poster adimendun berri bat ikusteko edo gordetzeko, kolpatu telefonoaren atzealdeko etiketa adimendunaren irakurgailua etiketa adimendunaren kontra. Sakatu **Ikusi**.
- Gordetako poster adimenduna ikusteko, sakatu **Aplikazioak** karpetako **Etiketa adimenduna** ikonoa. Sakatu poster adimendun bat.
- Gordetako poster adimenduna ezabatzeko, sakatu **Aplikazioak** karpetako **Etiketa adimenduna** ikonoa. Nabarmendu poster adimendun bat. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

## Poster adimendun bat sortu edo aldatu

Poster adimendun berri bat sortu edo dagoeneko sortutako poster adimendun bat alda dezakezu BlackBerry® telefonoan. Poster adimendun bat sortzen edo aldatzen duzunean, poster adimendunean agertzen den irudia, testua edo web helbidea sortu edo alda dezakezu.

**Aplikazioak** karpetan, sakatu **Etiketa adimenduna** ikonoa.

- Poster adimendun berri bat sortzeko, sakatu tekla > **Sortu poster adimenduna**. Gehitu poster adimendunaren informazioa. Sakatu **Gorde**.
- Dagoeneko sortutako poster adimendun bat aldatzeko, sakatu poster adimenduna. Sakatu tekla > **Editatu**. Aldatu poster adimenduneko informazioa. Sakatu **Gorde**.

## Poster adimendunak partekatu

Egitekoa gauzatzeko, NFC teknologiak aktibatuta eta adierazleak pantailan agertu behar dute Etiketa adimendunak aplikazioa irekitzen duzunean.

1. **Aplikazioak** karpetan, sakatu **Etiketa adimendunak** ikonoa.
2. Sakatu poster adimendun bat.
3. Kolpatu NFC gaitutako gailuko etiketa adimendunaren irakurgailua BlackBerry® telefonoaren atzealdeko etiketa adimendunaren irakurgailuaren kontra.

# NFC teknologia aukerak

## NFC teknologia konektatzen denean, soinu-alerta bat erreproduzitu

BlackBerry® telefonoak soinu-alerta bat erreproduzituko du NFC teknologia osagarri adimendun batera konektatzen denean, etiketa adimendun bat ikusten duenean edo informazioa trukatzen duenean ordainketa-terminal adimendun edo sarbide puntu adimendun batekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Komunikazio eremutik gertu**.
3. Hautatu **Kolpatutakoan, erreproduzitu soinu-alerta** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## NFC ordainketa-transakzioa desgaitu, telefonoa itzalita edo blokeatuta dagoenean edo atzeko argia itzalita duenean

Besterik adierazi ezean, BlackBerry® telefonoko NFC teknologia erabil dezakezu, baita telefonoa blokeatuta dagoenean, atzeko argia itzalita dagoenean edo telefonoa itzalita dagoenean ere.

1. Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa.
2. Sakatu **Sareak eta konexioak** > **Komunikazio eremutik gertu**.
   - Telefonoa blokeatuta dagoenean edo atzeko argia itzalita duenean NFC ordainketa-transakzioak desgaitzeko, garbitu **Baimendu NFC txartelaren transakzioak** ataleko **Blokeatuta edo atzeko argia itzalita dagoenean** kontrol-laukia.
   - Telefonoa itzalita dagoenean NFC ordainketa-transakzioak desgaitzeko, garbitu **Baimendu NFC txartelaren transakzioak** ataleko, **Itzalita dagoenean** kontrol-laukia.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Arazoak: NFC teknologia

## NFC ez da Kudeatu konexioak pantailan agertzen

Kontu elektronikoak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabiltzen badu, administratzaileak ezarritako aukeren arabera, baliteke egiteko hau gauzatzeko gai ez izatea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

## Nire telefonoak ez dio NFC teknologiari erantzuten

Probatu hau:

- Egiaztatu NFC teknologia aktibatuta dagoela.

- BlackBerry® telefonoaren atzeko argia itzalita badago, egiaztatu telefonoak onartzen duela NFC ordainketa-transakzioa atzealdeko argia itzalita dagoenean.
- Telefonoa itzalita badago, egiaztatu telefonoak onartzen duela NFC ordainketa-transakzioa telefonoa itzalita dagoenean.

**Lotutako informazioa**

NFC teknologia aktibatu edo desaktibatu, 273

# Osagarri adimendunak

## Smart Accessories aplikazioari buruz

Zure BlackBerry® smartphonea portu, kargadore edo kargatzeko beste tresna bati konektatzen duzunean funtzionatzeko modua alda dezakezuportu profila sortuz Smart Accesories alikazioan portu edo kargadorean portu hori identifikatzeko. Adibidez, baliteke portu adimendun bat ohe alboko portu gisa identifikatzea, zure telefonoaren soinu-profila desaktibatu egingo da eta zure telefonoaren alarma aktibatu egingo da.

## Portu adimendunak konfiguratu

Zure BlackBerry® telefonoa portu, kargadore edo kargatzeko tresnaren batera konektatzen duzun lehenengo aldian, zure telefonoaren jarrera konektatzen duzun bakoitzean konfiguratzea eskatuko dizu. Zure telefonoaren jarrera ez konfiguratzea erabakitzen baduzu, berriz ere eskatuko dizu konfiguratzea telefonoa portu, kargadore edo kargatzek tresna bati konektatzen duzunean. Telefonoa portutik, kargadoretik edo kargatzeko tresnatik kentzen baduzu konfigurazio-pantaila erakusten ari denean, konfigurazio pantaila irekita geldituko da.

1. **Dock adimenduna** elkarrizketa-koadroan, sakatu **Konfiguratu**.
2. **Portu adimenduna** eremuan, idatzi dock adimendunaren izena.
   - Telefonoa atrakatzen duzunean aplikazioa aktibatzeko, sakatu aplikazio bat **Abiarazi aplikazioa** goitibeherako zerrendan.
   - Telefonoa atrakatzen duzunean soinu-profila aldatzeko, sakatu soinu-profil bat **Soinu-profila** goitibeherako zerrendan.
   - Telefonoa atrakatzen duzunean sare mugikorra aktibatzeko ed desaktibatzeko, sakatu **Aktibatu** edo **DesaktibatuSare mugikorra** goitibeherako zerrendan.
   - Telefonoa atrakatzen duzunean Wi-Fi® konexioa aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu **Aktibatu** edo **DesaktibatuWi-Fi** goitibeherako zerrendan.
   - Telefonoa atrakatzen duzunean Bluetooth® teknologia aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu **Aktibatu** edo **DesaktibatuBluetooth** goitibeherako zerrendan.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Protuaren profila aldatu

Egitekoa burutzeko, portu adimendunen ezarpenak gordeta izan behar dituzu BlackBerry® telefonoan.

Telefonoa atrakatzen duzunean irekiko diren aplikazioak, soinu profila edo sare mugikorrera, Wi-Fi® sarera edo Bluetooth® teknologiara aktibatzea edo desaktibatzea alda dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Osagarri adimendunak**.

3. Portuaren profil bat aukeratu.
4. Aldatu portu adimendunaren ezarpenak.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Gordetako portuaren profila ezabatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Osagarri adimendunak**.
3. Portuaren profila nabarmendu.
4. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

# Energia eta bateria

## Nola: Energia eta bateria

### Telefonoa itzali

Zure gaiaren arabera, Itzali ikonoaren kokapena edo izena hemen aipatzen den kokapenaren edo izenaren ezberdina izan daiteke.

- Ez baduzu BlackBerry® telefonoa une jakinetan automatikoki pizteko eta itzaltzeko konfiguratu, eduki sakatuta tekla.
- Telefonoa ordu zehatz batean automatikoki pizteko eta itzaltzeko konfiguratu baduzu, sakatu hasierako pantailako edo karpeta bateko **Itzali** ikonoa. Telefonoa pizten duzun arte itzalita egotea nahi baduzu, sakatu **Guztiz itzali**. Telefonoa ordu zehatz batean berriro piztea nahi baduzu edo alarma edo egutegi-abisuekin pizteko, sakatu **Itzali**.

### Telefonoa automatikoki pizteko eta itzaltzeko ezarri

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Automatikoki konektatu/deskonektatu**.
3. **Asteguna** atalean, hautatu **Gaituta** kontrol-laukia.
4. Zehaztu BlackBerry® telefonoak zein ordutan piztu eta itzali behar duen astegunetan.
5. **Asteburua** atalean,hautatu **Gaituta** kontrol-laukia.
6. Zehaztu telefonoak zein ordutan piztu eta itzali behar duen asteburuetan.
7. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Berrezarri telefonoa

Kendu bateria eta berriz jarri.

### Bateriaren karga maila egiaztatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Gailuaren eta egoeraren informazioa**.

### Aholkuak: bateriaren bizitza luzatzea

Jarraibide guztiak eskuratzeko, sakatu beheko **Lotutako informazioa** aukeraren azpiko estekak.

| | |
|---|---|
| Konfiguratu BlackBerry® telefonoa automatikoki piztu eta itzal dadin.<br><br>Telefonoa automatikoki piztea eta itzaltzea aukera dezakezu denbora luzez erabili behar ez baduzu; adibidez, lotan zaudenean. Telefonoa itzalita dagoela jasotako datuak automatikoki eguneratuko dira gailua piztutakoan. | Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Automatikoki konektatu/deskonektatu**. |
| Murriztu pantailako argiaren iraupena eta argitasun maila | Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Bistaratzea** > **Pantaila bistaratzea**. |
| Desaktibatu sare-konexioak erabiltzen ez dituzunean | Hasierako pantailan, sakatu pantailaren goialdeko konexioen eremua edo sakatu **Kudeatu konexioak** ikonoa. Sakatu sareko konexioa bat kontrol-laukia garbitzeko. |
| Itxi aplikazioak, eurak erabiltzeaz amaitzen duzunean.<br><br>Aplikazio batetik bestera joaten zarenean, hainbat aplikazio, adibidez, Arakatzailea aplikazioa edo Musika aplikazioa, atzealdean abiaraziko dira eta, ondorioz, bateria gastatuko da. | Aplikazio batean, sakatu tekla > **Itxi**. |
| Ezarri soinu-jakinarazpenak edo LED jakinarazpenak bibrazio-jakinarazpenen ordez, jaitsi soinu-jakinarazpenen bolumenaren maila edo hautatu dei-tonu laburragoak. | Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak**. |
| Mezu baten erantzunean jatorrizko testua ezabatu | Mezu bati erantzuterakoan, sakatu tekla > **Ezabatu jatorrizko testua**. |
| Telefonoaren kamerak flasha badu, desaktibatu flasha | Hasierako pantailan, sakatu **Kamera** ikonoa. Sakatu pantailaren azpiko flasharen ikonoa **flasha desaktibatuta** adierazlea agertu arte. |
| Mantendu garbi bateriaren konektoreak.<br><br>Bateria garbi mantentzeak bateriak gehiago irautea dakar. | Hilabete gutxi batzuez behin, garbitu telefonoaren eta bateriaren konektoreak kotoia edo zapi lehor bat erabiliz. |

**Lotutako informazioa**

Mezu baten erantzunean jatorrizko testua ezabatu, 84
Dei-tonuak, jakinarazleak edo gogorarazleak aldatu, 33
Sare-konexio bat aktibatu edo desaktibatu, 249

Atzeko argiaren aukerak ezarri, 220
Telefonoa automatikoki pizteko eta itzaltzeko ezarri, 279

# Biltegiratze lekua eta memoria-txartelak

## Nola: Biltegiratze lekua eta multimedia-txartelak

### Multimedia-txartelei buruz

BlackBerry® telefonoaren modeloaren arabera, microSD multimedia-txartel bat telefonoan sar dezakezu bideoak grabatzeko eta abestiak, dei-tonuak, bideoak edo argazkiak bezalako multimedia-fitxategiak gordetzeko biltegiratze-espazioa areagotzeko. Telefonoan multimedia-txartel bat sartzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi telefonoarekin batera banatutako informazioa.

### Onartutako memoria-txartelak

32 GB arteko memoria-txartelak onartzen ditu BlackBerry® smartphone-ak. microSD memoria-txartelak soilik onartzen dira.

### Memoria-txartelaren laguntza desaktibatu

Memoria-txartelaren laguntza desaktibatzen baduzu, BlackBerry® gailuak ezingo du memoria-txarteleko fitxategietara sartu. Hori erabilgarri izan daiteke fitxategiak smartphone-aren inkorporatutako memoriaren biltegian gordetzen direla ziurtatu nahi baduzu, memoria-txartelean ordez.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Biltegiratzea**.
3. Garbitu **Memoria-txartelaren laguntza** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Smartphone-ko datuen babeskopia egin memoria txartelean

Ataza hau burutzeko, memoria txartel bat sartuta izan behar duzu BlackBerry® smartphone-an eta biltegiratze masibo moduak desaktibatuta egon behar du.

Kontu elektronikoak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabiltzen badu, administratzaileak ezarritako aukeren arabera, baliteke egiteko hau gauzatzeko gai ez izatea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

**KONTUZ:** Hau eginez gero, memoria txartelean dagoeneko dauden datuak ezabatuko dira eta smartphone-ko datuekin ordezkatuko dira.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Konfigurazioa** ikonoa.
2. **Konfigurazioa** atalean, sakatu **Memoria masiboa** > **Multimedia-txartela erabiliz** > **Gorde datuak**.
   - Smartphone-ko datuen babeskopian mezu elektronikoak ere sartzeko, hautatu **Gorde mezu elektronikoak** aukera.

- Smartphone-ko datuen babeskopian mezu elektronikoak ez sartzeko, hautatu **Ez gorde mezu elektronikoak** aukera.

3. Sakatu **Jarraitu**.
4. Datuentzako pasahitz bat ezartzeko, **Pasahitza** eremuan, idatzi pasahitz bat.
5. **Berretsi** eremuan, berriro sartu pasahitza.
6. Sakatu **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Smartphone-ko datuak berrezarri memoria txarteletik, 283

# Smartphone-ko datuak berrezarri memoria txarteletik

Egitekoa burutzeko, biltegiratze masibo moduak desaktibatuta egon behar du.

BlackBerry® smartphone-ko datuen babeskopia memoria txartel batean egin baduzu, datuak berrezarri ahal izango dituzu smartphone-an.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Konfigurazioa** ikonoa.
2. **Konfigurazioa** atalean, sakatu **Gailuen arteko aldaketa** > **Multimedia-txartela erabiliz** > **Transferitu datuak** > **Jarraitu**.
3. **Pasahitza** eremuan, idatzi babeskopia egiterakoan ezarri zenuen pasahitza.
4. Sakatu **Sartu**.

**Lotutako informazioa**

Smartphone-ko datuen babeskopia egin memoria txartelean, 282

# Smartphone-an biltegiratzeko zenbat leku libre duzun ikusi

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Biltegiratzea**.

**Lotutako informazioa**

Memoria gutxi geratzen da nire telefonoaren aplikazioan, 287

# Multimedia fitxategiek erabiltzen duten memoria kopurua ikusi

1. Hasierako pantailan, sakatu **Multimedia** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Memoria erabilera**.

# Memoria-txartelean edo telefonoan gordetako fitxategiak konpondu

**KONTUZ:** BlackBerry® telefonoan konpontzeko eginbidea abiarazten baduzu, baliteke telefonoak erroreak dituzten fitxategiak ezabatzea memoria-txarteletik edo telefonotik.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Biltegiratzea**.
3. Sakatu tekla > **Konpondu**.

4. Jarraitu pantailako jarraibideei.

Konpondu eginbidea burutu ondoren, memoria-txartela oraindik konponduta ez badago, baliteke formateatzen saiatu nahi izatea.

**Lotutako informazioa**

Telefonoak ez du nire multimedia-txartela ezagutzen, 287

# Formateatu memoria-txartela edo inkorporatutako memoriaren biltegia

Daukazun BlackBerry® smartphone modeloaren arabera, baliteke inkorporatutako memoriaren biltegia formateatu ahal izan ez izatea.

**KONTUZ:** Memoria txartela edo inkorporatutako memoriaren biltegia formateatuz gero, bertan dagoen informazio guztia ezabatuko da. Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Biltegiratzea**.
3. Sakatu > **Formateatu**.
4. Jarraitu pantailako jarraibideei.

# Konpresioari buruz

Konpresioa BlackBerry® gailuan dauden datuen tamaina murrizteko hauek osorik mantentzen diren bitartean diseinatuta dago. Konpresioa gaituta dagoenean, zure gailuak gailuaren datu guztiak konprimitzen ditu, mezuak, kontaktuak, egutegiko sarrerak, egitekoak eta memorandumak barne. Konpresioa gaituta eduki beharko zenuke.

Konpresioa eta enkriptatzea gaituta badaude, zure gailuak datuak konprimitzen ditu hauek enkriptatu baino lehen.

# Fitxategiak enkriptatzeari buruz

BlackBerry® telefonoan eta telefonoan sar daitekeen memoria-txartelean gordetako fitxategiak babesteko diseinatuta dago fitxategi-enkriptatzea. Telefonoak sortzen duen enkriptatze-gako bat, telefonoaren pasahitza edo biak erabiliz enkripta ditzakezu telefonoan eta memoria-txartelean dauden fitxategiak.

Fitxategiak telefonoak sortutako gako bat erabiliz enkriptatu badituzu, memoria-txartela zure telefonoan dagoenean soilik sar zaitezke memoria-txarteleko fitxategietara. Fitxategiak telefonoaren pasahitza erabiliz enkriptatzen badituzu, memoria-txartela sartzen duzun edozein telefonotan sar zaitezke memoria-txarteleko fitxategietara, gailuaren pasahitza baldin badakizu.

## Enkriptazioa aktibatu

BlackBerry® smartphone-aren memoriako datuak enkriptatzeko, smartphone-arentzako pasahitz bat eduki behar duzu.

Zure smartphone-an fitxategiak gordetzeko erabilgarri dagoen lekuaren arabera, baliteke smartphone-an fitxategiak ezin enkriptatzea.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Enkriptatzea**.
3. Smartphone-an datuak enkriptatzeko, **Gailuaren memoria** atalean, markatu **Enkriptatu** kontrol-laukia.
4. Multimedia-txartel batean edo smartphone-an gordetako fitxategiak enkriptatzeko, hautatu **Multimedia-txartela** ataleko **Enkriptatu** kontrol-laukia eta burutu ekintza hauetako bat:
   - Smartphone-ak sortzen duen enkriptazio gako bat erabiliz fitxategiak enkriptatzeko, **Modua** eremuan hautatu **Gailuaren gakoa**.
   - Smartphone-aren pasahitza erabiliz fitxategiak enkriptatzeko, hautatu **Modua** eremuan **Gailuaren pasahitza**.
   - Fitxategiak enkriptazio gakoa eta smartphone-aren erabiliz enkriptatzeko, hautatu **Modua** eremuan **Gailuaren pasahitza eta gailuaren gakoa**.
5. Multimedia fitxategiak, hala nola, irudiak, abestiak eta bideoak enkriptatzeko, hautatu **Gehitu multimedia fitxategiak** kontrol laukia.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

Smartphone-an datuak enkriptatzeari uzteko, **Gailuaren memoria** atalean, kendu marka **Enkriptatu** kontrol-laukiari. Fitxategiak enkriptatzeari uzteko, garbitu **Gailuaren memoria** ataleko **Enkriptatu** kontrol-laukia.

# Aholkuak: Biltegiratze lekua eta memoria-txartelak

## Aholkuak: memorian lekua egitea eta mantentzea

Saiatu BlackBerry® telefonoko aplikazioen memorian, gutxienez, 400 KB erabilgarri izaten. Telefonoko prozesuak normalean baino mantsoagoak direla ikusten baduzu, saiatu lekua egiten behar ez dituzun fitxategiak ezabatuta. Mezu elektronikoen, egutegiko sarreren eta multimedia-fitxategien aukerak aldatuz gero, baliteke memoria mantentzea.

| | |
|---|---|
| Zenbat biltegiratze leku duzun libre. | Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Biltegiratzea**. |
| Itxi erabiltzen ari ez zaren aplikazio guztiak. | Aplikazio batean, sakatu tekla > **Itxi** edo sakatu tekla hasierako pantaila agertu arte. |

| | |
|---|---|
| Ezabatu behar ez dituzun fitxategiak. | Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Fitxategiak** ikonoa. Bilatu eta nabarmendu fitxategi bat. Sakatu tekla > **Ezabatu**. |
| Ezabatu arakatze-historia eta garbitu cache-a. | Hasierako pantailan, sakatu **Arakatzailea** ikonoa. Sakatu tekla > **Aukerak**. Joan **Garbitu arakatze-datuak** atalera. |
| Murriztu smartphone-an mezu elektronikoak eta egutegiko sarrerak biltegiratzeko denbora-tartea. | Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa edo **Egutegia** ikonoa. Sakatu tekla > **Aukerak**. |
| Utzi bidalitako mezuak smartphone-an gordetzeari. | Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta elektronikoaren lehentasunak**. |
| Mezu elektroniko luzeen lehen zatia soilik jaso eta aukeratu gehiago deskargatu ala ez. | Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Mezuaren bistaratzea eta ekintzak**. |
| Gorde fitxategiak memoria-txartelean, smartphone-an gorde beharrean. | 32 GB arteko memoria-txartelak onartzen ditu BlackBerry telefonoak. microSD memoria-txartelak soilik onartzen dira. |
| Ateratako argazkien tamaina murriztu. | Hasierako pantailan, sakatu **Kamera** ikonoa. Sakatu tekla > **Aukerak**. |

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

**Lotutako informazioa**

Fitxategi bat kopiatu, mugitu, berrizendatu edo ezabatu, 134
Mezu elektroniko luzeen lehen zatia soilik jaso, 94
Ateratzen dituzun argazkien tamaina aldatu, 153
Smartphone-an biltegiratzeko zenbat leku libre duzun ikusi, 283
Telefonoa mezuak zenbat denboraz gordeko dituen ezarri, 82
Ez gorde telefonoan ordenagailutik bidalitako mezu gehiagorik, 93
Ez gorde ordenagailuan telefonotik bidalitako mezu gehiagorik, 93
Smartphone-ak egutegiko sarrerak zenbat denboran zehar gordetzen dituen aldatu, 187
Aplikazio bat exekutatzen utzi eta beste aplikazio batera aldatu, 237
Memoria gutxi geratzen da nire telefonoaren aplikazioan, 287

# Arazoak: biltegiratze lekua eta memoria-txartelak

## Telefonoak ez du nire multimedia-txartela ezagutzen

Probatu ekintza hauetako bat:

- Ziurtatu multimedia-txartela behar bezala sartu duzula BlackBerry® telefonoan. Telefonoan multimedia-txartel bat sartzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi telefonoarekin batera banatutako informazioa.
- Multimedia-txartelaren aukeretan, multimedia-txartela formateatzeko aukera badago, deskonektatu telefonoa ordenagailutik. Formateatu memoria txartela
  **KONTUZ:** Multimedia-txartela formateatzen baduzu, bertako fitxategi guztiak ezabatuko dira.

## Memoria gutxi geratzen da nire telefonoaren aplikazioan

BlackBerry® telefonoaren aplikazio-memoria erabilgarri gutxi geratzen denean, normalean erabiltzen ez dituzun aplikazio eta hizkuntzen elkarrizketa-koadroa bistaratuko dizu telefonoak. Zerrenda horretako aplikazioak eta hizkuntzak ezabatu ditzakezu.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu mezu elektroniko zaharrak edo testu-mezuak ezabatu dituzula, bereziki eranskinak dituzten mezuak.
- Egiaztatu jada zure erakundeko kontaktuen zerrendan dauden kontaktuak ezabatu dituzula.
- Egiaztatu multimedia-fitxategiak telefonoaren memoriatik ezabatu dituzula.
- Duela gutxi eguneratu baduzu zure BlackBerry® Device Software haririk gabeko sare bat baliatuz, egiaztatu BlackBerry Device Software aurreko bertsioa ezabatu duzula.
- Egiaztatu arakatzailearen cachea garbitu duzula.

**Lotutako informazioa**

Smartphone-an biltegiratzeko zenbat leku libre duzun ikusi, 283
Aholkuak: memorian lekua egitea eta mantentzea, 29

# Bilatu

## Nola: Bilaketa

### Elementu bat bilatu

Laguntza, kontaktuak, dokumentuak, fitxategiak, memorandumak, argazkiak, bideoak eta askoz gehiago bila dezakezu BlackBerry® telefonoan. Bilaketa aplikazio batera mugatzea aukera dezakezu. Zure bilaketa Internetera zabaltzea aukera dezakezu.

1. Hasierako pantailan dagoen goi-eskuinaldeko ertzean, sakatu **bilatu** ikonoa.
2. Idatzi bilatu beharreko terminoak.

Bilatzeari uzteko, sakatu tekla birritan.

**Lotutako informazioa**

Hasierako pantailan idazten duzunean zer gertatzen den aldatu, 18

### Ahotsa gaitutako bilaketa erabiliz elementuak bilatu

Baliteke ahotsa gaitutako bilaketa hizkuntza guztietan ez egotea Egitekoa burutzeko, BlackBerry® telefonoak hari gabeko sarera konektatua egon behar du.

1. Hasierako pantailan dagoen goi-eskuinaldeko ertzean, sakatu **bilatu** ikonoa.
2. Sakatu **mikrofonoa** ikonoa.
3. Esan bilatu beharreko terminoa.

Bilatzeari uzteko, sakatu tekla birritan.

### Bilaketetako elementu motak ezarri

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Bilatu**.
3. Zehaztu bilaketetan sartu nahi dituzun elementu motak
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Ahotsa gaitutako bilaketaren hizkuntza aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta sarrera** > **Hizkuntza**.
3. Aldatu **Ahotsa gaitutako hizkuntza** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Mezuak bilatu

BlackBerry® telefonoko mezuak bila ditzakezu. Posta-kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Internet Service edo BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, baliteke mezuak ordenagailuko posta-aplikazioan edo asoziatutako beste kontu elektronikoko batean ere bilatu ahal izatea.

Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.

- Gaiaren arabera mezuak bilatzeko, nabarmendu mezu bat. Sakatu tekla > **Bilatu honela** > **Gaia**.
- Igorlearen arabera mezuak bilatzeko, nabarmendu mezu bat. Sakatu tekla > **Bilatu honela** > **Igorlea**.
- Bilaketa aurreratua gauzatzeko, sakatu tekla > **Bilatu honela** > **Aurreratua**. Zehaztu bilaketaren irizpideak. Bilaketa irizpideak gordetzeko, sakatu tekla > **Gorde**. Sakatu **Bilatu**.
- Mezuak zure azken bilaketa aurreratuaren irizpideekin bilatzeko, sakatu tekla > **Bilatu honela** > **Aurreratua**. Sakatu tekla > **Azkena**.

**Oharra:** Mezuak bilatzen badituzu, telefonoak ez du eranskinik bilatuko.

Bilatzeari uzteko, sakatu tekla.

# Mezuen bilaketarako irizpideak

| Eremua | Deskribapena |
|---|---|
| Bilatu mezuak | Zehaztu bilatu nahi dituzun mezuak BlackBerry® telefonoan edo ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioren batean dauden. |
| Izena | Zehaztu telefonoak mezuetan bilatu beharreko kontaktuak edo helbide elektronikoak. Bilaketa zabaltzeko, izen baten zati bat ere idatz dezakezu. |
| Hemen agertzen da | Aldatu telefonoak izena edo helbide elektronikoa bilatzeko erabili behar duen helbide-eremu mota. |
| Gaia | Zehaztu telefonoak mezuetan bilatu beharreko hitzak. |
| Mezua | Zehaztu telefonoak mezuen gorputzean bilatu beharreko hitzak. |
| Enkriptatutako mezuak barne | Zehaztu telefonoak mezu enkriptatuetan, testu arrunteko mezuetan eta digitalki sinatutako mezuetan bilatu behar duen. |
| Zerbitzua | Telefonoa helbide elektroniko ugaritara asoziatuta badago, aldatu telefonoak mezuak bilatu behar dituen posta-kontua. Kontu elektroniko guztiek ez dute eginbide hau onartzen. |

| Eremua | Deskribapena |
|---|---|
| Karpeta | Aldatu telefonoak mezuak bilatu behar dituen mezuak. |
| Erakutsi | Aldatu telefonoak bilatzen dituen mezuak egon behar duten egoera. |
| Mota | Aldatu telefonoak bilatu beharreko mezuen mota. |

## Mezuen bilaketaren emaitzei etekin handiagoa atera

1. Bilaketaren emaitzetan, nabarmendu mezu bat.
2. Sakatu tekla.
   - Bilaketaren emaitza erabilgarri gehiago ikusteko, sakatu **Lortu emaitza gehiago**.
   - Nabarmendu duzun mezua mezuen sarrerako ontzian gehitzeko, sakatu **Gehitu**.
   - Bilaketaren emaitzako mezu guztiak mezuen sarrerako ontzian gehitzeko, sakatu **Gehitu guztiak**.
   - Bilaketaren emaitzak ezabatzeko, sakatu **Ezabatu bilaketa**.
   - Bilaketa berri bat hasteko, sakatu **Bilatu honela**.

**KONTUZ:** Mezuen bilaketaren emaitzetatik mezu bat ezabatzen baduzu, mezuen sarrerako ontzitik edo ordenagailuko posta elektronikoaren aplikaziotik ere ezabatu egingo da mezua.

## Gordetako bilaketak ikusi, aldatu edo ezabatu

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Bilatu honela** > **Aurreratua**.
3. Sakatu tekla.
   - Gordetako bilaketen zerrenda bat ikusteko, sakatu **Gogoratu**.
   - Gordetako bilaketa bat aldatzeko, sakatu **Gogoratu**. Nabarmendu bilaketaren bat. Sakatu tekla > **Editatu bilaketa**. Aldatu bilaketa irizpideak. Sakatu tekla > **Gorde**.
   - Gordetako bilaketa bat ezabatzeko, sakatu **Gogoratu**. Nabarmendu bilaketaren bat. Sakatu tekla > **Ezabatu bilaketa**.

## Testua mezu batean, fitxategi batean edo web orri batean bilatu

Aurkezpen batean testua bilatzeko, aurkezpena Ikusi testua moduan edo Ikusi testua eta diaporama moduan ikusi behar duzu.

1. Mezu, fitxategi, eranskin edo web orrialde batean, sakatu tekla > **Bilatu** edo **Bilatu orrialdean**.
2. Idatzi testua.
3. Sakatu teklatuko tekla.

Hurrengo bat-etortzea bilatzeko, sakatu tekla > **Bilatu hurrengoa** edo **Bilatu orrialdeko hurrengoa**.

## Kontaktuak bilatu

Kontaktuak kontaktu-zerrendan bila ditzakezu edo, zure posta elektronikoko kontuak BlackBerry® Enterprise Server erabiltzen badu, baliteke zure erakundeko kontaktu-zerrendan ere bilatu ahal izatea.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Kontaktuak** ikonoa.
   - Kontaktu bat zure kontaktu-zerrendan bilatzeko, idatzi kontaktuaren izenaren zati bat edo izen osoa.
   - Kontaktu bat zure erakundeko kontaktu-zerrendan bilatzeko, sakatu **Urrutiko bilaketa**. Idatzi kontaktuaren izenaren zati bat edo izen osoa. Sakatu **Ados**.
2. Nabarmendu kontaktu bat.
3. Sakatu tekla.
   - Kontaktu baten informazioa ikusteko, klikatu **Ikusi**.
   - Zure erakundeko kontaktu-zerrendatik zeurera kontaktu bat gehitzeko, sakatu **Gehitu kontaktuetan**.
   - Zure erakundeko kontaktu-zerrendatik zeurera kontaktu guztiak gehitzeko, sakatu **Gehitu guztiak**.
   - Zure erakundeko kontaktu-zerrendako hurrengo 20 emaitzak ikusteko, sakatu **Lortu emaitza gehiago**.
   - Bilaketaren emaitzak murrizteko kontaktu baten izenak emaitza anitz dituenean, nabarmendu kontaktu baten izena. Sakatu **Konpondu**.
   - Zure erakundeko kontaktu-zerrendan bilaketa gauzatu ondoren bilaketaren emaitzak ezabatzeko, sakatu **Ezabatu bilaketa**.
   - Bilaketa berri bat hasteko zure erakundeko kontaktu-zerrendan bilatzen duzunean, sakatu **Bilaketa**.

# Arazoak: Bilaketa

## Ez dut ahotsa gaitutako bilaketa-emaitzarik eskuratzen

Saiatu ekintza hauetako bat:

- Egiaztatu BlackBerry® smartphone-ak hari gabeko sarerako konexio indartsua duela.
- Egiaztatu ahotsa gaitutako bilaketarentzako hizkuntza zuzena dela.

**Lotutako informazioa**

Sare-konexioen eta -zerbitzuen egoera egiaztatu, 249

# SIM txartela

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke BlackBerry® telefonoak SIM txartelik ez erabiltzea.

## Nola: SIM txartela

### Kontaktu bat zure SIM txartelean gehitu

1. Kontaktuen zerrendan, sakatu tekla > **SIM txarteleko telefono liburua**.
2. Sakatu tekla > **Berria**.
3. Idatzi kontaktuaren informazioa.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### SIM txarteleko kontaktuak zure kontaktu zerrendan kopiatu

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea.

1. Kontaktuen zerrendan, sakatu tekla > **SIM txarteleko telefono liburua**.
2. Sakatu tekla > **Kopiatu guztia kontaktuetan**.

**Oharra:** Zure kontaktu zerrendan jada dagoen telefono bera duen SIM txarteleko kontaktu bat kopiatzen saiatzen bazara, zure BlackBerry® smartphone-ak ez du SIM kontaktua kopiatuko.

**Lotutako informazioa**

Kontaktuak gehitu, 191

### Zure kontaktu zerrendako kontaktu bat SIM txartelean kopiatu

1. Kontaktu zerrendan, sakatu kontaktu bat.
2. Nabarmendu telefono zenbaki bat.
3. Sakatu tekla > **Kopiatu SIM txarteleko telefono liburura**.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### SIM txarteleko kontaktuak hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen kontaktuen babeskopia-zerbitzarian gorde

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen eta hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke kontaktuak hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen kontaktuen babeskopia-zerbitzarian gordetzea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

# Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen kontaktuen babeskopia-zerbitzariko kontaktuak ordeztu edo bateratu

Ekintza hori burutzeko, saioa hasi behar duzu hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen kontaktuen babeskopia-zerbitzarian eta SIM txarteleko telefono-liburuaren babeskopia egina izan behar duzu hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen kontaktuen babeskopia-zerbitzarian. BlackBerry® smartphone-an SIM txartel berri bat sartzen duzunean, SIM txartel horretako telefono-liburua hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen kontaktuen babeskopia-zerbitzarian babeskopia egin duzun kontaktuekin ordeztea edo bateratzea aukera dezakezu.

1. Sartu SIM txartel berria smartphone-an edo aldatu SIM txartela.
2. Hasierako pantailan, sakatu **Kontaktuak** ikonoa.
3. Kontaktuen babeskopia egiteko zerbitzuan saioa hasi nahi duzun galdetutakoan, hautatu **Bai**.
   - SIM txarteleko telefono-liburua hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen kontaktuen babeskopia-zerbitzarian dauden kontaktuekin ordezteko, sakatu **Ezabatu**.
   - SIM txarteleko telefono-liburua hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen kontaktuen babeskopia-zerbitzarian dauden kontaktuekin bateratzeko, sakatu **Ez ezabatu**.
4. Sakatu **Hurrengoa**.

# SIM txarteleko kontaktu bat aldatu edo ezabatu

1. Kontaktuen zerrendan, sakatu tekla > **SIM txarteleko telefono liburua**.
2. Nabarmendu kontaktu bat.
   - SIM txarteleko kontaktu bat aldatzeko, sakatu tekla > **Editatu**. Aldatu kontaktuaren informazioa. Sakatu tekla > **Gorde**.
   - SIM txarteleko kontaktu bat ezabatzeko, sakatu tekla > **Ezabatu**.

# Testu mezuak zure SIM txartelean gorde

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke ginbide hau bateragarria ez izatea.
BlackBerry® telefonoak SIM txartela erabiltzen badu eta testu-mezuak gordetzeko SIM txartela hautatzen baduzu, testu-mezuak Mezuak aplikazioan agertuko dira oraindik.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. Hautatu **Utzi mezuak SIM txartelean** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Testu-mezuak SIM txartelean gordetzeari uzteko, garbitu **Utzi mezuak SIM txartelean** eremua. Kontrol-laukia garbituz gero, testu-mezuak SIM txarteletik ezabatuko dira.

# Pantailaren izena telefono zenbaki batengatik aldatu

Zure SIM txartelak telefono bat baino gehiago onartzen baditu, zure telefono zenbakien bistaratzeko izena pertsonaliza dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **SIM txartela**.
3. Nabarmendu telefono zenbaki bat.
4. Sakatu tekla > **Editatu SIM txarteleko telefono zenbakia**.
5. Idatzi telefono zenbakiaren bistaratzeko izena.
6. Sakatu teklatuko tekla.

# SIM txartelaren segurtasunari buruz

SIM txartela PIN kodearekin babes dezakezu BlackBerry® telefonoaren segurtasun-maila areagotzeko. SIM txartela PIN kodearekin blokeatzen baduzu, beste inork ezingo du telefonoan bere SIM txartela erabili. Zure SIM txartela beste gailu batean erabili aurretik, PIN kodea idatzi behar duzu.

# SIM txartela PIN kodearekin babestu

Zure SIM txartelaren PIN kodea lortzeko, jarri hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin harremanetan.

**Oharra:** SIM txartelaren PIN kodea oker idazten baduzu hiru aldiz jarraian, SIM txartelak funtzionatzeari uzten dio.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **SIM txartela**.
3. Sakatu tekla > **Gaitu segurtasuna**.
4. Idatzi SIM txartelaren PIN kodea.
5. Sakatu teklatuko tekla.

# SIM txartelaren PIN kodea aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Gailua** > **Sistemaren ezarpen aurreratuak** > **SIM txartela**.
3. Sakatu tekla > **Aldatu PIN2 kodea**.

# Segurtasuna

## Nola: Segurtasuna

### Segurtasunaren oinarrizko ezagutzak

#### Smartphone-en pasahitzari buruz

BlackBerry® smartphone-aren pasahitza ezartzen baduzu, smartphone-a desblokeatzeko pasahitz hori eskatuko zaizu.

Pasahitza ahazten baduzu, ezin da berreskuratu. Pasahitza sartzeko dituzun aukerak agortzen badituzu, zure smartphone-ak gordetako informazio guztia ezabatuko du segurtasun arrazoiengatik eta pasahitz berri bat ezartzeko eskatuko zaizu. Smartphone-ak BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, administratzaileak ezarritako IT politiken arabera, baliteke multimedia txarteleko datuak ere ezaba daitezke. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

**Lotutako informazioa**

Telefonoaren pasahitz bat zehaztu, 295
Nire gailuaren pasahitza ahaztu dut, 38
Smartphone-ak larrialdi-dei bat egin nahi dudan galdetzen dit pasahitz bat idazten dudanean, 328

#### Telefonoaren pasahitz bat zehaztu

BlackBerry® telefonoaren pasahitza ahazten baduzu, ezin da berreskuratu. Uneko pasahitza jakin gabe berrezar dezakezu pasahitza. Baina, horretarako telefonoko datu guztiak ezabatuko dira.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Pasahitza**.
3. Sakatu **Ezarri pasahitza**.
4. Idatzi pasahitza.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

BlackBerry® telefonoaren pasahitza desaktibatzeko, garbitu **Gaitu** kontrol-laukia.

**Lotutako informazioa**

Telefonoa blokeatu edo desblokeatu, 23
Telefonoko datuen babeskopiak egin eta berrezartzeari buruz, 181
Smartphone-en pasahitzari buruz, 295
Nire gailuaren pasahitza ahaztu dut, 38
Smartphone-ko datuak, hirugarrenen aplikazioak edo memoria txarteleko fitxategiak ezabatu, 297

## Smartphone-aren pasahitza aldatzea

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Pasahitza** > **Aldatu pasahitza**.

## Telefonoa blokeatu edo desblokeatu

Nahi gabe tekla bat edo pantaila sakatzea edo deitzea sahiesteko teklatua eta pantaila blokea ditzakezu eta, BlackBerry® telefonoaren pasahitza ezarrita baduzu, telefonoa ere blokea dezakezu pasahitz batekin.

Zuk edo administratzaileak zehaztutako pasahitz-aukeren arabera, denbora-tarte batean telefonoa erabiltzen ez baduzu, baliteke telefonoa pasahitzarekin automatikoki blokeatzea.

Burutu ekintza hauetako bat:

- Teklatua eta pantaila blokeatzeko, sakatu tekla, telefonoaren goialdean.
- Teklatua eta pantaila desblokeatzeko, sakatu .
- Telefonoa pasahitz batekin blokeatzeko, sakatu Hasierako pantailako edo karpeta bateko ikonoa.
- Telefonoa desblokeatzeko, idatzi pasahitza. Sakatu teklatuko tekla.

**Lotutako informazioa**

Telefonoaren pasahitz bat zehaztu, 295

## Smartphone-a blokeatu zorroan sartutakoan

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Pasahitza**.
3. Hautatu **Blokeatu eskukoa zorroan dagoenean** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Smartphone-a blokeatu aurretik igaroko den denbora aldatzea

Administratzaileak ezarritako aukeren arabera, baliteke egiteko hori burutzeko gai ez izatea. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

BlackBerry® smartphone-aren pasahitz bat ezartzen baduzu, smartphone-a denbora jakin bat pasa ondoren automatikoki blokeatuko den aukera dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Pasahitza**.
3. Aldatu **Blokeatu honen ostean** eremua.

### Telefonoko-pasahitzak idazteko gehienezko saiakera muga ezarri

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Pasahitza**.
3. Aldatu **Pasahitzaren saiakera kopurua** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Smartphone-ko datuak, hirugarrenen aplikazioak edo memoria txarteleko fitxategiak ezabatu

BlackBerry® smartphone-ko edo memoria txarteleko datuak ezabatu aurretik, kontutan hartu elementuen babeskopia egitearen aukera, ordenagailuan kopia bat izan dezazun.

**KONTUZ:** Enkriptatzea aktibatuta baduzu, smartphone-ko datu guztiak ezabatzeko prozesuak ordubete arte iraun dezake. Hasi ondoren, ezin da prozesua gelditu. Smartphone-a berrabiarazten baduzu, prozesuari berrekiten dio smartphone-a berrabiarazi ondoren.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasunezko ezabatzea**.
    - Mezuen aplikazioko, kontaktuen aplikazioko, eta beste aplikazio batzuetako datuak ezabatzeko, hautatu **Emailak, Kontaktuak, etab.** kontrol-laukia.
    - Zuk gehitutako hirugarrenen aplikazioak ezabatzeko, hautatu **Erabiltzaileak instalatutako aplikazioak** kontrol-laukia.
    - Memoria txarteleko fitxategi guztiak ezabatzeko, hautatu **Memoria txartela** kontrol-laukia.
3. Idatzi **blackberry**.
4. Sakatu **Garbitu datuak**.

Smartphone-a berriro saltzeko prestatzen ari bazara eta BlackBerry® Internet Service darabilen posta elektronikoko kontu bat baduzu, kontu horretako mezuak zure smartphone-ra bidaltzea eragozteko, jarri zure hari gabeko zerbitzu hornitzailearekin harremanetan smartphone-aren eta kontuaren arteko asoziazioa bertan behera utz dezan.

## Pasahitz biltzailea

### Pasahitz-biltzaileari buruz

Erabili pasahitz-biltegia pasahitz guztiak leku bakarrean gordetzeko. Pasahitzak pasahitz-biltegiaren pasahitzarekin babesteko diseinatu da pasahitz-biltegia. Pasahitz hori idazten duzunean, pasahitz-biltegiak pasahitzak desenkriptatuko ditu.

Zenbakiak, letrak eta sinboloak dituzten ausazko pasahitzak sortzeko ere erabili dezakezu pasahitz-biltegia.

### Add, change, or delete a password in the Password Keeper

Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, klikatu **Pasahitz biltzailea** ikonoa.

- Kontaktu bat gehitzeko, sakatu tekla > **Berria**. Idatzi pasahitz informazioa. Sakatu tekla > **Gorde**.

- To change a password, highlight a password. Sakatu tekla > **Ireki**. Aldatu pasahitzaren informazioa. Sakatu tekla > **Gorde**.
- To delete a password, highlight a password. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

## Pasahitz-biltegiaren pasahitza aldatu

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, klikatu **Pasahitz biltzailea** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aldatu pasahitza**.

## Pasahitza idazteko gehienezko saiakera kopurua ezarri pasahitz-biltegian

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, klikatu **Pasahitz biltzailea** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. Aldatu **Pasahitz-saiakerak** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Pasahitzak kopiatu

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, klikatu **Pasahitz biltzailea** ikonoa.
2. Nabarmendu pasahitz bat.
3. Sakatu tekla > **Kopiatu erabiltzailearen izena** edo **Kopiatu pasahitza**.

Arbela garbitzeko, sakatu tekla > **Garbitu arbela**.
**Oharra:** Pasahitzak arbelean daudenean ez daude enkriptatuta.

## Pasahitza kopiatzea eragotzi

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, sakatu **Pasahitz biltzailea** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. **Pasahitzaren sarrerak** atalean, kendu marka **Baimendu arbelan kopiatzea** kontrol-laukiari.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Pasahitz-biltegian pasahitzak ezkutatu edo erakutsi

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, klikatu **Pasahitz biltzailea** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
    - Pasahitz-biltegiko pasahitzak ezkutatzeko, garbitu **Erakutsi pasahitza** kontrol-laukia.
    - Pasahitzak berriro pasahitz-biltegian erakusteko, hautatu **Erakutsi pasahitza** kontrol-laukia.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Ausazko pasahitza sortu

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, klikatu **Pasahitz biltzailea** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Berria**.

3. Sakatu tekla > **Ausazko pasahitza**.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Ausaz sortutako pasahitzentzako irizpideak ezarri

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, klikatu **Pasahitz biltzailea** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak**.
3. Ausazko pasahitzen eremuak ezarri.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Enkriptatzea

### Datuak zure smartphone-an enkriptatzeari buruz

Zure BlackBerry® smartphone-ko datuen enkriptatzea aktibatuta badago, smartphone-ak gako pribatu bat erabiltzen du datuak gailuan gordetzen direnean enkriptatzeko, smartphone-a blokeatuta dagoen bitartean jasotzen dituen datuak barne. Smartphone-ak datuak desenkriptatzen ditu horietara sartzen zarenean.

Enkriptatzean kontaktuak barne sartzea ala ez hauta dezakezu. Kontaktuen enkriptatzea gaitzen baduzu eta smartphone-a blokeatuta dagoenean dei bat jasotzen baduzu, deitzailearen izena ez da pantailan agertuko.

Autentifikaziorako txartel adimenduaren ziurtagiri bat erabiltzen baduzu, txartel adimenduaren arabera, baliteke zure txartel adimenduaren ziurtagiriak erabili ahal izatea bi faktoreko enkriptatzea lortzeko. Enkriptatutako edukira sartzeko, zure smartphone-aren pasahitza sartu eta smartphone-a txartel adimenduko irakurgailu batera konektatu behar duzu.

Zure smartphone-a blokeatzen duzunean, giltzarrapo ireki baten itxura duen adierazle bat agertuko da pantailaren goialdean smartphone-a datuak babesten ari dela adierazteko, smartphone-aren aldi baterako memoriatik gako pribatuaren kopia ezabatzea barne. Giltzarrapo itxura duen adierazle bat agertzen da pantailaren goialdean smartphone-ak gakoa ezabatu duenean.

### Fitxategiak enkriptatzeari buruz

BlackBerry® telefonoan eta telefonoan sar daitekeen memoria-txartelean gordetako fitxategiak babesteko diseinatuta dago fitxategi-enkriptatzea. Telefonoak sortzen duen enkriptatze-gako bat, telefonoaren pasahitza edo biak erabiliz enkripta ditzakezu telefonoan eta memoria-txartelean dauden fitxategiak.

Fitxategiak telefonoak sortutako gako bat erabiliz enkriptatu badituzu, memoria-txartela zure telefonoan dagoenean soilik sar zaitezke memoria-txarteleko fitxategietara. Fitxategiak telefonoaren pasahitza erabiliz enkriptatzen badituzu, memoria-txartela sartzen duzun edozein telefonotan sar zaitezke memoria-txarteleko fitxategietara, gailuaren pasahitza baldin badakizu.

### Enkriptazioa aktibatu

BlackBerry® smartphone-aren memoriako datuak enkriptatzeko, smartphone-arentzako pasahitz bat eduki behar duzu.

Zure smartphone-an fitxategiak gordetzeko erabilgarri dagoen lekuaren arabera, baliteke smartphone-an fitxategiak ezin enkriptatzea.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Enkriptatzea**.
3. Smartphone-an datuak enkriptatzeko, **Gailuaren memoria** atalean, markatu **Enkriptatu** kontrol-laukia.
4. Multimedia-txartel batean edo smartphone-an gordetako fitxategiak enkriptatzeko, hautatu **Multimedia-txartela** ataleko **Enkriptatu** kontrol-laukia eta burutu ekintza hauetako bat:
   - Smartphone-ak sortzen duen enkriptazio gako bat erabiliz fitxategiak enkriptatzeko, **Modua** eremuan hautatu **Gailuaren gakoa**.
   - Smartphone-aren pasahitza erabiliz fitxategiak enkriptatzeko, hautatu **Modua** eremuan **Gailuaren pasahitza**.
   - Fitxategiak enkriptazio gakoa eta smartphone-aren erabiliz enkriptatzeko, hautatu **Modua** eremuan **Gailuaren pasahitza eta gailuaren gakoa**.
5. Multimedia fitxategiak, hala nola, irudiak, abestiak eta bideoak enkriptatzeko, hautatu **Gehitu multimedia fitxategiak** kontrol laukia.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

Smartphone-an datuak enkriptatzeari uzteko, **Gailuaren memoria** atalean, kendu marka **Enkriptatu** kontrol-laukiari. Fitxategiak enkriptatzeari uzteko, garbitu **Gailuaren memoria** ataleko **Enkriptatu** kontrol-laukia.

## Enkriptatze indarra ezarri

BlackBerry® telefonoan gordetako datuen enkriptatzea aktibatuta badago, telefonoa blokeatuta dagoenean jasotzen dituzun datuak babesteko telefonoak erabiltzen duen enkriptatze-indarra ezar dezakezu.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Enkriptatzea**.
3. Aldatu **Indarra** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Telefonoko enkriptatze-gakoak enkriptatzeko ziurtagiri bat erabili

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

BlackBerry telefonoan gordetako datuen enkriptatzea aktibatuta badago eta txartel adimendunaren irakurgailuak eginbidea onartzen badu, baliteke txartel adimenduneko ziurtagiria erabili ahal izatea gailuaren enkriptatze-gakoak enkriptatzeko.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Enkriptatzea**.
3. Hautatu **Bi faktoreko babesa** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

### Enkriptatze gakoei buruz

BlackBerry® smartphone-a BlackBerry® Enterprise Server edo BlackBerry® Desktop Redirector bat erabiltzen duen posta elektroniko batekin asoziatuta badago, zure smartphone-a BlackBerry Enterprise Server edo BlackBerry Desktop Redirector eta zure smartphone-aren artean bidaltzen diren datuak babesteko enkriptatze gako bat erabiltzeko diseinatuta dago.

Enkriptatze gako berri bat sortu beharko zenuke 2 astero.

### Enkriptatze gakoak sortu

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun egoeraren informazioa**.
3. Nabarmendu zerbitzu bat.
4. Sakatu tekla.
5. Sakatu **Birsortu enkriptatze gakoa**.

## Memoria garbitzea

### Memoria garbiketari buruz

Memoria garbiketa BlackBerry® telefonoaren aldi baterako memoriaren datu sentikorrak ezabatzeko diseinatuta dago. Datu sentikorren adibideak cachearen datu sentikorrak gako biltegi arakatzailearentzako, mezu elektronikoen enkriptatu gabeko datuak, LDAP autentikazio pasahitzak, hala nola ziurtagiri eta gakoen bilaketen datuak dira.

Memoria garbiketa gaituta dagoenean, memoria garbiketa aplikazioa hurrengo egoeretan datu sentikorrak ezabatzeko diseinatuta dago:

- Telefonoa zorroan sartzen duzunean
- Telefonoa denbora zehatz batean zehar erabiltzen ez duzunean
- Ordenagailua sinkronizatzen duzunean
- Telefonoaren ordua edo ordu-zona aldatzen duzunean
- Telefonoa blokeatzen duzunean

### Memoria garbiketa aktibatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Memoria garbiketa**.
3. Hautatu **Gaitu** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Zure gailuak smartphone-aren aldi baterako memoriatik datu pribatuak noiz ezabatzen dituen aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Memoria garbiketa**.
   - BlackBerry® smartphone-a zorroan sartzen duzunean datu garrantzitsuak ezabatzea saihesteko, garbitu **Garbitu zorroan dagoenean** kontrol-laukia.
   - Smartphone-a denbora zehatz batean zehar inaktibo dagoenean datu garrantzitsuak ezabatzea saihesteko, garbitu **Garbitu inaktibo dagoenean** kontrol-laukia.
   - Smartphone-a erabiltzeari uzten diozunean datu sentikorrak ezabatu baino lehen zenbat denboran zehar itxaron behar duen aldatzeko, aldatu **Inaktibo Denbora Muga** eremua.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Aplikazioetako datu pribatuak smartphone-aren aldi baterako memoriatik ezabatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Memoria garbiketa**.
3. Datu korapilatsuak aplikazio guztietatik ezabatzeko, **Garbitzeko memoria** atalean, sakatu **Garbitu**.

## Memoria garbitzeko aplikazioaren ikonoa hasierako pantailan ikusi

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Memoria garbiketa**.
3. Hautatu **Kokatu memoria garbiketaren lasterbidea hasierako pantailan** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Ziurtagiriak

## Ziurtagiriei buruz

Ziurtagiri gai baten nortasuna edo gako publikoa lotzen dituen dokumentu digitala da ziurtagiria. Posta-kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzaria erabiltzen badu, administratzaileak emandako autoritate ziurtagiri-emailearen profiletik, hari gabeko sare bidez, deskarga ditzakezu ziurtagiriak. Autoritate ziurtagiri-emaileak ziurtagiria sinatuko du fidagarria dela ziurtatzeko.

Zure enpresaren arabera, ziurtagirietan izena ematea beharrezkoa izan daiteke eta automatikoki ere egin daiteke hori.

## Ziurtagirien oinarrizko ezagutzak

## LDAP gaitutako edo DSML gaitutako zerbitzaritik ziurtagiri bat deskargatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriak**.

3. Sakatu tekla > **Eskuratu ziurtagiriak**.
4. Zehaztu bilaketaren irizpideak.
5. Sakatu tekla > **Bilatu**.
6. Sakatu ziurtagiri bat.
7. Sakatu **Gehitu ziurtagiria gakoen biltegira**.

**Lotutako informazioa**
Ezin dut ziurtagiririk deskargatu, 329

## Ziurtagiriaren izen-emateari buruz

Zure posta elektronikoko kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabiltzen badu, zure administratzaileak emandako autoritate ziurtagiri-emaile baten profiletik ziurtagiriak deskargatu ahal izango dituzu hari gabeko sarearen bidez. Zure enpresaren arabera, ziurtagirietan izen ematea beharrezkoa izan daiteke eta automatikoki ere egin daiteke hori.

Autoritate ziurtagiri-emaile baten profilean izena ematen duzunean, azken ziurtagiria deskargatzen da zure BlackBerry smartphone-ra eta ziurtagirien zerrendan gehitzen da. Autoritate ziurtagiri emaile baten profilak ziurtagiriaren egoera erakusten du. Ziurtagiriari iraungitzeko gutxi falta bazaio, berriro izena eman dezakezu autoritate ziurtagiri-emailearen profilean ziurtagiri eguneratu bat jasotzeko.

## Ziurtagiriak autoritate ziurtagiri-emaileetatik deskargatu

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

Administratzaileak autoritate ziurtagiri-emaile baten profila eman badizu, profilarekin erregistra zaitezke ziurtagiriak BlackBerry smartphone-an deskargatzeko. Ziurtagiriari iraungitzeko gutxi falta bazaio, berriro izen eman dezakezu ziurtagiri eguneratu bat jasotzeko.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriaren izen-ematea** > **Izena eman** or **Izena berriro eman**.
3. Beharrezkoa bada, idatzi zure erakundearen sarera konektatzeko erabiltzen dituzun kredentzialak.

Eskaera prozesatu bitartean autoritate ziurtagiri-emailearen profila ezkutatzeko, sakatu tekla > **Ezkutatu**. Pantaila honetara itzultzeko, hasierako pantailan, sakatu **Autoritate ziurtagiri-emailearen profila** ikonoa.

**Lotutako informazioa**
Ezin dut ziurtagiririk deskargatu, 329

## Zure smartphone-an gordetako ziurtagiri edo PGP gako bat inportatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Multimedia** ikonoa edo **Fitxategiak** ikonoa.
2. Bilatu eta aurkitu ziurtagiri bat edo PGP® gako bat.
3. Sakatu tekla > **Inportatu ziurtagiria** edo **Inportatu PGP gakoa**.

Ziurtagiria edo PGP gakoa ikusteko, sakatu tekla > **Erakutsi ziurtagiria** edo **Erakutsi PGP gakoa**.

## Multimedia txarteletik ziurtagiriak edo PGP gakoak inportatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriak** edo **PGP**.
3. Sakatu tekla > **Erakutsi memoria txarteleko ziurtagiriak** edo **Erakutsi memoria txarteleko PGP gakoak**.

Ziurtagiria edo PGP® gakoa ikusteko, sakatu Menua tekla. tekla > **Erakutsi ziurtagiria** edo **Erakutsi PGP gakoa**.

## Erroko ziurtagiriak telefonoan instalatu

Baliteke Wi-Fi® sare batzuk konektatu ahal ez izatea BlackBerry® telefonoan erroko ziurtagiria instalatzen duzun arte. Erroko ziurtagiria ordenagailuan instalatu eta, ondoren, BlackBerry® Desktop Software kudeatzailearen ziurtagiriak sinkronizatzeko tresna erabil dezakezu erroko ziurtagiria telefonoaren eta ordenagailuaren artean sinkronizatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwarearen Laguntza edo jarri harremanetan administratzailearekin.

## Ziurtagiri baten ezaugarriak ikusi

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriak**.
3. Sakatu ziurtagiri bat.

## Ziurtagirien ezaugarriak

| Jabetza | Deskribapena |
|---|---|
| Errebokazioaren egoera | Eremu honek ziurtagiriak ordu eta data jakin batean duen errebokazio egoera bistaratzen du. |
| Fidagarritasun egoera | Eremu honetan ziurtagiri katearen fidagarritasun egoera agertzen da. Ziurtagiri bat esplizituki fidagarria izan daiteke (ziurtagiria berez fidagarria da), inplizituki fidagarria (ziurtagiri katearen erro ziurtagiria fidagarria da BlackBerry® smartphone-an) edo ez fidagarria (ziurtagiria ez da esplizituki fidagarria eta ziurtagiri katearen erro ziurtagiria ez da fidagarria edo ez da zure smartphone-an existitzen). |
| Iraungitze data | Eremuak ziurtagiriaren iraungitze data bistaratzen du, ziurtagiriaren jaulkitzaileak zehaztutako moduan. |

| Jabetza | Deskribapena |
|---|---|
| Ziurtagiri mota | Eremu honetan ziurtagiriaren formatua agertzen da. Zure smartphone-ak X.509 eta WTLS ziurtagiri formatuak onartzen ditu. |
| Gako publiko mota | Eremu honetan gako publikoak betetzen dituen irizpideak agertzen dira. Smartphone-ak RSA®, DSA, Diffie-Hellman eta ECC gakoak onartzen ditu. |
| Gaia | Eremu honetan ziurtagiriaren gaiari buruzko informazioa agertzen da. |
| Jaulkitzailea | Eremu honetan ziurtagiriaren jaulkitzaileari buruzko informazioa agertzen da. |
| Serie zenbakia | Eremu honetan ziurtagiriaren serie zenbakia agertzen da formatu hamaseitarrean. |
| Gakoen erabilera | Eremu honetan gako publikoaren erabilera onartuak agertzen dira. |
| Gaiaren Alt izena | Eremu honetan ziurtagiriaren gaiaren beste helbide elektroniko bat agertzen da, beste helbide elektronikoren bat erabilgarri badago. |
| Sinadura algoritmoa | Eremu honetan, sinadura digitala sortzeko jaulkitzaileak erabili duen algoritmoa azaltzen da. |
| SHA1 hatz marka | Eremu honetan ziurtagiriaren SHA-1 hatz marka digitala agertzen da. |
| MD5 hatz marka | Eremu honetan ziurtagiriaren MD5 hatz marka digitala agertzen da. |

## Ziurtagirien zerrendako ziurtagiri mota bat ikusi

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriak**.
3. Sakatu tekla.
4. Sakatu menuko elementu hauetako bat:
   - **Erakutsi ziurtagiri pertsonalak**
   - **Erakutsi besteen ziurtagiriak**
   - **Erakutsi CA ziurtagiriak**
   - **Erakutsi erroko ziurtagiriak**

BlackBerry® telefonoko ziurtagiri guztiak ikusteko, sakatu tekla > **Erakutsi ziurtagiri guztiak.**

## Ziurtagiriak bidali

Ziurtagiri bat bidaltzen duzunean, BlackBerry® telefonoak gako publikoa bidaliko du, baina ez du dagokion gako pribatua bidaliko.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriak**.
3. Nabarmendu ziurtagiri bat.
4. Sakatu tekla > **Bidali posta elektroniko bidez** edo **Bidali PIN bidez**.

## Ziurtagiri bat ezabatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriak**.
3. Nabarmendu ziurtagiri bat.
4. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

## Ziurtagiri baten ziurtagiri katea ikusi

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriak**.
3. Nabarmendu ziurtagiri bat.
4. Sakatu tekla > **Erakutsi katea**.

## Ziurtagirien egoera

## Ziurtagirien egoera adierazleak eta ziurtagiri autoritate-emaileen profilak

### Ziurtagirien egoera adierazleak

| Adierazlea | Deskribapena |
|---|---|
|  | Ziurtagiriak BlackBerry® telefonoan edo txartel adimendunean gordeta dagoen gako pribatu bat dauka. |
|  | Ziurtagirien katea fidagarria eta baliozkoa da eta bere errebokazio egoera ona da. |
|  | Ziurtagirien katearen errebokazio egoera ezezaguna da edo bertako gako publiko bat ahula da. |
|  | Ziurtagiria ez da fidagarria edo errebokatu egin da, edo ziurtagirien kateko ziurtagiri bat ez da fidagarria, errebokatu egin da, iraungi egin da, ez da baliozkoa edo ezin da egiaztatu. |

### Autoritate ziurtagiri-emaileen profilen egoera adierazleak

| Adierazlea | Deskribapena |
|---|---|
|  | Baliozko ziurtagiri bat autoritate ziurtagiri-emailearen profilarekin asoziatuta dago. |
|  | Ziurtagiri berri bat berreskuratzen ari da uneko ziurtagiria laster iraungiko da eta. |
|  | Izen emate eskaera autoritate ziurtagiri-emailearen onespenaren zain dago. |
|  | Autoritate ziurtagiri-emailean izena emateko zain, jarraitzeko erabiltzaileak ekintzaren bat burutu behar duelako edo izen ematea gerorako programatuta dagoelako. |
|  | Autoritate ziurtagiri-emailearen profilean izena ematea beharrezkoa da eta automatikoki egingo da. |

## Ziurtagiri edo ziurtagiri kate baten errebokazio egoera egiaztatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriak**.
3. Nabarmendu ziurtagiri bat.
4. Sakatu  tekla > **Eskuratu egoera** edo **Eskuratu katearen egoera**.

## Ziurtagiri baten fidagarritasun egoera aldatu

Zure administratzaileak baimentzen dituen ziurtagiri moten arabera, baliteke ziurtagiri mota batzuez fidatu ezin izatea.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriak**.
3. Nabarmendu ziurtagiri bat.
4. Sakatu  tekla > **Fidatu** edo **Mesfidatu**.
5. Ziurtagiri batez fidatzen bazara, burutu hurrengo ekintzetariko bat:
   - Nabarmendutako ziurtagiriaz fidatzeko, sakatu **Hautatutako ziurtagiria**.
   - Nabarmendutako ziurtagiriaz eta kateko gainontzeko ziurtagiri guztietaz fidatzeko, sakatu **Kate osoa**.

## Ziurtagiriak errebokatu

Ziurtagiri bat errebokatzen baduzu, ziurtagiria BlackBerry® telefonoko gako-biltegian soilik errebokatuko da. Telefonoak ez du autoritate ziurtagiri-emaileen edo CRL zerbitzarien errebokazioaren egoera eguneratzen.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Segurtasuna** > **Segurtasun-ezarpen aurreratuak** > **Ziurtagiriak**.
3. Nabarmendu ziurtagiri bat.
3. Sakatu tekla > **Diagnostikoen proba**.
4. Sakatu tekla > **Aukerak**..
5. Idatzi kontaktuaren informazioa.
6. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Ezin dut diagnostiko-txostenik exekutatu edo bidali

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Saiatu diagnostiko-txostena berriro exekutatzen. Diagnostiko-txostenean, sakatu tekla > **Errepikatu urrats guztiak**.
- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Ezin baduzu diagnostiko txostena helbide elektroniko batera bidali, saiatu txostena PIN batera bidaltzen. Era berean, ezin baduzu diagnostiko txostena PIN batera bidali, saiatu helbide elektroniko batera bidaltzen.

**Lotutako informazioa**

Diagnostiko-txosten bat exekutatu, 330
Diagnostiko-txosten bat ikusi, bidali edo ezabatu, 330

# Telefonoaren modelo-zenbakia eta BlackBerry Device Software softwarearen bertsioa bilatu

Burutu ekintza hauetako bat:

- Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa. Sakatu **Gailua** > **Gailuaren bertsioei buruz**.
- Idazketa-hizkuntzak onartuz gero, idatzi **nirebertsioa** eta zuriune bat mezu edo memorandum batean.

# Sinkronizazioa

## Nola: Sinkronizazioa

### Sinkronizazioari eta bateratzeari buruz

Antolatzaileko datuak (kontaktuak, egutegiko sarrerak, egitekoak eta memorandumak) BlackBerry® telefonoaren eta ordenagailuko posta aplikazioa hari gabeko sarearen bidez sinkronizatzeko diseinatuta dago datuak hari gabe sinkronizatzeko eginbidea.

Mezu elektronikoak telefonoaren eta ordenagailuko posta aplikazioaren artean hari gabeko sarearen bidez sinkronizatzeko diseinatuta dago posta elektronikoaren hari gabeko bateratzearen eginbidea. Telefonoko mezu elektronikoak artxibatzen edo ezabatzen dituzunean, mezu horiek posta elektronikoko aplikazioan ere artxibatu edo ezabatu beharko lirateke. Halaber, ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioan mezu elektronikoei egindako aldaketak ere gailuan agertu beharko lukete.

Kasu bakanetan, telefonoak kontaktu, egutegiko sarrera edo kontu elektroniko baten eremuak ezagutzen ez baditu, datu edo mezu elektroniko batzuk ezin dira ez sinkronizatu ez bateratu.

Hari gabeko datu-sinkronizazio ez dago erabilgarri zure telefonoan edo, eginbide hau desaktibatuta baduzu, BlackBerry® Desktop Software erabil dezakezu antolatzaileko datuak sinkronizatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza hemen.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

### Posta elektronikoa hari gabeko sarearen bidez sinkronizatu

Hari gabeko bateratzea aukera ezar diezaiokezu BlackBerry® telefonoarekin asoziatutako helbide elektroniko bakoitzari. Ondorioz, mezu elektronikoak, hari gabeko sarearen bidez sinkronizatuko dira.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta bat-egitea**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Hautatu **Hari gabeko bateratzea** kontrol-laukia.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Zure smartphone-ko eta ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioan posta elektroniko ezabatu

Ezabatzea aktibatuta aukera ezar dezakezu BlackBerry® smartphone-arekin asoziatuta dagoen helbide elektroniko bakoitzean.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta bat-egitea**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. **Ezabatzea aktibatuta** eremuan hautatu **Postontzia eta eskukoa**.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

Posta elektronikoak denbora tarte labur bat behar izaten du hari gabeko sarearen bidez ezabatzeko.

**Lotutako informazioa**

Mezu bat ezabatu, 80

# Antolatzailearen datuak kablerik gabeko sare baten bidez sinkronizatu

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

1. Kontaktuak aplikazioan, Egutegia aplikazioan, Egitekoak aplikazioan edo MemoPad aplikazioan, sakatu tekla > **Aukerak**.
2. Beharrezkoa bada, sakatu egutegi edo kontaktuen zerrenda bat.
3. Hautatu **Hari gabeko sinkronizazioa** kontrol-laukia.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

BlackBerry® Internet Service zerbitzua erabiltzen baduzu, BlackBerry® Desktop Software erabili behar duzu egutegiko datuak sinkronizatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atala.

**Lotutako informazioa**

Egutegiko sarreretako zenbait karaktere ez dira zuzen agertzen sinkronizatu eta gero, 189
Sinkronizazio gatazkei buruz, 88

# Sinkronizazio gatazkei buruz

Mezu elektronikoko edo antolatzaileko datu bera BlackBerry® telefonoan eta ordenagailuko posta elektronikoko aplikazioan aldatzen duzunean gertatzen dira sinkronizazio gatazkak.

Mezu elektronikoak bateratzeko posta elektronikoaren hari gabeko bateratzea erabiltzen baduzu, bateratze gatazkak gertatzen direnean, lehentasuna gailuak ala ordenagailuak izango duen zehatz dezakezu telefonoan.

Antolatzaileko datuak sinkronizatzeko hari gabeko datu sinkronizazioa erabiltzen baduzu, ordenagailuko antolatzaileko datuek telefonoko datuek baino lehentasun handiagoa izango dute sinkronizazio gatazkak gertatzen direnean.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

**Lotutako informazioa**

Egutegiko sarreretako zenbait karaktere ez dira zuzen agertzen sinkronizatu eta gero, 189
Antolatzailearen datuak kablerik gabeko sare baten bidez sinkronizatu, 182

# Mezu elektronikoaren bateratzearen gatazkak kudeatu

Gatazkak aukera ezar diezaiokezu BlackBerry® telefonoarekin asoziatutako helbide elektroniko bakoitzari.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta bat-egitea**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Aldatu **Gatazkak** eremua.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Datu sinkronizazioaren gatazkak kudeatu

Antolatzaileko datuak sinkronizatzerakoan gertatzen diren gatazkak nola konpontzen diren aldatu dezakezu hari gabeko datu sinkronizazioa desaktibatuta, gatazkak konpontzeko aukerak aldatuta eta antolatzaileko datuak BlackBerry® Desktop Software tresnarekin sinkronizatuta. Antolatzaileko datuak sinkronizatzerakoan gertatzen diren gatazkei buruzko informazio gehiago lortzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atalean.

# Telefonoko datuen babeskopiak egin eta berrezartzeari buruz

Ordenagailuan BlackBerry® Desktop Software instalatuta baduzu, BlackBerry telefonoko datu gehienen babeskopia egin eta datu horiek berrezarri ditzakezu BlackBerry Desktop Software aplikazioren babeskopia eta berrezartze tresna erabiliz. Besteak beste, mezuena, antolatzailearen datuena, letra-tipoena, gordetako bilaketena eta arakatzailearen laster-markena. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atala.

Memoria-txartelean ez baduzu ezer gorde, telefonoko datu gehienen babeskopia egin dezakezu eta datu horiek berrezarri ditzakezu memoria-txartelaren bidez.

Posta-kontuak BlackBerry® Enterprise Server erabiltzen badu, baliteke antolatzailearen datu sinkronizatuak hari gabeko sarean berrezartzeko gai izatea. Antolatzailearen datu sinkronizatuak haririk gabeko sarean zehar leheneratzeko, aktibazio pasahitz bat eduki behar duzu. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

## Ordenagailuko ezabatutako elementuen karpeta telefonotik hustu

Zeregin hori gauzatzeko, laneko posta kontuak eginbide hau onartzen duen BlackBerry® Enterprise Server zerbitzari bat erabili behar du. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Mezuak** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Posta bat-egitea**.
3. **Mezuen zerbitzuak** eremua agertzen bada, zehaztu eremu horretan kontu elektroniko egokia.
4. Sakatu tekla > **Ezabatu elementuak betiko**.

# Arazoak: sinkronizazioa

## Mezu elektronikoak ez dira bateratzen hari gabeko sareraren bidez

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Ziurtatu hari gabeko posta elektronikoaren bateratzea aktibatuta dagoela.
- Bateratu mezu elektronikoak eskuz.

## Antolatzailearen datuak ez dira hari gabeko sarearen bidez sinkronizatzen ari

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Egiaztatu BlackBerry® telefonoa hari gabeko sarera konektatuta dagoela.
- Ziurtatu hari gabeko datuen sinkronizazioa aktibatuta dagoela Kontaktuen aplikazioan, Egutegia aplikazioan, Egitekoak aplikazioan eta MemoPad aplikazioan.
- BlackBerry® Internet Service erabiltzen baduzu, BlackBerry® Desktop Software softwarea erabiliz sinkronizatu behar dituzu antolatzaileko datuak. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Desktop Software softwareko Laguntza atala.

# Kontaktu zerrendaren datuak ez dira nire ordenagailuan agertzen

Zure ordenagailuaren posta elektroniko aplikazioan testu eremua duten eta kontaktu zerrenda pertsonalizatu batean dauden datuak sinkroniza ditzakezu bakarrik. Adibidez, ezin duzu kontaktu baten urtebetetzea BlackBerry® telefonoan dagoen kontaktu zerrenda pertsonalizatu baten eta ordenagailuaren posta-aplikazioaren artean sinkronizatu, urtebetetze-eremua ordenagailuaren posta-aplikazioaren data bat delako.

**Lotutako informazioa**

Kontaktuen eremu pertsonalizatu bat sortu, 191

# Egutegiko sarreretako zenbait karaktere ez dira zuzen agertzen sinkronizatu eta gero

BlackBerry® telefonoko agendan karaktere bereziak edo azentuak dituzten hitzorduak edo bilerak programatzen badituzu, baliteke ordenagailuak karaktere horiek ez onartzea.

Zure ordenagailuan, egiaztatu kode orrialde lehenetsi zuzena erabiltzen ari zarela eta letra tipoarentzako laguntza zuzena instalatuta duzula. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi zure ordenagailuaren sistema eragilearen dokumentazioa.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu Research In Motion-ek; bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko segurtasun kopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, smartphone-ko datuak berreskura ditzakezu, smartphone-a galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

**Lotutako informazioa**

Sinkronizazio gatazkei buruz, 88
Antolatzailearen datuak kablerik gabeko sare baten bidez sinkronizatu, 182

# Erabilerraztasun aukerak

## Nola: Irisgarritasuna

### Pantailaren erabilerraztasun aukerak

#### Bideoetan itxitako epigrafeak bistaratu

Itxitako epigrafeak gai ditzakezu testua pantailan agertzeko itxitako epigrafeak onartzen dituzten bideoak erreproduzitzen dituzunean.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Multimedia** ikonoa.
2. Sakatu tekla > **Multimedia aukerak**.
3. Hautatu **Erakutsi epigrafe itxiak** kontrol-laukia.
4. Beharrezkoa bada, aldatu **Itxura** eremua, **Posizioa** eremua eta **Letraren eskala** eremua.
5. Sakatu tekla > **Gorde**.

#### Pantailaren letra tipoa aldatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Bistaratzea** > **Pantaila bistaratzea**.
3. Aldatu letra tipoaren eremuak.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

**Lotutako informazioa**

Pantailan grisen eskala edo alderantzizko kontrastea erabili, 222
Pantaila bistaratzea, 220

#### Pantailan grisen eskala edo alderantzizko kontrastea erabili

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Erabilerraztasuna**.
   - Grisen eskala erabiltzeko pantailarako, aldatu **Kolore-kontrastea** eremua ondorengora **Grisen eskala**.
   - Pantailan alderantzizko kontrastea erabiltzeko, aldatu **Kolorearen kontrastea** eremua ondorengora **Alderantzizkatu kontrastea**.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Audio eta telefonoaren erabilerraztasun aukerak

## Gertaeren soinuak aktibatu edo desaktibatu

Gertaeren soinuak zure BlackBerry® smartphone-a pizten edo itzaltzen duzunean, bateria maila baxua denean eta USB kablea edo osagai bat smartphone-an konektatzen edo deskonektatzen duzunean abisatzen du.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Erabilerraztasuna**.
3. Aldatu **Gertaera soinuak** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Entzungailuekin deiak nola erantzun aldatu

BlackBerry® smartphone-a Bluetooth® gaitutako entzungailu batekin parekatuta badago edo entzungailuak smartphone-ra entxufatuta badituzu, 5 segundoren ostean smartphone-ak deia automatikoki erantzun dezan ezar dezakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Sarrerako deien ezarpenak**.
   - 5 segundoren buruan deiak automatikoki erantzuteko, hautatu **5 s eta gero (Bluetootha/Aurikularrak soilik)** aukera **Erantzun automatikoki deiak** eremuan.
   - 5 segundoren buruan deiak automatikoki erantzuteari uzteko, hautatu **Inoiz ezErantzun automatikoki deiak** eremuan.
3. Sakatu tekla > **Gorde**.

## Kontaktu-alerta gehitu edo ezabatu

Kontaktu eta kontaktu talde jakinek deitzean edo mezuak bidaltzean jasoko dituzun dei-tonuak eta alertak pertsonalizatzea onartzen duten kontaktu alertak sor ditzakezu. Kontaktuaren dei edo mezu bat jasotzen duzunean, BlackBerry® smartphone-ak esleitutako dei-tonua edo alerta erabiltzen du, soinu profilean Isilik edo Bibrazioa soilik hautatu baduzu ere. Esleitutako dei-tonua edo alerta jakinaraztea nahi ez baduzu, Alerta guztiak desaktibatuta profila hauta dezakezu.

1. Hasierako pantailan, sakatu **Soinuen eta alerten profilak** ikonoa.
2. Sakatu **Aldatu soinuak eta alertak** > **Kontaktuentzako soinuak** > **Gehitu kontaktuen alerta**.
3. **Izena** eremuan, idatzi kontaktuen alertaren izena.
4. **Kontaktuak** eremuan, idatzi kontaktuen izena.
5. Sakatu kontaktu bat.
6. Aldatu deientzako eta mezuentzako dei-tonua eta alerta.
7. Sakatu tekla > **Gorde**.

Kontaktuen alerta bat kentzeko, nabarmendu ezabatu nahi duzun kontaktuen alerta bat. Sakatu tekla > **Ezabatu**.

## Audifono modua

BlackBerry® smartphone-aren modeloaren arabera, baliteke eginbide hau bateragarria ez izatea.

## Audifono moduari buruz

Audifono moduan, BlackBerry® telefonoaren seinale magnetikoa maila aproposera aldatzen du audifonoa duten entzumen-gailuek seinalea jaso dezaten.

## Aktibatu audifono modua

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **Audifono modua**.
3. Hautatu **Modua gaituta** eremuan **Audifonoa**.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

Audifonoaren adierazlea hasierako pantailaren goialdean agertzen da.

**Lotutako informazioa**

Audifono moduari buruz, 70

## TTY laguntza

Zure kablerik gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke ezaugarri hori ez onartzea.

## TTY laguntzari buruz

TTY laguntza aktibatzen duzunean eta BlackBerry® smartphone-a segunduko 45,45 biteko abiaduran dabilen TTY gailu batekin konektatzen denean, TTY gailuen deiak jaso eta horiei deitu diezaiekezu. Jasotako deiak TTY gailuan irakurtzeko moduko testu bihurtzeko diseinatu da telefonoa.

TTY gailua 2,5 milimetroko konektorearekin erabiltzeko diseinatu bada, moldagailu bat erabili beharko duzu TTY gailua telefonora konektatzeko. Research In Motion®-ek telefonoarekin erabiltzeko onetsi duen moldagailua eskuratu nahi baduzu, bisitatu www.shopblackberry.com helbidea.

## TTY laguntza aktibatu edo desaktibatu

1. Hasierako pantailan, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla > **Aukerak** > **TTY**.
3. Aldatu **TTY** eremua.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

TTY adierazlea agertuko da konexioen eremuan, hasierako pantailaren goialdean.

**Lotutako informazioa**

TTY laguntzari buruz, 70

Telefonoaren aukerak, 68

## Ahots bidezko markatzea

### Ahots-komandoak erabiliz ekintzak burutu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Ahots bidezko markatzea** ikonoa.
2. Bip soinuaren ondoren, esan ahots-komandoa.

**Lotutako informazioa**

Ezin dut deirik egin ahots komandoak erabiliz, 74

### Ahots-komando erabilgarriak

| Ahots-komandoa | Deskribapena |
|---|---|
| "Deitu <*kontaktuaren izena edo telefono zenbakia*>" | Esan ahots-komando hau edo dei bat egin. Egiteko hori Bluetooth® gaitutako gailu batekin egiteko, esaterako, autorako eskulibrekoarekin edo hari gabeko entzungailuekin, Bluetooth-a gaitutako gailu parekatuak ezaugarri hori onartu behar du eta Bluetooth-a teknologia aktibatu behar duzu. Ezin duzu larrialdi deirik egin ahots komandoak erabiliz. |
| "Deitu <*kontaktuaren izena*> <*telefono zenbaki mota*>" | Esan ahots-komando hau telefono zenbaki edo kontaktuen zerrendan dagoen kontaktu zehatz bati deitzeko. Adibidez, kontaktuak laneko telefono bat eta telefono mugikor bat baditu, "deitu*kontaktuaren izena*> lana" laneko zenbakira deitzeko. |
| "Deitu luzapenera <*luzapen zenbakia*>" | Esan ahots-komando hau luzapen bat markatzeko. Egiteko hori burutzeko, luzapenak markatzeko aukerak ezarri behar dituzu. Zure enpresako luzapenak bakarrik marka ditzakezu. |
| "Egiaztatu nire telefono-zenbakia" | BlackBerry® smartphone-arekin telefono anitz lotuta badituzu, esan ahots-komandoa telefono-zenbaki aktiboa egiaztatzeko. |
| "Egiaztatu seinalearen indarra" | Esan ahots-komando hori hari gabeko estaldura maila begiratzeko. |
| "Egiaztatu sarea" | Esan ahots-komando hau smartphone-a konektatuta dagoen hari gabeko sarea egiaztatzeko. |
| "Egiaztatu bateria" | Esan ahots-komando hori bateriaren karga maila begiratzeko. |
| "Errepikatu" | Esan ahots-komando hau azkeneko ahots gonbita errepikatzeko. |
| "Utzi" | Esan ahots-komando hau ahots markatze aplikazioa ixteko. |

**Lotutako informazioa**

Luzapenen aukerak ezarri, 64

# Idazketa erabilerraztasunerako aukerak

## Hitz-ordezkapeneko sarrerak aldatu edo ezabatu

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Klikatu **Idazketa eta sarrera** > **Hitz Ordezkapena**.
3. Nabarmendu hitz-ordezkapeneko sarrera bat.
4. Sakatu tekla.
    - Hitz-ordezkapeneko sarrera bat aldatzeko, sakatu **Editatu**. Aldatu sarrera. Sakatu tekla > **Gorde**.
    - Hitz-ordezkapaneko sarrera bat ezabatzeko, sakatu **Ezabatu**.

## Testu iragarle metodoa erabiliz testua idatzi

Testua idazten ari zarenean, egin hurrengo ekintzetako bat:

- Nabarmendutako iradokizuna hautatzeko eta beste hitz bat idazten hasteko, sakatu tekla teklatuan.
- Nabarmendutako iradokizuna hautatzeko eta idazten jarraitzeko, sakatu hitza.
- Iradokizunak alde batera uzteko, idazten jarraitu.

## Idazteko estiloa aldatu

Idazteko estilo bat hautatuta alda dezakezu nola ezagutuko duen BlackBerry® smartphone-ak zuk idatzitakoa.

1. Hasierako pantailan edo karpeta batean, sakatu **Aukerak** ikonoa.
2. Sakatu **Idazketa eta hizkuntza** > **Idazketa**.
3. Teklatuarentzako, egin hauetako bat:
    - Idazketa laguntza guztiak desaktibatzeko, hautatu **ZuzenaEstiloa** eremuan.
    - Idatzi ahala smartphone-ak hitzak iradokitzeko, hautatu **IgarleaEstiloa** eremuan.
4. Sakatu tekla > **Gorde**.

# Kalkulagailua

## Kalkulagailua erabili

Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, sakatu **Kalkulagailua** ikonoa.

- Kalkulagailuko tekla bat sakatzeko, sakatu dagokion tekla BlackBerry® telefonoaren teklatuan.

## Neurri bat bihurtu

1. Hasierako pantailan edo **Aplikazioak** karpetan, sakatu **Kalkulagailua** ikonoa.
2. Idatzi zenbaki bat.
3. Sakatu tekla.
   - Zenbakia inperialetik metrikora bihurtzeko, sakatu **Sistema metrikora**.
   - Zenbakia metrikotik inperialera bihurtzeko, sakatu **Sistema metrikotik**.
4. Sakatu bihurketa mota bat.

# Glosarioa

**ADN**
Abbreviated Dialing Number (Markatze zenbaki laburtua) zerbitzu publikoekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia da eta 911 edo 112 gisako itxura izan ohi du.

**APN**
access point name (sarbide puntuaren izena)

**BCC**
blind carbon copy (ezkutuko kopia)

**BlackBerry MDS**
BlackBerry® Mobile Data System (BlackBerry® datu mugikorren sistema)

**CC**
carbon copy (kopia)

**CDMA**
Code Division Multiple Access (Kode banaketarako sarbide anitza)

**ziurtagiria**
Ziurtagiriaren subjektuaren identitatea eta gako publikoa lotzen duten dokumentu digitalak dira ziurtagiriak. Ziurtagiri bakoitzak banaka gordetzen den gako pribatu bat dauka. Autoritate ziurtagiri-emaile batek sinatzen du ziurtagiria, benetakoa eta fidagarria dela zehazteko.

**CMIME**
Compressed Multipurpose Internet Mail Extensions (helburu anitzetarako Interneteko posta luzapen konprimituak)

**CRL**
Certificate Revocation List (errebokatutako ziurtagirien zerrenda)

**CRL zerbitzaria**
BlackBerry smartphone-ek CRL zerbitzaria erabiltzen dute ziurtagiri bati buruz argitaratutako azken errebokazio-egoerak egiaztatzeko. Autoritate ziurtagiri-emaileek CRL zerbitzarietan argitaratzen dituzte errebokatutako ziurtagirien zerrendak.

**DNS**
Domain Name System (domeinu izenaren sistema)

**DSA**
Digital Signature Algorithm (sinadura digitalaren algoritmoa)

**DSML**

Directory Service Markup Language (direktorioen zerbitzua markatzeko lengoaia)

**DSML gaitutako zerbitzaria**
BlackBerry smartphone-ek DSML gaitutako zerbitzaria erabiltzen dute ziurtagiriak bilatzeko eta deskargatzeko.

**EAP-FAST**
Extensible Authentication Protocol Flexible Authentication via Secure Tunneling (Autentifikazio protokolo luzagarria - Tunelatze seguruaren bidezko autentifikazio protokolo malgua)

**EAP-SIM**
Extensible Authentication Protocol Subscriber Identity Module (Autentifikazio protokolo luzagarria - Harpidedunaren identitate modulua)

**EAP-TLS**
Extensible Authentication Protocol Transport Layer Security (autentifikazio protokolo luzagarria - Garraio geruzaren segurtasuna)

**EAP-TTLS**
Extensible Authentication Protocol Tunneled Transport Layer Security (autentifikazio protokolo luzagarria - tunelatutako garraio geruzaren segurtasuna)

**ECC**
Elliptic Curve Cryptography (kurba eliptikoaren kriptografia)

**FDN**
Fixed Dialing Number (markatze finkoko zenbakia)

**FIPS**
Federal Information Processing Standards (informazio federala prozesatzeko legeak)

**GAN**
generic access network (sarbide orokorreko sarea)

**GPS**
Global Positioning System (kokapen sistema globala)

**GSM**
Global System for Mobile Communications® (mugikorreko komunikazioetarako sistema globala)

**HTTP**
Hypertext Transfer Protocol (hipertestua transferitzeko protokoloa)

**IMSI**
International Mobile Subscriber Identity (mugikorreko harpidedunen nazioarteko identitatea)

**IP**

Internet Protocol (Interneteko protokoloa)

**IT politika**
BlackBerry smartphone-ak, BlackBerry PlayBook™ tabletak, BlackBerry® Desktop Software eta BlackBerry® Web Desktop Manager aplikazioen segurtasun-eginbideak eta portaera kontrolatzen duten IT politika arau ugarik osatzen dute IT politika.

**LDAP**
Lightweight Directory Access Protocol (direktorioetarako sarbide protokolo arina)

**LDAP gaitutako zerbitzaria**
BlackBerry smartphone-ek LDAP gaitutako zerbitzariak erabiltzen dituzte ziurtagiria eta PGP® gakoak bilatu eta deskargatzeko.

**LED**
light-emitting diode (diodo argi-igorlea)

**biltegiratze masibo modua**
Biltegiratze masibo moduan, erabiltzaileak multimedia-txarteleko fitxategiak ordenagailura transferi ditzake eta alderantziz, BlackBerry smartphone-a ordenagailura konektatzen duenean.

**MCC**
mobile country code (mugikorreko herrialde kodea)

**MMS**
Multimedia Messaging Service (multimedia-mezularitza zerbitzua)

**MNC**
mobile network code (mugikorreko sarearen kodea)

**MTP**
Media Transfer Protocol (multimedia transferentzia protokoloa)

**NFC**
Neare Field Communication (Gertuko Eremu Komunikazioa)

**OCSP**
Online Certificate Status Protocol (lineako ziurtagiri-egoeraren protokoloa)

**PEAP**
Protected Extensible Authetication Protocol (babestutako autentifikazio protokolo luzagarria)

**ziurtagiri pertsonala**
Ziurtagiri autoritate-emaile batek erabiltzaile bati esleitzen dion ziurtagiria da ziurtagiri pertsonala.

**PGP gako pertsonala**

Erabiltzaile baten PGP gako publikoak eta PGP gako pribatuak osatzen dute PGP® gako pertsonala.

**PIN**
personal identification number (identifikazio zenbaki pertsonala)

**gako pribatua**
Ziurtagiri-objektuak soilik erabil dezakeen gakoa da gako pribatua. Gako pribatuari buruzko informazioa ez da publikoki banatzen. BlackBerry telefonoek gako pribatuak erabiltzen dituzte erabiltzaileek bidalitako mezu elektronikoak edo PIN mezuak sinatzeko eta erabiltzaileek jasotzen dituzten mezu elektronikoak desenkriptatzeko.

**gako publikoa**
Ziurtagiri objektua ez direnek erabil dezaketen gakoa da gako publikoa. BlackBerry telefonoek gako publikoak erabiltzen dituzte erabiltzaileek ziurtagiri-objektuetara bidalitako mezu elektronikoak edo PIN mezuak enkriptatzeko eta erabiltzaileek ziurtatutako objektuetatik jasotzen dituzten mezu elektronikoetako edo PIN mezuetako sinadurak egiaztatzeko.

**erroko ziurtagiria**
Norberak sinatutako ziurtagiria da erroko ziurtagiria eta ziurtagiri autoritate-emaile batena izan ohi da.

**RTSP**
Real Time Streaming Protocol (Zuzeneko erreprodukzio protokoloa)

**R-UIM**
Removable User Identity Module (erabiltzaile-nortasunaren modulo eramangarria)

**SAN**
subject alternative name (objektuaren ordezko izena)

**SDN**
Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak SIM txartelean aurrez kargatutako zenbakia da Service Dialing Number, SDN (zerbitzuaren markatze zenbakia), eta BlackBerry telefonoaren zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko erabil dezakezu, adibidez, uneko deien desbideratzeen egoera ikusteko.

**SHA**
Secure Hash Algorithm (Hash algoritmo segurua)

**SIM**
Subscriber Identity Module (Harpidedunaren identitate modulua)

**S/MIME**
Secure Multipurpose Internet Mail Extensions (helburu anitzetarako Interneteko posta luzapen seguruak)

**SMS**
Short Message Service (Mezu laburren zerbitzua)

**SMSC**
Short Message Service Center (Mezu laburren zerbitzu zentroa)

**SSID**
service set identifier (zerbitzu multzoaren identifikatzailea)

**SSL**
Secure Sockets Layer (Socket seguruen geruza)

**TCP**
Transmission Control Protocol (Transmisio kontrol protokoloa)

**TLS**
Transport Layer Security (garraio geruzaren segurtasuna)

**DES hirukoitza**
Triple Data Encryption Standard (Datu enkriptatze hirukoitzaren legea)

**TTY**
teletipoa

**VPN**
virtual private network (sare pribatu birtuala)

**WAN**
wide area network (hedadura zabaleko sarea)

**WAP**
Wireless Application Protocol (Hari gabeko aplikazio protokoloa)

**WEP**
Wired Equivalent Privacy (haridun pribatutasun baliokidea)

**WML**
Wireless Markup Language (Hari gabeko markatzeko lengoaia)

**WPA**
Wi-Fi Protected Access (babestutako Wi-Fi sarbidea)

**WTLS**
Wireless Transport Layer Security (Hari gabeko garraio geruzaren segurtasuna)

# Lege oharra

©2011 Research In Motion Limited. Eskubide guztiak erreserbatuta. BlackBerry®, RIM®, Research In Motion® eta hauei lotutako marka komertzial, izen eta logotipoen jabetza Research In Motion Limited-ek dauka eta Estatu Batuetan eta beste herrialdeetan ere erregistratuak daude eta erabiltzen dira..

da Apple Inc enpresaren marka. iTunes Bluetooth SIGen marka komertziala da. DataViz, Documents To Go, Sheet to Go, Slideshow to Go eta Word to Go DataViz, Inc. enpresaren markak dira. UMTS European Telecommunications Standard Institute institutuaren marka da. Gears eta Google Mail dira Google, Inc. enpresaren markak. GSM eta Global System for Mobile Communications GSM MOU Association enpresaren markak dira. IBM, Domino, Lotus, Lotus iNotes eta Lotus Notes International Business Machines Corporation enpresaren markak dira. JavaScript Oracle America, Inc. enpresaren marka da. Microsoft, Hotmail, Outlook, Windows Live eta Windows Media Microsoft Corporation enpresaren markak dira. Novell eta GroupWise Novell, Inc. enpresaren marka dira, PGP, PGP Desktop Professional eta PGP Universal Server dira PGP Corporation enpresaren markak dira.. RSA RSA RSA Security enpresaren marka da. vCard Internet Mail Consortium enpresaren marka da. Wi-Fi, Wi-Fi Protected Access, Wi-Fi Protected Setup eta WPA Wi-Fi Alliance enpresaren markak dira. Gainerako marka bakoitzak bere jabea du.

HanWang Technology Co., Ltd enpresak eskaintzen du eskuizkribua ezagutzeko tresna (c) 1998-2010. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Jabetza intelektuala, baita copyrightak ere, babeste aldera, Windows Media-ren eskubide digitalak kudeatzeko teknologia (WMDRM) erabiltzen dute edukiaren jabeek. WMDRM softwarea erabiltzen du gailu honek WMDRM-z babestutako edukira sartzeko. WMDRM softwareak edukia behar bezala babesten ez badu, eduki babestua erreproduzitu edo kopiatu ahal izateko, softwareak duen WMDRM erabiltzeko ahalmena ken diezaiokete edukien jabeak Microsoft-i. Errebokazioak ez dio babestu gabeko edukiari eragiten. Eduki babestuarentzako baimenak deskargatzen dituzunean, Microsoft-ek baimenekin errebokazio-zerrenda bat osatzea adosten duzu. Edukira sartu ahal izateko, WMDRM bertsioa berritzeko eska diezazukete jabeek. Bertsioa berritzeari uko eginez gero, ezingo duzu bertsio berria behar duten edukietara sartu.

BlackBerry® gailuaren softwarearen atal batzuk copyright © 2007-2008 The FreeType Project ( www.freetype.org) eskubideak dituzte. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Dokumentazio hau, hemen adierazitako dokumentazio guztia eta www.blackberry.com/go/docs gunean eskainitako edo eskuragarri dagoen dokumentazioa "DAGOEN BEZALA" eta "ESKURAGARRI DAGOEN MODUAN" eskaintzen Research In Motion Limited enpresaren eta enpresa afiliatuen ("RIM") baldintza, babes, berme edo deklaraziorik gabe eta RIMek ez erantzukizunik hartzen dokumentazio honetan egon daitezkeen errore edo utzikeria tipografiko, teknikoengatik edo zehaztasun faltagatik. RIM-en informazio konfidentziala edota merkatal sekretuak babesteko, baliteke dokumentazio honetan RIM teknologiaren hainbat aspektu termino orokorretan azalduta agertzea. RIM-ek dokumentazio honetan agertzen den informazioa noizbehinka aldatzeko eskubidea erreserbatzen du; hala ere, RIM-ek ez du konpromisorik hartzen aldaketa, eguneratze, hobekuntza edo gehitzeak dokumentazioari egiteko.

Baliteke dokumentazioan hirugarrenen informazio iturriak aipatzea, hardware edo software, produktuak edo zerbitzuak, osagai eta edukiak barne, copyright edota norbere webguneek babestuta (orokorrean "Hirugarren alderdien produktu eta zerbitzuak"). RIM-ek ez du kontrolatzen eta ez du erantzunkizunik Hirugarren alderdien produktu eta zerbitzuen gainean, euren eduki, zehaztasun, copyright, bateragarritasun, iraupen, fidagarritasun, legaltasun, dezentzia, esteka edo haiei lotutako edozein aspektu barne. Hirugarren alderdien produktu eta zerbitzuak aipatzea ez du esan nahi RIM-ek Hirugarren alderdien produktu eta zerbitzuak babesten edo laguntzen dituenik.

LEGEARI JARRAIKI, HURRENGOAK BAZTERTZEN DIRA: BALDINTZAK, LAGUNTZAK, BERMEAK, ESPRESUAK EDO EZ, MURRIZPENIK GABE, IRAUPENARI, EDOZEIN ERABILERARAKO EGOKITASUNARI, MERKATALGARRITASUNARI, KALITATEARI, EDO TITULUARI LOTUTAKOAK EDOTA MERKATAL ERABILERA BATEN LEGE EDO ARAU BATEN ONDORIOZKOAK, EDO DOKUMENTAZIO EDO ERABILERARI LOTUTAKOAK, EDOTA EDOZEIN SOFTWARE, HARDWARE EDO ZERBITZUREN IRAUPENARI LOTUTAKOAK EDOTA AIPATUTAKO HIRUGARREN ALDERDIEN PRODUKTU ETA ZERBITZUEN IRAUPENARI LOTUTAKOAK. BALITEKE ESTATU ETA PROBINTZIAREN ARABERAKOAK DIREN BESTELAKO ESKUBIDEAK ERE EGOTEA. BALITEKE HAINBAT JURISDIKZIOTAN BERME ETA BALDINTZAK BAZTERTZEA EDO MURRIZTEA BAIMENDUTA EZ EGOTEA. LEGEARI JARRAIKI, DOKUMENTAZIOARI LOTUTAKO BERME EDO BALDINTZAK GOIAN ESANDAKOAREN ARABERA EZIN DIRA BAZTERTU, BAINA MURRIZTU DAITEZKE ETA LAROGEITA HAMAR (90) EGUNEKO EPEA IZANGO DUZU EROSKETAREN EGUNETIK AURRERA EDOZEIN KEXA AURKEZTEKO.

ZURE JURISDIKZIOKO LEGEARI JARRAIKI, INONGO KASUTAN IZANGO DU RIM-EK ERANTZUNKIZUNIK DOKUMENTAZIO HONI LOTUTAKO KALTEEN GAINEAN, EDO BERE ERABILERARI LOTUTAKOEN GAINEAN. EZTA SOFTWARE, HARDWARE, ZERBITZU EDOTA HIRUGARREN ALDERDIEN PRODUKTU EDO ZERBITZUEI LOTUTAKO ERABILERA EDO IRAUPENARI LOTUTAKOEN GAINEAN ERE, MURRIZPENIK GABE ONDOKO KALTEEI DAGOKIONEAN: KALTE ZUZEN, ONDORIOZKO, ADIBIDEZKO, EZBEHARREKO, ZEHARKAKO, BEREZI EDO LARRIAK, ETEKIN GALERAK, AURREZPEN EZAK, NEGOZIO ETENAK, NEGOZIOARI LOTUTAKO INFORMAZIO GALERAK, NEGOZIO AUKEREN GALERAK, DATUEN GALERA EDO KORRUPZIOA, DATUAK BIDALTZEKO EDO JASOTZEKO EZINTASUNA, RIM-EN PRODUKTU EDO ZERBITZUEKIN BATERA ERABILITAKO APLIKAZIOEI LOTUTAKO ARAZOAK, ETENEN KOSTUAK, RIM-EN PRODUKTU EDO ZERBITZUEN ERABILERAREN GALERA, OZDEZKAPENEZKO ONDAREEN KOSTUAK, ESTALDURA, ERAIKUNTZA EDO ZERBITZU KOSTUAK, KAPITAL KOSTUAK EDO ANTZERAKO DIRUZKO GALERAK, KALTE HAIEK AURREIKUSITA ALA EZ IZANIK ERE, ETA RIM-EK HAIEI BURUZKO ABISUA EMAN BADU ERE.

ZURE JURISDIKZIOKO LEGEARI JARRAIKI, RIM-EK EZ DU INOLAKO ERANTZUNKIZUNIK IZANGO ZUREKIN, KONTRATUZ ZEIN BESTEREN BIDEZ, NEGLIGENTZIA ERANTZUNKIZUNA EDO ERANTZUNKIZUN LARRIA BARNE.

MURRIZPENAK ETA BAZTERTZEAK HAUEI APLIKATZEN ZAIZKIE: (A) EKINTZA, ESKAERA EDO EKINTZAREN ARRAZOIA KONTUTAN HARTU GABE BAINA EZ MURRIZTUTA KONTRATUAREN APURKETARA EDO BESTELAKO ERANTZUNKIZUN LEGALERA, OINARRIZKO APURKETA EDO AKORDIO HONEN AMAITZEA EDO BARNEKO EDOZEIN EDUKI MANTENDUKO DELARIK; ETA (B) RIM ETA HARI LOTUTAKO ENPRESAK, ONDORENGOAK, AGENTEAK ETA HORNITZAILEAK (AIREZKO ZERBITZU HORNITZAILEAK BARNE), RIM-EK BAIMENDUTAKO HORNITZAILEAK (AIREZKO ZERBITZU HORNITZAILEAK BARNE ERE BAI) ETA HAUEN GUZTIEN ZUZENDARI, LANGILE ETA LOTUTAKO LANGILE INDEPENDIENTEAK.

GOIAN EZARRITAKO MURRIZPEN ETA BAZTERTZEEZ GAIN, INONGO KASUTAN, RIM-EN EDO HAI LOTUTAKO ENPRESEN ZUZENDARI, LANGILE, AGENTE, HORNITZAILE EDO LANGILE INDEPENDIENTEEK EZ DUTE DOKUMENTAZIO HONI LOTUTAKO ERANTZUNKIZUNIK IZANGO.

Hirugarren alderdien produktu edo zerbitzuak instalatu edo erabili baino lehen edo harpidetza hartu baino lehen, zure erantzunkizuna izango da zure airezko zerbitzuen hornitzaileak bere funtzioak onartzen dituela egiaztatzea. Baliteke hornitzaile batzuk Internet arakatzaile funtzioa ez eskaintzea BlackBerry® Internet Service zerbitzuaren harpidetzarekin batera. Egiaztatu zure hornitzailearekin eskuragarritasuna, ibiltaritza itunak, zerbitzu planak eta funtzioak. Hirugarrenen produktuak eta zerbitzuak RIM produktu eta zerbitzuekin instalatzeak baliteke patente,

marka komertzial , copyright, edo bestelako lizentziak behar izatea hirugarrenen eskubideak ez urratzeko. Zu zara arduradun bakarra hirugarrenen produktu eta zerbitzuak erabiltzerakoan eta egiaztatzeko hirugarrenen lizentziak behar diren ala ez. Beharrezkoak badira zure erantzukizuna da hauek eskuratzea. Ezingo duzu Hirugarren alderdien produktu edo zerbitzurik instalatu beharrezko lizentziak eskuratu arte. RIM-en produktu eta zerbitzuekin eskaintzen diren hirugarren en zerbitzu eta produktuak zure onerako eskaintzen dira "DAUDEN BEZALA" eta ez dute RIM-en aldetik inolako babes, berme edo deklaraziorik eta RIM-ek ez du inolako erantzukizunik onartzen hauekiko. Hirugarren alderdien produktu eta zerbitzuak erabiltzerakoan, haiei lotutako lizentzia eta terminoak jarraitu beharko dituzu, hirugarren alderdiekin akordatutakoaren arabera, RIM-en termino edo lizentzien araberakoa baldin bada izan ezik.

Hemen adierazitako funtzio batzuek BlackBerry® Enterprise Server zerbitzariaren, BlackBerry® Desktop Softwarearen, eta/edo BlackBerry® Device Softwarearen gutxieneko bertsioak behar dituzte.

RIM-en produktu eta zerbitzuen erabilera terminoak RIM-i lotutako beste lizentzia edo akordio batean ezarrita egongo dira. DOKUMENTAZIO HONETAN EZ DAGO EDUKIRIK RIM-EN EDOZEIN PRODUKTU EDO ZERBITZUREN GAINEKO IDATZIZKO AKORDIO ETA BERMEEN ETA HAIEI LOTUTAKOEN EDUKIA ORDEZKATZEKO XEDEA DUENA.

QUALCOMM Incorporated enpresaren baimenarekin banatzen da, Estatu Batuetako patente horien edo/eta beste herrialdeetako antzerako patenteen pean :

| | | | |
|---|---|---|---|
| 5,490,165 | 5,504,773 | 5,506,865 | 5,511,073 |
| 5,228,054 | 5,535,239 | 5,267,261 | 5,544,196 |
| 5,568,483 | 5,337,338 | 5,600,754 | 5,414,796 |
| 5,657,420 | 5,416,797 | 5,659,569 | 5,710,784 |
| 5,778,338 | | | |

Copyright (c) 1999-2006, University of Illinois unibertsitateko Administrazio Kontseilua

Eskubide guztiak erreserbatuta.

Iperf errendimendu testa

Mark Gates

Ajay Tirumala

Jim Ferguson

Jon Dugan

Feng Qin

Kevin Gibbs

John Estabrook

National Laboratory for Applied Network Research

National Center for Supercomputing Applications

University of Illinois at Urbana-Champaign

www.ncsa.uiuc.edu

Baimena, doan, ematen zaio software honen (Iperf) kopia eta harekin lotutako dokumentazioa ("Softwarea") eskuratzen duen edonori. Softwarearekin honako hau egiteko eskubidea du, inongo mugarik gabe: erabiltzeko, kopiatzeko, aldatzeko, bateratzeko, argitaratzeko, azpilizentziatzeko eta/edo Softwarearen kopia saltzeko; eta Softwarea hornitzen zaionari gauza bera egiteko baimena ematen zaio, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baditu:

- Birbanatutako iturri kodean, goiko copyright oharra, baldintzen zerrenda eta honako ezespenak gorde behar dira:
- Birbanatze bitarretan, goian adierazitako copyright oharra, baldintzen zerrenda eta honako ezespenak kopiatu behar dira harekin batera banatutako dokumentazioan eta/edo beste materialetan.
- Ezingo dira University of Illinois, NCSA, eta bere kolaboratzaileen izenak erabili, Software honetatik eratorritako produktuak sustatzeko, aldez aurretik idatzitako baimenik gabe.

SOFTWAREA "DAGOEN DAGOENEAN" HORNITZEN DA, INONGO BERMERIK GABE, EZ ADIERAZITAKORIK EZ INPLIZITURIK, ETA BARNE HARTZEN DITUZTE, BAINA HORRETARA MUGATU GABE, EZ MERKATARITZA-BERMERIK EZTA NORBERAREN ERABILERARAKO ETA ARAU HAUSTEKO GAITASUN BERMERIK ERE. INOLAZ ERE EZ ZAIE COPYRIGHTDUNEI EDO KOLABORATZAILEEI ERREKLAMAZIORIK, KALTERIK EDO BESTE ERANTZUKIZUNIK ESKATUKO SOFTWAREA ERABILTZEAGATIK EDO SOFTWAREAREKIN IZANDAKO BESTELAKO HARREMANETIK SORTUTAKO KONTRATUAREN EKINTZENGATIK EDO BIDEGABEKERIENGATIK.

PCRE funtzioen liburutegia bat da eta bere egitekoa da Perl 5 hizkuntzatik ahalik eta gertuen dauden ohiko sintaxi- eta semantika-esamoldeak babestea.

Honako hau PCRE liburutegiaren JavaScriptCore-ren aldaera bat da. Liburutegia PCRE kopiaren kopia bat bezala hasi bazen ere, PCRE-ren hainbat funtzio kendu dira.

Copyright (c) 1997-2005 University of Cambridge. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Iturria eta kode bitarrak birbanatu eta erabil daitezke, aldatuta edo gabe, baldin eta honako baldintza hauek errespetatzen badira:

- Iturri-kodeak birbanatzean, goian adierazitako copyright-oharra, baldintzen zerrenda eta honako ezespena gorde behar dira.
- Birbanatze bitarretan, goian adierazitako copyright-oharra, baldintzen zerrenda eta honako ezespena kopiatu behar dira harekin batera banatutako dokumentazioan eta/edo beste materialetan.
- Ezingo dira University of Cambridge izena, Apple Inc. enpresaren izena eta beren kolaboraltzaileen izenak erabili, software honetatik eratorritako produktuak sustatzeko, aldez aurretik idatziko baimenik gabe.

COPYRIGHTDUNEK ETA KOLABORATZAILEEK "DAGOEN DAGOENEAN" HORNITZEN DUTE SOFTWAREA ETA BERME ZUZENEKO EDO INPLIZITU, BARNE HARTUTA, BAINA HORRETARA MUGATU GABE, MERKATARITZA-BERMEAK ETA NORBERE ERABILERARAKO GAITASUN BERMEAK EZETSITA DAUDE. COPYRIGHT JABEAK EDO LAGUNTZAILEAK EZ DIRA INOLAZ ERE INOLAKO ZUZENEKO, ZEHARKAKO, USTEKABEKO, BEREZI, EREDUZKO EDO ONDORIOZKO KALTEEN ERANTZULE IZANGO (BARNE HARTZEN DIRA, BAINA HORRETARA MUGATU GABE, ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK HORNITZEA EDO ORDEZKATZEA, ERABILERA, DATUAK EDO IRABAZIAK GALTZEA EDO NEGOZIOA ETETEA). kALTE HORIEK

SOFTWAREA ERABILI ETA, EDONOLA SORTU BADIRA ERE ETA EDOZEIN ERANTZUKIZUN TEORIA BADUTE ERE, KONTRATUZ, ZUZENEKO ERANTZUKIZUNEZ EDO BIDEGABEKI (BAITA ARDURAGABEKERIA EDO BESTE ZERBAITENGATIK), BAITA KALTE HORI GERTA DAITEKEELA OHARTARAZI BADA ERE.

BlackBerry® Bold™ 9930 smartphone-aren modelo zenbakia: RDU71CW edo RDU72CW

CE0168 (!) Gailu honek Wi-Fi® gaituta du eta murrizpenak ditu Europako herrialde batzuetan.

BlackBerry® Bold™ 9900 smartphone-aren modelo zenbakia: RDE71UW, RDE72UW, RDV71UW, RDV72UW, RDY71UW edo RDY72UW

CE0168 (!) Gailu honek Wi-Fi® gaituta du eta murrizpenak ditu Europako herrialde batzuetan.

Research In Motion Limited
295 Phillip Street
Waterloo, ON N2L 3W8
Kanada

Research In Motion UK Limited
Centrum House
36 Station Road
Egham, Surrey TW20 9LF
Erresuma Batua

Kanadan argitaratua